Jakintza-arloa: Filologia

*Jean de Paris*en pastorala

Eskuizkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak

Egilea: **IÑAKI MOZOS MUXIKA**

Urtea: 1995

Zuzendaria: JEAN HARITSCHELAR

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8428-256-0

Hitzaurrea

Euskal Herriko herri teatro zuberotarra, nolabaiteko ospea duen arren, ez da behar beste ikertua izan oraindik. Lan teorikorik badago ere, nabarmentzekoa da teatro zaharreko eskuizkribuen azterketa falta. Horretaz duela zenbait urte konturatuta, hasia nintzen zenbait lan egiten, eta horra non topatu nuen pastoral berezi hau: bai izkribuen azterketan zein teatrora moldarazi den nobela frantsesaren edizioen miaketan, argi gehiago egiteko aukera ematen zuen herri teatroaren ikerketan. Lanean zehar ikus daitekeen bezala, teatro-izkribuetan eta nobela frantsesaren edizioetan zentratu gara, eta, horretarako, lana aurkeztu arte gaiari buruz eginiko ikerketez baliatu naiz. Esan liteke, alde batera eta besteak beste, lan hau zenbait tesiren gaineko tesia dela, batez ere Haritschelhar, Garamendi eta Oyarçabalenak, eta Edith Wickersheimerrena nobela frantseserako. Horiek emaniko informazioen iragazian jorratu ditut aztergaiak.

Aipagarria da, bestalde, garai hartan informazio-iturriak ez zeudela oso eskuragarri; esaterako, *Jean de Parisen trageria*ren bost eskuizkribuak sakabanaturik zeuden, hainbat liburutegitan gordeak, eta haien kopia edo mikrofilma eskuratzeak lana eta denbora kendu zidaten. Egoera hura, 80etako hamarkada, preteknologikoa zela-edo esan liteke, azkenaldian izan diren aurreramenduez konparatuta. Eta hona paradoxa, giro horretan eginiko lana, orain, Tesiker proiektuari esker, interneten agertu.

Lan honen baliagarritasuna Junes Casenave Harigile pastoral idazleak adierazi zuen 1993an idatzi zidan gutunean, eta hitz egokiagoren bila alferrik ibili gabe, hona ekartzea erabaki dut bertako zenbait pasarte:

> *Lan ezinago baliosa egin düzü. Holatan gure antzerki zaharra hobekiago ezagütürik date, orozgain jakindunetzaz; ikusiko düe Euskal Herrian Ziberoko xokoan aspaldi danik antzerki berezi bat badagola. Lan baliosagoa, besteak ez bezala, euskaraz idatzi beitüzü.*
>
> *Testuak xeheki bardinkatü eta horien üthürriak Frantziako romanetan ikertü dütüzü. Metodo tinka, ihoiz baztertü gabe, erabilten düzü. Horrek zure lanari fidantxa oso bat lotzen deio.*
>
> *Bestalde -eta hau enetako garrantzitsua dago-, ontsa berezten düzü, behin beno haboroetan, antzerkiaren gaia eta kodea. Ez ditizügü behar nahasi bi gaüza horik. Zure erranek behar gintirokee Herelle-ren eta haren ondotik dabiltzan beste zenbaiten frantseskerietaz gogozkarazi. Antzerkia bat da, antzertia beste bat. (…)*
>
> *Dudarik gabe ildo berri herexakatü deiküzü.*

Irakurlearen esku da hitz horien egiaztatzea, baina dudarik ez dut ildo berri bat zabaldu dela, UEUren Tesiker proiektuari esker, eskola zaharreko pastoralen eredu den *Jean de Parisen trageria* interneten jarrita.

JEAN DE PARISEN TRAGERIA

Eskuizkribuen azterketa eta iturriaren moldamoduak

Iñaki Mozos Muxika

Sarrera. 3

Esker erakutsia. 9

1. *JEAN DE PARISEN TRAGERIA*. 9

1.1. Eskuzkribuak. 10

1.2. Emanaldiak. 22

1.3. Pastoralgile edo errejentak eta izkribu jabeak. 26

1.4. Izkribuen aurkezmodua. 36

1.4.1. Oinarri testua, aldaera, ohar eta osagarriak. 36

1.4.2. Pheredikiez. 37

1.4.3. Irakurgida. 44

1.5. Eskuzkribuetako hizkuntza. 47

1.5.1. "Style, versification, langue". 47

1.5.2. Zubereraren azpieuskalkien eredu: idazkeraren azterketa fonologikoa. 55

2. Pastoralaren iturburua: *Le roman de Jehan de Paris*.74

2.1. Bibliothèque bleue-aren testuingurua. 74

2.2. Romanak kontatzen digun istorioa eta bertako pertsonaiak. 84

2.2.1. Istorioa. 84

2.2.2. Pertsonaiak. 95

2.3. Romanaren zenbait ezaugarri. 100

2.4. Romanaren sorrera eta zabalkuntza. 103

2.5. Lau mendetako argitalpenak. 104

2.5.1. Edith Wickersheimer-en azterketa. 104

2.5.2. Gure ikerketa. 107

3. Iturriaren moldapena. 124

3.1. Nobelako ekintza narratiboaren taularatzea: 124

3.2. Pertsonaien deskripzio eta bilakaera. 143

3.3. Pertsonaiak eszena gainean. 155

4. Ondorioak. 159

5. Bibliografia. 167

6. *Jean de Parisen trageria*. 175

6.1. Oinarri testua: D izkribua (Ainciondo, Ainhize). 175

6.2. Aldaera, ohar eta bertso osagarriak. 373

6.3. Bertsoen kokapena A, B eta C izkribuetan. 623

6.4. Izkribuetako zenbait fotokopia. 627

6.4.1. San Telmoko izkribua: trageriaren hasiera (A1-15 bertsoak).... 628

6.4.2. Pierre D'Arhex-en izkribua..... 630

6.4.3. Bernard Etchebarne-ren izkribua..... 634

6.4.4. Pierre Ainciondo-ren izkribua..... 639

6.4.5. Jean Héguiaphal-en izkribua: trageriaren bukaera, sinadura, data, azken ohartxoa eta Azken Pheredikiaren hasiera. 643

Hitz aipagarrien aurkibidea 644

Sarrera.

Pastorala euskal herri teatroaren atal nagusia da. Baieztapen horren arrazoia Zuberoaz aparteko antzerki ale batzuk besterik ez izatean dago. Alegia, beste lurraldeetako gabeziak, Barrutia, Munibe eta, kontuan hartuta ere, bultzatzen gaitu trageria eta antzerki komiko zuberotarra euskaldunon herri teatro tradizionalaren erakusgarri garrantzitsuentzat jotzera.

Iraultza Frantsesaren aurretik, Europako hainbat herritan bezala, Antzinako Erregimenaren kultur eredua da nagusi Euskal Herriko adierazpen dramatikoan. Gerora ere, mozketaren bat edo beste tarteko, halaxe iraungo du, eta XIX. eta XX. mendeetan, erantsi eta moldatze desberdinek halako neurri batean itxuraldatuko dute.

Oraingoan aurkezten dugun pastoral edo trageria eskola zaharrari dagokio. Zehazkiago esanda, Peillenek (1992: 443-444) aipatutako XIX. mendeko berritasunen atarian ematen da ezagutzen dugun azken emanaldia, 1827 urte inguruko eskuzkribuari dagokiona. A, B eta C izkribuek eskola zahar hori ezaugarritzen dituzten elementuak piskanaka nola eransten diren erakusten digute, eta E izkribua eskola berria agertu baino mende erditsu bat lehenagokoa da.

Azterketan hasi aurretik hala ere, kontuan hartu behar dugu (eta Pernandoren egia botatzeko arriskua egon arren esan beharrekoa da) esku artean ditugun materialak errejenten eskuzkribuak direla; alegia, errepresentazioa antolatu eta zuzentzeko haiek erabiltzen zituzten idatzizko testuak, jokalariek, buruz eta doinu jakinaren bidez, ikas zitzaten eta emanaldian zehar lagungarri izan zitezen. Testu hauek beraz, ez dira irakurtzeko eginak, teatro gainean kantatuak izateko baizik. Horrela, esaterako, diferentzia handia gertatzen da antzezohar (didaskalia edo eszena-akotazio) xumeek erakutsitako hizkuntza eta kantatzeko testuarenaren artean. Mugimendu anitz egon daiteke estrofa arteko oharrek sinpleki adierazita eta, ondorioz, izkribuak mugimendu horiek kontuan hartuta irakurri behar dira. Horretaz ere Peillen jauna mintzatu zen antzerki idazleez ari zela: "teatroa ez da irakurtzeko egiña idatzi behar, baina entzutekoa, hirur partaide nagusiak gogoan: egile-jokulari-entzule" (1986: 14).

Eskola zaharreko tragerien ikerketa saio nagusia, aurrekoen ekarpena (Michel, Vinson, Léon...) bazterrera utzi gabe, Hérelle-ri zor diogu. Gerora Zuberoako herriak errepresentazioei eutsi zien hark egindako heriotze

iragarpena gezurtatuz, eta zenbait idazle, teatro zaletu edo ikerlari euskaldun hasi zen gaiaz arduratzen. Manuel Lekuonaren lan ezagunez gainera, aipatzekoak dira hemen Monzon eta Etchepare doktorearen artikuluak, K. Izagirreri eta P. Xarrittoni esker, hurrenez hurren, irakurri ahal izan ditugunak eta, labur edo gutxi ezagunak izanagatik, orduko emanaldien berri interesgarria eskaintzen digutenak (Lekuonarenak "Kardaberaz" bilduman ikus daitezke; Etxeparerenak idazlan guztien lehen tomoan, 317-325 orr.; eta Monzonenak *"Alderdi"* aldizkarian, 1951, 1953 eta 1960ko aleetan).

Horrekin guztiarekin batera, denboran aurrera joanda, azken hogei urteotan euskarazko teatro zaharraren azterketari, lehen ez bezala eta indarberrituki, heldu zaiola baieztatuz gero, zuzen gabiltzala frogatuko genuke gaiari buruz argitaratutakoa ikusita. Bertan, Pastoralari eta, orokorrean, Zuberoako antzerti folklorikoari leku zabala eskaintzen zaio, zabala, beti ere aurreko urteetako eskasiaz konparatuta.

Ikerketa edo estudio berriok bi norabide jakinetan eman direla uste dugu; izan ere, bi behar gorriren aurrean geunden gaia modu zehatz eta gaurkotu batez aztertzeko garaian: izkribuak ezagutaraztea eta Hérellek eta bere garaiko edo aurrekoek esandakoak berraztertu, kritikatu eta, halaxe egokituta, zuzentzea. Horien konkrezioa honela laburtuko genuke: sujet edo obra diferenteetako eskuzkribuak agertarazi eta teknika dramatikoaren osagarri tradizionalak mugatzea, sorreraren ingurua, bilakaera eta azken gauzapenak barne.

Koldo Mitxelenak bere HLVn aspaldiko aurreritziak gaitzetsirik egindako deiak, berandu arren, eman zuen fruitu koxkorrik eta Gabriel Arestik, aurreritzi haien arrazoitzean *haritik landa* ibili omen zen arren, argitaratze lanari heldu zion "Kaniko eta Belxitina" astolasterraren eskuzkribua emanez (hitzaurreko *ele samin* haiek San Martinen eta Mitxelenaren agerpenak eragin zituen J. Urkixoren alde, 1972an). Haren segidan etorri ziren astolasterren ale batzuen argitalpenak Peillen eta, batez ere, Urkizuren eskutik. Honen Euskal Antzertia-ren edizio berriak osatu eta biribildu egin zuen 1975ean ateratakoa, eta gerora ez da horretan geratu, besteak beste, Jaun Done Jakueren trageria eta astolasterren bilduma osoa eskaini baitizkigu. Maskaradaz aipagarri dira, batetik, F. Fourqueten azterketa sakona eta, bestetik, K. Fernandez de Larrinoaren tesia.

Trageriei dagokiela Oihartzabalek eskaini zigun edizio eredu nagusia Charlemagne-ri buruzko lanaz. Bertan, pastoraletan aurki ditzakegun hizkuntz gertaeren bilduma zabala ezezik, antzezmodua eta generoaren eboluzioa bera ere erakusten dizkigu, ordura arte esandako asko zuzenduz. Urte batzuk igaro

ondoren, Edipa eta Ste. Catherine pastoralak ere argitaratu dituzte G. Bilbaok eta A. Loidik hurrenez hurren.

Zuberoako idazle, teatrogile eta ikerlarien lana ere aipatu beharra dago, tradizioa oinarri, bertakoek mantentzen duten ikuskizunaz gain, ekarpen interesgarriak baitira Peillenen, Casenaveren eta Davanten artikuluak.

Azkenik, ikuskizunaren egiturazko analisia, eskaintzen dituen ikerbideak eta antzezmoduaren semiotika Arene Garamendi andreak landu ditu. Eskola berriko emanaldiak nolabait baztertzen dituen arren, antzinakoen azterketa eredu baliagarria eskaintzen digu, genero desberdinen ikerketan aurrerapauso nabarmen bat eginez.

Beraz, piskanaka eta urteak joan ahala, gaiaren zabalkunde urriak ahalbidetzen duenaren arabera, gehitzen ari zaizkigu Zuberoako teatro zaharrari eta, zehazkiago, Pastoralari buruzko argigarriak. Bide horretatik segitu nahi genuke Jean de Parisen azterketa honetaz, antzerki testu guztien edo, gutxienez, garrantzitsuenen edizioa urruntxo geratzen zaigula jakin arren. Izan ere, gaurko ikuspegitik hartuta trageria haiek errepikakor, astun eta aspergarrixe gertatzen zaizkigularik ere, eskuzkribuen arteko diferentzia apurrek informazio berria, haien ikerketa edo ezagupen osoago baterako baliagarri litekeen argi izpi erreparatu gabea eman liezagukete. Bereziki pastoral beraren izkribuak bai data, bai leku aldetik desberdinak direnean, Zuberoaren txikia eta geratzen zaizkigun aleen adina (bi mende besterik ez) kontuan harturik noski.

Mende hasieraren inguruan ateratako edizioak (Saint Julien, Vinsonek eta Stempf-ek egina; Hélène, Léon-ek; eta Roland, Saroïhandy-k), izkribu osoak eman ez eta, batzuetan, metodo zalantzazkoak agertzen zituzten arren, inportanteak izan ziren bide urratze moduan ez ezik, informazio berrien iturri bezala ere. Gerora, ordea, Oihartzabalen lanak markatuko zuen mugarria, izkribuak agertarazteko irizpideak eta haietatik zenbaterainoko etekina atera dezakegun erakusten baitigu.

Hala eta guztiz ere, aztertu gabeko aleak hainbeste izanda, komenigarria zen lan horretan segitzea eta, beharbada, arrazoi huts horrek justifika zezakeen hain eginkizun luze eta batzuetan korapilatsuan barrena abiatzea. Zergatik, ordea, pastoral zehatz hau, Jean de Paris? Gainbegiratu batean ondo sailkatua agertzen zen bai Léonen (1909: 89), bai Hérelleren lanetan (1928: 117): colportage-aren bidetik etorritako iturri narratibo ezaguna zuen, lau izkribu luzetxo (askoz beranduago agertu zen bosgarren labur eta berriagoaz gainera), itxuraz iturri bakar hari zeharo atxikiak, etab. Ematen zuen ez

zegoela bertan beste bilatu beharrekorik. Ordea, kasualitate huts batek bultzatu gintuen pastoral horren ikerketan hastera: Hérellek errepertorioan zioenez, eskuzkribuetako bat Donostiako Museo Etnografikoan, San Telmo esaten diogun horretan zegoen, P. Lhandek bere garaian bertan utzita. Euskal Herriko hegoaldean gordetzen zen pastoral izkribu bakarra zen, geuk genekiela behintzat. Gertu egokituta, bertaratu eta, bilatzea kostatu bazitzaigun ere, aurkitu eta kopiatu genuen.

Artean, oker ez bagaude laurogeien hasiera urteak ziren, ez genuen honelako azterketa egiteko asmo garbirik. Hala ere, San Telmoko hura Baionako Museoko izkribuaz parekatzean, gaiaren garapen antzerakoa eta testu berdintsuak izan arren, pertsonaiak ez ziren zehazki berberak gertatzen: bigarren mailako batzuk izen nahiz testu diferentez agertzen ziren. Baionakoak obraren herena besterik ez bazeukan ere (urratu eta orrigabetua baita), ekintza paretsukoak zirela garbi zegoen, baina horrek bazuen zati bat edo beste, San Telmokoak azaltzen ez zuena.

Pariseko Liburutegi Nazionalean dauden izkribuen fotokopia eskuratzeak luze jo zuen. Lortutakoan ordea, konturatu ginen pastoral osoago, generoaren kode dramatiko aldetik emanaldi jantzi eta aberatsagoak zirela. Alegia, Etxebarnerenak, C izendatu dugunak, pertsonai kopuru nahiz banaketan eta ekintzan zehar, San Telmoko Ak eta Baionako Bk baino, gaia eszenaratzeko eredu finkoago bat erakusten zuen. Hiru izkribuok garai bertsukoak izanik ere, ematen zuen errepresentaziorako baliabide desberdinak erabili zituztela errejentek. Hizkera aldetik ere, Cren kasuan bereziki, bazegoen aldea, dialektologiko hutsa izan arren. 1827ko data dakarren Aintziondorena (D izkribua) irakurritakoan erabaki genuen azterketari ekitea. Eszena joku berrien agerpenak, pertsonaia aukeratu eta gehituek, satanen parte hartze nahiz dantza saioek eta bestek itxura kodetuago, biribilagoa ematen zioten pastoralari, XVIII. mendeko izkribuek baino. Azkenik, urteak igarota, Hegiaphalena lortu genuen: 1894an datatua eta Ctik eginiko moldatze laburra zen.

Soma zitekeen, hortaz, obra honen izkribuen arabera, generoaren bilakaera, aberaste progresibo moduko bat, beti ere, oinarrizko istorioaren garapena gehiegi aldatu gabe azaldua. Azkena zen eredu horri kontra egiten zion bakarra, seguru aski garai berriek eragindako ikuskizunaren laburtzea zela eta.

Bestalde, pastoral hau eratortzen deneko *Le roman de Jehan de Paris* delakoa luze eta zabal aztertu zuen Edith Wickersheimer andreak 1925eko doktore tesian ez ezik, 1923ko edizio kritikoan ere. Bertan kontatzen ziren gertaerak ordea, ez ziren guzti-guztiak eta zeudenean zeudela pastoraleratu.

Hori ikusita, interesgarri iruditu zitzaigun gertaera horiek izkribuetan barrena arakatzea; izan ere, pastoralgile edo errejentek batzuk aukeratuko zituzten, beste batzuk alde batera utzi eta aukeratutakoak modu jakinean moldatu, teatro itxuran eman ahal izateko.

Beraz, ikerketa egoki samar baterako materialak eta gaia bagenituen horrenbestez. Batetik, pastoral zaharren argitaratze lanean aurreratu, bost izkribu horien azterketaz. Bestetik, herri teatroko tradizio antzinako baten gauzapena pastoral jakin horretan ikuskatu, izkribuok harrapatzen dituzten bi mende eskaxetan agertu zituen garapen ezaugarriak eta aldakuntzak markatuz. Iturri narratiboari buruzko informazio zehatzak lagunduko zigun hari argumentalaren finkatze gradua ezartzen, behialako pastoralgileen jokabideak eta ekarpenak argiago gera zitezen, bai errepresentazio moduetan, bai eszena joku nahiz testu gehikuntzan.

Nola ekin, ordea, egiteko korapilatsu horretan? Izkribuen azterketa zen ezinbesteko lehen urratsa. Ordurako (laurogeien azken urteetan oraingoan) bagenituen bi zaharrenak (A eta B) makinaz joak, zeudenean zeudela aldatuak. Beste biak ere kopia zitezkeen; baina, ez al zen lan antzua izango, antzerki bera, istorio berbera azken batean, lau bider errepikatzea? Lehenago jardundako ikertzaileen jokabidea aztertu behar zen erantzun egoki baten bila. Vinson, Léon eta Saroïhandy-ren edizioez baliatzea komeni zen, baina antzerki testu osoak emanez. Bestalde, Ihauterietako pastoralak argitaratzean erabilitako prozedura ez zen honetarako egokia: obra horiek erakutsi eta zabaltzea beste helbururik ez zuen lan horrek, festa horiei buruzko azterketa baten inguruan kokatuta eta testuak ortografia batuan emanda (Mozos, 1986).

Hori guztia ikusita, "Charlemagne"ren eredua zen, zalantzarik gabe, nagusi. Hala ere, gure kasuan bost ziren izkribuak, eta azterketaren helbururako ez zitzaigun oso lagungarria izango, izkribuen arteko aldaerak agertarazita ere, han bezalako iruzkin linguistiko sakon eta aberatsez hornituriko edizio kritikoa egitea. Horrek, bestalde, ez zigun argi berri handirik emango aukeratutako pastorala kontuan hartuta: iturria bakar eta ezaguna zen eta izkribuetako hizkerak ez zuen, gehien batean, aurreko ikerketetan agertu gabekorik azaltzen.

Beste bide batetik abiatzea erabaki genuen eta, izkribuak aldatu eta gero, azterketa fonologiko bana burutu genuen, transkripzioak erakutsitako zertzeladak aipatuz, azpieuskalkien arteko diferentziak eta bakoitzaren ezaugarriak argitzeko. Gero, izkribu osoenaren araberako testu aurkezpena egin genuen eta ohar saila hari erantsi, non errakuntzei, zati ulergaitzei, hiztegiari eta besteri buruzko zenbait argibidez gainera, gainontzeko izkribuetako bertso osagarriak ere azaldu genituen.

Azken batean, materialak gertatu eta egokitu lanaren mamia ahalik eta hoberen erakusteko moduan: Jean de Paris pastoral honetan Zuberoako antzerti folklorikoaren jardunbide tradizionala nola gauzatu zen aztertu, gertakari esanguratsuenak mugatu eta ezagutzen ditugun eboluzio zedarrietan ezartzea zen xede nagusia; izan ere, eskola zaharreko tragerien antzezmoduaren ezaugarriak finkatu samar baitzeuden aipatu ditugun aurreko beste ikerketetan. Obra zehatz honetan nola ematen ziren ikusi, pastoralgileek egindako aukerak eta aldakuntzak agerian jarri besterik ez zen egin behar.

Honela banatu ditugu azterketaren urratsak:

*** Lehenengoan lau izkribuen berri ematen da. 1.5.2. atalean ikus daitekeenez, zubereraren hizkera, azpieuskalki edo aldaera dialektologiko desberdinak ageri dituzte. Hor azaltzen diren etsenpluen zenbakitzea izkribu bakoitzari dagozkion bertsoena da, eta hauen kokapena 6.3. atalean ematen dugu. Pastoralaren testuaren irakurgida 1.4.3. atalean aurkeztu eta, bertan, errepresentazioa bost partetan zatitu dugu. Partekatze hori *roman*aren argumentuan, bertako istorioaren azalpenean erabili dugun berbera da (2.2.1. atala). Testuen aurkezpen modua, 1.4. atalean adierazi eta 6.ean agertzen denez, Ainciondoren D izkribuan oinarritzen da.**

*** Bigarrenean pastoralaren iturria aurkezten dugu, bi gai nagusi kontuan hartuz: *Bibliothèque bleue*aren testuingurua eta *roman*aren zabalkundea. Azken honetan Wickersheimer andrearen lanez eta iturriaren hainbat edizioz baliatu gara. Horrek guztiak bide eman digu *roman*ak lau mendetan zehar izandako gorabeherak azaleratzeko, errejentek teatrora moldatu zuten istorioa ahalik eta zehatzen argitzeko asmoz.**

*** Hirugarrenean errejentek egindako moldapena deskribatzen saiatu gara, ekintza narratiboaren antzerkiratzea eta pertsonai aukerak, izkributik izkribura apur bat desberdin gertatzen direnak, aztertuz.**

*** Eta, azkenean, ondorioen azalpena eta testuen aurkezpena eman ditugu. Aldatzaileek idatzitako testu orijinaletara jotzeko interesa izanez gero, 6.1. atalean ematen dugu oinarrizko testuaren pajinazioa, eta beste hiru izkribuei dagokiena 6.3.enean. Izkribuok, gordetzen diren liburutegietan edo, agian eskuragarriago, Gasteizko Filologi Fakultateko Koldo Mitxelena liburutegiaren mikrofilmetan kontsulta daitezke.**

Esker erakutsia.

Gogotik eskertu nahi dut, lan honetan zehar hauek guztiek eskainitako harrera eta laguntza:

J. Haritschelhar, P. Urkizu, J. Casenave, J. M. Lekuona, Tx. Peillen, J.-B. Orpustan eta G. Bilbao, gaiaren azterketan gidatu eta zalantzak argitzeagatik.

Eusko Jaurlaritzako Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza, 1991n emandako diru sariagatik.

Elhuyar-eko P. Lizaso, A. Gurrutxaga, T. Barrenetxea; Irale-ko lankideak, P. Aizpitarte eta J. K. Hernandez bereziki; eta X. Artola, informatika kontuan aholku emaile ezin egokiagoak.

Eta, azken orduan, ixil-ixilik izan ez bada ere, Paloma de Casso eta Martin andre-semeak, lan honetan, hasi eta burutu, bidelagun izan ditudanak.

1. JEAN DE PARISEN TRAGERIA.

1.1. Eskuzkribuak.

Bost dira gaurregun esku artean dauzkagun Jean de Paris pastoralaren eskuzkribuak: A izkribua, San Telmo Museokoa; B izkribua, Arhexena; C izkribua, Etchebarnerena; D izkribua Ainciondorena eta E izkribua, Jean Héguiaphalena, behin lana eginda zegoela agertu baitzen, gerora erantsia. Hona hemen horien deskripzioa, Hérellek egindako deskripzioak gidari hartuta eta gure azterketaren emaitzak gaineratuz.

-Pierre d'Arhexena:

Izkribu hau Baionako Euskal Museoan dugu 19.a bezala zenbakitua eta Hérellek bere errepertorioan ematen digun deskripzioa hauxe da:

> **Cahier sans couverture; papier vergé, 250 sur 190 mm.; 16 feuillets à deux colonnes. Incomplet de plusieurs feuillets au commencement et dans le corps du volume. Ex-libris daté: Pierre d'Arhex, 1760. XVIIIème siècle.**

Ez da hori ordea, izkribu honetaz hark egindako iruzkin edo deskripzio bakarra. Pastoralei buruz berak bildutako zenbait dokumentu eta ohar multzoan irakur dezakegunez (1917, 111 zenb. 23 art.) Campan bildumaren barruan zegoen izkribu hau, bertakoen artean 15.a bezala zenbakitua eta honela ikusi zuen:

> **Manuscrit incomplet et mutilé du commencement, beaucoup de feuillets détachés, complet à la fin. Cahier sans couverture. Papier vergé (...) bonne qualité et bien conservé. 250 X 190 mm. 16 feuillets subsistants (au début quelqu'un). Beaucoup on été lacérés dans l'intérieur du cahier, et il ne reste que des débris. Partout écrite sur deux colonnes, et partout en quatrains. Lignes d'encre qui divisent les deux**

> **colonnes et qui sèparent les versets les uns des les autres, etc. Ecriture variable: par endroits trés nette; ailleurs embrouillé, semble être de plusieurs mains. Quelques versets raturés. "Minca" ou "Ma", en beaucoup d'endroits, sinon partout. A l'avant dernier feuillet recto, le "dernier sermon". Au même feuillet verso: "54 pots de vin à X s. moins six liards". Plus bas, ces noms: "Joseph Goudom, Joseph Goudom d'Arette". Au dernier feuillet recto, une liste de 20 personnages avec les chiffres des versets dits par chacune d'eux (peu lisible). Au bas de la page: "A Larrau, le 25 de juin 1760, il a esté joué la prèsente pastouralle. Fait la prèsente copie par moy Pierre D'Arhex, cordonnier". Milieu du XVIIIème s.**

Aipatu dugun Campan bilduma aztertzen ari dela (115. zenb. 53 or.), Hérellek beste zenbait xehetasun aipatzen ditu:

> **Même pièce que celle dont j'ai dèja des mss. Il manque le prologue.**

Eta generoari buruzko zenbait galdera zalantzakor egin ere bai:

> **Mystère? Vie? Histoire? Pastorale? Tragédie?**

Bere informatzaile zuen Léopold Irigaray-ren irazkintxoak amaitzen du izkribuari buruzko ohar saila:

> **Immédiatement avant l'épilogue, un cantique chanté à genoux. 2ème verset de l'épilogue (Hérellerendako itzulia): Mes camarades m'ont délégué pour remercier toute la compagnie, parce que vous êtes venus ici, aujourd'hui voir cette pastorale. Dernier verset: et avec ceci finit notre tragédie.**

Deskripzio hau, Hérellek eskeinitako datuok alegia, osatu beharra dago. Folio solteetako batean kolumna bakarreko bost bertso dauzkagu, seigarrena folio bazterrean behetik gora idatzia dutela, izkribuaren idazmodutik guztiz bestelako batean izkribatuta. Artxelen buruzagiaren hitzak dira, Jean de Parisen suitaren lagun edo mithilen nagusia. Parte hau

B izkribu den honen azken zatian agertzen zaigu, Infantaren saioak eta Artxelen sesioak (D 675 b.) osatzen duten horretxen barruan. Saio labur hauek ez dira A izkribuan agertuko. C eta D izkribuetan ere ez; hala ere azken bi hauetan artxelak lau dira, obraren traman harilduagoak: bertso gutxi, beti ere jokaera eta testu elaboratuagoz, baina bi saiotxo horiek gabe.

Izkribua bestalde, hostogabetua dago alde askotan, jostura galdua eta horregatik esan genezake testu zatiak ditugula, libreto osoa baino. 363 bertso aldatu ditugu eta D izkribuarekin ematen ditugu beren aldaerak testuan zehar tartekatuak, eta azken zatia, beste izkribuetan agertzen ez dena alegia, aparte, esandako D izkribuko 675 bertsoaren osagarri bezala.

Hala ere, bukaera aldean agertzen den pertsonai zerrendari erreparatuz gero, izkribuak izango zuen bertso kopuru erreala atera genezake. Hérellek dioen moduan hogei pertsonaia agertzen dira, baina artxelak batera hartuta daude zerrenda horretan: *4 archela.* Beraz, pertsonaiak 23 izango ziren, beti ere Borboneko dukeak jokatzen duen pajearena barruan sartuta eta diferentetzat jo gabe, D izkribuko zerrendan bezala. Jokalariek kantatuko zituzten bertsoak 765 izango ziren, zerrenda horren arabera. Bertan lehen pheredikiak zituzkeenak ere zehazten dira: *le premier p 63;* ez ordea, azken pheredikikoak. Hauek hamahiru izanik, guztira 841 bertso ateratzen dira. Dena den, Hérellek irakurgaitz samartzat jo zuen pertsonai zerrenda hau. Gure ustetan ez da horrela, nahiz eta arazoak izan Espainako erregeren eta baruaren bertso kopuruak zehazteko orduan. Badirudi 101 eta 13 jartzen duela.

Bertsoak, gutxi batzuk bi lerrotan emanak (Jean de Paris eta Anglaterreko erregeren arteko elkarrizketetan), marrez mugatuta agertzen dira; baina antzezoharretan mugalerro edo marra gehiago dago eta, batzuetan, kebratu edo ondulatu antzekoak dira. *Sonu*, musika oharra agertzen da lerro horien goiko aldean. Pastoralgileek, beharbada, honela markatuko zuten teatro gaineko mugimendua musikak lagundua.

Idazkera aldakorra da eta ematen du bi idazmota aurkezten duela, azken zatian nabaritzen den diferentzia kontuan hartzen badugu. Aipagarria da beste izkribuek erabiltzen ez duten moduan *Bara* antzezoharra agertzea. Pertsonaia bakoitzaren berbaldia bukatzean jartzen du, bi esanahi hartuz: jokalaria isiltzea eta gelditzea. Beste izkribuetan pastoralen ohizko erabilpenaren arabera, antzezohar hau *Batailla* delakoaren antonimoa litzateke, agerraldi konkretu horretan besterik ez agertuz.

Zamaririk aipatzen ez duen izkribu bakarra da pastoral honetan eta ez dirudi emanaldi askotarako erabilia izango zenik, izan ere ez dago kasu horretan beharko litzatekeen zuzentze edo moldatze ohar saila, C eta A izkribuetan gertatzen den bezala.

Hérellek egiten duen izkribu amaieraren deskripzioa zuzena da orokorrean. Azken pheredikiaren ondoren emanaldian zehar banatu den ardoaren kontuak datoz (ikus D izkribuko A. Ph. 17 bertso-oharrak) eta bertan diru hauek ditugu: *liard*, pezeta ehunena dena eta *s.* "sou", "sol" edo "sueldo" bezala ezagututako txanpona, pezetaren bost ehunenen balioaz. Dena den, pheredikia baino lehenagoko kantua belauniko emango zutenik ez da izkribuan zehazten. Horrekin batera, pertsonai zerrenda, data, lekua eta egilea azken folio rectoan daude, baina bertan ezkerraldeko zutabean lau bertsotako kantua dator (D944). Azkenik, amaierako folio honen versoan *Lavictoire* artxel buruzagiaren hitzak datoz, B3O6-311 bezala zenbakitu ditugunak.

Beste alde batetik eta bukatzeko, ez dugu, izkribu honetan, Patri Urkizuk (1984: 47) aipatu zuen Jean Bordatoren oharrik, ezta 1857ko ustezko antzezpenaren aztarrenik ere.

-Donostiako San Telmo Museokoa:

Informazio laburragoa ematen digu Hérellek izkribu honetaz. Batetik bere errepertorioan irakur dezakegun aipamentxoa:

> **Manuscrit donné en 1917 par le R. P. Lhande au Musée Ethnographique.**

Bestetik aipaturiko bere dokumentu eta ohar bilduman (111 zenb., 32 art.), donazio horren berri eman zuen "Le courrier de Bayonne"ko 1917 urteko maiatzaren 19ko albistea oinarri harturik:

> **Le R. P. Lhande a donné en mai 1917, à cette bibliothèque (du Musée Ethnographique de Saint Sébastien) un précieux manuscrit d'une pastorale souletine du 18ème siècle qui porte le titre de Jean de Paris, qui fut découverte dans la maison féodale de la famille Irigoyen par le curé actuel de Chéraute, il y a une vingtaine d'années.**

Izkribuaren azken orrialdean, 64.a zehazki, datuok egiaztatu eta neurri batean osatzen dituen aipamena dator, San Telmon donazioa jaso eta eskertu zen bileran idatzitakoa:

> **"Jean de paris en (sic) trageria"/Pastoral suletina Juan de Paris./Descubierta hace unos veinte/años en el desván de la/caseria solariega de los/Irigoyen en el pueblo de/Ossás-Suhare, en Zuberoa/ (Bajos Pirineos-Francia) encontrado por el/Señor abate Irigoyen actual/Párroco de Chéraute y quien/la regaló al R. P. Lhande./J. de G. / N° 2774 INV / M. M. Sn. Sn./4° SECCION/ ARCHIVO/Sesión 2 de Julio 1917./ DONANTE/ R. P. PIERRE LHANDE S. J./HERNANI/GRACIAS / N° 3770 = 10 de Julio 1917.**

Aipamen hauen arabera badirudi Hérellek ez zuela izkribu hau esku artean eduki eta ematen digun informazioa "Le courrier de Bayonne"ko albiste hartatik jasoa dela.

Izkribuaren orrietan ordea beste bi artikulu azaltzen dira, Museoko orduko idazkariak edo tartekatuta.

Bata Mourlane Michelenak idatzia da, Bilboko "La Tarde" egunkariko 1917ko maiatzaren 21eko alean agertua. Bertan pastoralen deskripzio xume bat ematen digu, garai hartan pil-pilean zegoen euskal antzerti berri baten beharraren harira, eta Hérelleren 1903ko "Les Pastorales Basques. Notice, Catalogue des manuscrits" liburutik jasotako datuez osatuta.

Bestea P. M. de Soraluce, orduko museo zuzendariak idatzia da, Donostiako "La Información" egunkarian, urte bereko abuztuan. Mourlane Michelenaren esanak abiapuntu moduan hartuta, Jean de Parisen izkribu honen berri ematen digu eta orain arte aipatu gabeko zenbait datu eman ere:

> **Los detalles bibliográficos de esta "Pastoral Vasca" son los siguientes, en síntesis:**
>
> **Está escrita en letra clara del XVIII en un cuaderno de papel fuerte de hilo, con sabor apergaminado. Hoy sólo**

conserva sesenta páginas, pues, por desgracia, han sido arrancadas totalmente varias y medio rotas otras.

¿Será, como señala Mourlane Michelena, que habrá algo de picaresco, muy apimentado por en medio?... (pues solían darse casos).

De todos modos, dicho vandalismo bibliográfico parece, y es ya antiguo.

Existen cual apéndices, entre hojas, cierto número de notas manuscritas (osorik da eskuz idatzia, zatitxo erantsiak dira horiek).

El tamaño es de folio menor, y el estado de conservación, bueno.

Esta pastoral "Jean de paris-en trageria" tendré mucho gusto en que la examinen y estudien Mourlane y Echegaray, tan entendidos en bibliografía vasca, cuando vengan a San Sebastián.

Deskripzio zehatz samarra den arren osatu beharko dugu:

Izkribu honen paperaren berri badugu, Koro Segurola euskaltzain urgazleari esker: hark ikertutakoaren arabera, papera Pierre Bonas papergileak egina da 1783an. Testua, seguruena, mendearen amaiera aldera idatziko zen.

64 orrialde dauzka aldatzaileak zenbakituak, baina 57tik 60rainokoak falta dira, erauzita nonbait. 53tik 56rainokoak arrunt urratuta azaltzen dira, bazterretako zenbait bertso edo bertso zati besterik azaltzen ez dutela. Falta diren zatiak hauek dira: trageriaren azken partea (anglesen kontrako bataila, Frantziarako itzulia eta Jeanen heriotza), azken pheredikia eta lehen pheredikiaren aurreko hogeitamabi bertsoak (85 bertso ditu aldatzailearen arabera eta geuk berrogeita hamahiru aldatu ditugu, 61-64 orrialdeetan daudenak alegia). Ez du pertsonai zerrendarik ematen.

Badirudi, noizean behin besterik agertzen ez den arren, pastoralgileak bertsoen kontua ere eramaten zuela (135. bertsoaren aldean, 217 zenbakia irakur daiteke eta 160an, 242a, adibide bi ematearren). Honek nolabaiteko kontraesanaren aurrean jartzen gaitu; izan ere, pastoralgileak edo aldatzaileak, bertsoen zenbaketa horren bidez, izkribua luzeagoa zela adierazten digun arren (larogei bat bertso gehiago, alegia), pastoralaren izenburuak garbi markatzen digu hasiera. Bertatik azkenera, geuk 683 bertso zenbakitu ditugu, pheredikirik gabe. Ez dugu zenbaketa haren adierazpenik, zeren izenburuaren aurretiko testurik ez da aurkitzen pastoral izkribuetan (normalean, zeren Baküsen izkribuan, esaterako, baditugu testua hasi baino lehenagoko eta amaitu eta geroko zatiak), eta bestalde, garbi asko zehazten baita hasiera bera. Pentsa genezake hala ere, C eta D izkribuetan azaltzen den hasierako zatia izatea (Grenada erregea, Espainakoaren kontra altxatzen denekoa); baina ez du ematen posible denik, A izkribu honetan, ezta Bn ere, ez baita Grenada, Thakou edo Net errege infidelik aipatzen.

Bi esku desberdin somatzen dira izkribu honen bertsoetan zehar. Lehenengoak testu ia osoa hartzen du eta zenbait zuzenketa egin zituen, lerro errepikatuak tatxatu, letraren bat edo beste zuzendu etab. Bigarrenak badirudi testua beste emanaldi baterako erabili zuela. Letra antzerakoa izan arren, testu oinarria osatu eta batzuetan zuzendu ere egiten du. Tinta desberdina erabili zuen, gorrixka edo, oinarrizko testua baino askoz koloregabetuagoa. Zamarien erabilera azken honetan askoz ugariagoa izan zela esan daiteke, bestean behin edo beste ez baitira aipatzen, antzezoharretan garbi ikusten denez. Bigarren horri dagozkio Soralucek aipatzen dituen orri tarteko eraskinak. Gaineratutako bertsoak dira, orrietan listariz josiak; zegokien lekuan ezarri ditugu eta zenbaki hauek daramate: 393-398, 448-451, 512-512' eta 54. folio urratuan josiriko paper zatian dagoen bakarra.

Musikaren antzezoharra (*Sonu*), taula gaineko mugimenduak eta sartu-erretiratzeak laguntzekoa, ugaritan agertzen da, batez ere, zamariak bezala, bigarren emanaldirako letraz. Bestalde, antzezohar hau lerro berezi batez lagundua dator batzuetan, dagokion eszena mugimendua harturik, B izkribuan gertatzen den bezala alegia.

Bertso bi dago gainean marratu batzuk dituztenak eta 75 eta 76 zenbakipean aldatu ditugunak, baina ez du ematen beste emanaldiren baten zantzu direnik (Oihartzabal, 1988, 715), lehenengoa ia hitzez hitz errepikatzen baita pixkat aurrerago, 79. bertsoan hain zuzen.

Ez dago aldatzaile edo pastoralgile izenik izkribu osoan, ezta ex-libris edo emanaldi datarik. Pertsonai zerrendarik ere ez.

Esandakoez gain ez dirudi izkribu hau beste inork aztertu zuenik. Aurkitu dugun aipamen bakarra hala ere Labayenena da (1965, 21-22) eta honela dio:

> **Y nos agrada señalar a nuestros lectores que la Biblioteca Municipal de San Sebastián guarda el texto de una pastoral. Se trata de una obrita titulada Juan de Paris y fue donada por el ilustre zuberotarra P. Lhande S. J. Por ese manuscrito, detalle curioso, lo mismo que en los libros de los escolares, hay inscripciones del que otrora fuera su dueño: "Au liburu ederra da ta untza iskribiturik: enekin egon da biziki. Olako liburuak ez die balio deusere eta nik ez dut sinisterik batere zertarako, zeren eta anima galerazten beit du. Ni nuzu Janus e, Jan Bordato, Musie Chabalet de Pagolle".**

Ez dugu honelakorik bat ere aurkitu izkribuan zehar. Urkizuk, bere zerrendan San Telmoko hau aipatzen ez duelarik (1984: 23), Baionako izkribuan balego bezala kopiatzen duen testu bera da, ortografi aldaketa batzuk gorabehera (ibid. 1984: 47). Badirudi biak oker dabiltzala eta seguruena da Hérellerengandik jasotako ohar batek nahasterazi dituela. Urkizuk Bordeleko Liburutegiko 19. izkribua, Baionako Euskal Museoko 19.az nahastuko zuen eta Labayen buruz edo arituko zen ohar hori ematean, zeren garbi azaltzen baitigu Hérellek (1923, 162):

> **BORDATO (Jean), dit "Monsieur CHABALET", de Pagolle, possédait vers 1815 un ms. de *Dorimène* (Bordeaux, n° 19), sur lequel il a noté "que c'était un beau livre, mais que ces sortes de livres ne valent rien, parce qu'ils font perdre l'âme". Il paraît avoir possédé aussi un ms. d'*Abraham* (collection Campan).**

Abraham **pastoralaren izkribuak gainbegiratuta, ez dugu antzekotasunik aurkitu idazkera aldetik gure honekin.** ***Dorimène*****-koan agertzen den oharraz alderatuta argi dago Bordato hori jabea zela, ez izkribuaren idazlea, eta San Telmokoaren idazmodutik oso urrun geratzen da bere letra.** ***Dorimène*****-ren testua, Bordeleko liburutegiko** ***Astyage*** **pastoralaren izkribuaren barruan agertzen da. Bere 107 orrialdean dago Bordatoren ohar edo ex-libris hori eta honela irakurri dugu:**

> ***hau da luburu edera/eta unxa esquiribaturiq/enequin egonda biciqui/halaco luburieq estie/balio deus ere eta/niq estut sinhesteriq/batere certaco hori/ceren eta arima/gal erasten beitu ninusu junes edo/jan bortato/Mousie chabalet/de pagolle***

Beraz, nahiz eta ez den inoiz ere baztertu behar, gerora galduriko San Telmoko izkribuaren orriren batetan testutxo hori Labayenek irakurri izana, Hérellek esandakoa besterik ez genuke onartu beharko, beste informazio bide seguruagorik azaltzen ez den bitartean.

-Bernard Etchebarnerena:

Pariseko Liburutegi Nazionalean gordea dugu izkribu hau, 213 zenbakipean. Hérellek Jean Hegiaphali 1911. urtean erosi eta aipatu liburutegian utzi zuen. Bere errepertorioko deskribapen laburra hau da:

> **Demi-reliure en parchemin; papier vergé, 310 sur 210 mm.; 32 feuillets à 2 colonnes. Complet; environ 900 versets. Ex-libris datés: Pierre Lahore, 1777; Etchebarne, 1783. Le papier porte dans le filigrane la date de 1757.**

Ez dugu orrietan zehar filigranaren inongo aztarnarik aurkitu.

Izkribu ulergarria da, papera urraturik dagoeneko 471, 874, 875, 876 eta 882 bertsoak, eta lehen kopiari gaineratutako zuzentze eta aldaketek eragindako zati ilun apurrak kenduta. Hala ere, letra eredu oso nahasi eta axolagabea da, errore anitzez eta pronuntziazio bitxia emango zuen. Ondo zaindua dago eta arreta handiz restauratua. Ez du pertsonai zerrendarik eransten.

Aldatu ditugun bertsoen kopurua 996koa da guztira. Pheredikiak D izkribuan dauden moduan ditu jarriak, lehena pastoral hasieran eta azkena amaieran. Datu arrarotzat jo genezake hori; izan ere, A eta seguruen B izkribuetan gertatuko zen bezala (falta zaizkien orrietan egongo baitziren), prediku edo sermoi horiek, pastoraletatik aparteko zerbait bezala jartzen baitzituzten errejent edo aldatzaileek, antzeztu beharreko testuaren atzetik eskuarki.

Izkribuak bi zenbaketa diferente ditu, bata orri edo foliokakoa, berri samarra eta, itxura denez, Hérellek berak egina; bestea orrialdekakoa, zaharrago eta Etxebarnek berak nahiz aldatzaileren batek egina. Zenbaketa honetan orrialde hauek falta dira: 48, 49, 62 eta 63. Foliokako zenbaketa ordea (aurrekoa kontuan hartu gabe egina nonbait) jarraian doa 32.eraino.

Lehen folio rectoan honako ohar hau irakurtzen da:

> ***Monsieur Etçhebarne jaÿ Bien du regret/parçe quil Met Dechire votre CaÿÉ avec/Le sieur CarricirÿÉ* (sic) *Bordet dallos Mais Moy/jaÿ né pas Copié/je suis tout avous pierre Lahore Regend/A EÿarçheÉn hameaus de Barcus/Le 19me octobre 1777.***

Folio beraren versoan hasten da *Lehen prologoua*, lehen lau orrialdeak hartzen dituena. 5. orrialdean *grenade gin Camariz* antzezoharraz hasten da pastoralaren emanaldia bera. 434. bertsoa paper zati erantsi batean dago jarria, 34 orrialdean; eta 55 orrialdeko 758.a ere bai. Azken honen atzekaldean zera irakurtzen da: *de maider de benthaberry/Conque de froment Le jour/1783 Etchebarne.* Bukaera aldera izkribua foliogabetua izan dela dirudi. 62 eta 63 orrialdeei zegokiekeen foliorik ez dago eta testua 61ean mozten da. Jean de Parisen hiltzea eta azken kantua 31. folioan (64 eta 65 orr.) ematen dira. Hondarreko folioan bataila erronka baten zatia (891-896 bb.) rectoan, eta *asquen peredikia* versoan, orrialdeon zenbaketa ilun gertatzen delarik.

Testuan bi eskuren aztarnak soma daitezke zuzenketa eta tatxatu ugarirekin. Esan genezake beraz emanaldi bat baino gehiagorako izan dela erabilia, Lahorek nahiz Karrikirik zuzenduak agian.

Bestalde, bai ohartxo horretan, bai testuak aurkezten duen itxura maneiatu eta higatuan, bete-betean dagokio Peillenek pastoral izkribuei buruz bere garaian esandakoa (1981: 839-840):

> **Noski, gure antzerki xumeek ez dute XX menderarte argitaratzeko faborerik izan eta tintaren ahultzeak, paperaren txarrak, zizka eta pipien lanak, arratoinen haginak lagun, batzu galdu dira, asko berriro kopiatu. Testuen kopiatzea ulertzeko, jakin behar da Zuberoan pastoralek arrakasta handia izan dutela, "saltzen zirela", "prestatzen zirela".**

Izkribu hau ez du Urkizuk aipatzen bere zerrendan (1984, 23).

Horretaz gainera, Leizaolak (1978, 302-305) euskal antzerkiaren umorearen erakuskari bezala aurkezten digu pastoral hau, izkribu hau hain juxtu oinarri hartuta. Bere iruzkinaren osagarri bezala 372, 373 eta 374 bertsoak ematen ditu, ortografia arrunt aldaturik.

-Ainciondorena:

Pariseko Liburutegi Nazionaleko 146 zenbakiduna da, letra argi eta besteetan baino txikiagoz idatzia. Gainontzekoekin egin bezala, hona hemen Hérelleren errepertorioko deskripzio laburra:

> **Demi reliure en parchemin; papier vergé, 350 sur 210 mm. 65 pages à deux colonnes. Complet 1090 versets comptés par le copiste. Copie datée de 1827.**

Geure aldetik ordea, 1043 bertso aldatu ditugu. Ez dugu orduko kopiatzailearen zenbaketa osorik bertan aurkitu; baina bai, zenbait orrialdetako zutabeen azpian, horraino idatzitakoen kopurua.

Lehen folio versoan agertzen den pertsonai zerrendan, gainkaldeko urratua gorabehera, bakoitzari dagokion bertso kopurua ematen digu Ainciondok. Batuketa ordea egin gabe du. Horren arabera 1064 bertso ziratekeen; baina, esan bezala, 1043 dira guztira. Ainciondok ez ditu zuzen zenbatzen (azken pheredikiaren amaieran, exenplu baterako, *18 Vers* jartzen du, zehatz kontatuta 17 direnean).

Lehen folio rectoan letra larriz irakur daiteke *Jn Bte Saffores*, pastoralgile ezagunaren anaiaren ex-librisa (Hérelle, 1923, 163). Ezkerraldean, erditik behera, Roland edo Charlemagne pastoralaren pertsonai zerrenda irakurgaitza agertzen da: *Er., Gaida, Beroua, Bot., Oger, Rolan, fierrabas.* Jarraian, itxuraz beste letra berriago batez, *tierri, Ganelon, oliveros, oger, rolan, ch.* Guzti hori tatxatu eta zikinez betea. Erdikaldean garbi samar irakur daitekeena: *Tragedie du jean de Paris/Fils du Roy de france/Traduit en Langue Basque/Par Pierre/Ainciondo/Demeurant dans la/Commune D'ainhice/Canton de St Jn pd de port/Arrondisemant de/Mauleon.*

Bigarren foliotik aurrera hasten dira orrialde zenbakituak (1, 64 eta 65 berrikiago eta gorriz, Hérellek seguruena). Lehenengo orrialdean *Le premier prologue*. Laugarrenaren bukaeran *fin 81 Vers/ Faut il faire arribantcha*. Pertsonaien iriste ordena markatzen du bost taldetan, azkenean apaiza jarririk. 63 orrialdean *Le Dernier prologue de Jean de Paris*; orrialde bukaeran *fin de la tragerie/de Jean de Paris/Le Dernier prologue/En 18 Vers* (sic)*/Pierre Ainciondo*. 64ean beste pertsonai zerrenda bat, batetik hogeita hamabira zenbakituta daudela eta beste daturik gabe. Orrialde berean, behekalde eskubitara, trabes idatzirik eta idazkera berriagoz, korritu kalkulu irakurgaitz bat dago (*Sy 1'm pay fr. 45 d'yntèret pour 3 ans 5 mois...*), Pierre Çelhay-k sinatua: *Jevous Salue/Pierre Çelhay/de la Commune/D'aroue L'an/mil huit Cent vingt/sept.* 65 orrialdean Roland edo Charlemagne zatekeen pastoral horren pertsonaien bertso kopuruaren zenbaketarako eragiketak, pertsonai izenak laburduraz jarrita.

Zenbatu gabeko azken orrialdean, idazkera irakurgaitzez, zenbait nekazal tresnaren faktura litzatekeena: *4 Cart eta Khacha 15fr./4 dozain .../turteracq .../Cipetel .../By orga .../By orhe .../By got. .../By uztarri 8/Marca 5/9 aitcur eta 2 aila horts 20/ ailphatça eta biburdin 4/ .../Bi maço 4/Çugoua 15/charria 4/hirour ... 9/Ecalapo articot 5/Bi aizcora 5/ .../2 ferreta 8/3 Bertz 19.* Orrialdearen eskubi aldean hitz solte batzuk, kaligrafia saioak edo ematen dutenak: *houra/haraguia/Monsieur/Soiçu/Courequi*. Hauen behekaldean: *Dieu/recu/notre/...* Beheko eskubiko bazterrean: *Marechal-Macaye/le pourgatoire*.

-Jean Hegiaphalena:

XIX. mende amaierako eskola kahier batean idatzia dela dirudi (trageria hasi aurreko orrialdean estatu frantsesaren karta dator hainbat geografi-daturekin). Bertan, Jean de Paris ez ezik, Ste. Elizabet ere agertzen da. Guztira, lau edo lau bertso t'erdiko 106 orrialdetan idatzi zuen trageria. Lehen Pheredikiak aurreko zazpiak hartzen ditu 31 bertsoz, eta azkenak 104tik 106ra, biak barne, 13z. Emanaldiaren beraren testua (8-103 orr.) 405 bertsotakoa da, pastoralgileak zenbakitutakoaren arabera, baina honako huts hauek ageri dira bertan: 180, 364, 365, 366 eta 374 zenbakiak errepikatuta daude; beraz, 410 bertsotako emanaldia da eta, guztira, 454 bertso ditu izkribu honek.

Titulua frantsesez ematen du, berak idatzitako lehen orrialdean: *Tragedie de Jean de Paris*. Gero, zuzenean hasten da Lh. Pheredikia eta titulua modu berean errepikatzen du emanaldia hastean. Horren amaieran,

sinadura eta kopiaren data agertzen dira: Jean Héguiaphal 1894. Ondoren honako ohartxo hau idatzi zuen: *anglateraco eregue jiten da Jean de Paris hil denin hari/guerla emaitea bena houra estut esari leheneco/astoqueietan asqui basila ikhousiric*. Baliteke "astakeria" horiek C izkribuko 891-896 bertsoetan esaten direnak izatea; izan ere, izkribu horren bukaeran azaltzen baitziren, nahiz eta Arekiko konparazioan aurretik jarri ditugun (ikus 420-423 orr.). Bestalde, iritzi horren indargarri, kontuan hartu behar da Hérellek Jean-Pierre Heguiaphal II.ari erosi ziola 1911n C izkribua eta, horren kopia oso laburra den arren, badirudi Ctik egin zuela.

Bestalde, izkribu hau emanaldi jakin bati ote dagokion galdera datorkigu burura. Tesiaren 18. orrialdean Hérellek eta Urkizuk aipatzen duten 1857ko emanaldiaz aritu gara. Ez dakigu, ordea, nondik jaso zuen Hérellek datu hori; eta, Urkizuri dagokiola ere, ez dakigu zer dela eta egozten dion Jean Bordatori errejent lana (Labayenek A izkribuaz egin aipamenak eraginda agian?). Marzelin Hegiaphalek bere aitatxi izan zitekeela adierazi zigun, hemeretzi urtez errejent lanean hasi zenean. Hérellek dioskunez (1923:166), 1898an suak suntsitu zuen haren kahier bilduma ia osorik eta semeak hamabosten bat kopia berri eginak zituen 1923rako, artean emanaldi gehiagorik zuzentzen ez zuen arren. Itxura guztien arabera, izkribu hau Marzelinen aita Jean-Pierre Hegiaphal II.ak moldatua izango litzateke, baina ezin jakin emanaldi jakin bati dagokion ala ez. Zalantza horren indargarri, Lehen Pheredikiaren bukaera desohizkoa litzateke: ez zaie aktoreei inongo erreferentziarik egiten, ezta emanaldia hasi behar dela adierazten ere. Bestalde, hiru orrialde laga zituen hutsik bukaera horretatik trageriaren hasierara.

1.2. Emanaldiak.

Zuberoako pastoralen errepresentazio edo emanaldien berri zehatzenak Hérellek (1923, 167-173) eta Urkizuk (1984, 33-46) ematen dizkigute. Horiek bildutako datuen arabera, jarraiko hauek izango genituzke:

1) 1759ko irailaren 6an, Larrañen, Pierre D'Arhexen esku, Urkizuk.

2) 1760ko ekainaren 25ean, leku eta errejent berberak, Hérellek.

3) 1777ko urriaren 19an, Barkoxen, Pierre Lahoreren esku, Urkizuk.

4) 1857an, non eman zen ez dakigula. Urkizuren arabera, Jean Bordato izan zen errejenta.

5) Ainhizen eginikoa, noiz eta zein errejentek ez dakigula, Hérellek.

6) 1860ko ekainaren 26an, Larrañen, nork eman zuen ez dakigula, Urkizuk.

Datu guzti hauek aztertzea komeni da; izan ere, batzuk ez datoz izkribuetan eskaintzen zaizkigun informazioekin bat, beste batzuk oker daudela ematen du eta, azkenik, bertako zenbait osatzeko modurik badagoela uste dugu.

Hasteko, Urkizuk aipatutako lehen emanaldia ez zela egin esan behar. Argi dago Hérellerengandik hartutako datuez osatu zuela, gehien batean, bere zerrenda eta ematen duen data eta lekua, huts eginda seguru aski, Arhexenaren aurreko lerroan aipatzen den OEdipe-ren emanaldi bati dagozkio (Hérelle, 1923: 167).

Bigarren emanaldia ziurrena bezala hartu behar dugu, zehazki esaten baitigu Arhexek berak B izkribuaren bukaeran.

Hirugarrenaz ez du Hérellek bere zerrendan ezer esaten. C izkribu hasieran agertzen den Pierre Lahorek izenpeturiko ohartxoa ez zuen, hortaz, emanaldi posible baten aztarnatzat jo. Urkizuk ordea bai.

Laugarrena, data seguru samar bezala jo genezake, biak bat datozelako eta Marzelin Hegiaphalengandik jasotako informazioak horretara bideratzen gaituelako. Oso dudazkoa da errejenta Jean Bordato izatea, zeren Marzelin Hegiaphalek 1987ko azaroaren hemezortzian izandako elkarrizketan esan zigunez, bere aitonak (Hérellek Jean-Pierre I bezala deitua) hemeretzi urte zituela errejent bezala emaniko lehen pastorala Larrañen, 1857an izan zen. Zehazki ez zekien zein izan ote zen, baina ahalezkotzat jo zuen gure hau izana. Gogora dezagun Hérellek (1923: 166) haren aita Jean-Pierre IIri hamahiru izkribu erosi zizkiola, tartean gure C izkribua, eta *"Le Roi de Grenade"* izeneko kopia berria horrek egin omen zuela.

Boskarrena D izkribuari dagokiona da. Ainciondo Ainhizekoa zen, eta litekeena da hemeretzigarren mende hasieran berak eman izana. Hala ere, izkribu horretan agertzen den data bakarra Pierre Çelhayrena da eta, idazkera berriago eta diferentez, pastoralarekin zerikusirik ez duen korritu kalkulu bati dagokio.

Azkenaren berri ez dugu Urkizuren zerrendan besterik aurkitu. Zuzenean esan zigunez, Hérellerengandik jaso zituen bere datuak; beraz, azken honen zerrendan agertzen ez delarik, ez genuke segurutzat joko. Gainera, lehenengoarekin gertatutako huts bezalako bat emango zatekeela dirudi, bion daten antza nabarmenak erakusten duenez: 1760-6-25 eta 1860-6-26.

Beste alde batetik, eskueran ditugun hainbat datu, zalantzazko eta froga gabeko samarrak direla ezin ukatu den arren, gauza segurua da izkribu baten esistentziak antzerkia, behin gutxienez, eman zela frogatzen duela (izkribu zaharren kasuan batez ere, berriagoetan edo mende honetakoetan salbuespenak egon daitezke). Gainera, bertan agertzen zaizkigun letra desberdin eta zati erantsiak, izkribuak idatzi zirenetik gerorako beste emanaldi bat edo batzuen zantzu dira. Guzti hau kontuan harturik eta datuen bilketa eginda, honela konkreta genitzake Jean de Paris pastoralaren emanaldiak:

***XVIII mendean: B izkribukoa, Pierre d'Arhex, Larrañen, 1760an. A izkribuko bi, errejenta eta lekua (agian Basabürü-Arbailletan, hizkera eta aurkituriko lekuagatik) ezezagunak, mende erdi aldera seguruena. C izkribuko beste bi, errejent moduan Etchebarne, Lahore edota Karrikiri-Bordet Alozekoa, agian 1777 baino lehen eta 1783an, Pettarran, Barkoxe inguruan seguru aski.**

***XIX mendean: D izkribukoa, Ainhizen, 1827 baino lehenago, Ainciondoren eskutik eta, segurtasun osorik gabe, 1857an, agian Larrañen eta Jean Pierre Hegiaphal errejent lanean, E izkribuaren egilea.**

Azken batean, pastoral oso herrikoia, askotan emana, Zuberoaren txikian ere, iturriak Frantzia osoan zehar izan zuen bezainbesteko zabalkuntza izango zuena, biok konformidadean hartuta, noski.

Izkribuetatik ondorioztatzen diren datei erreparatuta, Frantzian garai haietan emandako egoera historiko desberdinak zeharo batera datoz pastoralak adierazten duen mezu ideologikoarekin. Mezu honek ez du inongo

berezitasunik aurkezten eta ohizko bi edukinak jasotzen ditu: Kontrarreformaren eredu erlijiozkoa eta Antzinako Erregimenaren egituran oinarrizkoa zen monarkia goraipatzea; guzti hori, noski, sujetaren soslai eta jokaera nagusiaren inguruan harildua.

Garaiko inguru historikoari gainbegiratuta, honako hauek lirateke aipatzeko modukoak: Luis XIV.aren heriotzaren ondoren, Luis XV.a jartzen dute errege; hau artean haurra delarik, Orleanseko dukea, Borbonekoa eta Fleury kardinala izango dira gobernu arduradunak. 1743an erregea bera agintari buru jartzen da. Garai honetan ematen da Zazpi Urteetako Gerra (1756-1763), erresuma pobretu eta egoera larri samarrean utziko duena. Gero, monarkiaren gainbehera markatuko duen Luis XVI.aren errege aldia dator, Iraultzaren atarian (1774-1789).

Horretaz gainera, XVIII mendean zehar aldatu egiten dira Zuberoako erakunde tradizionalak. Aurreko mendetik zetorren gatazka edo kontrajartze iraunkor hark (bateratutako bi norabidetan azaldua, alegia probintziako herriak hiri merkatari eta noble-funtzionariodun Mauleren kontra; eta laborariak, noblezia eta apaizgoaren pribilejioen kontra), "tiers état" delakoaren interesen kalterako joera nabarmena hartzen du, eta 1730ean Silviet-a, laborarien eskubideak defendatzen zuen ordezkaritza, desagertarazten da. Horrela, jende xeheak lehenago zituen hainbat eskubide galtzen du, estamendu goi mailakoen faboretan (Régnier, 243-284 eta Fourquet, 15).

Hala eta guztiz ere, zer esanik ez dago, guzti horiek erabat pastoraletatik kanpo geratzen direla. Pastoralgileak eta ikuskizunaren inguruan biltzen zen publikoa gehien batean laborari izan arren, gizatalde menperatzaileen ideiak dira nagusi antzerki guztietan. Laborarien goraipamena gertatzekotan, ideia horien inguruan besterik ez da egingo eta, batez ere, ofiziodun jendearen kontra.

Gure izkribuetan inguru historiko horrekiko erreferentzia jakinik ez dago, baina litekeena da pastoralak erakusten duen anglofobia (iturriarekin gertatzen zen bezala eta 2.1. eta 2.2. ataletan ikusiko denez) inguru horri lotua edo berarekin nolabait erlazionatua izatea. Honekin batera, hiru xehetasun agertzen dira A eta C izkribuetan, azaldutako inguru historikoa eta orduko pentsamoldea gogoratu, eta horien nolabaiteko izpi xume bezala edo interpreta genitzakeenak.

A izkribuko 110 bertsoko antzezoharrean (Dko 157. b.), besteetan ageri ez den gorapen oihua eskaintzen diote Frantziako erregeri. Monarkiaren

aldeko azalpen esplizitoena da pastoral osoan: *eta espainaco erregueq eman/presentac franciaco Barouer/eta haiec oihu eguin viva/viva franciaco erregue*.

Beste biak C izkribuan daude. Lehen pheredikiko 5. bertsoan, Espainiako errege joango zaio Frantziakoari laguntza eske, *bestituric desertur bat beçala*. Ez da hemen Iraultza garaiko konturik bilatu behar, orduan arazo ugari izan bazuten ere, Frantziaz kanpoko armaden erasoen kontra borrokatzeko soldaduak biltzean (Oihartzabal, 1988: 725-726). Seguruena da gure pastorala Iraultza eta Kontsulatu garaian behintzat eman ez izana. Desertoreen aipamen hori beraz, lehenagoko gerra egoeretakoren bati legokioke. Bestalde, Cko 71 bertsoan (D81) *heresac* aipatzen dira, Frantziako errege espainol erreboltatu eta Grenade erregeren kontra borrokatzera doala: *Jcousi nahy çitit heresac/Eta hayer Eman Ene araçouac*. Hereseak, garai haietan, Kontrarreformaren aurkako guztiak izango ziren, gehien batean Nantes-eko ediktua baliogabetu ondoren. Paben argitaratutako "Pronu"etan behintzat herese zerrenda ematen zaigu. Izkribu horretan ordea, gorrien edo gaiztoen beste kalifikatibo huts bat besterik ez zen izango.

Azkenik, D izkribuan halako xehetasunik agertzen ez delarik ere, aipatu behar dugu errepresentazio posiblearen garaia lehenengo Inperioaren ondoko errestaurazioari zegokiokeela, bigarren errestaurazio deitutakoari seguruenik, Louis XVIII (1814-1824) edo Charles X (1824-1830) erregeen aldietako urteren batean emango baitzen, Pierre Celhay-ren ex-librisaren arabera, eta Ainciondo denbora hartan arituko baitzen pastoralgile bezala.

1.3. Pastoralgile edo errejentak eta izkribu jabeak.

Atal honen helburua izkribuetan azaltzen zaizkigun pastoralgile eta besteen datuak biltzea da. Aldez aurretiko aitorpen bat egin beharra dago ordea: oso gutxi dakigu Jean de Paris pastorala eman zutenez. Obra bera teatro genero honen lehenengo ikerlariek aipatzen badute ere (Chahok, Michelek, Websterrek, Vinsonek...), pastoralgileez ez dugu inongo berririk izango, Hérellek izkribuen azterketa egin eta bere zerrenda ateratzen duen arte (batez ere, 1923: 159-172 orr.). Honek eskainitako informazioa izango dugu abiapuntu. Gainera, beste zenbaitek ere, beste pastoral batzuez ari direla, zeharkako argibide edo aipamenen bat utzi digute.

Horietaz aparte, beste informazio biderik ezean, parroki eta udal erregistroetara jotzea genuen. Hala ere, ikertu beharreko pertsona izen eta herri desberdinen kopurua kontuan izanik, luzeegi joko zuen herriz herri

horien guztien bila ibiltzeak; beraz, Frantses Iraultzaren aurreko agiri gehienak Pabeko Departamendu Artxibategian zeudela jakinik, ikertze lana bertan zentralizatzea erabaki genuen. Horren emaitza eskas samarra izan den arren, bertan adieraziko dugu beste informazioen osagarri. Aztertu beharreko agiriak zehazteko bidea Pabeko Departamendu Artxibategiko bi aurkibideok argitu digute: "Inventaire-Sommaire des Archives antérieures à 1790" eta "Répertoire numérique de la sous-série 4E. Registres paroissiaux conservés aux Archives communales et departamentales". J.-L. Etchecopar-Etchart-en lana ere oso lagungarria gertatu zaigu (ikus bibliografian).

Esandako informazio iturri horiek aztertuta, hona hemen jakin ahal izan duguna, izkribuz izkribu eta pertsona nagusiengandik abiatuz:

Pierre d'Arhex.

Larrañeko oskigile edo zapataria. Bertako 1760ko emanaldirako kopiaren egilea. Ez genezake erabat segurtatu bera errejenta izan zenik, B izkribu bukaeran garbi azaltzen baitu kopiatu egin zuela. Dena den, eginkizun horiek pertsona bakar baten esku zeuden orduan, ezaguna denez.

Jean Saroïhandy-k esaten digunez (1928, "Les Manuscrits" atalean), Roland pastoralaren izkribuetako bat, Arhexek idatzia da. Pariseko Liburutegi Nazionaleko 138.a da eta biak konparatuta, hark esan bezala, Roland horren bukaerako izenpean *Arhex* irakur badaitekeen arren, gure honetan azaldurikoa beste idazmodu diferente batez dago emana. Pariseko Liburutegiko honen letrak, bestalde, Baionako idazmoduen desberdina dirudi: honek, adibidez, *gn, kh* eta *ll* grafiak ia inoiz ez baititu ematen. Esango genuke hortaz kontuz hartu beharra dagoela bi izkribuon egilea bera delako baieztapena. Bion artean dauden diferentzia batzuk ordea, aipagarri litezke. *Roland* (pastorala) eta *Recoquillart* (pièce dramatique basque-astolasterra) agertzen dira Saroïhandyk aipatutakoan. Gainera *Recoquilart*-en barruan (10 folio du) 6-7 orrietan, testua eszenetan banatua azaltzen da, *scène 1èr*-etik 6.enera. Pentsa genezake agerraldi bidezko banakuntza hori xaribariei legokiekeela neurri batean, baina Ainciondoren *St Blaise*-en gauza bera gertatzen da. Beraz pastoralgile horien ezaugarria liteke, orokorrean erabilitako idazte modua baino.

Arhex abizena, bestalde, arrunta zen Larrañen XVIII. mendean. Gure pastoralgileari zuzenean dagokion erreferentziarik topatu ez dugun arren, bere ahaide, edo senide ere, izan zitezkeenak agertzen zaizkigu Departamentu Artxibategian dauden hainbat agiritan. Aurkitu dugun zaharrena Lextarreko Auzitegiko 1712ko entzunaldi batean dago. Bertan Montoriko David

de Capdevielle izeneko batek, Larrañeko Pierre d'Arhexen kontrako salaketa egiten du, baina idazkera oso ulergaitza gertatzen zaigu. Hegoburu liotenantak eta Cossere prokuradoreak sinatua da (B saileko 4444 dokumentuko 167-168 orr.).

Dataz gertuagokoa hala ere, izen-deitura berberak dituen eta gure pastoralgilearen ahaide izan zitekeen hildako baten heriotz agiria da, De Charo apaizak sinatua eta idazten ez zekiten bi lekukoren aurrean egina: "L'an mil Sept cents soixante deux, Et le deux de Juin, le Corps de pierre Cadet d'Arhex Charpentier de profession, decedé hier, agé d'environ soissante quatorze ans..." (CC1 azpisailean, 1756-1766 bitarteko hilobiratze agirien artean).

Bestalde, deitura bereko pertsonak azaltzen dira 4E azpisaileko 316 zenbakipeko Larrañe herriko 1789ko jaiotza agirietan: 3. orrialdean, Joseph Arhex (*Josepeh Arrsse* sinatzen duena), sasiko baten bataiatze lekuko bezala; 10.enean, Marie Janne d'Arhex, jaioberri baten ama; eta 12.enean, Jean Rospidegaray eta Marie Lasserre "dits d'Arhex", haur jaioberri baten guraso bezala.

Izkribuaren bukaera aldera agertzen den Joseph Goudom d'Arete izenak ex-librisa ematen du. Bere berri bilatu ez dugun arren, Biarno eta Zuberoako teatro tradizioa bateratsu ematen zelako beste seinale bat izango litzateke (gogora dezagun, besteak beste, Cazaurang-ek eginiko Phantzarten itzulpena: Peyrègne, 1978). Hala ere, ez dirudi pastoral hau Biarnon eman zenik (Hérelle, 1923a).

Bernard Etchebarne.

Hérellek abizen bereko bi pastoralgile aipatzen ditu bere zerrendan (1923: 159-160): Simon-Bernard Datchebarne eta Bernard Detchebarne edo Etchebarne, biak Sarrikotapekoak. Aurrekoa Clovis-en izkribuaren jabe izan omen zen 1770ean (Vinson-ek eta Stempf-ek 1891ean argitaraturiko St. Julien pastoralaren izkribu bera osatzen duena). Bordeleko Liburutegiaren eskuzkribuen katalogoan irakur dezakegunez, hiru zenbakikoan (Clovis) zera agertzen da 16. folioan: "une date de représentation, janvier 1770 au crayon rouge, Datchebarne Simon-Bernard".

Hala eta guztiz ere, izkribua zuzenean aztertuta uste dugu bestela interpretatu behar direla bertan azaltzen diren datuak.

Lehen 16 folioak Clovis-i dagozkio eta gainontzekoak St. Julien-i. Azkenaren versoan *oyhenart* irakur dezakegu, izkribuak izango zuen azken jabearen deitura alegia, Hérellek zerrendan aipatu bietako bat izan litekeena. 16. folio versoan irakurri duguna hau da: *Simon* (irakurtzen zaila dena, norbait ezabatzen saiatu zela baitirudi) *Dalchurrut* tinta gorri edo marroixkaz. Deitura horren gainean, tinta beltz edo ilunagoaz, *Detchebarne* dago jarria, azpiko deituraren letrez baliatuz eta halako kontu apur batez idatzia. Jarraian eta azken honen tinta eta letra berberez, *bernard*.

Bestalde, 1. folio urratuan eta versoaren beheko eskuinaldean hau dugu: *Jl faut quil En Soit/22 acteurs au dela des anges/En...blant/...IlJa 200 vers/...* espazio txiki zuri bat, ezabatutako izen bati legokiokeena eta *detchebarne* izan litekeen deitura irakurgaitz batek jarraitua*/...tte de Bas En/...Janvier 1770*. Ezkribuaren idazmodua gure Cren antzekoa den arren, ez dirudi bera denik. Gainbegiratu bat egin eta gero, ez dugu aurkitu gure Cn ematen diren *-t* eta *-k* hitz amaierako morfemen arteko aldaketarik, ezta herskari aurreko txistukari hobikariaren aldeko joerarik (ikus 1.5.2 atala eta ohar-aldaeretako LPh 1, eta 1 bertsoak).

Beraz, badirudi izkribuaren alde horretan bi izen-deitura daudela: Bernard Etchebarne eta Simon Dalchurrut, hain zuzen, Sarrikotako udalean emandako zor auzi luze batean haren etsai izandakoa litekeena (le sieur Alchurrut), beherago adieraziko dugunez. Dena den, Bernard Etchebarne bakarra da, gure C kahierraren jabea alegia, izen-deituren idazmoduen antzak egiaztatzen duenez (esan dezagun Cko 55 orrialdean dagoen zati erantsiaren atzekaldean dagoela konparazioetarako erabili dugun sinadura).

Gure pastoralgile honen izena liburutegi bereko 37 zenbakidun Sainte Héllène-n ere agertzen da. Hérellek bere zerrendan aipatzen ez duen arren, Léon-ek erabili zuen bere lanean (1909: 199 eta 310-318). Izkribu honen idazmodua Clovis-enaren berdintsua da eta azken pheredikiaren amaieran honela irakurtzen dugu: *Etchebarne fain*. Azken orrialdean, tinta ilunago eta beste luma batez: *Ce Caye appa.../de Charritte*. Hitz amaierako *-t* eta *-k* nahasterik agertzen ez duen arren, leherkari aurreko txistukari hobikaria gure izkribuaren berdintsu idazten du, 886 zenbakipeko bertsoan ederki ikusten denez:

Esta arosarik bathere

non Estian bere Elhoric

ordenarisquy plaçerac Ere

aiçinety Edo ondoty du tristeçia

Hérelleren zerrendaren arabera beste bi izkribu legozkioke Etchebarneri. Bata Jacob da (Bordele, 12 zenb.) eta bertako 69 orrialdean *Etchebarne de Charritte* agertzen da, harkatz gorriz eta gure izkribuko sinaduraren letra oso antzekoaz idatzia. Testuan azaltzen den letra, bestalde, gure Crena bera da, herskari aurreko hobikaria berdin ematen duelarik: *askhena, asken, Estugu* etab.

Besteak ere Cren letra bera du (Saint Jean Baptiste, Bordele 11 zenb.). Lehen pheredikia eta gero, 7. orrialdean, Ck bezala adierazten du aktoreen iristea: *aribada Eguin.* Hitz azkeneko *-t* eta *-k* morfemak eta herskari aurreko hobikaria gurean bezala ematen dituela dirudi, orrialde berean irakur dezakegunez, Gabriel aingeruak sujetaren jaiotza aitari iragartzen diola:

Grabiel Jalky

Zaccaria Estiala
Batere Lotxaric
hire othoiçe justouac
gincouac Ençun çitic

hire Emaste Elisabetec
semebat ukanen dit
Jincouaren Eretcian handy dukec
Jçena Jouhane ukhanen dit

Izkribu amaieran (88 or.) ex-librisa agertzen da, testuaren letra eta tinta berberez idatzia: *fait à Charrite/par bernard Detchebarne.* Gero sinatzen du gure izkribuko 55 orrialdeko zati erantsian bezal-bezala: *Etchebarne.*

Hérellek, paper zati horretako datan oinarrituz, 1783an bizi zela diosku: "Il vivait encore en 1783". Leku horretan erantsi nahi zuen bertsoa idazteko, Etxebarnek ordainagiri baten zatia erabiliko zuen. Beharbada, aurrerago esango dugunez, artean herriko diputatu baitzen, zeregin horrekin nolabait loturiko ordainketa izango zen (ikus 766 bertso-oharra).

Izkribu guzti horien datuak aztertuta, esan genezake Etxebarne, esku artean ditugun datuen arabera, XVIII mendeko pastoralgile garrantzitsu bat izan zela. Saint Jean Baptiste-n agertzen den ex-librisaren arabera, badirudi, horretaz aparte, Jacob eta Jean de Paris ere berak kopiatu zituela. Clovis eta Ste. Héllène-ren letra antzekoa den arren, ezin genuke ziurta bere eskuaz idatziak ote diren. Dena den bere euskara oso bitxia da, aipatutakoez gainera, asko baitira gure izkribuan azaltzen diren hutsak, silaba errepikatzeak eta fonemen asimilazioak. Batzuetan hitz motel itxura duen idazkera hori harrigarriago gertatzen da, bere herrian hainbesteko itzala izan zuen laborariarengan, orain ikusiko den bezala.

Pabeko Artxibategiko agirietara jota, Sarrikotako parrokiakoetan ez dugu haren berririk aurkitu, bertan, 4E azpisaileko 316 zenbakipean, herri horretako 1765eko, 1767ko eta 1776-1791 bitarteko bataio eta ezkontagiriak dauden arren. Hala eta guztiz ere, 1.D.1. zenbakipeko erregistroan, 1790etik Errepublikako II. urteko Germinalera bitarteko udal bilkuren aktak dauzkagu (Déliberations municipales). Hauetan askotan agertzen zaigu Bernard Etchebarne, gure pastoralaren C izkribuan azaltzen den sinaduraren guztiz antzekoa daukana, eta garai haietan herrian garrantzi handia izan zuena.

Esandako agiri horren hasieratik aurrera 1790eko Otsailaren 6an udal hauteskundeak gertatzen hasten dira herrian: "Constitutions de la municipalité en vertu des lettres patentes du roy en décembre 1789 sur un décret de l'assamblée nationale". Hautagaien zerrendan azaltzen da lehenengo aldiz, eta emaitzetan herriko prokuradore kargua (procureur de la commune) galtzen duen arren (Alchurrut izenekoa aukeratzen dute 44 sufragioz, Etchebarnek 5 besterik lortzen ez duelarik), notable bezala ateratzen da gure pastoralgilea 22 botoz. Martxoaren hamabian hautatuek zin egiten dute beren kargua: "... on pretté Serment, en main de la Commune, de maintenir de tout leur pouvoir la constitution du Royaume, d'etre fidelles a la nation, ala loy et au Roy, et de bien remplir les fonctions de tout quoy acte octroyé aux ds membres de la municipalité..." (17 or.). Zortzi hautatuk (tartean gure Etchebarnek) eta hogei hiritarrek sinatzen dute, idazten zekitenek alegia.

Hortik aurrera udal edo herri kontseiluaren biltzar askotan agertzen da, behin "Etchebarne fils", bere semeak ordezkatzen duelarik.

1791ko urtarrilaren 27an ordea ez da herri kontseiluko asanbladan agertuko. Bertan "il à eté dit Par le sieur Alchurrut Procureur Sindic de la

Commune de Charritte, que le Sieur Etchebarne Laboureur dela de presente communauté lui à fait Signifier une reqtte et appointement dela Cour du tribunal du District de Maulèon par le Sr d'Indaburu huissier dela de Cour et tribunal dud. district, dont Copie ci aprés et qu'il Sagit de deliberer pour voir le parti qu'il y a àprendre" (53 or.).

Etchebarnek jarritako demanda eta prozeduren kopia azaltzen da gero (53-56 orr.). Hasiera batean, herriak, Alchurruten bidez, Etchebarnerekiko zorrak onartzen dituen arren, prokuradoreak ez zuen ordaintzen eta demandaren kopia jaso arren, ez zuen sinatu nahi izan. Guzti hori ikusita, herri kontseiluak "deliberant Sur la proposition dud. Procureur de la Commune le charge de repondre aud. Etchebarne par acte pour lui demander les comptes de Sa gestion de deputé, par devant le tribunal du district et les juges d'icelle, pour á la vue d'iceux voir Si la demande dud. Sr Etchebarne est juste et legitime..." (56 or.).

Auzia, bitarteko kontseiluetan aipatzen ez delarik, urte bereko irailaren 9an argituko zaigu. Orduan, Accuduts alkatearen aurrera agertzen dira Etchebest, Barhen, Muscar eta Cascu hiritarrak. Hauek diote "que le Sr. Etchebarne du present lieu a été deputé dans la presente paroisse les années 1781, 1782 et 1783, que le d. Etchebarne rendit les comptes de Sa gestion a la Comté. en la de. année de 1783..." etab. (99 or.).

Deklarazio horretan zehazten dira zorraren zenbatekoa eta demandak ordura arte izandako gorabehera guztiak. Herriak Etchebarneri zorra ezagutu eta onartu zion arren, ez zioten ordaintzen. Honen arabera, tirabira luzea gertatu zen, adiskidetasunezko konponketarik ezin izan baitzen lortu, gehien batean herriko alkatearen eta prokuradorearen jarreragatik.

Azkenean, Etchebarnek lortuko du zor zaiona, baina lau hiritar horiek Mauleko Barrutiko Auzitegian ordaintzaile bezala salatuta. Alkatearen aurrean eginiko deklarazio honetan, lau horiek udalaren portaera jartzen dute agerian, komunitatea gastu handiak egin beharrean aurkitzen baita, udalak agindutako konpromezuak betetzen ez dituelako. Azkenean lau horiek "au nom de tous le citoyens de la presente parroisse, déclarent qu'ils essuyent tous ces fraix innecessaires par la negligence de la municipalité faute par elle de n'avoir rempli aux engagemens que leurs places et la loy leur donne..." (102 or.).

Urte bereko abenduaren 7 eta 27an herri kontseiluak eginiko biltzarretan arazo bera tratatzen dute. Kontua da oraindik ordaindu gabe daudela, besteak beste, aipatutako lau hiritarrek jarritakoa ez ezik,

Etchebarneren auziak eragindako gastuak ere. Alchurrut prokuradorearen proposamenaz, hainbat lur eremu saltzeko baimena eskatzea erabakitzen dute, zorrak kitatu ahal izateko.

Alabaina, udal talde horrek egindako azken biltzarra izango da abenduaren 27ko hori; izan ere, azaroaren 22tik aurrera hauteskunde berriak prestatzen hasiak baitira, "Cadastre des citoyens actifs" delakoa osatuz (90 or.).

Bertan gure Etchebarneren izena azalduko da berriro, ordura arteko hainbat eta hainbat bileretan, zor horien auzia dela eta seguru aski, agertu ez dena. Hauteskundeak egin eta, prokuradore hautatzen dute eta horrela sinatzen du (98. or.). Alkate bezala, Etchebest, zorra ordaindu behar izan zuten arteko bat, agertzen da.

Udal talde berriak egiten duen lehen biltzarrean (abenduak 31, 110-113 orr.), alkatearen proposamenaz, zorren auzia dela eta munizipalitate zaharrak hartutako azken erabakiak baliogabetzen dituzte. Alkatearen ustetan, zenbait hiritarrek eragotz lezakete lurren saltzea eta beharrezkoa da "de chercher la paix dans la parroisse et de prendre un autre moyen plus favorable pour tranquiliser les esprits des citoyens"; beraz, lurrak saldu ordez, komeni litzateke "de demander (...) une permission dune levée au marc la livre et un Branchage au Bois Commun" ordaintzeko guztiak kitatu ahal izateko, zeren orain arteko erabakiak "ne les ont mis a execution ayant en egard aux troubles qui Se trouvoient dans la presente parroisse". Alkatearen proposamena aho batez onartzen dute "étant le Seul moyen de tranquiliser les esprits des citoyens de la presente parroisse" eta, horrekin batera, "le Sr. Etchebarne procureur sindic de la presente parroisse demeure chargé de faire les executions necessaires pour l'obtention de la de. permission".

Ez dakigu handik aurrera zertan geratu zen zorren auzi hori. Gure Etchebarnek herriko prokuradore bezala sinatzen du 1792ko urriaren 15era arteko herri kontseiluetan. Urte bereko abenduaren 9an, "selon le decret de l'asamblée conventionelle du 19 octobre 1792, l'an premier de la république française", herria berriz bildu eta hauteskunde berriak gertatzen hasten dira. Bertako zerrendetan ez da gure pastoralgilea azaltzen.

Emandako datu zerrenda luze honen arabera, Bernard Etchebarne haren soslaia argitzen zaigu apur batean. Laboraria zen, seme baten aita eta eragin zuzena izan zuen herriko gobernu zereginetan, diputatu bezala hiru urtez (agian, izkribuaren 55. orrian erantsitako paper zatia horrekin dago erlazionatuta) eta, gerora, notable eta prokuradore bezala. Pabeko dokumentu

horretan esaten denez, 1783an "rendit les comptes de Sa gestion de deputé a la Comté.". Esan nahi al du horrek orduan bertan karguari utzi ziola, ala segitu ote zuen, eta 1789an sinatu Zuberoako tiers état-eko diputatuen "Cahier de Doléances" famatu eta alperrikako hura? Zeren bertan *Etchabarne* bat azaltzen baitzaigu bukaerako sinaduren artean... (ikus Régnier, 266-279 orr.: "Cayer Général des Plaintes et demandes du Tiers-Etat de Soule").

Ezin izan dugu gehiago zehaztu; azpimarratzekoa da, hala ere, herri erakundeetan izan zuen presentzia, pastoralgileen artean, geuk dakigula behintzat, hain ohizko gertatuko ez zena.

Bestalde, Etchebarneren izkribuan, esan den bezala, Pierre Lahore *"Regend"* azaltzen zaigu, Karrikiri Bordet Alozekoarekin batera.

Lehenengoaren izen-deitura berberak aurkitu ditugu 1783ko abuztuaren 2an Barkoxen eginiko heriotz agiri batean. Hildakoa Pierre Pinotan edo Pirrotan delako bat izan zen: "...son Corps a été inhumé au/cimettiere de Cette parroisse au delay de l'ordonnance/et en presance des Sieurs Constantin et de pierre Lahore du/Bourg de tardets qui ont Signe avec nous Curé". Sinatzen dute: Constantin, Lahore eta De Suhare curé (4E azpisaileko 93 zenb. 11. or.). Ezin dugu segurtatu Etchebarneren izkribua erabili zuen errejenta bera denik, azkeneko honek Eihartxen (Barkoxetik gertu) modu diferente samarrean sinatzen baitu.

Bigarrenaren abizena askotan agertzen da Alozeko garai horretako agirietan (esaterako 4E,17 zenb. 2. or. eta G.G.1, 5. or.). Hala ere, behin aurkitu dugu bertako Bordet etxearekin lotuta, aipaturiko azken erregistro horretan. Bataio agiri bat da D'etchecopar apaizak sinatua: "Le vingt un juillet mil Sept Cens Soissante onze Ciprian Delichalt d'Alos, a Eté Baptisé par moy Curé Soussigné, né Le vingt du meme moys et an que dessus du legitime mariage de jean Cadet de Carriquirj dela dt paroisse d'alos, et D'anne Cadette Dilhorrj de Laguinge Son Epouse Demeurants actualement Dans La dt maison d'elichalt Dalos, le parrain à été Ciprian de Carriquirj Sieur De la maison de Bordet d'alos Son oncle germain La marraine marianne Delichalt Sa tante Daliançe qui n'ont pas Signé pour ne Savoir".

Ciprian hori ote zen Lahorerekin batera Etchebarneren kahierra urratu zuena? Horrela izanda, kahierraren lehen orrialdean dagoen oharra ez ote zuen sinatuko, idazten ez zekielako? Eskueran ditugun datu apurrek ez digute inolako ondoriorik ateratzen uzten.

Pierre Ainciondo.

Hérelleren arabera (1923: 161), "Il parait avoir fait représenter *Saint Blaise* (1928: 71-72) à une date et dans un lieu non spécifiés. Il vivait encore au commencement du XIXe siècle". Izkribu hori Pariseko Liburutegi Nazionaleko 175 zenbakiduna da: *"L´histoire de St Blaise/Evéque de la Ville de Sebaste dans la/province D'armenie, traduit en Basque et Compossé en Vers".* Eszena bidezko banakuntza ere erabiltzen du, Saroïhandyk aipaturiko *Roland*-en izkribuan bezala; arribantxa, sataneriak eta antzezoharrak Jean de Paris-en agertzen direnen antzekoak dira, eta pheredikiak lehena (*Le 1ère Prologue*) hasieran eta azkena (*Dernier Conclusion*) bukaeran dauzka jarrita. Pastoral testu hondarrean, azken pheredikia baino lehen, izenpea eta abisu bat, antzerki hau eman izan ote zen zalantza dakarkiguna: *Ce tragèdie on peut faire par/Ces acteurs et non pas de moins/Ainciondo Pierre.*

Ainhizeko parroki erregistroak ikusita (4E-13) eta "collection du greffe"ko 1757-1789 bitarteko agiriak besterik ez ditugularik (tartean asko falta direla), ez dugu Ainciondoren berririk topatu.

Pastoralgile honek, errepresentazioak eman zituzten baxenafartar gutxien artekoa (Léon: 16-18 eta Oihartzabal, 1988: 703), Jean de Parisen trageria eta Saint Blaise-ren historia itzuli egin zituela dio. Azken pastoral honen izkribu bakarra da berea, eta ezin genezake frogatu beste eskuzkriburen batetik ez ote zuen kopiatu: euskarara itzulia eta bertsotan konposatua duela diosku; baina Jean de Parisenaren kasuan *"traduit en basque"* besterik ez. Agian, beste izkribu batetik aldatu zituen bertsoak, izan ere antzeko gertatzen dira laurak, C-D erlazioak zuzen-zuzena dirudielarik.

Izkribu amaieran dagoen ex-librisean Pierre Çelhay Arüekoaren izena dugu. Beste daturik gabe, litekeena da Jean-Pierre Saffores pastoralgilearen bigarren emaztearen aita izatea, 1838 urteko ezkontagirian zendu bezala agertzen dena (Oihartzabal, 1988: 722), izkribua Jean-Pierreren anaia Jean-Baptistena baitzen, azalean agertzen den arabera.

Jean Hegiaphal.

Pastoralgile familia ezagunaren XX. mende hasierako belaunaldiaren ordezkaria. Hogei urtetan zehar trajeria emanaldi asko zuzendu zuen. 1911an hamahiru eskuzkribu saldu zizkion Hérelleri. Garai horretan, hamabosten kopia edo moldazio egin zuen, suak suntsituriko bildumatik salbatu ahal izan ziren izkribuenak. 1923an utzia zion pastoralak antolatzeari. Hemen aurkezten dugun izkribua Etxebarnerenaren moldazio eta laburpena da, mende erdia pasata etorriko zen pastoral berritzearen aitzindari.

Familia horretako azken pastoralgilea, Marzelin Hegiaphal, 1996ko apirilean hil zen. Hura pastoralgile zaharren arteko azkena izan zen, betiko gai klasikoak erabili baitzituen bere emanaldietan.

1.4. Izkribuen aurkezmodua.

Izkribuak honela aurkeztu ditugu: D izkribuaren testu osoa eman dugu oinarri testuaren atalean, luze eta osoena zelako eta pastoral genero dramatikoaren eredu delako -ez baitugu ahaztu behar XIX. mende haseran jotzen duela puntu gorena antzezpenari dagokiola. Beste lau izkribuek harekiko dituzten aldaera, ohar eta bertso osagarriak hurrengo atalean jarri ditugu, D oinarri testua gidari hartuta bertsoz bertso.

Aurkezteko aukera hori arrazoitzeko garaian, aitortu beharra dago ikerketaren gorabeherek baldintzatu zutela. Alegia, San Telmoko eta Baionako izkribuak 1980an lortu nituen, Parisekoek luzeago jo zuten: C izkribua 88an eta D 89an, eta azkenik, E izkribua 95ean. Makinaz jo nituen denak kopiak eskuratu ahala, eta azkenean esandako moduan antolatu nituen. Arreta gehiago merezi du, agian, A izkribu San Telmokoak, kontserbatzen dugun teatro izkriburik zaharrena baita, baina lan honek antzerki hau bere osotasunean aztertzea du helburu, eta horretarako aukeraturiko modua egokitzat jo dugu.

1.4.1. Oinarri testua, aldaera, ohar eta osagarriak.

Esandakoaren arabera, atal honetan dago bost izkribuek osaturiko pastoralaren testu finko eta zehatza. Oinarri testua D izkribukoa da, XIX. mende hasierakoa, dagoenean dagoela aldatua. Bertsoz bertso ordea, beste hiruretan ematen diren aldaerak, oinarri testu horretan agertzen ez diren bertso osagarriak, eta egoki iruditu zaizkigun iruzkin edo oharrak agertzen

dira jarraian, 6.2. atalean. Atal horretan erabilitako zenbakipen nagusia (parentesi artean) oinarri testuko bertsoei -D izkribukoei- dagokie. A, B, C eta E izkribuetako bertsoen zenbakiak bostetik bostera azaldu ditugu, aldaeren iruzkinak numeroz beteta ez agertzeagatik. Bestalde, oharretan askotan erabilitako iturri bibliografiko hauek laburtuta aipatzen ditugu: Harits.: Haritschelhar, 1970; Charl.: Oihartzabal, 1988-90; eta Larr.: Larrasquet, 1939.

Bertan, noizean behin eta kasu apur batzuetan besterik ez bada, hasierako iturriaren aipamen bat edo beste egiten da. Istorioak hortik pastoraleraino egindako bidea ikerlan honen 3. eta 4. ataletan aztertuko dugu.

1.4.2. Pheredikiez.

A eta B izkribuetan, badirudi bukaeran agertzen zirela. Ak behintzat titulua argi jartzen du testu gorputzaren hasieran, bukaeran azkena eta jarraian lehena zituela. B izkribuaren orri gabeziak ez digu gauza bera zehaztasun maila horretan esaten uzten, lehen pheredikü barik dago eta. Beste bi izkribuek ordea, lehena hasieran eta azkena pastoral testuaren bukaeran aurkezten dizkigute.

D izkribuaren banakuntza errespetatu dugu, eta antzerki testuaren numerazio diferentez (81 bertso lehenerako eta 17 azkenerako) aurkeztu ditugu. Ikerlanean zehar bertara eginiko erreferentziak beraz, zein prediku den zehaztuz eta dagokien zenbakiaz agertuko dira.

Pheredikiak ez dira berez pastoralen emanaldietan sartzen.

Lehenengoa errepresentazioak eragindako jai giroan egin ohi zen dei moduko bat zen, jendea behar bezala ikusi eta entzuteko presta zedin. Emanaldia luzea zen, gure izkribu hauen arabera zazpi edo zortzi bat ordutakoa, eta noski, beharrezkoa gertatzen zen ikustekoaren nondik norakoa hasieran aurreratzea, emanaldian zehar, arreta handirik hain denbora luzez izan ezean, publikoak edozein momentutan zer parte errepresentatzen ari zen antzeman zezan. Hori izan liteke pastoral zaharren lehen predikuaren luzea adieraz lezakeen arrazoia. Pastoral berrietan, jakina denez, askoz laburragoak dira, publikoa inprimaturiko testuaren laguntzaz baliatzen delarik.

Azkenak, ikusgarriaren amaiera eta gero, jaiaren jarraipidea ematen zuen ohizko dantzarako gonbitea eginez.

Gure pastoral honen pheredikiek tradiziozko errepertorioan azaldu ohi den egitura aurkezten dute: publikoari egindako agurra, haren arreta eta hutsen barkamen eskea, eta istorioaren laburpena (Hérelle, 1926: I kap.; eta Oihartzabal, 1988: 772-774).

Pheredikiak emateko modua ere ohizkoa izango zen: pheredikaria igo teatrora, kristauen entseinaria atzekaldeko eskuinean eta turkoena ezkerrean zituela, erdian jarririk jendea agurtu *chapela eskian* eta, gero, *chapela burian paseya* teatroaren aurrekaldeko alde banatan istorioaren laburpena eginez.

Errezitatuaren doinua zaharra zen (oraingo pastoraletan ere hala da), XV. mendekoa Gavel-en arabera (RIEV, 1911), eta joan-etorri bakoitzeko, bi bertso lerro kantatzen zituen pheredikariak. Bertso amaieran erdian geratzen zen eta, musika saio laburraren ondoren, segitzen zuen horrela bukatu arte. Hérellek horren irudi bat publikatu zuen (1923: 77), M. P. Lespès-ek egina, pheredikariaren atzean entseinari bakarra (kristauena seguruenik) dagoela. Bertan esaten duenez "pendant la récitation du prologue les Chrétiens attendent à cheval devant le théâtre".

1.4.2.1. Jean de Parisen lehen pheredikia.

81 bertso ditu C (*Lehen prologoua*) eta D (*Le premier prologue*) izkribuetan. A izkribuko azken berrogeita hamahirurak besterik ez dira kontserbatzen, gainontzekoak urratuengatik galduta baitaude, B izkribuko pheredikü osoarekin gertatu bezala. Honako parte hauek aurkezten ditu:

1) Publikoari egindako agurra (LPh 1 b.).

2) Aldez aurretiko gaitasun ezaren kunplimentuzko azalpena (LPH 2 eta 3 bb.). Hemen emanaldiaren helburua agertuko litzateke, Dko LPh 2aren arabera:

Cien onxa Satifatceco

ezkira içanen Capable

bena eguin ahalaren eguitera

entseiaturen guirade

C izkribuan ordea, obraren helburu didaktikoa azpimarratzen da, mezu erlijiozko edo moralitatearekin lotuago, LPh 2 bertsoan:

Egun Ciere Erekasteko **(sic)**

Badugu heben misterio

Eta gomendatçen nitçaiçie orano

Beha Çitien onxa oro

3) Obra eta pheredikia bera arretaz segitzeko deia (Dko LPH 3 eta 4 bb.; eta Cko LPh 2 eta 4 bb.).

4) Trageriaren esplikazioa edo sujetaren aurkezpena. Hemen pheredikaria istorioaren laburpen sinple samarra egitera mugatzen da: Espainiako koroaren berrezarpena eta errege bien seme-alaben establimentia (5-22 bb.); Frantziako erreginaren erreakzioa, aitak harturiko konpromezua semeari jakinarazi eta Jean Espainiara abiatuz (28-31 bb.); Espainiarako bidaia (32-59 bb.); Anglaterrek bertako gortera egiten duen sarrera eta Jeanen aipamena (60-65 bb.); Jeanen suitaren Burgoserako sarrera desfilea (66-74 bb.); Jean eta Infantaren arteko lehen elkarrizketa, Izkutuko Saioa deitu duguna (75 b.); eta pastoralaren azken partea bost bertsotan (76-79 bb.).

Ederki ikusten da pheredikariaren asmoa obraren berri gaingiroki ematea dela; izan ere, batailak, bigarren mailako pertsonaien parte hartzeak, satanen agerraldiak etab. alde batera lagata daude, hari nagusiaren azalpenaren zerbitzura.

A izkribuak ordea, salbuespen pare bat aurkezten du jokaera nagusi horrekiko: bertako LPh 49 bertsoa (Dko LPh 79), Anglaterreko erregeren haserreak dakarren batailaren aipamena; eta LPh 53a (Dko LPh 81), *Allicor* mairuaren agerpenaren berri ematen duena.

Azken bertso hau interesgarria gertatzen da, mairuaren interbentzioa oso laburra den arren, pheredikian aipatzea egoki iruditu baitzaio pastoralgileari, ikuslegoaren arreta erakartzeko beste aitzaki bat bezala edo, eskainiko duen *jntertenimentu ederra* dela eta. Ulertzen ez dena ordea zera da, zergatik gaineratzen duen bertso hori bigarren zenbakipean

ezartzeko oharra. Agian, agurraren ondorengoa izanik, jendeak beste arrazoi bat gehiago izango zuen pastorala behar bezala ikusteko, baina ez da bat ere lotzen pheredikiaren garapenarekin, askoz geroago, Burgoserako sarrera desfilean agertzen baita mairu hori, Jeanen suitaren barruan.

5) Erlijiozko irakaspidea (LPH 80 b.) eta jokalarien iriste iragarpena (LPh 81 b.).

Bertan nabarmentzekoa, irakaspide edo Jainko aipatze hori agertzea da, lehen pheredikirako ez Hérellek ez Oihartzabalek aipatzen ez dutena. Ako bertsioan (LPh 80 b.):

Soguin eçaçie jente hounac
noula jiten diren gaiçac
jincouaren gracia dienac
eguiten dutu nahi dutienac

Jokalarien iriste iragarpen esplizitu edo zehatza A izkribuan bakarrik ematen da: *ene Lagunac jiten dira/emanen Beitericie Satisfamentia*. Cn eta Dn ordea, pheredikaria izango da *lagunen erakhartera* joango dena, *çamarietara* eta *Sonu eguiliekin* hurrenez hurren. Bestalde A izkribuaren lehen pheredikia osatu gabea bada ere, beste bietan agertzen ez diren hiru bertso ematen digu: Ako LPh49, 52 eta 53 (LPh 79 eta 81 bb.). Guztira 85 bertso izango zuen izkribu horrenak, kopiatzaileak (*84 vers*) kopurua zehazten baitu, *allicor* mairuaren aipamena daramana gehitu baino lehen.

E izkribuko laburrean, obraren laburpena erdian mozten du, eta predikariak aktoreei egin ohi dien deirik gabe, erantsitako bertso honetaz bukatzen du:

Anglesac hanitch gaisataic
bethi eguiten seron galtho
bena bestiac arapostiac
emaiten ounxa esinago

1.4.2.2. Jean de Parisen azken pheredikia.

Hiru izkributan agertzen zaigu eta, kasu honetan, hiruretan osorik: Bn (*azquen pherediquia*) 13 bertsoz, Cn (*asquen peredikia*) 18z, eta Dn (*Le Dernier/Prologue de/Jean de paris*) 17z, Ainciondok bukaeran kopurua oker ematen duela: *Le Dernier prologue/En 18 Vers*.

Honetan ere tradizioan antzeman ohi den egitura dugu:

1) Pastoralaren amaieraren iragarpena eta hutsengatiko barkaeskea.

Amaiera C eta B izkribuetan bakarrik dago esplizitatua, D izkribuan agertzen ez den bertso bakarrean (C eta Bko APh 10a, Dko APh 9aren osagarria) eta Dko APh 17arekiko aldaeretan (Bko APH 13 eta Cko APh 18) ederki ikusten den bezala.

Barkaeskea kunplimentu moduan egina dago eta ikusleei erakutsitako arreta, pazientzia eta pastoralera etorri izana eskertu ez ezik, egindako hutsak ez publikatzeko ere eskatzen zaie (APh 1-9 bb.). Bertan harro agertzen zaigu pheredikaria burututako antzezlanaz, eta honen egiazkotasuna nabarmentzen du APh 4.ean:

Jkhousi ducie anitz gaiça
egun representatu çaiçiela
historia ederra da
noula beita eguiazkoua

Esan gabe doa ezin dugula hori hitzez hitz ulertu. Pentsa genezake, beharbada, pastoralak daraman moralitate funtzioaren beste elementu bat dela, jarraitu beharreko bizi eredua indartzeko edo. Horrela, antzerki komikoari kontrajarria agertuko litzateke, barre egiteko gaiak noizpait *fabula* bezala aurkezten baitzaizkigu, Phantzart-en azken pheredikiaren aurreko bi bertsoetan gertatzen den antzera (Mozos, 1986: 249).

Bestalde, interesgarri gertatzen da errakuntzak zuritu edo justifikatzeko modua: *bena onxa eguin ezpadugu ere/gu beno Caharrago da*

hutxa (6. bertsoan); *bena noula baita chotilla/huxa Segur da coumbait eguin dugula* (Bko APh 4.ean); eta 9.ean:

Bena noula beita aisa

guiçonaren faltala erortia

pharka eçagucie goure inocentcia

compagna ohoragarria

2) Trageriaren laburpen txikia (12-15 bb.) eta erlijiozko irakaspide edo moralitatea (11 b.).

Laburpena C eta D izkribuetan besterik ez da azaltzen. Bertan, lehen pheredikian ez bezala, *grenada* erregeri eta *Salbaje*-ei egiten zaie erreferentzia, emandako batailak aipatuz. Erlijiozko irakaspidea, gure pastoral honen kasuan, otoitzeko gomendio hutsez formulatzen da.

3) Azken agurra eta dantzarako gonbitea (10, 16 eta 17 bb.).

Bukatzeko esaldi berbera erabiltzen da D, C eta B izkribuetan: *Eta orai populu ohoratia/pharka goure nabastarria* (17 b.). Bestalde, badirudi dantzaldia ikuslegoak, obra entzutearren, aktoreei egindako ohorearen ordain bezala edo hartzen dela, 10. bertsoan (eta hiru izkribuetan) agertzen denez; izan ere, pastoralaren luzea publikoa asperrarazteraino ere ailega baitzitekeen, Cko 17, B eta Cko 10 eta Dko 16an irakur dezakegun bezala. Azkenean, amaierako dantzan denek, aktore eta ikusleek, hartuko zuten parte (D 17 eta C 17 bb.).

1.4.2.3. Terminologia.

Pheredikietan pastoralak izendatzeko hitz desberdinak agertu ohi dira. Izkribu hauetan ere zerrenda nabarmena agertzen zaigu. A izkribua da kontu honetan urriena, tituluko *trageria* besterik ez baitago bertan; baina urratutako folioetan besteen antzerakoak egongo zirela eman genezake. Ainciondok hitz bera darabil izenburu moduan, baina frantsesez. Beste bi izkribuetan ez dago titulurik.

Testu barruko terminoei dagokiela hauek dira agertzen direnak: batetik, *trageria* (C eta Dko LPh 4; B, C eta Dko APh 6; Bko APh 13 eta Cko

APh 18) eta *pastoral* edo *phastoral* (hiruretako APh 2,3 eta 6, eta Bko Arhexen ex-librisean: *pastouralle*). A eta B izkribuen orri gabeziak ez digu Oihartzabalen baieztapena frogatzen uzten: "Le terme *pastorale*, aujourd'hui adopté, apparaît moins fréquemment (*trageria* baino) dans les vieilles copies..." (1990: 396).

Bestetik, *misterio* (Cko LPh 2an), *historia* edo *jstoria* (C eta Dko APh 4ean) eta *miraqulu*, hiruretako APh 7an: *orrible den miracuillu bat*. Azken honetan ez genuke bilatu behar Ertaroko *miracle* haien erreferentzia zuzenik; aitzitik, esklamazio antzeko kalifikazioa ematen duenez, pastoralgileen gehiegizko handiuste edo harrotasunaren erakuskaria izango litzateke, emanaldiaz nork zer esango zuen kezkatuta, itxura denez errepertorioan dokumentatu ez bada ere (Hérelle, 1926: 115-118). Tradizio zaharreko kahierretan agertu ohi direnen arteko hiru falta lirateke: *matheria, bie* eta *peça* (Oihartzabal, 1988: 774).

Hérellek B izkribuari buruzko oharretan erreparatu zien izendatze modu desberdin hauei, 1.1. atalean esan dugunez. Bere ustetan *trageria* testu idatziari egokituko zitzaion (1926: 83). Izkribuotan ditugunen arabera ordea, badirudi Oihartzabal dela kontu honetan zuzen dabilena (1990: 396-397); izan ere, sinonimo bezala uler baititzakegu. *Historia* hitzaz hala ere bestela esan dezakegula ematen du, testua edo errepresentazioan kontatzen den istorioa adieraziko bailuke, edo beste modu batera *feit/gaiça ederrik fidelki composaturic* (APh 8). Bollème-ren arabera, bestalde, "histoire' titulaturiko colportage-ko nobelatxoak XVII edo XVIII mendeetan izango ziren inprimatuak (1972: 192).

Arlo honetan E izkribuan antzematen dugun aldaketa aipagarria da: Cko *pastoral* hitza kendu eta *besta* jarri zuen Hegiaphalek. Pastorala festa da.

Azken termino aipagarri bat dugu pheredikü hauetan, nolabaiteko iruzkina merezi duena: *Suget*. Honela irakur dezakegu C izkribuko APh 10. bertsoan: *Eta noula beita Suget haur handy/arauz debeyatu çiraye aspaldian* etab. Bertso hau B izkribuko 10.a ere bada (ikus APh 9 b.), baina Ainciondok alde batera laga zuen.

Hemen *sujet* edo *historia* luzea ulertu beharko genuke; esaterako, kasu honetan ez litzateke pertsonai izendapena, baizik eta gaia, kontakizuna (Oihartzabal, 1990: 406). Agian, hori izango zen Frantses Iraultzaren aurreko garai haietan hitz horrek zuen adiera, gerora beste esangura hartuko zuelarik, historian edo kontakizunean nagusi den pertsonaia ez ezik, aktorea

bera ere izendatzekoa alegia. Dena den, hitzaren arlo semantikoaren zabalkuntza datatzeko beste pastoral izkribuetan ematen zaion adieraz konparatu beharko litzateke. Haritschelhar jaunak jakinarazi digunez, oraindik ere frantsesez esandako balio guztiak mantentzen ditu terminoak.

1.4.3. Irakurgida.

Pastoralak, bost izkribuen bilketa izanik, irakurtzeko posibilitate anitzak eskaintzen dizkigu, nork bere interesen arabera joko duelarik Dko oinarri testu hutsera (6.1. atala), edo gero datorren bertsoz bertsoko alderdi kritikora (6.2.). Azken honetan, esan bezala, beste izkribuetako aldaerak, pastoralgileen hizkera eta antzezmoduari buruzko ohar-iruzkinak, eta oinarri testuan azaldu ez, baina izkribu zaharragoek ematen dituzten bertso osagarriak irakur daitezke.

Zeregin hori errazteko moduan, eta antzerkiak nahiz romanak (2.2.1. atala) aurkezten diguten istorioaren egituraren argigarri, hona hemen irakurgida zehaztua, D izkribua oinarri hartuta, eta horren arabera, A, B eta C izkribuetako testuaren agerpen-desagerpenak azalduta. Horiekin batera, hiru haietatik gehitutako bertsoek Dko testuan duten kokapena eta iturrian agertzen ez diren zatiak (azken hauek maiuskuletan) aipatzen dira. Pastoralaren edukiaren eskema orokor hau 3.1. atalean garatuko dugu. Gida honetan ez dugu E izkribua sartu, aparteko konturik ez baitu gehitzen.

LEHEN PHEREDIKIA: D eta C berdin. Ak hiru bertso gehiago (D79 eta D81), baina izkribu hau Dko LPh31 bertsoan hasten da, aurrekoak galduta baitaude.

ARRIBANTCHA: D eta Cn.

HASERAKO ERRONKA (D22 bertsoraino). D eta Cn bakarrik. Bertakoen artean, D4 eta D7-12 ez daude Cn. Ck bertso bat gehitu (D19).

I. ESPAINIAKO KOROA BERREZARRI (D23-126), **ALABAREN ESTABLIMENTIA** eta **FRANTZIAKO ERREGEREN HERIOTZA** (190 bertsora arte):

D28an A izkribua agertu.

Dk gehitua: D182.

An ez daudenak: 37, 57, 69, 140 eta 141.

Baionako B izkribuaren folio solte bat (D117-138). Bertan Ck eta Dk gehitua D122; Bk bi gehiago (D121).

Azkenik, Ak bertso bat gehitu (D174), Ak eta Ck bat D183 bertsoan, eta Ak lau D190ean (Frantziako errege hil ondoko kantua bertan delarik).

BATAILA (D92-112) ez dago iturrian, An desberdina da (A59-76 gehituta, D112 bertso-oharrean). HERIOTZA ez dago iturrian liturgizatua.

Iturriaren 1-10 kapituluak hartzen ditu zati honek.

II. PROKURADORE-EZKONTZA (D200-216), ANGLATERRE PARISERA (D255), JEAN ESPAINIARA ABIATU (D326):

B izkribua agertuko da D216-314 bertsoetan zehar.

An ez daudenak: D211 eta D248.

Ak, Bk eta Ck bat gehitu: D298. Ak eta Bk bi gehitu: D239. Ck bi gehitu: D221 eta D247.

Dn bakarrik: 276-277 bertsoak, CHANCELIERRA-JEAN. Horiek iturrian agertu ez.

Iturriaren 11-17 kapituluak sartzen dira bertan.

III. BIDAIAREN GORABEHERAK (327tik aurrera) eta ANGLATERRE BURGOSEN (D500 bertsoraino):

B izkribua agertu (D338-490).

A eta B izkribuetan ez daudenak: D398 eta D471.

B berriz agertu D460 bertsoan.

Ak gehituak: D334 eta beste sei bertso gehiago, D493an erantsiak.

BATAILA (D403-459) C eta Dn bakarrik, beste bietan ezkontza preparatzen hasi. Cn bataila osabidean agertzen zaigu, gainjarri eta lerrotarte bete asko alegia. Bertan ez daudenak: D411-413 eta D428-431 (SATANen parte hartze apurra), D448 eta 455-57 bb.

Iturriaren 18-30 kapituluak.

IV. JEAN ETA BERE SUITA BURGOSERA SARTU (501-755 bertsoak):

B izkribua bitan agertzen da: D552-573 eta D598-677 bertsoetan. Izkribu berak gehitu hogeita bederatzi bertso: INFANTAREN eta ARTXELEN SAIOA (D675).

D eta C izkribuetan bakarrik azaltzen direnak: D507; 533 eta 545 (ALIKUN ETA LARKADAren saio barruan); 605, eta D638-675, IZKUTUKO SAIOA alegia; bertan, Dk Cn ez dagoen bat gehitu: D643.

Ak gehituak: D544an, lau bertso eta D604ean hiru bertso.

Ak, Bk eta Ck gehituak: D616 eta 629an bana, eta D637an sei.

Ak eta Ck gehitu bertso kopurua esanahitsu gerta liteke: bana D573, 679 744ean; bina D706 eta 736an.

Iturriaren 31-47 kapituluak hartzen ditu.

V. JEANEN ADIERAZPENAK eta KOROAZIOA (D756-797), EZKONTZA eta HERIOTZA (D798-945):

D763,764 eta 767 ez daude An. D768, ez An ez Cn. Izkribu biok gehitu bat D757 eta 784 bertsoetan.

D803 bertsoan hasten dira Ako urratuak. Bertatik hamaika bertso gehiago eransten dira (azkenaurreko BATAILA, A, C eta Dn agertzen dena).

Cn ez daudenak: D855-866, 822, 824 eta 879-908 (azken BATAILA, BAHIKETA eta guzti, D izkribuan soilik).

Bren azken orriak agertu D902ean.

B eta C izkribuetan ez daudenak: D903, 904, 909, 910, 933 eta 941.

Dk eta Ck emanak: D913-915 eta 928-931.

Azkenik, alde batetik Ck gehitutako bat D877ean eta 940an; eta, bestetik, Bk gehituak: bana D938, 939 eta 943an; bi D940an eta lau amaieran. Jeanen HERIOTZA antzezten da alde horretan.

Iturriaren azken partea (48-59 kap.) biltzen duen zati honetan ugari dira roman-ari kenduriko pasarte eta kapituluak.

AZKEN PHEREDIKIA: B, C eta D izkribuetan bakarrik. 9. bertsoan Ck eta Bk bat gehiago. Bn 12-16 falta dira.

1.5. Eskuzkribuetako hizkuntza.

1.5.1. "Style, versification, langue".

Epigrafe frantses hirukoitz horrenpean aztertu ohi dute pastoralen hizkuntza, gaiaz arduratu diren ikerlari gehienek (Hérelle, Léon, Saroïhandy eta, azken garaiotan, Oihartzabal).

Aztergai dugun Jean de Paris-en izkribuetan ageri den hizkerak ez du generotik aparteko elementurik eta bete-betean dagokio esandako ikerlariek azaldutakoari. Guztiarekin ere, inguru horretan nabarmentzen diren zenbait puntu komenta genitzake:

ITURRIAREN HIZKERAREN ISPILU: interesgarria da mailegu guzti horien euskaratzea. Izkribu desberdinen artean ez ezik, bakoitzean ere ikusten dira aldaera diferenteak, oharretan esaten dugunez.

Bestalde, ezaguna da pastoralen hizkera kaskar eta itzulpen huts modura juzkatzeko joera. Esan genezake hizkera hori berezkoa duela teatro genero herritar honek, eta ez dagokiola soilik Zuberoako produkzioari, Europan zehar hainbat herritan garatutako antzeko ekoizpenetan berdin gertatzen baita Hérellerengandik Garamendiganainoko ikerlari orok adierazitakoaren arabera. Horrela, ageriko diferentziak aparte utzita, pastoralei aplika lekieke J. Delalande-k herri teatro bretoiaz esandakoa:

Le vocabulaire est corrompu par de nombreux emprunts au français. Ces emprunts s'expliquent en partie par le fait qu'il fallait remplacer les mots manquants. Comme dit Joseph Loth dans sa *Chrestomathie bretonne:* "Le breton n'étant plus dès le XIe.-XIIe. siècle la langue de la cour, n'ayant jamais été enseigné, n'avait pas conservé ou développé les mots nécessaires à la spéculation intellectuelle ou scientifique." Il apparaît clairement, d'autre part, que les auteurs voulaient en imposer au peuple en lui servant des mots inconnus de lui, ce qui les faisait passer pour lettrés. (1518 or.).

IZKRIBUETAN IGARTZEN DEN EBOLUZIOA: errepresentazio modu edo *trageria*ren jokamoldeetan oso da ageri, Ainciondorena generoaren eredu delarik; hala ere, idazkera aldetik, errejentek errezitatua biribiltzeko joera dutela ematen du. Ageri-ageriko bi xehetasunetan ikusten da hori. Frantziako erregek Espainiako erreboltatuei igorritako gutuna da lehenengoa. Bertako testua Dn besterik ez zaigu bertsotan agertzen. Besteetako errepresentazioetan agian ez zituzten deklamatuko (ikus 47. bertsoa eta jarr., dagozkien oharrekin).

Bigarrena, izkribu zaharrenetan bi lerrotako bertso (edo bertso erdi) batzuk, lehen Cn eta gero Dn nola osatzen diren ikustean daukagu. Jarraiko koadroan zerrendatu ditugu, begikolpezko konparaziorako. Lau lerrodunak dira zehazten ditugunak eta, horren arabera nabarmen genitzake batetik, A eta Bren arteko kointzidentzia eta, bestetik, Cren zubi funtzioa. Azken izkribu honetan erruz agertzen dira hasierako kopiaren gaineko lerro gainjarriak, batzuetan margenetan ere idatziak -E izkribua ez da kontuan hartzen ez baitio gaiari ekarpenik egiten.

Erantsi hauetan, bestalde, ederki ikusten da bertso estilo horren egitura "contraignante"a eta aldatzaileen betegarri lana (Oihartzabal, 1988: 800-801):

A	B	C	D
-	-	198bis	211, 4 lerro.
310	137	339	352, 4 l.
312	139	341	354, 4 l.
313	139'	342	355, 4 l.
314	140	343	356, 4 l.
315	140'	344, 4 l.	357, 4 l.
318	143	347	360, 4 l.
319	143'	348, 4 l.	361, 4 l.
327	151	356	369, 4 l.
328	151'	357	370, 4 l.
329	152	358	371, 4 l.
330	152'	359, 4 l.	372, 4 l.

331	153	360, 4 l. 373, 4 l.
336	158	365 378, 4 l.
345	167	374, 4 l. 388, 4 l.
346	167'	375, 4 l. 389, 4 l.
347	167''	376, 4 l. 390, 4 l.
408	-	478, 4 l. 503, 4 l.
409	-	479, 4 l. 504, 4 l.
445	-	517, 4 l. 542, 4 l.
660	-	770, 4 l. 780, 4 l.
661	-	771, 4 l. 781, 4 l.
666	-	776, 4 l. 785, 4 l.
-	322	865, 4 l. 919, 4 l.

PASTORALGILEEK MOLDATZE LANEAN EGINIKO EKARPENAK: pastoralgile, errejent edo kopisten lana garai hartan istorioak euskaratu eta teatro emanaldia paratzea zen.

Moldatze lan horren testigantza zuzen eta antzinakoena, oker ez bagaude eta dakigunaren arabera, Hérelle-ri Aguer eta Jean Heguiaphal pastoralgileek emandako datuak dira (ikus 3.2. atala eta *Les Pastorales à sujets tragiques considérées littérairement*). Bai hortik, bai beste informazio bide batzuetatik atera daitekeen ondorioa testua baino, emanaldiaren ikuskizuna hobestea da (Oihartzabal, 1985). Teatrogile haiek ikuskizun, ikusgarri bat aurkezten zioten herriari. Inguruko nekazal jendea biltzen zuen festaren gunea zen pastorala. Horren arabera, errejentak publikoari, honek erabat ulertzen duen kode dramatiko baten bidez eskeintzen dio frantsesezko istorioa. Kode hori badirudi lehen eskuzkribuak agertu zirenerako finkaturik zegoela, nahiz eta handik aurrera eboluzionatzen duen, Jean de Parisen bertan, Phantzarten (konparatu besterik ez dago, esaterako, Cazaurangen 1803ko itzulpen biarnesaren pertsonai zerrenda eta Jakes Oihenarteren bertsioarena; Peyrègne, 1978 eta Mozos, 1986) eta, batik bat, Oihartzabalen tesian (1988), besteak beste, argi baino argiago froga daitekeenez. Kode dramatiko horretan testuak ez zuen garrantzi handirik. Ez dugu ahaztu behar izkribu guzti hauek teatro tradizioaren eta, beraz, herri errepresentazioen osagarri beharrezko, baina inola ere ez nahiko zirela.

Dena den, nabarmendu beharreko lehen ekarpena istorio frantsesak bertsotan jartzea da. Bertsook, ezaguna denez, doinu jakinean deklamatzen edo kantatzen ziren, eta oraindik ere hala da. Bertso mota horren ezaugarri

behinena jokaera librea da konposatzeko orduan, doinua eta asonantzia baitira, nolabait mugatzen duten elementu bakarrak.

Moldatzaileen bertsifikazio modu horren nondik norakoa zehazteko ahalegin aipagarriak egin dira. Hérellek esaterako, Ertaroko misterio eta drama liturgikoen eraginaz gainera, bertso librearen sorreraren aztarnak ikusi zituen bertan (aip. lib. 61 or. eta ingurukoak). Garamendik Mendebaldeko Europa osoan Barrokoaren garaian ematen den antzezmodu deklamatua, elkarrizketak eta ekfrasi (muga gabezia) poetikoan oinarritua (ikus 3.1. atala). Oihartzabalek bertso mota horren *itxurazko libertatea* eta zehazkiago neurririk eza, Zuberoako pastoralen zahartasunaren aldeko barne-argumentu azkarrentzat jotzen du; erreserba handiz ordea, esplikatu gabeko kontraesan handiak baitaude, herri literaturak alde honetan garaturiko joera ikusita eta inguruetako antzeko teatro nekazariekin konparatuta (1985: 83-88).

Geure aldetik, Jean de Parisek gai hauetan apartekorik erakusten ez duela gogoratuz, bi puntu nagusi azpimarratuko genuke pastoralen bertsoetan.

Liturgi kutsu nabarmena da lehenengoa. Ageri-agerikoa pherediküetan (Gavel, 1911) eta emanaldia apaintzen duten kantuetan: gure D izkribuan *De profundis* aipatzen da zehazki, baina besteetan ere hil kantuak eman ziren, A eta Cko antzezoharretan eta Bko azken kantuan ikusten denez.

Baina, zer esan testu gehiena errezitatzen deneko doinuaz? Bada, pherediküetan erabiltzen denarekin antz handia erakusten duela eta, bestalde, bigarren puntu bezala nabarmentzekoa, errezitatu beharreko testua memorizatzen edo ikasten laguntzeko erritmo jakin bat gordetzen duela.

Ezin da ulertu mugimendu (edo, dantza?) gabeko trageriarik. Alde horretatik begiratuta, Manuel Lekuonak egoki definitu zuen musika, dantza eta poesiaren arteko sintesi moduan. Ez dugu uste Marcel Jousse-k alperrik hartuko zituenik Hérellek J. Heguiaphal eta Aguer errejentei galdetutakoen erantzunak, ahozko estilo erritmikoaren adibide bezala (1925: XI. kap.).

Horien arabera, pastoraletako bertsoak konposatzeko orduan ez zaio inongo arauri begiratzen, jokalariek erraz kantzatzeko modukoak izatea ez bada. Baina Hérelle-ren hitzetan "Ce qui résulte clairement de ces deux réponses, c'est que les versets basques, faits uniquement en vue de la déclamation, sont trés libres. Mais quelle que soit la liberté d'une récitation, encore faut-il que la parole humaine y soit soumise à certaines

conditions de rythme" (ibid. 183). Jousse-k bere liburuan dakarren zita hau gehituko genioke: "tout mètre est un rythme mais tout rythme n'est pas mètre" (181 or.).

Pastoralen erritmo jakin hau errezitatuaren doinuak emana da, jokulariaren pausoak ez ezik noski. Erritmo unitatea bertsoa da eta honela deskribatzen du Oihartzabalek (1985: 83):

> ***"bertsu*** **(bertso-lerro)** ***pare asonantzatu bakoitzak*** **(bi hemistikiok, alegia),** ***bere unitate semantikoa atxeki behar du, eta erdiko hausturak*** **(zesurak)** ***egokitze sintaktiko bat markatzen du. Bertsetari*** **(pastoral bertsoari),** ***ardurenik, mezu-unitate bat dagokio".***

Jean de Parisen izkribuetan ikus daitekeenez, antzera gertatzen da gehienetan. Haren tesian bezalako azterketa zehatzik egin ez badugu ere, anisosilabismoa eta asonantzia dira nagusi, azaldutako erritmo eskemari erantsita.

Hala ere, erantzun ezin dugun galderak bertan dirau: nondik nora agertzen ote den erritmo, deklamamodu edo doinu hori alegia. Azurmendik bertsolaritzarako iradokitzen digun eliz kutsua (1980), Jousse-k deskribatzen duen "L'utilisation mnémonique instinctive des schémes rythmiques" (ibid. XII. kap.), Altunak bere lanean (339-340 orr.) erakusten dizkigun tradizio epiko eta lirikoaren eragina... horiek orok lekarkete, agian, Zuberoako teatro herritarrak erakusten duen erritmo egituraren holako edo halako esplikabiderik. Ez dugu ordea ur handi horietan sartu nahi, ez delako lan honen helburua, eta esan denaz harantz egin ezin dugulako.

Izkribuetako hizkeran ageri den beste ekarpen nabarmen bat errejent edo/eta aldatzaileek erantsitako zatietan dago. Horien zehazpena gorago eman dugu 1.4.3. ataleko irakurgidan eta, beherago, sakonkiago aztertu 3.1.ean.

Bertan erabiltzen den hizkuntza edo hizkerari dagokiola bi ezaugarriok dira nagusi:

*** Eliz kutsua berriro ere alde batetik, bereziki emanaldiaren parte serioetan eta Frantziako errege nahiz Jeanen heriotzetan. Pasarte horietan, liturgiatik zuzenenan aldaturiko latinezko esaldi bat edo beste erantsita daude, 28 eta 182 bertsoetan ageri denez.**

Oinarri testuari (D izkribuari) jarritako oharretan adierazten da, esate baterako, pasarte horiek garaiko katexima herrikoiekin erakusten duten antza. Bertan ez dugu uste apaizgoaren eragin zuzenik bilatu behar denik. Itxura guztien arabera, eliz edo liturgi eredu horiek errejentek herritartuak eta errepresentaziorako moldatuak izango lirateke.

Nabarmentzekoa da, bestalde, pertsonaia nagusien heriotzean andreak jokatzen duen papera; izan ere, Ama Birjiña Doloretakoaren, *mater dolorosa* delakoaren bertsio herritarra baita, teatrora moldatua. Beste pastoraletan nahiz herri literaturan askotan ageri da (ikus, esaterako, Garamendik Marisantzen pertsonaiaz esandakoak 1990: 610-611; eta Azurmendi, 1980: 148).

Liturgiaz eta bere funtzio didaktikoaz Txomin Peillenek iruzkin interesgarria idatzi berri du (1992: 441-443). Hori dela eta, Jean de Parisen D izkribuko apaizaren saioa da aipagarri, ezkongaiak sakramentu horretaz instruitu beharrik ikusten ez duelarik (863 b.).

*** Beste alde batetik, herri hizkera bete-betean azaltzen duten pasarteak daude, teatro moldean kontaturiko istorio elkarrizketatuan: batailen inguruko saioak, pertsonaia komiko edo bigarren mailakoen interbentzio dialogatuak eta horien nahiz besteren monologo apurrak.**

Mairuek eta geroko beste pertsonaia apaingarri erantsitakoek hizkera herritarra ahoratzen dute, istorioa bera moldatzen den zatietan agertzen dena baino askoz hurbilagokoa publikoagandik. Ahozko literaturaren beste generoen sartzea bezala gertatzen da bertan: errafrauren bat eta hizkera eskatologiko eta komikoa (txikito eta ditxoetakoa, ikus Peillen, Antzerti: 11 zenb.; bestalde, gaia Urkizuk garatua da: 1988).

Infantaren saioan nahiz artxelenean eredu herrikoi libertigarriak azaltzen dira, mertzenarioen joku eta diruzaletasuna, eta xaribarietan ohi zeneko neskaren bakarrizketa zantzuak. Inguru berean koka genitzake beste hizkuntzetako zatiak: latinezko zenbait liturgiatikoak izanda ere, xaribari-tragikomerietan ohi diren espresio judizialak, birao estereotipatuak hizkuntza arrotz dominantean, gaizto eta satanen aldetik; edo horien eta mairuen espainolezko zatitxoak, behe mailako hizkuntzan, orduko zuberotarren ustetan.

Azkenik nabarmendu beharrekoa da inguru honetan, Antzinako Erregimeneko eredu femeninoa adierazten dutela andre pertsonaiek beren saioetan. Ageri den Infantarenari, neska enamoratuaren gorabehera

herrikoiari alegia, ama eredu sasiliturgiko hiletaria kontrajartzen zaio, heriotzen eszena jokoetan.

JEAN DE PARISEN IZKRIBU-ERRIENTAK, ETA ANTZEZTU HERRIAK (ETXAIDEREN KARTATIK)



A: Ozazen, Irigoien abadeak XIX. mende hondarrean arbasoen etxeko ganbaran topatua. Lhandek San Telmon utzia; ditugun pastoral izkribuetan zaharrenetakoa.

B: Pierre D'Arhex, Larrañe, 1760. Baionako Euskal Museoa, 19. zenb.

C: Bernard Etchebarne, Sarrikotapea, 1783; Atharratzeko Pierre Lahorek eta Alozeko Karrikiri Bordetek erabilia, Eiartxen, Barkoxetik gertu, 1777. Pariseko Liburutegi Nazionala, 213. zenb.

D: Ainhizeko Pierre Ainciondok egina. Exlibris: Pierre Celhay, Arüe, 1827, eta J. Btte. Saffores. Pariseko Liburutegi Nazionala, 146. zenb.

E: Jean Pierre Hegiaphalek egina, Sohüta, 1894.

1.5.2. Zubereraren azpieuskalkien eredu: idazkeraren azterketa fonologikoa.

Jean de Parisen eskuzkribuetan probintziako hizketa diferenteak agertzen dira. Bonaparteren garaietatik hona definitzen diren ezaugarriak dira horietan ageri (Zuazo 1989). Hori da egindako azterketaren ondoriorik behinena hizkuntz kontuan, jarraian erakutsiko dugun bezala:

D izkribua (Pariseko Liburutegi Nazionala, 146 zenb.)

BOKALAK

/a/ bokal irekia normalean honela transkribatua. Alternantzia gertaerak hala ere badaude: *algar* (152) eta *elgar* (LPh16); *ukhan* (373), *ukhen* (47), aurrekoa baino ugariagoa. Zenbakari ordinalen atzizkia, zuberera arruntaz ez bezala, *-garren* moduan azalduko zaigu. /i/ bokalaren atzean desagertu egingo da batzuetan, hiatoa eragotziz: *Salbajiq* (APh14), *khantin* (348), *khuntiq* (802). Hauek, neurri batean behintzat, Pettarrako azpieuskalkiaren zantzu dira Charlemagneko Bassagaixen izkribuan bezala (originalaren 560. orrialdean kontrakzio modu horien zerrenda dugu), testuak Amikuzeko hizkera isladatzen duen arren. Hitz aurreko dardarkariaren aurrean agertuko zaigu, maileguetan batez ere: *arraphosatu* (257), *arraport* (565).

/e/ sabaikari erdikoa, joera orokorrari jarraiki, itxi egingo da mugatzaile aurrean: *soignian, semia* etab. Azentu eta guzti noizpait: *Nêt* izen nagusia eta interjekzioak kasu. Hitz hasieran batzutan sabaikari itxiaren ordezko: *enuchentu, eguriki* baina *inocentcia* (493). Bokal honen desagerpena batzuetan gertatuko da: *din* (395) laguntzaile gehi konjunktiboaren kasuan, edo herskari-sonanteen artean: *letra,* beste izkribuetan *letera* dugularik. Hitz honetan ahoskera frantsesaren sarrera gertatuko zen, izkribu honetan beste kasu batzuetan ikus daitekeen bezala.

/o/ bizkarkari erdikoa idazkera horretan bertan ere, izkribuetan noizpait *heraut* grafia agertu arren. Sudurkari aurreko hersketari dagokiola alternantzia handia: *guiçon* gehiagotan *guiçoun* baino; *onxa* eta *ounxa; soignian* (775) eta *souignian* (776); *hontarçun* (471), *honki* (466) batetik, eta *hounki* (502), *hountan* (503) bestetik; *ohoign* (889) eta *ouhouignaq* (888). *omen* (346) itxigabea nagusi da izkribu honetan. Aldaketa bera galdetzaileetan nabarmenduko da: *Non* (408 eta 471) eta *Noun* (488); *Nor* (477, 515 eta 598) eta *Nour* (525, 567 eta 681). Maileguen idazkeran ere bai: *ouhoure* (131 eta 848) eta *ohore* (166 eta 405), bokalarteko *h* ingurukoa sudurkaria delarik amikuzeraz ere (Zuazo, 1989, 620); eta *esposa* (261 eta 653), nahiz *espousatu* (654). Mailegu berriago ematen dutenetan ordea, hersketaren kontrako joera dagoela dirudi: *afrontu* (666), *baron* askoz gehiagotan *barou* baino, *galon* (686) etab. Izkribu honek beraz, ez luke zuberera arruntak bezain hedadura handian emango aldaketa hori (Zuazo, 1989, 620). /a/ fonemaren aurreko hersketa eskuarki mantentzen da: *heriouaq; -coua* izanik genitibo lokatiboaren forma ugariena. Honen transkripzioa *ou* den arren, *v* letra zenbaitetan agertuko zaigu, ahoskeran

berezitasunik emango ez zukeena gure ustez: *adivaq* (916), *khariva* (168), *amoriva* (237), *heriva* etab. *hogoi* (787) idazkera esanguratsua liteke, zuberotarra ez den aldetik. Itxi gabea ere *palacioala* (179).

/u/ bizkarkari atzeko itxia *ou* moduan, baina baita *u* idazkeraz ere: *Cure* (191, 72, 76 etab.) forma nagusi delarik, *gure* bakanen baten aldean, amikuzerari dagokionez eta beste izkribuetan ez bezala. Gauza bera *khounta* eta *khunta* (355), *juan, jouan* eta *jun* (744 antz.) bera ere bai, azkeneko hori mono nahiz bisilabo bezala ahoskatuko zelarik (ikus Altuna 1979, 68 or. Dechepareren kasurako, eta Charl. 119 or. pastoralendako). Sudurkari aurrean ez zaigu beti agertuko, aipatu ditugun *honki, guiçon* eta *onxa* horietan ikusten den bezala, baina bai zenbait aditz formatan: *Çagouen, Ciouen.* Artikulu singularraren aurretik bai: *ondouan, khoroua,* eta zubereraz biribilduta agertzen zaigun zenbait hitzetan: *ourkhatu* (95, eta 102), *ourhe* (686 eta 320), baina *urhe* (308), *ourhaxiala, goustouco* (247), *mounduco, ehoun* (645), etab. "Joan" aditzaren forma sintetikoetan *-ou-* idazkera nagusi delarik ere, baditugu *duha, Banihaçu* etab. Maileguen idazkera mantenduko da, bokal bizkarkaria itxi gabe, izkribu honen kasuan: *Compagna, Complitu*. Batzutan hitz azkeneko sudurkariaren desagerpen grafikoaren ondorioz agertuko da *khanou, barou,* ahoskera sudurkariz noski.

/ü/ bizkarkari atzeko itxi biribildua, *u* bezala idatzia, baina zenbait izen nagusi eta mailegutan *eu: Monseigneur* (154 eta 400). Baita espainar ahoskera emango lukeen grafiaz ere: *Seinor* (448 eta 539). Zubereraren aldaera bokaliko honen kasuan, besteetarako goian esan dugun bezala, kanpo euskalkiren baten eragina somatzen dugu, ex-librisean agertzen den Arüe herriko amikuzera, behenafar-zuberera artekoa alegia (Zuazo, 1989, 617), biribilduaren kontrako joera izpi bat agertuz: *Moundu* (29 eta 170) baina *Munduco* (559), *jousto , egoun , ourde.* Bestalde, mugatzailearen aurreko hersketa hemen ere mantenduko da: *buria, Saintia* baina ez beti: *membruaq* (183). Azentudun forma bat edo beste azalduko zaigu, zer adieraz lezakeen ez dakigula: *Sûya* (412), (Zuazo, 1989, 621). Bokal honen eta diptongoaren arteko alternantzia ere badago, Charlemagne eta beste pastoraletan bezala: *hullent* (178), *huillant* (327), *puchant, puissant* etab. Izkribu honetan ez bezala, besteetan zubereraren joera arrunta segituko dute aldatzaileek, alegia, /u/ fonemaren artikulazio gunearen aurrerakuntza emango da eta, atzeko ahoskerari dagozkion salbuespenak kenduta, asimilazio bidez agertuko da: *unguru, uthurri* etab., bokale eta diptongo sudurkarietan ere azalduz (Txillardegi, 1984, 439 or., Lafon 1962).

/i/ sabaikari atzeko itxiak posibilitate desberdinak ditu transkribatzeko orduan: *i* bezala gehienetan, hitz hasieran *J*-eskuarki, erdian *-j-, -i-* eta *-y-* hiru formak, eta azkenean *-i, -y.* Zubereraren joera normaletatik aldentzen zaigu izkribu hau zenbait forma palataldugabetan: *gauçac* (LPh80); *gaiça* (29) ugariagoaren aldean; baita biribilduak asimilatzen ez duenetan ere: *iduri, inguru, itçuli, ithurri, ninduçun* agertuko zaizkigu asimilazioa eman den gutxiago batzuen aldean. Aditz trinkoen jokaeran agertzen da: *nihaçu, dihaçu*. /e/-ren asimilazio bidezko desagerketa bitxiak arierazko okerrak izan litezke: *ahal diniz* (527), *Sujita* (391), *Suitarikila* (LPh60).

DIPTONGOAK

Goranzkoak:

Euskararen joera eskuarki, diptongo hauen kontrakoa bada ere, zuberera liteke euskalki oparoena ahoskatzeko orduan. Dena den, bertso lerroen banakuntza silabikoa zehaztea ezinezko gertatzen zaigu, errezitatuaren neurria zeharo askea zelako. Beraz, zalantzak egon litezke zenbait diptongoren izateaz. Grafiak, noizpait markatzen dituela ematen badu ere, ez digu arazoa konpontzen: *deja* (501 eta 696) *da* adizkia gehi galdera markaz osatua, *hajen* (511). *paseya, baya* (696), *Sûya* (412), baina *pasea* (86), *niela* (707) eta *herivaren* (40) "herriaren" esanahiaz azkenau. Maileguetan antzera gertatuko zaigu: *assiejatia* (40), *Souficienta* (65), *bourjoues, triate. fediaz* (43) eta agian *ofria* (34) bera ere mono ala bisilabiko ziren ez dakigu, "joan" aditz infinitiboari buruz esan dugun bezala. Diptongo hauen kontrako hiatoak mantendu egingo dira izkribuan zehar, batez ere nominatibo-ergatiboetan: *buria, fripoua, demoniouaq* (450), *Memorioua* (837), aipatutako "-a" artikuluaren desagerketa kasuetan salbu, *bestiq* motakoak alegia.

Beheranzkoak:

Mantendu egingo dira indargileetan: *çuhaureki* (376), *ihaurec* (227), *neure* (237). Busti aurrean alternantzia: *hullent* (178) eta *huillant* (327), *batalla* (448 antz.) eta *batailla* (442 antz.), *Mahaignian* (472) eta *mahagnan* (470), *treign* (504) eta *tregna* (479). Beste zubereretan bezala agertzen diren arren, baditugu zenbait zantzu mendebaldera eraman eta, asko ez izan arren, beste eskuzkribuetatik honako hau diferentziatzen dutenak: *bait-* aurrizkia ugariago edo gehienez paretsu dator, zuberotarrek orokorki *beit-* dioten horrekin: *baitçereiçun* (192), baina *beitait* (229) eta *beikintake* (383) adizkietan ikusten den bezala. Aipaturiko *gauçac* bustigabea zubereraz arraroa gerta litekeen arren, ez dira gutxiagokoak izango *uheitz* (667) harmonia bokalikoaren itxuraz, *ouhaitz*-en aurrean, eta gauza bera *ireisteco* (374), *Jraizteco* forma arruntaren aurrean. *beciq* (770) forma bakana da diptongatu orokorraren aurrean: *baiçi* etab. *-r-* bokalartekoaren desagerketa, diptongoak eratzeko orduan, ez da beti izkribu honetan ematen, aditz forma laguntzaileak, bai *derit,* bai *deit* erakoak direlarik, azkenau gutxiagotan ematen bada ere. Dena den, ez dakigu izkribugileak modu horretara silaba bat gehiagoko errezitatua adierazten zuen. Maileguetan aipatzekoa *chefautiala* (135), Tx. Peillenek jakinarazi zigunez, "chefaut" gaskoinetik datorrena. Azkenik, mantendu egingo da ekialdeko joera aditz izena diptongoz osatzekoa: *erraiten, jouaiten* (LPh32), *ukheitera* (LPH57), *iragaitian* (386).

KONTSONANTEAK

Herskari ezpainkariak, /p/ eta /b/:

Horrela idatziak. *v* moduan mailegu eta izen nagusietan: *d'orfevretala, Visita, Virgina* (922), *Verthutiari* (42), *Versaillera* (312). Alternantziak aspiratuarekin: *pena* nahiz *phena.* Gortu egingo dira normalean asimilazio progresiboaren ondorioz: *ezpahay* 7, *ezpaciradie* LPh4.

Herskari apiko-horzkariak, /d/ eta /t/:

Horrela idatziak. Asimilazio progresiboaz gortu hauek ere, nahiz kontrako grafia moduak agertu: *eztien* (181) eta *ezdaite* (284), esate baterako.

Herskari sabaikariak, /dd/ eta /tt/:

Bigarrena besterik ez da agertuko, eta bitan soilik: *Suspeittatia* (LPh46) maileguan, eta *khanatto* (493) txikigarrian.

Herskari bizkarkariak, /k/ eta /g/:

Gorra edo ahoskabea horrela, edo grafia etimologikoari jarraiki *c* eta gutxiagotan *q(u),* hitz hasiera-erdian eta bukaera aldera: *franciaco, berac, nihorq,* baina ia beti *Jalki* eta *jakin.* Ozena *gu* hasiera-erdietan. Aipagarriak, gorpena txistukari atzean: *ezcunien* (486), eta zubererari dagokion gorraren erorketa hitz bukaeran ablatiboz, beti ematen ez dena: *engoiti* (477), *Munduti* (171), *erditi* (190 antz.) alde batera, eta *parisetiq* (393), *engoitic* (10) bestera.

Herskari aspiratuak, /ph/, /th/ eta /kh/:

Horrela gehienetan. Bizkarkariari dagokiola, *ch* eta *qh* ez dira agertzen izkribu honetan. Alternantzia dago aspiratu eta aspiragabeen artean: *dembora* (779) baina *thempora* (726); *arraphostu* (LPh10), *arraphosatu* (257) baina *reposatu* (163) etab. Maileguetan ere bai: *triathe* (LPh68), *thiatrerat* (404 antz.) eta beste batzuetan *triate.* Forma harrigarri zenbait ere badago: *Monarkha* (154), *khur* (636 antz.), agian hizkera liturgikoaren edo solemnitatearen seinale. Gehiegizko joeraren bat ere bai: *Lhanthatu* (LPh56), behin baino gehiagotan hitz berean bi aspiratu markatzen delarik, Mitxelenak (1951) eta Lafonek esanak gehien batean egiaztatzen diren arren.

Herskari sudurkariak: /m/, /n/ eta /ñ/:

Horrela, baina *gn* frantses grafia gehienetan, bokalarte nahiz diptongo ondoan, bustiarendako: *Seigneur* (400), *Segnor* (448), *thermagnia* (238) eta *treigña* idazmodu bitxia ere (362). Era berean, batzuetan *-in-,* espaineraz egiten dutela: *Seinoras* (539). Behin edo beste *-nn-* bikoitza horzkaria adierazteko: *annaye* (159). Leherkariaren aurrean orokorra da ezpainkaria: *hambeste* (601), *dembora* (LPh55), noizpait erroreagatik edo, bestela irakur daitekeen arren: *eguinbidiaq* (521). Grafia etimologikoaren arrastoak errepara ditzakegu, gehienetan hizkera liturgikoan: *redemtoraren* (173). Sudurkariaren erorketa maileguetako /s/ aurrean gertatzen da: *cosentitu* (224), eta bokal sudurkarien arrasto den beste kasu batzuetan, izkribuetako grafian halakorik markatzen ez den arren: *ourhe fiz* (320), *khanou*, *khantou* (495); baina *baron, barou* baino ugariago, eta *arraçoign, arrazou* baino gehiagotan agertuko dira. *hebe*-ren kasuan alternantziak ugari dira *hebeti, hebe, hebeche* bokal sudurkaridunak, *heben, hebentiq* eta abarren ondoan. Aspiratu inguruko bokalak nasal gerta daitezke zenbait hitzetan: *Jhouri*

(612) *ouhoure* etab. Zubererari dagokionez, asoziatiboaren *-kila(n)* edo *-ki(n)* formak agertuko dira, baina, zuberera arruntean ez bezala, ez da nasalaren galera beti gertatzen izkribu honetan: *erreguerekin* (820), *batekin* (228).

"Ihau" izenordain indartua diptongo sudurkariz ahoskatzekoa da Larrasqueten arabera (1939, 141).

Alokutiboen hitz azkeneko sudurkarien erorketaz: "La chute du *-n* finale dans certaines formes tutoyées du souletin avait été relevée par Larrasquet (1934, 49 or.) pour le souletin nord-oriental", hau ordea, iragan, orainaldi eta subjunktiboan ere gerta daitekeelarik (Charl. 273 b., eta Yrizar, II 279 orrialdeko koadroan argi azaltzen den bezala).

Txistukari gorrak:

/z/ frikari horzkaria hitz hasieran *ç* edo *c* bezala agertuko da. Erdian, horiek berak eta gutxitan *z,* eta bukaeran *z,* instrumentalean eta *ez* proklitikoan ikusten den bezala. Maileguetan, batzuetan grafia etimologikoari eutsi egingo zaio: *esplicatione* (783), *opositione* (537). Herskari eta sonanteen aurretik mantentzeko joera: *ezpeikira* (11), *ez niz* (899), *ez naye* (26) normalean, nahiz eta *eliçate* (598), *eniz* etab. ere, bakanago izan arren, agertu (Inchauspe, 1858, 6). Aspiratuaren aurretik normalean erori: *ehiz* (424). Herskari aurrean hala ere, alternantzia dago, eskuarki /z/ mantentzen delarik: *bazcaitera* (LPh77 eta 78), /s/ ematen duten hitz batzuk gorabehera: *baskaitera* (LPh76). Gauza bera goian aipaturiko *Jraizteco, ireisteco* bikotean.

/s/ frikari hobikaria honela agertuko zaigu hitz hasieran, baina bokalartean bikoiztuaren bidezko ahoskabearen markatzea ematen da, izkribu honetan joera hedatu samarra izanik: *Jhessi* (449), *hassi* (LPh36, 659 eta 752), *ikhussi* (748). Baina gutxiago izan arren baditugu *hasi, puisanta* etab.; dena den, *ikhousi* forma orokorra da. Maileguetan ere alternantzia bera gorra markatzearen aldeko joeraz: *printcessa* (641 eta 649), *blessa* (452 antz. eta 839 antz.), *assamblada* (465 eta 755), *anglessa, francessa, assé* azentu eta guzti, *gosse* (767) bera ere, baina *Carrosac* (300), *embasadoria* (335), *Comisionia* (746) etab. *paseya* antzezoharra, hainbestetan agertzen dena, ahoskabea izanen da beti, bikoiztu gabe azalduta ere.

/x/ frikari sabaikaria *ch* frantses grafiaz markatzen da edo *çh* bidez: *puchanta* (172), *puçhant* (637), *cherkha* (503), *lachoki* (132) etab. Dena den, horrelaxe idatziriko zenbaitek ahoskera afrikatua beharko lukete agian: *chilinchau* (124) eta *marchanten* (249), esate baterako.

Txistukari ozenak:

/z/ "Les anciens auteurs souletins représentaient la sourde intervocalique par la graphie *c* ou *ç,* et la sonore intervocalique par *z*" (Gavel 1936, 294-

95 orr.). Pastoral honetan ordea, ozenerako hiru aukerok daude: *plaçer, placer* (347), *arrazoua* (779) (Mitxelena 1977, 148 or.).

/s/ beti honela bokalartean eta gehienbat maileguetan: *espos* (168), *abusatcen* (723), *paralisa* (167 antz. eta 905 antz.), *irousago* (386), *desir* (748); hizkera liturgikoan ugari: *Misericordiosa, gloriosa* etab. Ozen hau bokalartean edo kontsonante ozen aurrean agertuko zaigu, baina /i/ aurrean izan ezik (Larrasquet 1939, 151 or. eta Charl. 281 b.).

/x/ batzuetan *j* eta besteetan *g* bezala: *jouan, juan, Sujeta, Jean, jalki,* baina *gin* izanen da forma ugariena; bestalde, *pagia* (624), *virgina* (921), *ginco* (173) etab. Mailegu berri diren batzuetan ere bai: *Bourjoues* (LPh65), *Estrangerric* (279), *mesagerrac* (683) (Charl. 120 or.). Zalantzak dauzkagu hala ere, idazkera anarkikoak eraginda, esate baterako *pasejuz* eta *deja* galdera (501).

Afrikatuak:

/tz/ *tc, tç* eta *c* modura idatzia: *frantciaren, franciaco, abança; minça* jeneralean, *mintca* bakanen aldean. Aditz forma zenbaitetan ez da objektu plurala markatzeko erabiltzen *deitçut* (777), *itçaguçu* (483), *deitciet* (464). Hitz bukaeran *tz* azaltzen zaigu: *Bethicotz* (758), *hanitz* (674). Joera honek, aditz nominalizazioaren alternantziaz gainera -*atchikiten* (74), baina *hunkitcen* (75) eta *jalkhitçen* (592) exenplurako-, zubereraren mendebaldera garamatza izkribu honi dagokiola.

/ts/ *x, tx* eta *ts* bezala azaltzen da. Pastoral izkribuetan orokorra da grafia desberdinon arteko konkurrentzia (ikus, esate baterako, Baküs pastorala 37, 40, 281, 527, eta 625 bb.). /n/ sonantearen atzetik agertuko zaigu normalean: *erauntxi* (392), *onxa* (75), *ounxa* (606), *phenxamendia* (303). Hitz azkenean ere bai: *erakats* (630) eta *erakax* (303). Hitz hasieran ez.

/tx/, grafia frantsesari jarraituz, *tch* eta *tçh.* Hitz hasieran ematen du ez dagoela afrikaturako joerarik, Larrasquetek zioen bezala (Charl. 120 or.). Bokalartean eta sonante atzean agertzen da eskuarki: *arribantcha* (LPh81), *esperantcha* (145), *etchiki* (815), *itchura* (365) eta *artcher*.

/h/ aspiratua, bokalartean zalantzarik gabe markatzen balin bada ere -*duha* (170), *dihaçu* (373), *ohore* (166) etab.-, normalak dira hitz hasieratik kendutakoak: *aiciari* (97), *uxa* (307), *atceman, oben* (799), *arçara* (515), *adi* (825) etab., zuberera aspirazio aldetik hain oparoa ez dela erakusten digutenak. Maileguetako hitz hasierako aspiratua ere erori: *arrible* (547). Honi buruz, Mitxelena 1977, 208-210 orr. eta Txillardegi 1984, 262-269.

/f/ frikari gorra, ondo markatua, baina maileguetan besterik ez: *francia, fanitu, founditcen, fripouaq, ifernuko* azkenau sudurkariaren erorketaz.

Hitz hasierako "fl-" taldean ez da frikaria eroriko mailegu berrietan: *flor* (454) eta *floc* (557). Batzuetan grafia etimologikoa mantendu: *Josaphat* (910). Ikus Charl. 121, eta Mitxelena 1977, 98 or.

Likidoetan, /l/ eta /ll/, ez dirudi palatalizazioa urria denik (Charl. 121 or.). Grafian behintzat mantendu egiten da: *batalla* nahiz *batailla, botilla* (749), *illustria* (867), *Brillant* (533), *hullen* eta azkeneko honen aldakiak, Charlemagnen bezala (348 b. adibidez). Dena den, fonema hauei buruzko aipagarriena, lateral eta dardarkari bigunaren arteko konkurrentzia da, behenafar euskalkirantz joaz: *Celuco* (179) bezalako ahoskera bakanago agertzen da *Cerietara* (180) eta *Cerian* (942) motakoa baino.

Dardarkariak, /r/ eta /rr/. Jakina denez, zubererak bigunaren aldeko joera azaltzen du. Izkribu honetan ordea, dardarkari gogorra ederki dago markatua: *fierritatia* (123), *erraiten dere* (LPh30), *eçarry* (779), *erreguia* (49) etab. Biguna desagertzen deneko adibide gutxi, izan ere *dioeniq* motakoen aldean, aditz forma jokatu askok mantentzen baitu: *Ciauriste* (807).

Gavel-ek oso berritzat jotzen zuen gertaera hau: "à Sainte Engrace, des personnes nées vers 1840 prononçaient encore couramment nombreuses *r* de cette sorte. De méme les prêtres nés avant le milieu du XIXe siècle prononçaient encore l'*r* douce intervocalique dans les sermons, alors qu'aujourd'hui les prédicateurs souletins l'amuissent presque tous" (1936, 296). Beste izkribuetan ere biguna mantendu egiten da orokorrean -En izan ezik-, baina gogorra biguntzeko joera dute, honek ez bezala. Hitz hasieran ez zaio, mailegu berrietan behintzat, bokalik aurrejartzen: *remestiatcia* (33), *retira,* bigarren hau maiztasun handikoa. Esan liteke ez dela hitz zaharrik *r*-ez hasten denik (Mitxelena 1977, 155 or.). Alternantzia dago hala ere agertzen diren bokaletan, *ar-* eta *er-* alegia (Charl. 70 b.).

Ainciondok aldatutako izkribu honen grafia aztertuta esan liteke ekialdeko behenafarrera eta zubereraz idatzia dagoela, Amikuze aldeko hizkeraz alegia. Azterturikoen artean izkribu osoena da, bai testu kopuru aldetik, bai grafiaren kalitateagatik. Idazkera ulergarrien eta anarkia gutxienekoa grafian eta, besteak beste, horregatik aukeratu dugu oinarri testu bezala. 1827ko data darama ex-librisean: Pierre Celhay, Arüe. Ainhizeko ustezko emanaldiaren libretoa izan liteke; geroago, agian, Arüen ere erabiliko zena, testuaren eta ex-librisaren arteko letra diferentzia nabarmena baita, azken horrenak berriagoa dirudielarik.

A izkribua (San Telmo Museokoa)

BOKALAK

/a/-ren kasuan aldaketarik ez. Behin edo beste itxi egiten da: *anaie, hereman* (47). *Saintic* motako desagerpena, mugatzailea ezabatzekoa alegia, oso gutxitan ematen da .

/e/: hitz hasierako zenbait *i-* irekita azalduko zaigu: *ebilten* (503), *edequi* (20). Subjunktibo jokatuetan agertuko zaigu: *deçadan, deçen, leçan.* Ordinalen atzizkia *-guerren.* Maileguetan mantenduko da trabakari eta sonante artean: *letera* (20), "giristino", "segeretu" eta abarretan bezala.

/o/: honela hau ere. Sudurkari aurreko hersketan posibilitate biak lehian (Charl. 117 or.): *guiçon* gehienetan (422 etab.), *conte* ugariago *counte* baino, *afrountia, ounsa, trioumphac* (530).

/i/: hitz hasierarako *J* eta *j; i* eta *y* barne eta bukaerarako, gehien batean hurrenez hurren. Grekoaren presentzia urria hala ere, beste izkribuekin konparatuta. Palatala herstetik sortutakoak badaude: *jntertenitçen* (603), *jzquiriba* (19).

/u/: *ou* idatzita, ohi bezala, eta /ü/ biribilduari buruzko joera zuberotar arruntarena da: *utculi, uthurri* etab. Grafia etimologikoa maileguetan: *governeur* (27).

DIPTONGOAK

Goranzko gutxi legoke, baina arazo berbera dugu izkribu guztietan, silaba banaketa segururik egin ezina alegia. Beheranzkoak, normalak: *beit-* proklitikoa, aditz izena eratzekoak: *igaiten, eramaiten, jouaiten; gai, gaiça* eta *hoguei* zenbatzailea. Busti aurrean batzuetan: *hainche* (570), *gaineran* (549). Hitz mailegatu eta izenordain indartuetan ere badaude: *Laidoriotaco, jhaurec* (184).

KONTSONANTEAK

Ezpainkariei dagokiela, batzuetan grafia etimologikoa nabari da zenbait bikoizketatan: *oppunionia* (468). "v" eta "b" arteko aldaketa maileguetan batez ere: *bezpera, abisa, livratia.* Gortu trabakari aurrean: *ezpiritu* (261), *ezpeiniz.* Noizpait kontrakzio bidez ozena desagertu: *alhabat* (177).

Apiko-horzkariak eredu normalean agertuko dira, labializazio kasu bakarren bat eta asimilazioz sortutako grafiaren bat salbu: *Biemant, atmiraturic* (285 antz.). Aspiratuekiko alternantzia gertatzen da zenbaitetan: *alde, althe; dembora* (336), *thempora* (524). Nasalaren ondoko gorra mantentzen den arren, *-mentu* atzizki erromanikoan bezala, kontrakorik badago: *Senditcen* (56 orrian), (Zuazo, 625). Horzkari bustirik ez da agertzen.

Bizkarkarietan *qu, c* eta *k* gorrerako, eta *gu* ozenerako. *k* idazkera urri samarra da izkribu honetan. Maileguen grafia etimologiko bikoitza nabarmen: *occupatia, occasionia* etab. Desagerketa kasuetan, gorrarena dugu aipagarri, zuberotar arruntean bezala ablatibo bukaeran: *hanti, horti.* Ozenarena ordea, kontrakzio kasu bakanetan besterik ez: *Ceitera* (589, 390 eta 393).

Aspiratuak ugari azaltzen dira izkribuan zehar, muturreko kasuak ere badirelarik: *Khorphitcez* (74). *Algar* forma nagusitzen bada ere, *alkharreki* bezalako bat edo beste badago, alegia "existence concurrente de *alkhar* en dehors de la Basse Soule" (Charl. 119 b.), Phantzarten bezala (38 b.).

Sudurkarietan *m, n, in* eta oso gutxitan *gn* bustiarendako: *Espaina, despaina* nagusi *Espagna*-ren aldean. Herskari aurreko ezpainkaria agertzen zaigu: *erredemtoraren* (126), *exemplia* (91), *thempora* (174), baina ez beti: *conprenitu* (35), *jnpossible* (324). Markagabeko bokal sudurkariak badaude: *jhaurec, ohoura, hebe, ardou, arrazou,* eta aipatzekoak lirateke maileguetan gertatzen diren kontsonante sudurkarien erorketak: *Sifoniequilla* (LPh52), *fiala* (132). Arierazko desagerketak ere bai: *erran cenerio ordian* (655). *Ifanta* (649 etab.) nagusi. Bikoizketaren bat: *canna* (669), baina *khana* (352) ere bai.

Txistukari gorrak. /z/-rako *c, ç,* eta *z* hitz azkenean, *guciz* (125). Hala ere, *gastiequi* (255) idazkera behin baino gehiagotan agertuko zaigu. *handitarçuna* (37), *jnochentarçuna* (392) atzizkiera jatorra nagusi (Zuazo, 626). /s/-rako ahoskabe marka bikoitza ugaria da beste izkribuez alderatuz gero, maileguetan ez ezik *-embassadore* (16), *assiejatu* (20), *passeia* (22 antz.), *desseinian* (26)-, hitz jatorretan ere: *Bessouan* (97 antz.), *jkhoussi* (61), *jtchoussia* (20). Bustirako *ch,* aipagarri berririk gabe.

Txistukari ozenetan zubererazko joera arrunta (*plazer, cozinala, arrazou*) maileguetan batez ere. Gauza bera hobikari ozenerako: *Desiratçen, desodre, arrapausa, erresouma* (458) etab. Ustegabekoren bat edo beste ere bai: *Borgessa* (460). Sabaikaria *g* nahiz *j* bezala dator eta maileguetan izango du eragin handia: *trageria* izenburuan bertan, *gentetaric* (316), *pagia* (544 antz.), *Sujet* etab. *ejer* (164) ahoskera horzkari oklusiboaren bustiduratik letorke (Lafon 1958, 97

or.).

Afrikatuetan, D izkribuan bezala, dispertsio nabaria dago. Hitz azkenean batzuetan *-tz* agertuko zaigu: *fitetz* (6), *hanitz* (146), bokalartean *hanitchez* (576) ahoskera modua nagusi delarik. Hobikaria bitara dager normalean: *ounsa* (30), *amens* (479) gehienetan, *amenx* (414) urriagoaren aldean. Bokalartean eta azkenean: *exaien* (128), *arraxa* (209), *hox* etab.

Aspiratua zuberera arruntean bezala. Elkarketa kasuetan ematen du hitz hasierakoa dela galtzen dena: *jlherriala* (148). Beste izkribuetan azaltzen ez den hasierako bakanen bat: *hereman* (47).

/f/ frikaria maileguetako hitz hasieran eta bokalartean, batzuetan bikoiztua: *iffanta* (544). Grafia etimologikoa: *trioumpha* (417).

Likidoak direla eta, grafia bikoitza da nagusi, sabaikaritzen ez den kasuetan ere, izkribu hau aldatu zuenaren idazkeran: *collore* (633), *neskatilla* (99), *alla* (7 eta 54), *dudalla* (92), *colleraturic* (521), *ellibat* (356), *gurekilla* (202), *herrialla* (21) etab. *Mallur* liteke mailegu horren forma arruntena. Sonanteen arteko alternantzia nabari da: *areta* (477), *Cartielety* (185). *Celuco* forma zuberotar jatorra mantentzen da izkribu honetan.

Dardarkarien kasuan kontuan hartzekoa litzateke izkribu honetan gogorra mantentzen dela normalean: *jkaragarria, erregue, haurra,* baina ez beti: *ecari* (163) beti horrela, *tresora* (266), *ekharia* (107). *retira* aurrebokalik gabe gehienetan, baina *erretira* (491 eta 500eko antz.). Bigunaren desagerpen kasu gutxi daude: *erran ceitan* (389), *orotat* (160), *anglesetat* (298), potentzial trinkoan mantentzen delarik: *diroueniq* (660). *edertaçun,* oker edo disimilazio bidezko idazmodu desohizkoa, behin besterik ez. Dena den, Lafonek *r* bigunari buruz esanak gogoan hartzekoak direla uste dugu, haren ikerketetatik mende bat baino atzeragoko testuak izan arren: "Lorsque les gens de Larrau chantent des chansons, en souletin ou dans d'autres dialectes, ils cherchent à respecter la prononciation traditionnelle et prononcer les *r* douces intervocaliques" (1958, 88 or.). Hauei buruz D izkribuan esan duguna gainera daiteke.

Izkribu honek ez digu testuaz gaineko informaziorik ematen: ez aldatzaileari buruz, ezta datari buruz ere. Ozazeko etxe batean aurkitu zen XIX. mendearen hondarretan. Lhandek eta bere garaiko zenbaitek hamazortzigarren mendekoa dela diote. Gure ustez lauretan zaharrenetakoa izan liteke grafia eta istorioaren planteamendua direla eta: pertsonaia gutxiago besteek baino, iturriari atxikiago da, eta erantsi gutxiago aurkezten ditu. Testua ez dago osorik. Azkenaldeko folio batzuk urratuta daude, gainaldeetako zenbait bertso eta bertso zati irakur daitezkeelarik. Hauek beste modu batera zenbatu ditut: izkribuaren folio edo orriaren zenbakia jarriz eta eskuin ala ezkerretako zutabean dauden zehaztuz.

Ezkontza, amaierako bataila, Jeanen heriotza, azken predikua eta lehenaren hasierako bertso batzuk falta dira.

Basabürüko azpieuskalkia litzateke izkribuaren idazkerak erakusten diguna edo, aurkitu zen lekua kontuan hartuta, Arbaillakoa, bertako azpieuskalkirik mugatzea zaila zaigun arren. Hizkera horren ezaugarririk aipatu ez bazuen ere, hau zioen Lhandek (1926, XVI or.) Zalgizeko Bertrand-en errefrauei buruz zihardueIa: "Ils constituent à peu près la variété dialectale employée dans la fraction souletine de la Grande Arbaille (les villages de Sauguis, Saint Etienne, Ossas-Suhare, Menditte, Idaux-Mendy, Gotein-Libarrenx)". Hala ere, esan liteke alde handirik ez zuela izango Basabürüko hizkerarekin, Yrizarrek eta Zuazok azaltzen duten bezala.

B izkribua (Baionako Euskal Museoko 19. zenb.)

BOKALAK

Lehenengoz, aditz flexio laguntzaile subjunktiboetan gertatzen den /a/-ren erabilpena aipatuko dugu: *iqhous daçen* (21), *eraguin daçan* (95), *jaquin daçan* (81 eta 131). Hersketa orokor samarra da zubererari dagokionez: *orcort, bena, uqhen, eraquouxiren* (248), *jgareiten* (216 eta 228) etab. Batzuetan, hersketa hori arierazko errakuntza itxura duen arren, badirudi aldatzailearen ahoskeraren ezaugarri bitxia dela, ez baita gutxitan agertzen: *portidu, angloterraco, olhabarequi, Suitorequi.* /i/ fonemari dagokionez, *j-* eta *J-* dauzkagu hitz hasierarako; bokalartean eta azkenean *y* eta *i,* noizpait ere hasieran agertzen dena: *iaiqui* (251 antz.). Belare erdikoaren hersketa, sistematiko samarra da sudurkari aurrean: *counseilu, guiçoun, countia, ounxa.* Borobildua (*u, eu*) zuberera arruntaren arabera.

DIPTONGOAK

"bait-" proklitikoaren gauzapena arraro gertatzen da, eta mendebaldeko euskalkien aldera garamatzake. Ezaugarri bakarra da ordea eta ohizko ahoskerarekin agertzen da alternantzian: *ezpeita* (145), *beiquira* (149) batetik, eta *bainai* (36), *baitut* (5), *baita* (163) eta *çaitala* (26 eta 83) bestetik, azkeneko hori ugariena dela. Beste kasuetan gutxi gorabehera zuberotar forma jatorrak mantentzen dira: *Jfantagueia* (79), *hoguei* (169) *bena* etab. Beste izkribuetan agertzen ez den *Belhauriqo* diptongatua dakar honek. Horretaz gain, galdera marka diptongatu gabe eransten da noizpait: *ençun duçiea* (76), eta hirugarren graduko erakusle diptongatu gabea beste izkribuetan baino ugariagoa da: *hec, hequila, hetan,* (15) etab.

KONTSONANTEAK

Herskariei buruz aipagarri gutxi. Dardarkari bigunarekiko aldaketa: *berere;* ezpainkari aurreko bizkarkariaren desagerketa: *flobat* (216 antz.); sudurkari ondoko gorra mantentzen da zenbaitetan: *afrountia* (2), eta ez dago horzkari bustirik. Bizkarkariak ere beste izkribuen antzera daude idatzirik, *q* delarik gorrerako nagusi. Batzuetan hori nahasi egingo da ozenarekin, aldatzaile(ar)en idazkerak ez digulako diferentzia ondo igartzen uzten: *etçiguit* (177). *Sochoria* (277), *egia* eta beste, grafia etimologikoaz nahiz ortografi okerren ondorioz leudeke. Ablatibo eta kausatiboetan hitz bukaerako gorra jausi: *hounegati,* eta maileguetan idazkera etimologiko bikoiztuak: *occasioniaq* (68).

Herskari aspiratuek errealizazio normalak dituzte: *qhana* (132), *iqhousten* gehienetan, *althe* (76 antz.), *enthelegatu* (76), *pheça, phunçela,* noizpait ezpainkari ozenaz trukatuz: *aphur* eta *abur* (23 bis). Izkribu honek Dk eta Ak baino gutxiago aspiratuko ditu leherkariak, D936 bertsoan esaterako ederki ikus daitekeen bezala, baina Ck baino gehiago ere bai, nahiz horren antzeko joera erakusten duen: *icousiriq* (236), *ecarteco arapostiaren* (238), *parqua* (327), *partiçen* (324) etab.

Sudurkariak beste izkribuetan antzera azaltzen dira: ezpainkaria herskari ezpainkari aurrean, erorketa asoziatibo bukaeran eta ustezko bokal nasalak gelditzen direnetan: *hebe, Jfanta, firiq, finitçeda.* Agian arierazko okerrengatik: *bihotcia, ordia, houqui, coutia, etelequa;* hala ere, gutxi ez direnez, Larrañe herrian, XVIII. mende erdi aldeko hizkeran bokalen nasalizazioak hedapen zabala zuela erakutsiko ligukete. Gertaera honen murrizpenerako joeraren berri Lafon-ek eman zigun (1958, 83 or.): "...j'ai constaté que, dans plusieurs cas, Bonaparte et Larrasquet indiquaient des voyelles nasales là où j'avais noté des voyelles orales". Sudurkari bustiaren kasuan ordea, esan liteke beste izkribuetatik aldentzen dela, izan ere markatu gabe azaltzen da askotan: *Senouria* (248), *Senaliaq* (261), *espana, ganeraqoua, ganelan, coumpana, campanala* etab. ugariago, *gainen* (79), *Seinouria* (134) motakoak baino. Nasal-likido arteko aldaketa: *qualaq* (172), *cala* (170 eta 173), "cana" esatearren. Bestalde, inesibo arkaikoaren arrastoak lirateke *gainen* eta *horietan orotan gainen* bezalakoak, beste izkribuetan ere badaudenak, alegia *Soinen* C521, *gagnen* C631, *ihicin* D352 etab. (Charl. 170 eta 592 bb.).

Txistukari gorretan, C izkribuan ez bezala, baina beste bien moduan, horzkaria mantendu egingo da oklusibo aurrean: *eztut, gaztiequi, ezpiritu* etab. Errealizazio posible guztiak ditu horrek. Gor marka bikoitza agertuko da hobikarirako, baina ez beti: *deseina, comesionia.* Horren herskari aurreko grafia aldaketa: *aberaxtarçun* (54), *aberaztarçun* (211).

Honetan ere: *deux* (192) desohizko grafiak, agian hitz azkeneko /s/-aren ahoskabea iradokiko liguke kasu honetan. Sabaikaria ohi bezala idatzia da.

Ozenak besteen berdin orokorrean, baina aldatzaileak duen markamodua ere bitxi agertzen delarik: *plazer* (109, 129 eta 131) hitzaren kasuan gertatzen den bezala, zeinean *z* ala *r* irakurtzeko zalantzan ibili garen. Horrekin batera, nabarmena zaigu *g*-ren erabilpen ugaria sabaikarirako: *gouan* (312 eta 335), *eiger* (83), *ga* (177 eta 211), *gin, gausten, gage, gincoua, borges.* Orokorrean mantentzen den arren, *Suieta* bezalako salbuespen bitxi bat edo beste badago.

Afrikatuetan, /tz/-rako *tc* moduko idazkera besteetan baino urriago gertatzen da, *ç* motakoa nagusituz. Sabaikaria eta hobikaria ohi bezala agertzen dira, *Arhex* deituran bertan dugu; baina errealizazio bitxiak alde batera utzita (*hanix, hanixez* etab.).

Aspiratua, besteetan bezala, idatzi eta mantenduko da zuberotar eredu jatorrari jarraiki. Errore bat edo beste: *maain* (217). Aditz forma zenbaitetan galdu: *Jala* (307), "huela" esateko.

Likido eta dardarkariei dagokienez, alternantzia bion artean: *ganelan* (85), *ganeraqoua.* Likido bustia gutxitan transkribatzen du aldatzaileak, sudurkarirako lehen esan dugun bezala, *batalara* (241) moduko idazkerak hobetsiz. Arierazko asimilazioren bat noizpait: *edireiten ahan den* (54). Dardarkari biguna kontserbatuko da nagusiki, hala ere kontrako kasu urri batzuk: *uhezquo* (270), *ausatcen* (20). Gogorra gehien-gehienetan desagertu egingo da, C izkribuan gertatzen den antzera, *erretira* motako bat edo beste agertzen den arren.

Larrañeko garai hartako hizkuntzaren erakusgarri bat dugu izkribu hau. Beheranzko diptongoetako zenbait joera desohizko kenduta, esan daiteke bete-betean sartzen dela Basabürüko euskararen ereduan. Esku eta, beharbada, urte desberdinetako grafia moduak azaltzen zaizkigu. Izkribua hondatu samarra dago, folio asko galduta eta gehienak lotu gabe. Zenbatu gabe eta erabat banatuta agertzen zenez, istorioa berrordenatu behar izan dut, baina izkribua dagoenean dagoela utzita. Obraren erdia baino gehiago galduta egon arren, pertsonaia zenbaiten saio komiko antzeko batzuk eskaintzen dizkigu, beste izkribuetan ez daudenak.

C izkribua (Pariseko 213. zenb.)

BOKALAK

/a/ fonema, beste izkribuetan ez bezala, bokal itxien ordezko azaltzen zaigu hemen: *boustatçen* (LPh44), *Bestala* (1 eta 107), ohizko hiztegietan agertu ez, eta aldatzailearen idiolekto bitxiaren eredu. *algarekilan* izanen da izenordain elkarkariaren idazkera. Mugatzaile markaren desagerpena sistematikoa da: *debric* (6), *dukic* eta *Bestic* (276 antz.), *hirin* (407), *othin* (545). Ezaugarriok Larrasquetek aztertu zuen Pettarrako azpieuskalkira garamatzate. Itxi ere beste batzuetan: *Jreitia* (353), *oreyco* (611), *eremaiten, erekary, anaye, Elhargun* (175) *Erekastia* (609), *Englatereko, Etcheky* (278). Gehienetan *ukan* azalduko zaigu, Basabürüko hizketan ez bezala.

/e/ sabaikari erdikoa mantenduko da zenbait mailegutan *letera, Linfante,* grafia esanguratsuak lirateke izkribuaren data edo tokiari begira. Sabaikari itxia irekiko da infinitibo hasieran: *Egori* (LPh21 eta 76), *Eçanen* (141), *Eguriki* (145), *Erekastia* (333), *Ebilten* (573), *Edury* (592) etab. Aldaketa kasu kontrakoak daude, asimilazioa tarteko: *Beçitçeko* (149), *bihar diçigu* (368), *handiana* (349). Hitz kateak eragindako desagerketak: *Ekhardaçi Erhia* (520), *EreguEre* (LPh61). Zenbatzaileak era jatorrean: *hoguey, -guerren.* Gutxi batzuetan sabaikaritu egingo zaigu: *oustu* (499), *urhu* (600). Aditz flexio atzizkidunetan, bokal hau irekitzeak edo ez egoteak, Pettarrako zubereraz gabiltzala egiaztatzen digu: *ukanen din* (381), *nahy diana, Eros lirouala* (455), *Eguin diala* eta *behar diala* (268), *Erakaxiren diala* (590) etab. Lafonek behintzat halaxe frogatu zuen mende honetako hogeita hamarren hamarkadan. Kontutan hartu behar ordea izkribuaren data.

Bizkarkari erdikoaren presentzia nagusi da /u/-aren aldean: *guiçona* (LPh1 eta LPh24), *onxa, fonxa* (LPh3), *Eresoma, Eskontu, Nor, hontara* (LPh68), *nonco* (314), *hon* (348). Noizpait ere grafia etimologikoari eutsi egingo zaio: *heraut, metre dautela* (595). Bizkarkari itxia normal agertzen da okerren bat edo beste kenduta, exenplu baterako *houry* (292), "hori" esan nahiz.

Biribilduak, zuberera jatorraren idazkeraz aparte -*Justo* (25), *Malurez* (28), *governeur* (45 antz.), *governiur* (178 antz.)-, badu beste izkribuek ez bezalako idazmoduren bat: *çube* (465), okerbidezko *Eguen* (459), *huren* (659), *beudu* (811), fonema honen ahoskera zehazte aldera edo. Noizpait sabaikari erdikoaren herstetik sortutakorik ere bai: *Uguruky* (592). Desagertu sonante eta trabakari artean: *Burçaguia* (331).

/i/-aren idazkera nahasia da hitz hasieran (gehienetan *J-* bezala jarria), enparauetan beste izkribuetan bezalako grafiak azaltzen direlarik. Sabaikari irekiaren hersteagatik agertutakoak: *Jsconez, Jngoity, Jrouan;* eta orokorrean adizkien ahoskeran: *Jçadaçie, Jçoçu, Jliçatia* etab. Batzuetan aldatzailearen zalantza bera ere agertuko litzaiguke: *JEgory*

(673). Bestalde, oker legokeen datibo bitxiren bat, *Ciere* (LPh2) eta modu bereko asimilazioa, *Soniguilliac* (712).

DIPTONGOAK

Goranzkoetan joera normala azaltzen du, baina zenbait salbuespenez: *compaignayororekila* arierazkoa, eta *hauyen* (623) eta *çiyen* behin besterik agertzen ez direnak (Zuazo, 621). Beheranzkoak ere joera berberaz, bustiduraren aurretik markatua: *hain, batailan, Seignailiak,* nahiz *hanbeste* idazmodu orokorra izan. Atzizki txikigarriaren osagarri, behin besterik ez bada ere: *Canatoy* (468).

KONTSONANTEAK

Herskari ezpainkariak besteetan bezala gutxi gora behera. Erorketa eta ozenaren mantentze kasu bakanak: *Catibitate* (117), *pretestat* (32).

Apiko-horzkariei dagokiela, azpimarratu beharreko ezaugarri bitxia dugu izkribu honetan. Herskari ahoskabea belare gorraz nahasten da, askotan (desafiozko saio groteskoetan batez ere, bertan agertzen baita erregistro kolokialaren hitanoa, baina baita beste inguru batzuetan ere) batak bestearen funtzio morfosintaktikoak betetzen dituelarik: *berat* (LPh36), *gut* (67), *biçity* (763), *harac* (712), *Bacikic, Jtçat* (215) etab. Gertaera honen antzeko zerbait, ahoskera edo idazkera hutsak diruditen arren, Othoiçe eta Kantiketan legoke (ikus D1 bertso-oharra). Alternantzia kasuak ere badaude: *partitia* (136), *guira* (568), "partidia" eta "guida" esateko; *Çerady* (729), St. Julien-en ez bezala: *Jaunaq Cerary ciradeie* (162 or.).

Herskari bizkarkariak batzuetan erori oklusibo aurrean maileguetan: *Condutorac* (493). Gorraren mantentzea sudurkari atzetik deklinabidean: *nonco* (314), *hebenko* (830), baina ez morfema eratorrietan: *Egonguia* (446). Ozenaren erorketa batzuetan: *Desein* (362), *Ceitera* (LPh25 eta 696), "desegin" eta "zer egitera" esateko. Asimilazioagatiko desagerketak: *aitçinano* (589), *Jcarararisco* (329). Idazkera anarkikoaren seinale: *Segurci* (369). Era berean, ozenaren gauzapenean: *pausagia, Egin* eta *gero* (664), orokorrean ohizko *gu* bidezko idazmodua ematen den arren.

Herskari aspiratuei buruz, B izkribuaz ari ginela aurreratu dugun bezala, C izkribu hau gutxien markatzen dituena da: *Jcousi* orokorra da, *parkatu* eta *partitu* (126), *urkatu* (125), *puçela* (194), *yto* (656). Dena den, besteetan

ez bezalako aspiratuak ere baditugu hemen: *baraskalthu* (552), *arthe, helthu* eta *gertha* (555).

Sudurkariak modu anarkiko samarrez azaltzen zaizkigu. Besteetan baino gehiago nahasiko zaigu grafia ezpainkari aurrean: *Combersatçen* (LPH38), *Embasadore, thempora* (LPh55), baina *Conbersatçen* (LPh61), *honbat* (205), *Jnpertinencia* (66 eta 87), *hanbateky* (LPh66). Desagerketa kasuak bai asimilazioagatik, bai bokal nasala utzita maileguetan batez ere: *Jgararen* (444), *Linfate* (484, 495, 522 eta 533), *Setençia* (113), *aracoua* (LPh41), *fanfarou* (1), *fripou* (12 eta 100), *Jfernian* (9), *fi* (16), *jfidela* (132), *Cabarala* (711). *Baron* sudurkaridun etimologikoa antzezoharretarako uzten dela dirudi, eta *barou* testu barrurako. Aipagarri gerta liteke *aragoua-aragouaco* hitza inguru honetan, C eta B izkribuetan horrela idatzia, beste bietan *aragon-aragoueco* nagusitzen diren bitartean. Bertako hitzetan ere joera bera: *hulaiçia* (321), *oxa* (611), *hebe* (488) etab. Bustiari buruz ere ez zaigu askotan *-gn-* aukera frantsesa agertuko, normalean *-in-* nagusitzen delarik, zenbaitetan bikoiztuta: *mahainnian* (445 eta 785), *Soinnian* (765).

Txistukari gorretan beste izkribuetatik aldentzen den /s/-aren presentzia litzateke azpimarragarri, ukazio adberbioaren posizio proklitikoan: *Esleite Consola Esarapausa* (270), *Espa-, Estu-, Esk*-etab. Kontu honetan, bizkaieraz bezalako *bastar* (190) ere badugu (Inchauspek behiala esandakoaren kontra: Zuazo, 627). Hitz azkenean ere ematen du hobikaria nagusitzen zaiola horzkariari: *Eris* (LPh48), *araus* (59), *Espiritus* (209), *burus buru* (413), eta bokalartean bertan ere bai: *gaisa* (321), okerbidez jarria seguru asko. Dena den fonema hauetan izkribu honek erakusten duen nahastearen ahoskera sailkatzea gaitza da: *phouz* (97), *fitez* (28), *Jcaz deçen, Çarcen* (497), *Chamary* (775), *Colamente* (352), *pariz, bourgez, aberaz, Jluçione* (597), *paraduçialla* (885), *nois, araux* eta abar luzea. Hobikari ahoskaberako marka bikoitzik ez eta sabaikaria, besteek bezala, *ch.*

Ozenak direla eta, *plaçer* izanen da idazkera normala. Hala ere, grafien nahasketa da nagusi: *cosia* (LPh29), *Espousatçera* (LPh30), *malerousa* (21), *abisac* (66); baina *arartecoza* (869), *abiz* (206). Sabaikaria *g* idazmoduaz gehienetan: *Sugetaz, guntatçen;* baina *Jalky, Jouan* eta honelakoekin batera. Asimilazio kasuren batean ere agertzen da: *Corage Jakisku* (28).

Afrikatuetan, /tz/ *ç* moduan azaltzen da gehienetan, zenbait errealizazio bitxi gorabehera: *Corpitxa* (837), *bihotxa* (700), *bahinx* (415), *Lotxia* (271), *Etxakiçu* (289), *partisçen* (LPh31). Hobikaria ere, batzuetan ohizko arautik aldentzen da: *hotz* (18), *hauze* (18), *Eracaz,* "hots, hautsi, irakas" esateko, gauza bera *haniz, pariz, bourgez* eta horrelakoetan. Sabaikariaz komentatzekorik ez.

/h/ aspiratuaz gauza gutxi. Asimilazioren bat: *Behahy* (198 eta 314), eta intentsiboetakoa, aldakorra: *hiaurec* (215), *Ciaureki* (363), *nihaur* (43), *niay* (292).

/f/ frikari gorraren kasuan, grafia etimologikoaren mantentzea orokorra da hitz barruan; baina *-ph-* bezala baino gehiago, era bikoiztuan: *affrontia* (68), *offria* (30), *offençatçen* (173) *Soffritu* (829).

Likidoetan ere, bakan batzuetan idazkera bikoiztua dago, hitz bukaerako atzizki morfosintaktikoetan bustidura emanez: *diella* (LPh17), *della* (355), *hirilla* (263) etab.

Dardarkariarekiko alternantzia: *baraskartu* (549), *baraskal* (550). Dardarkari bigunaren aldera jotzen du izkribu honen aldatzaileak, bokala hasieran erantsiz (kasu bakanetan izan ezik: *Retira*) eta gogorra kasik desagertaraziz. Adizki laguntzaileetan, salbuespen urriak aparte: *deogula* (624), mantendu egingo da. Gehitze kasuren bat edo beste: *Jragariten* (533). Lehen graduko erakuslean ere ohi bezala, behin edo izan ezik: *hau* (786).

Izkribu hau irakurtzeko orduan besteetan baino eragozpen handiago eta ugariagoak topatu ditugu. Letra ulergarria izan arren, oinarrizko testua, paperaren egoera txarrarengatik, zailtxo gertatzen da; izan ere, gainean dituen lerro tarteko eraskinak, zuzenketak, tatxatu eta zikinak ez dira gutxi. Baionakoan ez bezala, ez du ematen oinarrizko kopian esku diferenteak daudenik; bai ordea, beste emanaldi batzuetara egokitzeko egingo ziren zuzenketa eta gainjarrietan.

Idazkerak erakusten digun ahoskatze modua Ekialdeko Pettarrakoa, "Souletin nord-oriental" izango litzateke. Arduragabezia handia somatzen da kopiatzaileagan errakuntza ugarietan, erakusten duen hizkera, bitxi eta bakan gertatuz.

E izkribua (Jean Héguiaphal)

Bokalak:

/a/ galdu mugatzailean eta aditz konjunktiboetan: *bestic, hil denin* (bukaerako oharrean), *bihotsila* (E174), *semi* (E341). Iparraldeko zubererraren ezaugarria litzateke, txosteneko 1.5.2. atalean esan bezala.

/u/ bizkarkari itxia da nagusi irekiaren aldean, Cko ereduaren kontra: *ounxa, escounsia, hiouer,* etab. Ez dago aipagarri gehiagorik bokaletan, sabaikari itxiaren gehitze edo agertze noizbaitekoa ez bada: *illaburtuko* (A. Ph. 11), *isquereti* (E265 antz.).

Diptongoak:

Nabarmentzen dena, beste izkribuen aldean, *"laur, haur, jaun"* motakoen errealizazioa da: *laou, haou, haoutse, jaousi, aouzatu* (E58), *jaouna,* etab. Edutezko izenordain indartuak ere tartean ditugu: *sihaouequi* (E41), *guihaouen* (E362), etab. Grafia frantsesaren eragina *aïgula* (E122), *gouaïnsi*. Diptongoaren labializazioa, dardarkari bigunaren ezabatzeaz: *ebiari* (E333), Larrasketek dakarrena zuberera komuneko *euri*-ren aldean, eta aurreko izkribuetan agertzen ez zena.

Kontsonanteak:

Lehenengo, herskariak direla eta, apiko-horzkarietan, C izkribuaren /k/ eta /t/ arteko truke arraro hura zuzentzen du. Hala ere, behin zuzenean aldatzen du: *guesura diot* ("diok" esateko, E254an; Ainciondori ere eskapatu zitzaion antzeko bat, D13 bertsoan). Ahoskabearen galera ablatiboan (*ingoiti,* etab.) gertatzen da, baina ez beti. Ahostuna, zenbaitetan, dardarkari bigunarekin trukatzen da: *bedealde* (E80 antz.) eta *desidatsen* (E364bis), asimilazioz. Aspiratuak, pastoraletako idazkeraz honelakorik esan baliteke, arauen arabera daude idatzita, eta, zerbait nabarmentzekotan, bikoizketa bidez behin besterik ez azaltzea azpimarratuko genuke: *utturia* (361).

Sudurkari bustiak *-gn*-ez orokorrean, nahiz eta *haiñ, besaiñ* (E87), motakoak ere agertu, noizbait ikur eta guzti. Herskari ezpainkari aurretik, ezpainkaria da orokor, behin edo, ordea, *denbora* (E212) eta *balin basira* (E348) irakurtzen ditugun arren.

Dena den, izkribu honen idazkeran begiratu huts batean nabarmentzen direnak txistukariak dira, besteekin konparatuta:

-afrikatu sabaikarirako, *-tch-* idazmodua da nagusi, baina *borcha, marcha, esparancha,* bezalakoak ez dira gutxi. Afrikatu hobikarian *ounxa, falxiequila,* etab., baina *haoutse* (E7), *lotsa,* eta *balesa* bera ere bai (E82). Horzkarian *-s-* nagusi: *chansa* (E402), *hamasorsi* (E338), *ehorsi, sorsia, helsen, minsatsen*. Behin edo beste *gaits* (E332).

-frikari horzkari ahoskabea, gehienetan *-s-* bidez emana: *is, nahis, arasa, esarten, espeisien, isan sen, est-*; baina *ez* idazten du nagusiki. Sabaikaritzeko joera, herskari eta *-i-*ren artean: *adichquide, gaichto*. Maileguetan, ordea, orokorra da ahostuna markatuko lukeen idazkera: *plazer, prezens, dezouhoureric* (E351), *des-* eta *placer* bakanen aldean. Hobikaria normal (*-s-* edo *-ss-*), zenbaitetan ere ahostuna markatuz: *deuz*.

-frikari sabaikariak, *-ch-* ahoskaberako eta *-j-* ahostunerako.

Likidoetan ez dago nabarmentzekorik, baina dardarkarietan bigundu edota desagertzeko joera nagusitzen da: *eretia* beti, *hiouer, beriequi, bericaturen,* etab. Muturreko kasua, gogorraren galeraz, *esai* (E115).

Azkenik, grafian antzeman daitekeen aipagarri nagusietakoa, azentua agertzea da. Guztira, hamahiru hitz oxitono azentuatu kontatu ditut. Horietan, hamaika aditzak dira, eta bi (*sé, anaié*) bestelakoak. Nabarmendu behar litzateke, gehienak esklamazio kontestuan emanak direla, askotan batailla eta erronka saioen artean. D izkribuan noizpait azaltzen bazen ere (eta, bertan ere esklamazioetan), ugariago gertatzen da bosgarren honetan.

2. Pastoralaren iturburua: Le roman de Jehan de Paris*.*

2.1. Bibliothèque bleue-*aren testuingurua.*

Liburu urdinak, liburu merkeak, liburu herritarrak eta arruntak. Modu askotara deitu izan dira XVII. mendetik aurrera Frantzian zehar *colportage* bidez hedatu ziren irakurgaiak. Orokorrean, literatur mota hau zer den definitzerakoan, adostasun moduko bat somatzen badugu zenbait autorerengan, ez da berdin gertatzen izate hori, definizio hori osatzen duten elementu deskriptibo edo kalifikatzaileak zehazteko orduan. Liburutegi urdina zehazten duten ezaugarriak, ikerlarien aburuak biltzen dituztenak alegia, testuen edukinari baino, beren agerpen eta zabalkundeari baitagozkio: liburu merkeak dira, herriz herri saltzaileek banatutakoak. Laburrean esanda, moldiztegiaren hedakuntzaren gehipen nabarmenak eragiten du literatur mota honen sortzea, bai inprimagintza edo liburugintzan ari zirenak gehituz, bai liburuen salneurriak nabarmenki merketuz. Ezaugarri horretatik aurrera ordea, badirudi gaitz gertatzen dela sailkapena edo produkzioaren analisia bera.

Horren arrazoia, neurri handi batean behintzat, ohizko goi mailako ekoizpenei, literatura klasiko deitutakoari kontrajarri egin zaiola ikustean argitzen zaigu. Ez dago *colportage*-ko testurik beste horren neurpideez aztertzerik. *Bibliothèque bleue*-ko testu horiek muga dudazko eta aldakorrak dituzte nolabait sailkatzeko orduan, eta XVIII. mendeko literatura herrikoiaz ari dela G. Bollème-k esandakoa bete-betean datorkio: "écrasé par la littérature classique, ou confondue avec la littérature orale, la littérature populaire a longtemps été négligée" (1965: 61). Horrela, ez da orokorrean "benetako literaturatzat" joa izan. Gehienez, sub edo azpiliteratura moduan hartu ohi da. Baina, defini al daiteke herri literatura bezala? Aipatutako zabaltze motaz gaineko beste definizio elementurik ba ote da? Ba al dago, esaterako, berezkotasunik eza edo hizkuntzarekiko kontu gutxia bezalako ezaugarriak ekoizpen osoari aplikatzerik? Gaiari buruz aztertu ditugun lanek ez dirudi halakoen konponbide finkorik eskaintzen dutenik eta, maila orokorrean egindako hurbilpenez kanpo, arazoak dira aurkitzen ditugunak. Ikus ditzagun liburu horiei eta, beraz, gure nobelari legozkiekeen batzuk:

EKOIZPENA MUGATZEA: corpusa zehaztean sortzen da lehenengoa. Esan liteke inprimatzeko moduak definitzen duela, baina ezer gutxi argituko digu horrek, hiru mendetan zehar agertzen diren ehundaka titulu daudela kontuan hartzen badugu. Horien artean, gaiak eta generoak ez ezik, argitalpen motak ere oso desberdin gertatzen dira elkarren artean. Bertan, almanakak (egutegi edo urtekariak), ipuin harrigarri edo miresgarriak, magia, astrologi eta sorgin liburuak, erlijiozkoak (tartean, kantika espiritualak, katexima laburrak, santu bizitzak etab.), heziketa liburuak ere (civilités edo urbanidadekoak), lanbide jakinen gaineko tratatuak, romanak, sasi historiazko nobelak, kantuak, antzerkiak etab. sartzen dira, orrialde gutxi batzuk dituztenetatik luzeagoetara, baina gehien-gehienetan labur samarrak. Argitaratu diren antologiak begiratu besterik ez dago, obrak sailkatzeko arazoez konturatzeko (Nisard, Bollème 1971 eta 1975, eta Mandrou 1975).

Produkzio handia da aztertzekoa, larehun bat izenburu diferente, almanakak alde batera. Bertarako bide bezala bi iturri erabili ohi dituzte historiagileek: aleak berak eta liburugile nahiz saltzaileen katalogo eta inbentarioak (Marais, 1980: 87; eta Martin, 1975: 246-247).

AUTORE JAKIN GABEZIA: inprimatzaileek testuak mendeetan zehar aldatu eta laburtuz atera dituztelarik eta, gehien batean, egile ezezagunen obrak izanik (gutxi batzuk baitira autore jakinen moldapenak), ez dago estilo propio edo berezkoa bertan aurkitzerik. Inprimatzaileek, liburua moldatu eta birmoldatzen dutenek, egile papera hartzen dute neurri batean, merkatu berriak zabalduz eta obrak publiko edo egoera berrira egokituz, Kontrarreformaren zabalkuntzaz batera sortu eta indartzen baita *Bibliothèque bleue*-a.

LIBURUEN ZABALPIDEAK: Frantziako hainbat eskualderi buruzko informazioa badago. Baina, gure herrian noiz eta nola hasi ziren liburu horiek zabaltzen? Inprentaren hedapenari dagokiola, interesgarria dirudi XVIII. mendearen erdia izateak tipografoak Midi-ra sartzen diren garaia, liburu bilduma osoa nekazari lurraldeetara inguratzekoa.

Garai horretan bestalde, distantzia luzeko *colportage*-a nabarmentzen da (Martin, 1975: 261-265). Liburu banatzaile hauen ibilbideak ikuskatu dituztenen artean, ez da agertzen Frantziako hegomendebaldea (Ferrand, 1963) eta esan genezake, moldiztegi gutxi egon zela bertan, beste aldeekin konparatuta. Darmon-i kasu eginez gero (1972: 47-56), mende bat geroago udako ibilerak egiten zituzten eta industria apala zen.

Akitaniakoaz dioena ondo datorkio euskal hiztunen lurraldeari: "donne l'impression d'une subdivision secondaire que le *colportage* traitait par prétérition, en dernière instance, juste avant de clore la campagne". Hala ere, Toulousen *colportage*-ak osasun ona bizi zuen XVIII.aren hasieran (Seguin, 1956) eta bertan gerora, antzeko liburuak bretoieraz eta gaskoinez argitaratuko ziren, erreferentzia zuzenik ez badugu ere. Brochon-en inprimatzaileen kartan (XVII. eta XVIII. mendeetarako), "Seuls le Sud-Ouest, handicapé par la pratique de la langue d'oc, et la Bretagne, pour la même raison linguistique, semblent en retard..." (Mandrou, 1975: 39). Antzera gertatzen da Bollème-k egindakoan (1975: 19).

ARGITALPEN DESBERDIN UGARIAK: inprimatzaile horiek ordea, hiru mendetan zehar, merkatuak ezarritako baldintzen poderioz liburuetan egiten dituzten aldaketen bidez, inoiz finkatuko ez den testua ematen dute. Alegia, titulu baten salmentak erakutsitako arrakasta izango da liburugileendako daturik garrantzitsuena, ale gehiago berrinprimatu edo bertan behera lagatzeko. Honek dakarrena zera da, liburuen harrera izatea literatur ekoizpenen eboluzioa bideratuko duena, saltzaileek edo *colpolteur*-ek emandako informazioaz ezagutua. Irakurlegeek eta beren interesen araberako kontsumo aldaketak desohizko garrantzia dute beraz, liburu jakinen produkzioa antolatzean, istorioak laburtu, moldatu eta orraztean. Hizkuntz aldeko moldapenak, nobelak irakurterrazago bihurtzeko laburtzeak, oso orokorrak dira anitzetan ateratako obretan.

IRAKURLEAK: zer jende mota ziren liburu hauen irakurleak? Honen erantzunak behe mailakoen aldera jo ohi badu ere, badirudi gizamaila orotara iritsi zirela. Kontua da zenbait urrats badaudela irakurlegoaren hedapenaren bidean, hiru mendetan zehar bilakatuko den eboluzioaren arabera. Horien artean, liburu hauen sartzea nekazal munduan. Itxura guztien arabera, irakurketa ozena izan zen errezepzio bide inportantea, liburu zabalkunde handia baino lehen, XVI. mendeko zenbait testuk adierazten duenez. Honela komentatzen ditu Martinek (1975: 234):

> "Ces textes nous semblent illustrer parfaitement ce que pouvait être, et ce que demeurera le processus de pénétration du livre en milieu rural. Le petit notable - hobereau, riche laboureur ou maître d'école- qui sait lire et est plus ou moins cultivé, possède dans sa petite bibliothèque des textes qu'il lit parfois à la veillée ou dans une réunion. Et ses auditeurs apprécient d'autant plus ces lectures qu'il s'agit de récits puisant indirectement leur canevas ou leurs thèmes dans la littérature orale et

apportant en quelque sorte à celle-ci la confirmation et le prestige de la chose écrite".

Aipu honek, liburuak inguru analfabetoetan nola hedatuko ziren erakusten digu. Bestalde, entzulegoaren ahozko literaturaz egon litekeen identifikazioa klaru ez dagoen arren, esan dezakegu antzinetik agertutako ipuin harrigarrien egitura *colportage*-ko kontaeretan mantentzen dela (ik. M. Etxeberria, "Euskaldunen ipuin harrigarriak").

COLPORTAGE-A ETA KONTRARREFORMA: literatur mota hau, bestalde, garaiko ideologien garraiatzaile garbia da. Inprimatzaileen gorabeherak Erreformaren zabalkundeak baldintzatuko ditu XV. eta XVI. mendeetan; gerora, XVII.enean zehar Kontrarreformaren eraginak baldintzatuko dituen bezala. Hemen kokatu beharko litzateke colportage-ko liburuen hasiera.

Mendearen erdi aldera, XVI.aren azkenetik aurrera liburugile eta saltzaileek orri solte moduko paperak sortuz iraun ondoren, Hogeitamar Urteen Gerraren ondoko bakea jazo zen. Une hartan inprimatzaile jendea sakabanatu eta langabetuta bizi zen, ordura arte ateratako liburu mota modaz kanpo geratu baitzen. Erreforma katolikoak ordea, ekoizpen berriak eraginez, inprimatzaileei loraldi bat ekarriko die. Tituluen artean, erlijio zabalkunderakoak nagusi diren bitartean (gremioetako patroien omenezko santu bizitzen antzerki emanaldiak ere barnesarturik), konstatatzen da ugaria dela irudimenezko literatura, iturri desberdinetako ipuinekin batera.

Troyes-tarrek, horretarako, aurreko mendeko inprimatzaile paristarrek ateratako testuak hartzen dituzte, gure Jean de Parisen historiarekin gertatu bezala: Oudot-ek 1613an, Bonfons paristarrak eginiko edizioa erabiliko du bere bertsioa osatzeko, Jean de Parisi liburutegi urdinerako sarbidea emanez. Honek ere testu aldatzeak dakazkio nobelari, gerora nabarmenagotuko direnak, bai irakurle mota desberdinei, bai egoerak ezarritako baldintzei egokitzeko. Esate baterako, XVIII.ean nobelak jasaten duen aldaketa, Kontrarreformak ere, besteak beste, eragingo zuen, errege zentsurak sailkatu nahi izan baitzuen, 1709an, "parmi les livres qui ne peuvent être approuvés que moyennant de grandes corrections" (Brochon, 1954: 53).

Aldaketa horietaz iritsiko dira, bada, liburu merkeak nekazal guneetara. Baina herrietako gutxiengo letratuek irakurriko dituzte: "de

petits notables assez proches et en même temps assez distants du monde des campagnes" (Martin, 1975: 256).

Horrela, *colportage* bidez iritsitako liburuetan halako garbiketa bat somatzen da, pasadizo libre eta desegokiak kenduz egina. Jean de Paris, geroago erakutsiko dugun bezala, ildo berean doa. Louis XIV.ak Nanteseko ediktua baliogabetzen du garaiotan; eta, jakina, inprimatzaile eta *colporteur*-ak, ugalduz gainera, ideologia berriaren joeretara makurtuko dira. Interesgarri gertatzen da ordea, Toulouse hirian lanbide hori zutenen portaera, lehiakide gogor suertatu baitzitzaizkien andre higanaut liburu saltzaileak (Seguin, 1956). Bazirudien zenbait *mercier* eta *colporteur* ari zirela lanean, jadanik instalatutako profesionalen kaltetan.

Hedatzen diharduen Erreforma katolikoaren kontestuan Elizak baditu liburu bidezko banakuntza deskribatzeko kontseiluak: parrokia bakoitzean erlijiozko aleren baten bizpahiru kapitulu irakurtzeko aholkua ematen du elizkizunetako sermoia bitartean. Eragin hori testuen muinetaraino iritsiko da, bai zenbait obren azterketak, bai estudio orokorragoek erakusten digutenez (Martin, 258-259). Inguru honetan agian kenduko zitzaion Jean de Paris nobelari zati bat edo beste (esaterako, haren aitak aginduriko burumozteak eta azken aldeko parte bat, ezkondu eta gerokoa).

Bestalde, Bollème-k deskribaturiko zenbait gairen ibilbidea, almanaka herrikoien edizioetan ikusia duenez, gure nobelaren ezaugarriekin bat dator: astrologia eta magia alde batera XVIII.enean, ahaleginak saritzen dituen Jainko baten irudia, amodioaren eta beste sentimenduen aldeko interesaren gorakada, eta azkenik, gure nobelan ederki ikusten den bezala, nazioaren historiarako jakinmin hazkorra (frantziar nazionalismoaren sustatzaile).

XVIII.EKO BULTZADA: mende honetan salduko diren historiak asmo horiek bideratuta moldatuak izango dira eta halako mozketa bat emango da, liburu urdinen salmenta handiarekin eta bertako zenbait tituluren nagusitasunarekin batera (Bollème, 1965: 64; eta 1971: 14). Izan ere, reglamentazioek liburu hauen hazkunde eta garrantzia erakusten baitizkigute, eta horiek azentuatzen dira "en périodes de crises, en 1709 et 1757, par exemple, c'est-à-dire au moment où les grains sont rares, les charges plus lourdes, la guerre -zazpi urteetakoa- dure et longue...". Garai honetan, Jean de Paris *colportage*-eko sei nobela famatuenen artera sartuko da, askotan berrargitaratu eta irakurrienak direnekin batera

saltzen baita (Robert le diable, Richard sans peur, Hélène de Constantinople, Pierre de Provence eta Jean de Calais dira besteak). Ikus Bollème, 1972.

Garai horretan ere, XVII.ean askotan editatutako autore ezagunen obrak desagertzen dira *colportage*-tik. XVIII. mendean arrakastatsu diren tituluak iturri aniztunak dira eta ahistorizismoak nagusituak. Kasu honetan Jean de Paris eta Jean de Calais, azkeneko hau pastoral bezala ere hainbatetan emana (Hérelle, 1928: 120-121), salbuespenak dira, XV. mendeko gertaeretan oinarrituta sortu baitziren; baina irakurleek erreferente historikoa aspaldian galduko zuten. Denbora eta espazio narratiboaz gabetzen da testua, heroiaren nortasunaren kualitate estereotipatuak azpimarratzeko, eta horiek testuari dimentsio dramatikoa ematen diote. Izanez ere, edizio herritarrek aurkezten diguten testu eredua ezin egokiagoa baita antzerkiratua izan dadin: lanaren ondoren, iluntzeko atsedenean ozenki irakurtzeko kapitulu laburretan banatua, testuarekin lotura gutxi erakusten zuten grabatuez hornitua, teatro itxurako mundu irrealaren irudia zabaltzen zuten entzuleengan (Garamendi, 1991: 613-614).

Horrela sartuko zen herri nekazarietan *colportage*-ko liburu multzo handia. Itxura guztien arabera, XVIII. mende erdiraino itxoin beharko dute orduko nekazariek liburu merke eta libertigarriak baldintza normaletan eskuratzeko (Marais, 76-77). Zenbait testigantza ere badugu, liburu urdin merkeak irakurtzen duen jendearen aldaketa edo lerrapenaz: maila sozio-kulturalari dagokiola, goitik behera joango da; eta, bizitokiari dagokiola, hiritik nekazal lurraldeetara. Lerrapen honek *colportage*-ko literatura, XIX. mende erdian, Bigarren Inperioarekin erabat rurala izatea ekarriko du (Darmon: 1972).

Publiko irakurlearen bilakaera horretan zehar nabarmentzen dena zera da: askotan, berez, iletratuentzako testuak izatea, kapitulu labur anitzetan banatuak, prologoz eta kapituluen izenburuetan agertzen diren adierazpenez hornituak, ozen eta tarte egokiz irakurriak izateko, eguneroko zereginek uzten zituzten atsedenaldi apur eta laburretan. Hitz bitan esanda, batetik testuetan mozketa bat nabaritzen da, edukinak orrazte aldera egina; eta, bestetik, liburu zabalkundeak eskualde nekazarietara jotzen du. Hain zuzen ere, pastoral izkribuen hazkuntza hasten denean.

***COLPORTAGE*-TIK PASTORALETARA: publiko berri eta askotan analfabeto horrengana zabaltzean aldakuntza nabarmenak ematen dira, Jean de Parisekin gertatzen den moduan eta ohiko gai tradizionaletan ez bezala.**

Moda edo eredu berriei egokitzen zaizkie. Ohiko horiek baino laburrago, harrapaerrazago suertatzen dira irakurle trebatugabekoentzat, eta interesgarriago ere bai. Izan ere, elementu mirakuluzko edo harrigarriak alde batera lagata, giza nortasunaren ezaugarriei gehiago ekiten baitzaio. Barreak ere badu bere lekua inguru honetan. Gure Jean de Parisen ateraldi ironiko, eta, guretzat, haurkeria itxurako haiek, eta amodio lehia, pastoralean gatazka batez irudikatuaren presentziak, anglomaniaren mezua ederki erakusten dute. Horrela, aurreko mendean erruz zabaldutako beste testu batzuetan baino, pertsonaia edo sujet gizatiarrago bat aurkezten digute XVIII. mendeko aleek.

Pastoraletan ordea, badirudi, iturri zuzenena azken ekoizpen berri horiek izanda ere, tasun horiek sujetaren irudi estereotipatuan galtzen direla, teatralizazio sinple baten bidez.

Liburu urdinak ruralizatzen dira baina hizkuntz eta transmisio genero desberdinez. Alegia, esan daiteke *Bibliothèque bleue* barruko aleen euskalduntze eta teatroratzean, Frantzian zehar liburu zabalkundearekin batera nagusitzen den alfabetatzeak zerikusirik izan duela. Egoera soziolinguistikoak bi bide hartzen du orduan, eta lurralde frantsestunean alfabetatzea zabalkunde horrekin batera hedatu ahala, menpeko hizkuntz eremuetan teatro moldapen-itzulpenak nagusitzen dira.

Garai horretan alfabetatzeak mantendu zuen gorako progresio normala, Iraultzak aldaeraziko ez zuena. Prozesu horretan ordea, desberdintasun geografiko ugari dago; baina esan liteke, orokorrean, *colportage*-ko liburu jakinen arrakastak, *instruction*, *civilités* eta hainbat liburu teknikoren presentzia nabarmenaz, alfabetatze eskabide bati erantzun ahal izango ziola.

Euskal Herriko iparmendebalari dagokionez, gizon alfabetatu bilakatutakoen gorakada somatzen da XVIII.ean, erdiak sinatzen omen duelarik mende hondarretan (Furet-Ozouf, 1977: 42).

Maurice Sacx-en ikerketak ordea, nekazal eremu euskaldunean alfabetatze frantsesa askoz atzeratuago zegoela erakusten digu, Baigorriko ezkonagirietan egiaztatu zuenez: gizonen %4ak eta andreen %1ak besterik ez baitu sinatzen mende horretan zehar. Gainera, sinatzaileen artean, "plusieurs signatures appartienent aux familles de la noblesse locale ou de robins. Il semblerait, donc, que le gros de la population n'ait pas cherché à bénéficier de la présence de régents dans la paroisse" (1980: 168).

Haritschelharrek zioen bezala, antzeko egoera izango zen Zuberoakoa (1987: 36). Honen iritzirako, garai haietan hasiko zen errejenten ustezko laizizazioa.

Nabarmena dena, ordea, mende erditik aurrerako pastoral izkribuak besterik ez egotea da. Bestalde, izkribu horiek nahikoa errotutako antzezpen egitura baten araberakoak ematen dute. Gertaeraren adierazpenerako datuak urriak badira ere, posible da errejentak alfabetatzen lehenengoetakoak izatea, herri xehearen artean. Horrela, hizkuntza menperatzailean emandako istorio "prestigiodunak", eskema dramatiko tradizionalaren arabera moldatu eta, azken batean, kultureztapen frantsesaren laguntzaile bihurtuko ziren; ordurarte, eliza eta goi estamentuen esku zegoen zeregina alegia. Hemendik adieraz litezke, beharbada, pastoralen hizkeran ikusten diren pretentzione-handiusteak. Hain zuzen ere, teatro bretoiari buruz Delalande-k esandakoaren ildo beretik (1.5.1. atala).

Dena den, Sacx-en ikerketa, Furet eta Ozouf-enean txertatzeko orduan arazoak daude, izan ere Maggiolo informea baliatzen dute horiek, 1786-90 aldiko sinadurak aztertuz. Sacx-ek aldiz, mende osoko bataz bestekoa ematen du.

Garamendirendako pastoralen agerpena bi osagai lotuta ematen da: nekazarien herri teatroa eta liburutegi urdinaren errepertorio zabalkuntza, hiru oinarritan; alegia,

> **"una pervivencia de las viejas formas de representación del teatro rural, el repertorio de la *Bibliothèque bleue* y de los libros religiosos y de historia de Francia no estrictamente de *colportage* y una escuela de traductores, refundidores y adaptadores de los textos franceses novelescos, hagiográficos o históricos, que los convirtió en textos dramáticos en vasco. Este cuerpo profesional o semiprofesional de refundidores-dramaturgos habría cumplido así un papel similar al de los refundidores- juglares que, en la sólida opinión de Jesús Antonio Cid, habrían adaptado al vasco los temas de la baladística francesa (1985: 342). Unos y otros habrían puesto al alcance de un público vascófono, débilmente alfabetizado y desconocedor en su mayor parte del francés, las obras más importantes de la literatura popular y los temas más atractivos de la balada**

> **tradicional francesa, siempre dentro de unos circuitos de transmisión oral" (1990: 2, 557).**

Hedapena edo sorkuntza, eboluzio urrats bat izango zen, teatro forma zaharragoko moldeek balio izan baitzutelako istorio berriak emateko orduan. Herri teatro folklorikoaren kodetze hasiera hemen ematen da, istorioen narratibitateari eutsiz, eskema dramatiko sinple baten mugapean. Baina XVIII. mendean liburu merkeetan ikusten den bilakaeran, heroiaren humanizazio moduko bat ematen bada ere, Zuberoako herri teatroan ez da berdin gertatzen. Antzezteko baldintza urriek, neurri batean, eraginda, dantza-pauso bidez harildutako emanaldi horietan ez da egongo giza nolakotasunen adierazpenik, Kontrarreformaren giza estereotipotik datozen balio erlijioso-sozialen nabarmentzea baizik. Gure kasuan, besteak beste, Infanta eta gurasoen arteko harremanetan eta Jeanen errege-portaeran ikusten den bezala.

Bada beste azken gai bat, *Bibliothèque bleue*-aren ikertzaileak bateratu ez dituena: *colportage*-ko testuak tradizio literario herritar baten partaide edo bilakatzen ote diren. "Herritar" eta "tradizional" kalifikaturiko kulturaren definizioa gaitz gertatzen delarik ere, herriak kontsumi dezan eratutako literatura izateaz aparte (Garamendi, 1990: 610-614), elementu bakar batek bermatuko liguke arazoaren ebazpena: ahozko literaturarekiko harremana. Arazo honetaz Marais-ek esandakoak bere garrantzia badu: "Il n'est pas possible de montrer une relation directe entre la tradition orale et les livrets bon marché" (1980: 98). Zeharkako erlazioa garbia da hainbatetan (ipuinak, kantuak etab.), baina iturri inprimatu edo idatzitik pasa dira, orokorrean, liburu merkeetara.

Ahozkoaren mundurako sarrera ematen du literatura idatziak *colportage* bidezko liburu zabalkuntzarekin; beraz, testuinguru honetan, *Bibliothèque bleue*-aren liburukiak, herri nekazariaren alfabetatze beharrak betetzera datoz, frantses hiztunetako lurraldeetan. Euskal Herrian ordea, eta beste hainbat lekutan ere, teatroaren bultzatzaile izango dira obra horiek. Honek, testuak garraiaturiko mezu edo mundu ikuspegiarekin batera (*colportage*-a bezala, Kontrarreformaren arauek herriari inposaturiko kultura baten aleak dira pastoralak), testua nolabait irekitzea dakar, ahozko transmisio bidez, obra kolektibo baten bertsioaren ardura pastoralgileek hartuz. Jean de Parisen trageriak erakusten dituen izkribuen arteko aldakuntzek halako prozesua agertzen dute, oso modu argian:

"El teatro sustrae los textos de la literatura de *colportage* a los circuitos mercantiles y a la clausura de la letra impresa. En cierta medida los abre. Es decir, convierte cada tema en un "programa virtual" susceptible de ser desarrollado o modificado por los sucesivos traductores, refundidores o copistas (...) la transmisión oral o quirográfica permite que cada transmisor modifique el texto recibido, bien perfeccionándolo -lo que justifica que se pueda hablar de "creatividad" popular o tradicional-, bien degradándolo" (Garamendi, 1990: 612).

2.2. Romanak kontatzen digun istorioa eta bertako pertsonaiak.

2.2.1. Istorioa.

Labur dezagun orain pastoral honen iturri narratiboaren hari argumentala. Bost zatitan banatu dugu istorioa; izan ere, lau izkribuok orokorrean jarraitzen dutelarik, errazago eta garbiago detektatu ahal izanen ditugu bai lauron arteko desberdintasunak, bai iturriarekiko erakusten dituztenak.

I. Espainiako koroa berrezarri eta Frantziako erregeren heriotza, (1-10 kapituluak).

Frantziako errege (Jean, hiru urteko haurtxoaren aita eta Espainiako erreginaren anaia) mezetatik dator bere printzipalek inguratua. Espainiako errege gerturatu eta oinetara oldartzen zaio laguntza eske: bere herriko baroi eta nobleek, Grenadako errege infidelaren aurka borrokatzeko *tribut* bat jartzeagatik, koroaren kontra matxinatu eta emazte erregina eta alabatxoa Segovia hirian dituzte setiaturik. Erregek berak ozta-ozta ihes egin ahal izan du, erresuma matxinatuen esku utzita. Frantziakoak, koinatua lasaiturik, gutun bat idazterazten du Espainiako baroi, noble eta herritarrei zuzendua. Bertan, jokaera gaizto hori alde batera utzi eta aurreko egoerara buelta daitezen eskatzen die, erregeren familia askatuz eta honen agintea ezagutuz; bestalde, haien arteko batzuk Frantziara etor daitezen agintzen die matxinadaren arrazoiak berari zuzenean adierazteko. Gutuna idatzita, ahalik eta azkarren bidaltzen du herota mezulari. Handik bost astetara iritsiko da erantzuna: gutuna hartuta bi orduko bilera eginik, bertako matxinatuen kontseiluak harro-harro jakinarazten dio Frantziako erregeri ez dadila nahastu beren arazoetan, ezta Espainiakoak esan dizkionak kontutan hartu ere, mehatxuak gorabehera aurrera joko baitute. Herotak idatzizko erantzuna eskatu dien arren, ahoz besterik ez dute egiten.

Halako irain larriaren aurrean, gudaloztea antolatu eta Espainia aldera abiatuko da Frantziako errege, berrogeitamar mila soldaduk lagunduta. Hegoaldera joaz, Bordele eta Baionan zehar Bizkaira sartzen da Espainako errege aurregoardiaren buru dela. Espaina barruan dauden arte ez

dute kontrariorik topatuko. Bertako gobernadorea ordea halako batean azaltzen zaie; baina, bere hogei mila gizonak oso gaizki hornituta egonik, ihes egingo du. Frantziako eta Espainiako erregek zortzi egun igarotzen dituzte Burgoseko hirian eta bertako nahiz Espainia gehieneko herritarrak beren menera erakarrita Segoviarantz jotzen dute. Bidean doazela, matxinatu setiatzaileen mandatari batzuk agertzen zaizkie bake tratua egiteko asmotan. Frantziako erregek ordea ez du onartzen proposamena. Ez du inolako traturik egingo baroi eta noble guztiak bere aurrean belauniko ikusi arte. Gainera, matxinadaren eragileetarik berrogeitamar gogor zigortuko ditu, betirako exenplu eta oroipena izan dezaten. Mandatariok, hamar eguneko epea lortu eta gero, mezuaren berri ematera bueltatzen dira.

Denbora tarte hori igarota, herriak Frantziakoari ongi etorria azaldu diolarik, Espainako erregina setiotik askatu eta berriz ere elkartzen ditu jai giroan senar-emazteak, iragarritako justizia (lauri burua moztu eta besteak hirietan zehar erakutsi, jendeak exenplu hartzeko helburuz) erreboltatuen kontra bete araziz.

Frantziako errege bere herrira abiatu behar dela eta, Espainakoak eskerronezko agerraldietan luzatzen dira. Azkenean, beren alabatxoa eskaintzen diote, Jainkoa lagun, haren seme Jeanekin ezkontzeko, adinera iristen direnean. Frantziakoak eskaintza onartu eta alde egiten du. Handik laupabost urtera, gaisotu eta hiltzen da. Erregeorde bezala Frantziako erregina arituko da, bere seme Jean hazten den artean.

II. Anglaterreko erregeren prokuradore bidezko ezkontza eta Pariserako bidaia (11-17 kapituluak).

Espainiako errege-erreginek, Frantziakoaren heriotzaren berri jakinda tristetu eta, denborak aurrera alabatxoa hamabost urte betetzen duela, ezkongai bezala aurkezten dute inguruko gorteetan, Frantziakoak, beren errege zenaren heriotzaren ondoren harturiko konpromezuaz oroituko ez zirelakoan. Anglaterrekoak, berria dakienean, Lancasterreko kontea (*Anglastre* pastoralaren izkribuetan) bidaltzen du Espainiara. Honek bertako errege-erreginak erraz komentzitzen ditu alaba eta Anglaterreko erregeren ezkontza onar dezaten, erregalia ugari dela medio. Infantak, tratua gogoko ez duen arren, gurasoen errespetuz ematen du baietza. Lancasterren enbaxada Londresera iritsi. Festa-giroa. Anglaterrako erregek bidaia antolatzen du. Ondasun eta jantzi (*estofa* pastoralaren izkribuetan) asko eramango ditu, dagoeneko bere bihotzaren jabe dena liluratzearren; izan ere, sekretuki jakinarazi diotenez, ez du Infantak bera gustoko. Hala ere, ez dago

Anglaterran opari ikusgarririk eta Parisera jotzea erabakitzen du, Espainiara eramateko horien bila.

Frantziako erregina, erregeorde lanetan bera, Anglaterrakoa zer asmotan datorren jakinda, gortea bilarazten du eta senarra zenak behiala emandako hitza (semea Espainiako Infantarekin ezkontzeko konpromezua) gogorarazten du. Amak, semea ezkonadinean ikusita, orduko konpromezua jakinarazi nahi lioke. Orleans eta Bourboneko dukeak, errege zenarekin Espainiako bidaian egondakoak, Jean gazteari arazoaren berri ematera doaz, Vincennes aldean basurde ehizean baitzebilen. Iristean Jeanek, ordurako ohean zegoen arren, hartu egingo ditu eta mezua arretaz entzun. Atzera lotara joanda ezin izango du begirik itxi, neskaren edertasuna esan zioten bezain handia ote den pentsatuz.

Biharamonean, bere segizioko eta printzipalak leku sekretu batean bilduko dituela agindu ondoren, amarengana doa izkutuan, Anglesak ez dezan ezagutu, arazoari buruz hartu duen erabakiaren berri ematera. Espainiara abiatuko da bere graduari ez dagozkion arropa disimulatuez jantzirik, benetan nor den izkutatuz. Ailegatzean egiaztatuko du Infanta dioten bezain ederra ote den eta harenganako bere amodioa. Elkar topatze horren arabera hartuko du azken erabakia. Bidaiarako segizio ahalik eta aberatsena izango du, beti ere ezagutua ez izateko modukoa eta bere gudarozte eta karrosak beste bide batetik joango dira, egunero elkarren berri izango dutelarik. Amaren adostasuna erabatekoa da. Aitaren altxorra eskaintzen dio eta, bestalde, Pariseko ondasun eta jantzi dotoreak bahitzeko agintzen, Anglaterrako erregerentzat zerbait agerian utzita. Jean eta bere segiziokoak prest daudenean libratu egingo dituzte, horrela Anglaterrakoa ere abiatu ahal izateko.

Erreginak Anglaterrekoa Parisen entretenitzen duen bitartean, Jeanek Vincennes-en biltzen ditu bere soldadu eta segiziokoak eta eraman beharreko aberastasun eta ondasunak pilatzen. Hornidura guztiak gertu direla, bitan banaturik abiarazten ditu inongo susmorik egon ez dadin. Berarekin joango diren ehun baroi eta ehun pajeak prest daudenean ematen die bere gaitzizenaren berri: edozeinek galdetuta ere Jean de Paris dela esan beharko dute, bertako burges baten seme, aitak hildakoan ondasun handiak utzi dizkiona. Anglaterrakoa hurrengo egunean abiatuko dela jakinik, Etampes aldera jotzen du Jeanek. Anglesak agertzen direnean aurrera segitzen dute frantsesek, haien herota inguratzen zaien arte.

III. Bidaiaren gora beherak. Anglaterre Burgosen. (18-30 kapituluak).

Anglesen herota (*Anglastre* pastoralean) frantsesen aldera hurbilduta harritu eta lotsatu ere egingo da, hain konpainia eder eta boteretsua ikusirik. Beldurrez dardarka atzegoardiako bati zuzentzen zaio nortzuk diren eta nor duten nagusi galdezka. Jean de Parisen jendea direla eta beren buruzagia aurrekaldean duela erantzuten zaio. Ezagupide bakartzat kana zuri bat du eskuan, jazkeran eta, beste zaldunen modukoa izanik. Herota Jeanengana doa eta Anglaterrako erregek hura ezagutzeko eta bidaian laguntzeko duen desioa azaltzen dio. Jeanek nahi badu ingura dakiola erantzuten dio, tarte batean azkarrago zaldikatu behar badu ere. Herota, Jeanen handitasunak harrituta, Anglaterregana itzultzen da. Honek pertsonaia erakargarri horrengana zuzenean joatea erabakitzen du.

Lehenago herotak egin duen bezala, beste soldadu arrunt baten argibideez iristen da Jeanengana. Bion arteko lehen elkarrizketa honetan bi gai nabarmenduko dira: Jeanen bidaiaren arrazoia (Parisen aspertuta, denbora pasa doala bazterrak ezagutzera, printzipioz Bordeleraino), eta bere handitasunaren nondik norakoa (hildako burges handi baten seme oinordekoa dela alegia). Afarirako gonbitea elkarri egin eta gizalegez errefusatu eta gero, anglesa bere egongura abiatuko da.

Jeanek ordea, gertu ditu sukaldean era guztietako jaki aberatsak eta harritzeko moduko afaria igorriko dio Anglaterrekoari baxera ederrean paratua. Anglaterreko erregeren harrimen ezin handiagoa. Jeanen eskuzabaltasuna nolabait eskertzearren, bere egonguan lo egiteko gonbitea luzatzen dio, sei baroi bidaliz mezulari. Hauek frantsesen aldera joanda ez dute zuzenean Jeanekin hitzik egingo. Ateko goardiek kapitainarengana gidatzen dituzte eta horrek Jean bere printzipalek inguraturik afaltzen dagoen gela dotore apaindura. Kapitaina *"se gecta a genoulz"* bere jaunaren aurrean. Anglesak ere belaunikatu; baina, bertako dotorezia eta solemnitateak kokilduta edo, ez diote beren erregeren mezurik emango. Frantsesen gonbiteari jarraiki bertan afaldu eta gero, Anglaterreren egoitzara bueltatzen dira, beti ere Jeanen handitasun eta aberastasunak zeharo harrituta.

Biharamonean, Jean mezetara abiatzen da. Bertan zenbait angles zegoelarik, espreski ezarri dioten jarleku dotore-ederrean ikusten dute. Anglaterreri horren berri emanda, hau ere agertuko da eta Jeanekin jarriko, horretarako gonbitea onartuz. Handik aurrera elkarrekin joango

dira Bordeleraino, Jeanek otordu guztietan jaki goxoak bidaltzen dizkiola anglesari. Bordele aldean daudenean anglesak ea berarekin Baionaraino joan nahi ote duen galdetzen dio. Jeanen baiezkoaren aurrean, anglesak diotsa poztuko litzatekeela haren bidaia Espainiaraino luzatuz gero. Jeanen erantzuna ateraldi harro samarra gertatzen da gizon burges huts baten ahotik: *" ... s'il plaist a Dieu; a aultre chose ne suis je subgect après Dieu, si non a mon vouloir, car pour homme qui vive je ne feroys que a ma voulenté"*. Anglesek, elkarrizketa honen aurrean zera pentsatzen dute: *"que n'avoit pas bon sens naturel"*.

Baionatik gertu, euria gogor hasi zuen. Frantsesak, jantzi aproposak bazituztenez babestu ahal izan ziren. Anglesak ordea, behar bezalako hornidurarik gabe, erabat busti. Hauen harridura handia izan zen, euria pasata frantsesak lehor ikusita; are handiagoa ordea Jeanen ateraldia entzun zutenean: Anglaterreko errege hain boteretsua izanik, zergatik ez ote zituzten etxeak bizkarrean ekarri, bidaian euriaren kontra beti babesturik joateko. Anglesek zorotzat jotzen dute eta baroi batzuek erregeri proposatzen diote Jean de Paris ezteietara gonbitatzea, libertigarri gertatuko bailitzateke bertan. Erregek ordea ez du onartzen; izan ere, arrisku handia dago, Jeanek, berak baino arrakasta handiagoa izateko Espainiako gorteko damen aurrean. Baionan ostatu hartuta, biharamonean antzerako pasadizo bat gertatuko da. Uhaitz bat zeharkatzeko orduan, anglesek urak iragatean hainbat gizon galduko dituzte itota. Frantsesek ordea, arazorik gabe zeharkatzen dute. Anglaterreren tristeziaren aurrean, zera dio Jeanek: *"Je m'esmerveille de vous qui estes si puissant et riche, que vous ne faictes porter ung pont pour passer vos gens..."*. Jeanek ironia kutsuko ateraldiekin jarraituz inguruko basoetara ehizera abiatzea proposatzen dio, Anglaterre ordea ez dago egoera horretan ehizerako moduan.

Egun batzuk pasata, anglesek galdutako gizonengatiko tristezia eta melankolia gainditu dituztela, Jeani galdetuko dio Anglaterreko erregek zer arrazoi dela eta datorren Espainia aldera. Jeanen erantzuna, metafora naif samarra, narrazio osoa biltzen duen giltzarria da: *"Je vous diz et assure pour vray qu'il y peult avoir environ quinze ans, que feu mon pere, a qui Dieu face mercy, vint chasser en ce pays, et quant il s'en partit, il tendit ung petit las a une canne, et je me viens esbatre icy pour veoir si la canne est prinse"*. Anglaterrekoak diotsa, honez gero ehiza zeharo usteldutа, harrek janda egon behar dela lazoan erori baldin bada. Jeanen aburuz hala ere, herri horretako *"canaq"* (pastoralean bertan agertzen den bezala, "ahate" edo zehazkiago "ahateme" bezala ulertzekoa) ez dira Anglaterrekoak bezalakoak, luzaro mantentzen baitira usteltzeke.

Anglesek barre egiten dute, ateraldi hori ulertu gabe zorotzat jotzen baitute.

Burgoseko hiritik hurbil daudenean, Anglaterreko erregek, euriaren gertaera eta gero baroiek eginiko proposamena oraingoan onetsiz, Jeani esaten dio berarekin sartzeko hirira eta ezteietara etortzeko, bere alde jarriz gero dirua eta guzti ere eskaintzen diolarik. Honek ordea, ezetz biribilez erantzuten dio. Nahi duenean nahi duena egingo duela eta ez komentzitzeko, ondasunetan behintzat alde handia ateratzen dio eta.

Anglaterreko errege larunbatez hiriratzen da. Ezteiak astelehenean ziren ospatzekoak. Burgoseko gortean ongietorri egokiz, behar bezala hartzen dute. Bertan, ezteietara etorriak, Portugal, Aragoa eta Nafarroako erregeak daude. Jean de Parisek, bere aldetik, bost ehun zaldunek lagunduriko bi herot bidaltzen ditu bertara, bere konpainiendako egongu edo pausaleku eske. Zaldunak atean utzita, herotak Espainiako erregerengana abiatzen dira. Honek ordea ez ditu hartuko, afaldu eta Anglaterreren Jean de Parisi buruzko berriak entzun arte. Hasiera batean Anglaterreko erregek burges huts bat bezala aurkezten du, bere gradurako gehiegizko ondasunen jabea eta gizalegezko portaeraduna; baina azpimarratu nahi izango du bere ustezko Jeanen zoroa: *"Mais certes, bien vous diray plus, que il me semble bien, quelque belle meniere qu'il aye, il tient ung quartier de la lune, car il dit des motz aucunes foiz que n'ont ne chef ne queue"*. Zer esaten ote zuen galdetuta, euria, uhaitza eta kanaren ateraldiak kontatuko dizkie. Barre ugari egiten dute gortekoek horiek entzunda, baina Anglaterrekoak Jeanenganako jakinmin handia piztea besterik ez du lortzen. Gainera, Portugalekoak dioenez, balio handiko gizona izan behar da halako konpainia handia hain bide luzean gidatzeko. Azkenean, kasu egiten diete herotei eta frantsesendako egonlekua erakusten. Ez dago ordea tokirik aski; izan ere hamar mila baitira. Hainbeste izanda, Espainiakoak erabakitzen du biharamonera arte atzeratzea frantsesen hirira sartzea, behar adinako lekua gertatzeko denbora izatearren.

Herotak Jeanengana datoz Espainiako erregek esandakoaren eta Infantaren edertasun paregabearen berri ematera. Jeanek berriz abiatzeko agintzen die, zain dituzten bost ehun zaldunekin egonlekua gerta dezaten.

IV. Jean de Parisen Burgosera sartzeko desfilea (31-47 kapituluak).

Biharamonean, Espainiako gortekoak goizean goiz jaikirik zain daude; hiriko ate guztiak, bat izan ezik itxita, frantsesak erregeren jauregi aurretik derrigorrez igaro daitezen. Desfile luzea hasten da orain eta gortekoen Jean ikusteko gogoa gero eta handiagoa da, haren suitaren parte bakoitza hirira ailegatzean Jean bera bertan datorrela uste izango dutelarik. Jean ordea, ez da azken aldera arte azalduko; beraz, desfile luze hori bere botere eta aberastasunen erakusketa bihurtzen da.

Egoitza gertatzera datozen bi herotak eta bost ehun zaldun furrielak izango dira lehenengoak. Alabaren eskaeraz Espainiako erregek bere metre dotela bidaltzen die, hornidura edo laguntzarik behar ote duten. Frantsesek ordea, ezetz; bertako erregerendako ere soberan badituztela ondasun eta bitartekoak. Espainiarrak harritu erantzunarekin eta mezetara doaz. Handik bueltan eskutari batek jakinarazten die Jean de Paris badatorrela. Gortekoak jauregiko leihoetara doaz. Agertzen diren arabera harturik, hauek izango dira frantsesen suita osatzen dutenak: tapizeri orgak eta horien gidariak, sukaltresnak dakartzaten hogeitabost orga, damasko oihalez estalitako beste hainbeste (Jean de Parisen jantziak garraiatzekoak), eta urrez bordaturiko balus edo tertziopelozko oihalez estaliriko beste hogeitabost, haren baxera daramatenak. Bitartean Portugaleko errege, Nafarroakoa eta Infanta zeharo harriturik daude; izan ere Frantziako errege balitz datorrena, normala litzateke halako aberastasuna. Susmo izpiren bat egonda ere, ez zaie, horregatik, Jeanenganako zirrara eta ikusmina handiagotu besterik egingo.

Espainiako erregek baxera gurdien gidarietako bati galdetuko dio ea Jean de Paris berekin ote dagoen. Gutxienez bi orduz berandutuko dela erantzuten dio, *"car luy et ses gens disnent aux champs"*. Gortekoak ere bazkaltzera abiatuko dira eta, bertan, Jean de Parisez besterik ez dute jardungo. Bazkalondokoan, eztaiez hizketan hasten direlarik, bi eskutarik pasatzen diete abisua: oso konpainia ikusgarria, inoiz ez bezalakoa, sartzen ari da. Jean de Parisen goardiako arkulariak dira. Espainiakoak berriz ere itaundu: nolatan litezkeen arkulari, noble itxura ezin dotoreagoa duten jaunok. Arkularien kapitainaren erantzuna: *"Par Dieu, vous direz bien aultre chose avant qu'il soit arrivé"*.

Handik puntura, herota agertuko da, Espainiako erregeri inguruan dagoen eliza txiki bateko giltzak eskatzera, Jeanek, igande orotan egiten duen bezala, bezperak entzun ahal izan ditzan. Erregek baietz, baina bertan geldi dadila erregutzen dio, Jean azaltzen denean nor den esan diezaien. Herotak ezin duenez, Gabriel pajea aurkeztu eta bertan utziko die, hark erakutsiko baitie Jean de Paris noiz iristen den. Infantak

Gabrieli eskutik heldu eta bere ondotik alde egin ez dezan eskatuz eraztun bat ematen dio. Geroxeago Jean momentu horretan azalduko ote den galdetzen dio eta pajeak ezetz erantzun, lehenago haren jendarmeak pasa behar direla. Ea zer dela eta ez dagoen agertu berri den konpainia horretan, berriz ere Infantak; bere nagusiaren aurregoardiako bi mila arkulariak direla, atzegoardiakoak bezainbeste alegia eta ez dakiela armagizonekin batera edo horien ondoren azalduko ote den. Aragoeko erregek orduan, erabat harrituta hainbeste jende ikusirik, ea gerraren batera ote doan galdetzen du. Pajeak ezetz; izan ere, bere estatu edo graduari (*"son droit estat"*) dagokion suita baita. Jarraian atzegoardiako arkulariek eramandako *"six aultres clerons"* agertzen dira.

Anglaterrako erregek orduan, horrelako jendetzaren aurrean zerbait susmatzen hasia bera, esaten du ea guzti hori ez ote den iruzurra izango, sartzen direnak agian hiri atzetik gero aterako liratekeela, berriro ere sartzeko. Portugaleko erregek, posibilitate hori frogatzeko, bi baroi bidaltzen ditu (*Carion eta Eskuako contiac* pastoralean), zeintzuk horrelakorik ez dagoela esanez eta Jean de Parisen armadaren handiak beldurtuta datozen, eraso egingo ote dien. Pajeak lasaitzen du gorteko jendea: arrafusik ez bazaio egiten, Jeanek ez du bere indarra inoren kontra erabiliko.

Handik gerora, Jeanen ohorezko ehun paje agertzen dira, metre dotelak gidatuak. Infantak hori Jean de Paris bera dela uste izango du; Gabriel pajeak ordea, haren metretariko bat dela jakinarazten dio, nagusiaren egoitza behar bezalako egokitasunez prestaturik ote dagoen aztertzera datorrena. Hurrengo, beste konpainia eder baten laguntzaz, Jean de Parisen tronpetak datoz. Atzetik kapitaina, *"que portoit une grant banniere de taffetas bleu"*, mila eta bostehun gizonek lagunduta. Gabriel pajeak zeintzu diren esaten die gortekoei. Eskutari gorena gero, Jeanen ezpata harribitxizko maginadun miragarriaren eramaile. Beste seiehun gizonek jarraitzen diote.

Azkenean, Jean de Paris bera azalduko da eta horrela seinalatuko dio pajeak Infanta urduriari: *"Ma demoiselle, regardez la en bas, celuy qui porte ung petit baston blanc en sa main et ung colier d'or au col. Regardez comment il a les cheveulx jaulnes, l'or de son colier ne luy change point la couleur de ses cheveulx"*. Infanta, hura ikusita, emozioari ezin eutsirik kolore gorritu egiten da. Nafarroakoa konturatu eta, konplizitatez, eskua estutzen dio. Jean jauregiko leiho paretik pasatzean Infantak *"luy tendit ung couvrechief de plaisance que elle avoit en sa main, en le saluant bien doulcement"*. Jeanek orduan, zaldia

maisutasunez saltaraziz, eskuzapia (*boukanesa* pastoralean) hartu eta boneta erazten du, agurrari erantzunez. Infantak egindako ongietorria gortekoek txalotzen duten artean, Anglaterrari goibeldu egin zaio begitartea; hala ere, bere ohoreagatik barnean sortzen hasi zaion erneguari eustea erabakitzen du. Atzegoardiako bostehun armagizonen iristearekin bukatuko da desfilea.

Jeanek, bere gizonekin, aurrera jo duenez gero; gorteko dama guztiek eskatuta, Espainako erregek Quariongo kontea eta bere laguna (*"son compaignon"*) igortzen ditu haren bila. Hauek, hala ere, ezin izango dira harekin mintzatu: goardiak, kapitaina eta chancelierraren mailaraino iritsita ere, azken honek bidea eragotziko die; izan ere, Espainako errege bera etorri behar bailitzateke zerbait nahi balu, Jean de Parisek hori merezi du eta: *"Et comment, est il si fort malade qu'il ne fust peu venir jusques icy dire ce qu'il veult?"*. Mezulariak beraz, bueltatu eta gortekoei ematen diete gertatukoaren berri. Anglaterreko erregek Jeanekiko bere susmo txarren seinaletzat jotzen du hori: *"Ne vous avois je pas bien dit qu'il avoit la teste lunaticque, et qu'il tenoit du fol? Et cy c'estoit a moy faire, je ne le prieroye plus"*. Aragoak ordea, kontrako iritzia du eta bere burua eskaintzen dio Espainakoari, Jean de Parisi etortzeko gonbitea egitera joaten laguntzeko. Espainakoak ere joan beharra dagoela uste du eta, azkenean, Anglaterrekoak berak ere, *"pour faire le bon vallet"*, aldatzen du bere iritzia. Eztabaida bukatuz, Espainakoak bere suhigaiarekin joatea erabakitzen du, bereganako errespetu eta Anglaterreko erregerenganako maitasunarengatik Jeanek etortzea onartuko duelakoan. Aragoa eta Nafarroako erregeak bertan geldituko dira damei laguntzen eta Jean behar bezalako ohorez hartzeko gertakizunen arduradun.

Frantsesek bi errege horiek ikusita, errespetu handiz hartuko dituzte eta beren buruzagiarengana gidatuko. Bidean zehar, bertako hornidura eta apaingarriek txundituta uzten badituzte bi erregeok, zer esanik ez Jeanen egoitzara ailegatzean. Espainiako errege bera makurtzen da, hainbesterainoko botere erakusketa egin duenaren aurrean. Gizalegezko harrera solemnea egin eta gero, gortera bisitan joateko gonbitea egiten diote Jeani. Honek pozik onesten du, baina aurretik *colaçionea* (*"espices et confitures de toutes sortes, et vins de plusieurs façons et couleurs"*) eskaintzen die bere egoitzan. Gortera abiatzen dira gero.

V. Jean de Paris Frantziako errege bezala agertu, ezkondu eta bere herrira abiatu (48-59 kapituluak).

Jauregira iritsita, bere benetako nortasuna izkutatzen jarraitzen duen arren, aurrekoak bezalako ateraldi eta esaldi barregarriak botatzen ditu, beti ere desfilean agertu den agintari boteretsu bezala jokatuz. Gortekoak agurtutakoan, aretoaren jarlekurik hoberenean eseriz, Infantarekin hasiko da hizketan. Honek ekarri duen armada boteretsua goraipatzen duelarik, beragatik ekarri duela guztia esaten dio Jeanek; izan ere, jakin ahal izan du biharamonean aurrez aurreko bataila egin behar duela. Gortekoen barre-algarak eragiten ditu honek. Hemen ere kolazionea egiten dute eta Jeanek, oraingoan ere, bertako errege boteretsuena balitz bezalako jokaera du. Espainiako erregek Infantaz zer iritzi duen galdetuta, Jeanek ofiziale zalduna beharko lukeela erantzuten dio, etxetik urrun biziz gero, bertako berri izateko zaldigaineko ona behar baita. Erantzun honek harritu ez ezik, zirikatu ere egiten ditu gortekoak.

Orduan, Espainiako erregek eskatzen dio bidaian zehar Anglaterreri esan zizkionen esanahia argitzeko. Honela, euria eta uhaitzaren pasadizoetan azaldutakoak adierazi ondoren, gortekoek bere zorroztasuna goraipatzen dute. Kanari buruzko hitzak adierazteko ordea, Espainiako errege-erreginari gogorarazten die bere aita zenarekin hartu zuten konpromezua.

Gero bere jantziak bildu (*"rebrassa ses habillemens"*) egiten ditu, esaten duena frogatzeko errege jantziak agertaraziz. Gauza bera eginaraziko die Orleans eta Bourbongo dukeei, bere aitarekin aldi hartan izan zirenei alegia. Jeanek galdetzen dio gero Infantari dituen aukera bion artean zein nahi ote duen. Honen erantzuna garbia da: *"Treshault seigneur, a moy n'appartient pas de choisir, mais celuy que vous plaira me plaist en ensuivant la promesse que monseigneur mon pere fit au vostre"*. Gortekoek erabaki hau onartu eta txalotzen duten bitartean, Anglaterreko errege bere herrirantz abiatuko da *"moult marry et courrossé"*.

Handik aurrera ezteiak eta ezkonberrien lehenengo gaua kontatzen dira, non Jeanek seme eder batez ernatzen baitu andrea, honen zerbitzariendako ondasun handietako saria eskaini ondoren.

Biharamonean, Infanta bere damek Frantziako modura jantzita agertzen delarik, Nafarroako erregek galdetuko dio zer dela eta igo zaizkion lis loreak gorputzean gora. Infanta zena erabat frantziartu egin zaigu, ematen dion erantzunean ederki ikusten denez: *"Ouy, beau cousin, mais encores en y a il beaucoup plus par dedans, que jamais n'en sauldront"*.

Hamabost egunez luzatzen den eztai festaren ondoren, Frantziara bueltatzeko ordua iritsi zaio Jeani. Espainiako erregeri agur esatera doanean ez da ausartzen alaba berarekin joateko baimena eskatzen, desplazera eragiteko beldurrez. Infanta, dagoeneko Frantziako erregintzat hartua, nigarrez hasten da, Espainian senarrarengandik urruti gelditzekotan delako. Aitak ordea, alaba eraman dezan eskatzearekin batera, bere erresuma ere eskaintzen dio. Jean poztu egiten da emaztearekin abiatzeagatik; baina garbi uzten du ezkondu nahi izanaren arrazoia: *"car soyez seur et certain que vostre royaulme ne voz biens ne m'ont point esmeu a avoir vostre fille que icy est, mais sa bonne renomme"*.

Parisen harrera ikusgarria izan zuten ezkonberriek eta Espainatik etorritako besteek. Handik sei hilabetetara, Espainara itzuli ziren senar-emazteak eta seme eder bat izan zuten. Bost urte ondoren beste bat, gerora, hurrenez hurren, Frantzia eta Espainiako errege izan zirenak. *"Puis trespasserent de ce siecle pour aller en la gloire eternelle, ou je prie a Dieu qu'il nous doint grace que y puissions parvenir. Amen"*.

2.2.2. Pertsonaiak.

Romana aztertu dutenek ez dute duda izpirik agertu istorio honen historikotasunaz (Le Roux de Lincy eta A. de Montaiglon, besteak beste; ikus Wickersheimer, 1925: 27 eta jarr.).

Irudikatuko zukeen gertaeran François I.aren bizitzaren parte bat ikusten zutenen ustea, Charles VIII.aren eztaien aldekoek baliogabetu zuten. Izanez ere horrena baita, itxura guztien arabera, Jean de Parisen ibilera. Errege hori, gurasoak gazte hil baitzitzaizkion, Anne de Beaujeu, arrebaren tutelapean zegoen. Erresumaren probetxurako Bretainia sarrerazi behar zen bertan eta horretarako ezkonarazi zituen bi gazteak (Anne de Bretagne, hamasei urtekoa eta Charles, hogeita batekoa). Dukesa gaztea ordea, Austriako Maximiliano I.arekin zegoen ezkontzeko hitz emanda, botere edo prokuradore bidez.

Gauzak horrela, Charles dauphinak, Rennes-en Anne asiejaturik duela, erromes itxuran hirira sartu eta dukesa komentzitzen du, agindu hura baliogabe dezan. 1491n ezkondu egin ziren; baina Charlesek bereak ere konpondu behar izan zituen ze Margarita, Maximilianoren alabarekin konprometitua zegoen. Honen aitarekin zorrak kitatzeko edo, Artois eta Franko konterria utzi zizkion 1493an.

Hori da pastoralaren iturri den nobelak errekreatzen duen historiaren errealitate oinarria. Gainera, erreferentzia historiko esplizitua gertatu zen, *Anne* izena bera aipatzen baita romanaren 12. kapituluan, hainbat eta hainbat ediziotan.

Nobelako pertsonaietan hortaz, aurkitzen ditugu histori aztarnak. Normandiako dukea litzateke partsonaia episodiko bakarra, eta errealitatean ez zegoena (1469an desagertzen omen da titulu hori). Besteren bat ere antzekoa dugu, Lancaster esaterako. Hala ere, titulua 1485ean azken aldiz dokumentatzen den arren (Wickersheimer, 1925: 30), Frantzian ospe handia izan omen zuen XV. mendean. Garai hartako "Frantzia eta Anglaterreko arma heroten arteko Debatean" kasu, izen horrekin adierazten da zein zen anglesen artean, frantziarren noblezia irits zezakeen bakarra.

Anglaterrako errege, Austriako Maximiliano I. zaharra da beraz. Gainontzeko frantsesak identifikagarriago gertatzen dira. Jean, Charles dauphina. Anne, "la fille du roi d'Espagne". Jeanen aita, Frantziako errege, Louis, Charles VIII.aren aitaren antzeko ere ba omen zen: esaten zenez, ohitura burges eta umilak ageri zitzaizkion erregea zen, "humble en paroles et en habitz" (Wickersheimer, ibid.). Orleanseko dukea Jeanen lehengusu zaharra da. Bourbon dukea, Jeanen arreba eta tutorearen senarra, koinatua baino askoz edadetuagoa. Bi duke hauek Jeanen aitarekin joan ziren Espainiara, hango koroa berrezarri eta erreboltariak menperatzera. Desfilean agertzen den Gabriel pajea ere historikoa litzateke, Charles erregek inguruan zituen *familier* edo faboritoetako bat.

Espainiako gortean ordea, ez dago historia eta fikzioaren artean, Frantziakoan bezalako lokarri finkorik. Espainiako alaba (Bretainiako Ana) litzateke historiko garbi bakarra. Gortean eztaiak ospatzera etorritako beste errege jendea gehituz gero, Portugaleko errege geratuko zaigu garai horretan bizitako bakar bezala. Honela azaltzen digu Wickersheimer andreak gorte hartako egoera historikoa:

> **"L'Espagne était depuis des siècles divisée en plusieurs royaumes indépendants; il n'y avait pas de roi d'Espagne. Il n'y avait pas de roi et de reine d'Aragon, puisque Ferdinand, roi d'Aragon, avait épousé en 1479 Isabelle la Catholique, réunissant ainsi l'Aragon au royaume de Castille. La Navarre appartenait à Catherine d'Aragon, femme de Jean d'Albret".**

Quarion kontea geratzen zaigu. Deitura hori, garai hartan erabiltzen ez zena, hedatu samarra zegoen lehenagoko tradizio literarioan. (Chansons de Geste-etan, Espainia, Aragoa eta Portugaleko erregeak bezala, Quarion ere aipatzen da baina ez romanean beste: Wickersheimer, 32-33, 1. oharra).

Agertzen diren erreferentzia geografikoen aldetik, esan behar litzateke Frantzia barruko leku izenak errealak direla (batek besterik ez du arazorik gaur kokatzeko orduan), baina Espainiakoak ordea, tradizioz ezagututako Santiago bidearen inguruetakoak dira. Jean de Paris Bordeletik Baionara abiatzen da, Santiago biderako aukerarik zuzenena. Aukera gehiago bazegoen ere, Baionatik aurrera erromesak, Orreagan barrena Pirinioak zeharkatu eta hiri hauetatik pasatzen ziren: Lizarra, Burgos, Carrión eta León aldetik Santiagorantz. Jean Burgosen geratzen da. Hiri horretan ez

omen da inoiz gorterik egon, baina Santiago bideko geldiune ezaguna bazen nobelaren garai haietan.

Bestalde, narrazioaren girotzea osatzen duten gainontzeko elementuak ere orokorrean garai hartako ohituren araberakoak direla esango dugu. Jantzien, tapizerien eta hainbat apaingarriren deskripzioak ugari dira; eta bertan agertzen diren batzuek behintzat badute testigantza historiko fidagarririk, orduko gorte usadio edo boladen eredura. Obraren zati nabarmena den desfilea, bestalde, Charles VIII.ak 1494ean egin zuen Florentziarako sarreraren oroitzapen bat omen da (Wickersheimer, 37-54).

Azkenik, egokia izan liteke hemen ematea Jean de Perreal delako baten berri, izan ere, Espasa entziklopedian, 1921ko edizioan, liburutxo honen egilea izan zitekeenaren bizitza honela laburtzen baitute:

"A pesar de ser llamado Juan de París, donde nació en 1460, Juan de Perreal habitó principalmente en Lyon. Toda una serie de documentos permiten seguir su carrera desde 1483 hasta su muerte, ocurrida en Junio o Julio de 1530. Carlos VIII y Luis XII parece tuvieron por él particular afecto, y las grandes expediciones que estos monarcas condujeron al sur de los Alpes, dieron a Perreal la ocasión de visitar Italia, donde trabó amistad con Leonardo da Vinci, que hablaba de él en sus escritos. Muerto Luis XII, Perreal quedó al servicio de Francisco I, y casi al fin de su carrera, en 1527, se encontraba en la corte de Saint-Germain-en-Laye. Durante cierto tiempo gozó el favor de Margarita de Austria, duquesa de Saboya, tía del emperador Carlos V, que le tomó a su servicio en 1504, en calidad de ayuda de cámara y pintor. A pesar de la abundancia de documentos biográficos, la figura de Perreal permanece enigmática en lo que concierne a sus obras. Del examen de los documentos se deduce que fue hombre de imaginación, inventor que daba modelos y los dirigía, más bien que ejecutarlos él mismo (...)".

Gorteko margolari honek loturaren bat baluke, bere bizitzako gertaeren arabera, gure nobelatxoa sortu zen garaiko historiarekin; baina esan beharra dago entziklopedia hori dela aipatzen duen bakarra. Beraz, besterik ezean, bego horretan.



Le Roi et la Reine d'Espagne recommandant leur fille au Roi de France.

Le Roi d'Espagne à genoux, demandant secour au Roi de France.

Goian iturriaren zenbait liburu azal. Behean, Nisardek erabilitako ale baten bi ilustrazio.

2.3. Romanaren zenbait ezaugarri.

Jean de Parisen agerpenak baditu zenbait ezaugarri nolabaiteko berezitasuna ematen diotenak. Prologoan irakurleei egiten die berba orduko autore ezezagunak. XV. mende bukaerako garaiotan bitxi samar gertatzen da hori, artean mantentzen baitzen halako irakurgaiak errege edo notableei gomendatzeko ez ezik, gorteetan bertan ozenki irakurtzeko ohitura ere. Prologoan bertan ere istorioa espainoletik itzuli duela dio, fikzio itxura bat edo ematearren, eta ohizko iruzkin moral eta erlijiozko batzuez gain, aldez aurretik eskatzen du barkamena, denborapasa beste xederik ez duen irakurgai horretan, zerbait *"qui ne soit comme il appartient"* aurkituz gero.

Badirudi, istorioan barrena abiatuta, espainolen (hizkuntza eta pertsonaien) aipamen eta erabilpenak eta, neurri batean, anglesenak ere, prologoan nabari den fikzio izpi horren eustarri funtzioa betetzen dutela; baina ustel samarra gertatu zitzaion asmoa, autoreak horrelakorik izan balu behintzat. Errealitatearekin hasiera batean zituen loturak oso handiak ziren eta, itxura guztien arabera, irakurle-entzulegoarengan luzaro iraungo zuen nobelaren erreferentzia historikoak. Kontua da narrazio errealista samar baten aurrean gaudela. Zenbait xehetasunek (gertaera batzuen eguna aipatzen da, esaterako, eztaiena; jantzien eta suitako partaideen deskripzioak aberats eta osatu samarrak dira etab.) ia-ia alde batera lagatzen dute esandako fikzio edo fantasia itxurazko hori.

Bestalde, *romana* nobela da; hau da, ez zaigu aurkezten bertan pertsonaiaren bizitza osoa, bere izaeraren eraikuntza eta bilakaera; baizik eta, esan genezake, kontaeraren guneak pertsonaiaren bizialdiaren epe motz eta zehatz bat besterik ez duela aurkezten. Lehen hamazazpi kapituluak (guztira berrogeita hemeretzi izanda) sarrera antzeko bat besterik ez dira, benetako intriga edo mamiaren oinarri formala alegia. Geroko gertaera guztiak, narrazioaren fikziozko denbora aldetik, askoz ere laburragoak gertatzen zaizkigu; baina oraingoan, autoreak pasadizoen kontaketa hutsari ez ezik, horien gertatze moduari ere erreparatuko dio. Bidaia, Burgoserako desfilea, Jeanen nortasun agerpena eta ezkontza, xehetasun deskriptiboz eta elkarrizketa mamitsu samarrez josita daude. Guzti hauen helburu, irakurleak Jeanen benetako asmoen berri atsegina izatea da.

Dena den, pertsonaiaren bizitzaren zati huts baina garrantzitsu horri modu horretan ekiteak ez dio kontaerari inolako baliorik kentzen: nobelaren giltza hamazortzigarren kapitulutik aurrera ageri-

agerian aurkezten zaigu, Jeanen aitak espainolekin hartutako konpromisoa eta beronen apurtzea, Anglaterreko errege tarteko, ematen direnean. Hortik aurrera irakurleak badu jazoko denaren berri garbia eta, oraingoan kontaera bigarren planu batera pasatuko bada ere (hitz joku, joan-etorri eta atzera-aurrera ugarik betetzen dute testua), ekintzen garapenaren mamia izaten jarraituko du.

Autorearen jarduera zehatz eta, hainbat *colportage* liburuxkaz alderatuz gero, arraro honen zergatiak argitzekotan istorioa sortzen den ingurura jo beharko dugu. Dirudienez lehenengo argitalpenak XVI. mendearen lehen erdikoak dira (Lyon, 1533-1540 bitartean), baina badaude XV.eko bi eskuzkribu, zeinetatik Edith Wickersheimer andreak finkatu baitzuen inprimatu gabeko lehen testua, bion edizio kritikoa (1923).

Horrek XV. mende azken aldeko Frantziara garamatza, Charles VIII.aren errege aldia Lyon eta Pariseko gorteetan. Garai honetan, erresuma osoan, Ehun Urteetako Gerraren ondorioak nabarmenak izan arren, bertako herriak halako egoera alai eta baketsu bat igarotzen du, aurreko izu eta estuasun mingarrietatik liberatuta (Cohen, 1949). Nolabaiteko zuzpertze orokor bat ematen da politikan, ekonomian eta literaturan. Errenazimentuaren hasiera da Frantzian: burges hiritarren gizamaila garrantzitsuago bihurtzen da eta erregeren irudi eragin sendoagokoa lortzen da, nobleen boterea kontrolatuz eta erresuma handituz. Honekin batera, Charles VIII.a Italiako alde batzuk bereganatzen saiatuko da, baina ezin izango dira bere asmo guztiak bete, nazioarteko politika Erlijio Gerren atariak baldintzatua zegoelako.

Garai horretako emaitza artistikoetan nabaria da gizonaren irudi ideal bat aurkeztu nahia. Poetak, margolariak eta nobela edo istorio egileek ere gizakiaren kualitate on guztiak biltzen dituzten pertsonaiak eraikitzen dituzte, eta hauen ezaugarri funtsezko bat alaitasuna izango da, bizitzaren ikuspegi baikorra azpimarratzea. Guzti hau argiago geldituko zaigu Jehan de Paris *romana,* bere arbasotzat jo diren beste obrekin konparatuz gero. Itxura denez, antzeko gertaera batzuk kontatzen ziren, aintzinagoko batzuen artean, Jehan et Blonde izeneko poema edo romanean, XIII. mendekoa bera eta Philippe de Beaumanoirrek egina, Pauphilet-en arabera (1952: 690). Hala ere, beste eragin batzuk aipatzen dituzte, bai Pauphilet-ek, honentzako romana baino poema delarik (ibid.), bai Wickersheimerrek (Gesta Romanorum barneko bidaiaren zati bat, eta Godefroi de Bouillonen historia Burgoseko sarrera desfilerako: 1925: 54-55).

Horietan, Jean zaldun pobre bat besterik ez da, bere etsaiaren kontrako ateraldi barregarririk edo handitasun erakutsirik gabe, borroka egin behar duena. Gogor eta asko kostata, bere amodiozko desio erromantikoa bete ahal izango duena. Bien arteko diferentziak, gure Jean honek azaltzen duen alaitasun arina, eta nahi edo behar duena iristeko batailatu behar ez duen errege baten botere handia dira. Autoreak hala ere, zalduneri nobeletatik ateratako apaingarriz jazten du istorioa, lehenago aipatu dugun fikzio itxurazko giroa lortzearren.

Garai horretan, Europako jende ikasien artean hain zabaldua zegoen nobela mota horren eraginak ordea, ez du indar handirik gure kontakizun honen lerroetan zehar, gainbegiratu batean somatzen diren antzekotasunez aparte: egile xalo ezezaguna, itzulia izan delako baieztapena, alperkeria saihesteko helburua eta erreferentzia erlijiozkoak formula ohizkoak dira zalduneri nobeletan. Bestalde, narrazioan barrena zeharkako aipamen bakanen bat besterik ez da agertzen (esate baterako, Segovian daudela ospatzen diren torneoak, geroagoko edizioetan desagertuko direnak). Gainera, gertaera guztiak ederki lotuta daude argumentuan; alegia, ez dago zalduneri nobeletan ezinbesteko ematen duen mentura jarrai batzuen zerrenda luzea, zenbaitetan haria galarazten diguna. Pertsonaiaren asmoak koherentzia oso bat erakusten digu intriga azaltzen den une beretik bukaeraraino.

Inguru eta planteamendu formal eta xehe horien barnean kokatu behar genituzke autoreak nobela honen bidez jakinarazi nahi dituen bi ideia nagusiak, gerora euskal pastoralean bete-betean agertuko direnak.

Batetik, Jeanen nagusitasuna beste pertsonaia guztien gainean; izan ere, bera baita halako nortasun oso eta garbia erakusten duen bakarra istorio guztian zehar. Gertaerak bilakaraziko dituzten erabakiak berak hartuko ditu; beste errege-erreginen aurrean, direnak direla ere, bere itzala nabarmena izango da eta, bai nobelaren giltza diren iragarkizunetan, bai Burgoseko gortean erabiltzen duen ironia haurkoian, bai Anglaterreko errege galtzailearekiko azaltzen duen jarreran, botere erakuste zalantzarik gabekoa egingo du.

Bestetik, Frantziako monarkiaren goraipamena, aurrekoarekin zeharo lotuta dagoena. Honetan sartuko litzateke Jeanen aitaren jarduna ere, nobelaren aurreko partean. Frantziako errege premia duen orori laguntzeko prest dago, justizia behar den bezala errendatzen du, eta orduko jendearen asmo eta itxaropen on guztien eredua da.

2.4. Romanaren sorrera eta zabalkuntza.

Nobela edo, batzuen esanetara, *romana*-ren sorrera data zehatz samar izan da finkatua. Bertan isladatzen den gertaera historikoa kontuan hartzen badugu, badirudi Frantziako errege Charles VIII.aren Italiako konkista saioaren hasierako epe arrakastatsuan idatzi zela. Charles VIII.a 1494eko azaroaren 17an sartu zen Florentziara, baina hurrengo urteko uztailerako galdua zuen gerra.

Bestalde, romanaren azken aldean esaten zaigu ezkondu eta bederatzi hilabetetara semea izan zuela. Hau 1492ko urriaren 10ean jaioko zen eta, handik gutxira, 1495eko abenduaren hamaseian hil. Beraz, Wickersheimer-ek planteiatzen duen hipotesia hau litzateke (1925: 57): *romana* 1494ko azaro azkenetik, hurrengo urteko abendu hasiera alderako tartean idatzi zen, seguruen Lyon-en, hantxe egoten baitzen Anne erregina senarra kanpora zihoanetan.

Ezagutzen dugun lehenengo argitalpena 1533 ingurukoa da; baina ordurako famatua izan behar zen, zeren 1532an bertan aipatzen baita Rabelais-en Pantagruel-en eta Antoine de Saix-en obra batean (Wickersheimer, 59-60). Urte horietan egiten zaizkion erreferentzietan beti agertuko da gure *roman* hau zalduneria nobeletako titulu edo pertsonaien zerrendetan, mota horretakoa balitz bezala. Hau oso garrantzitsua da, liburu hauek izango direlako, mendea pasata, *colportage*-ko istorioen iturri emankorrena.

Hamaseigarren mendean zehar egindako argitalpen ezagunak sei dira eta karaktere gotikoz eginda daude. Mende horretan liburu honen famak Frantziako mugak gainditzen ditu. Anglaterran 1549an ezagutzen zela badakigu, beti ere, bi herri hauen arteko aspaldiko lehiaren eredura (Wickersheimer, ibid.). Esan behar da hala ere, ezagutza hau jende ikasi, noble edo gorteen ingurukoetara mugatzen dela garai horretan. Liburuak garestiak izateaz aparte askotan enkarguz argitaratzen baitziren eta, noski, irakurri edo entzun ahal izaten zituen jendea ez zen, hain zuzen ere, herri xehe alfabetatu gabea. François I.aren garaian, bestalde, zaldun izpiritu edo izaera modan omen zegoen gorteen inguruetan.

Istorio honen zabalkuntza handia hurrengo mende hasieratik aurrera gertatzen da. Hala eta guztiz ere, badago difusioarekin batera

aldaketarik. Ordura arte, liburuaren famaren oinarri izandako erreferente historikoa, garbia bazen ere (batzuek esan dugunez, argumentua François I.aren bizitzaren zenbait pasarteri ere egotzi zieten), gerora erreferentzia horiek galdu egingo dira. Beste arrazoi batzuk izango dira hemendik aurrera nobelatxo honen arrakasta ekarriko dutenak; eta garrantzitsuena, zalantzarik gabe, *Bibliothèque bleue*-aren barruan agerturiko titulu ugarienetako bat izatea da. Troyes-en 1613an argitaratzen denetik aurrera (*Bibliothèque bleue*-aren hasiera, bertako Oudot inpresore familiarekin ematen da, 1605 urtean), edizioak kontagaitzak dira. Nodier-i kasu eginez gero (1842: xxx), data horretatik aintzina urtero berrinprimatuko da eta irakurleek atsegin handiz hartuko dute istorioa, azal zezakeen erreferentzia historiko errealaz inolaz ere kezkatu gabe.

Edizio asko beraz, XVII. mendetik aurrera. Hurrengo mendeetan berdin gertatzen da, eta XIX.enean esan daiteke berriro lortzen duela jende ikasiaren artean nolabaiteko garrantzia, *colportage*-ko liburuen artetik beste edizio zainduago batzuetara pasatzen baita. Azkenik, XX.ean antzinako testu frantsesen bilduman sartzen da, Erdi Aroko romanen erakusgarri garrantzitsu bezala (Cohen, 1977: 294). Hain izan zen handia romanaren arrakasta, non frantses hizkuntzan bertan luzaro iraungo zuen esamoldea finkatu baitzen: "train de Jean de Paris", norbaiten aberats itxurako bizimodua adierazteko (Wickersheimer, 1925: 67-70).

Horretaz gainera, aipagarria da XVII.enean bertan itzultzen dela alemanerara eta flandrierara, azken lurralde honetan bereziki arrakasta handia ere izan zuelarik, edizio popular ugarien zabalkuntzari esker. Bestalde, antzerki bezala ere eman zen leku askotan, bai modu komertzialean (XIX. mende hasierako opera bezala batez ere), bai antzerki rural edo herrikoi bezala Bretainian (Morlaix, 1850), Antwerpen-eko giñolaren errepertorioaren barruan eta, noski, Zuberoako pastoraletan. Azkeneko datu hau Vinson ikerlariarengandik jaso zuen Wickersheimer andreak (1925: 70). Bretainian badirudi garai horretan zabaldu zela, Joseph Coat-en eskuzkribuen artean agertzen baita (Le Braz, 521; eta Le Menn, 1983: 52).

2.5. Lau mendetako argitalpenak.

2.5.1. Edith Wickersheimer-en azterketa.

Garbi dago horrelako hedapen zabala eta iraupen luzea izan dituen nobelak aldaketa nabarmenak jasango zituela ibilbide horretan zehar. Aldaketa horiek Wickersheimer-ek aztertu zituen bere tesiaren V.

kapituluan: "Physonomie des éditions du XVIeme siècle au XIXeme siècle" (1925: 61-64). Gure ikerlanari dagokionez, pastoralaren hiru izkributan azaltzen diren datak kontuan harturik (A izkribuak ez du inongo datarik ematen), gehien interesatzen zaigun denbora-epea XVII mende hondarretik XIX.era bitartekoa da.

Azter dezagun beraz, zein diren garai horretan zehar agerturiko edizioek erakusten dituzten aldaketak, Wickersheimer-ek eskainitako datuen arabera.

Eskuzkribuetatik moldiztegira pasa zenean, XVI mendean zehar, edizio gotikoetan, ez dirudi romanak aldakuntza nabarmenik jasan zuenik: "... et lorsqu'a la fin du XVIe siècle il apparaitra pour la dernière fois en caractères gothiques, ce sera à peine si quelques nouvelles fautes d'impression et des additions ou omissions insignifiantes le défigurent".

Handik aurrerako argitaralpenik aipagarriena Troyes-eko Nicolas Oudot-ek eginikoa da, 1613 urtekoa. Familia honek mende pasako inprimatzaile segida bat osatu zuen, eta bete-betean ekin zion liburu inprimatuaren zabalkunde handiari. Askotan izango da handik aurrera argitaratua gure istorioa; izan ere, *colportage* bidezko komertzializazioak eta kontsumo gehikuntzak, inprimatzaile kopurua handitzea ekarri baitzuten. Alabaina, Oudot-en edizioak ere ez du testua aldatzen, axolarik gabeko xehetasunak gorabehera: "De temps à autre une petite coupure dans le texte, ou quelques nouveaux détails, (...) Aux rois d'Aragon, de Navarre et de Portugal, qui saluent Jean de Paris à son arrivée à la cour d'Espagne, ajoute les rois d'Ecosse et de Pologne" (Wickersheimer, 62-63 orr.).

Hamazazpigarren mende azken aldera La Rochelle-n agertuko da berriz, Toussaint de Govy-ren eskutik. Honek ez ditu Oudot-ek eginiko edizioek emandako gehikuntzak eta, nahiz azken kapitulua galdu eta testu laburtze batzuk agertu, "aucune modification ne porte sur le fond du récit. Le XVIIe siècle a enlevé au roman de jolis détails, mais rien d'essentiel".

Laburtze horiek egon arren, Wickersheimer-ek esaten diguna onartuz gero, xehetasunak aparte funtsean nobela bere osoan mantentzen dela alegia, esan genezake XVIII. mendeko edizioetan ematen dela benetako eraldatze bat: "Dés la première moitié du XVIII siècle, les modifications prennent un caractère nouveau. Une des éditions où le texte est le mieux conservé est celle que J.-A. Garnier fit à Troyes en 1738. Elle n'a pas de prologue. Presque tous les chapitres sont condensés et souvent plusieurs

chapitres sont résumés sous le titre d'un d'eux. De larges tranches de texte sont supprimées. Toute la dernière partie du roman est réduite dans l'edition Garnier à trois chapitres ...".(Wickersheimer, 63). Azken batean, XVIII. mendeko mozte eta laburtzeak pobretu dute Jean de Parisen historia, xarma eta gertaldi libertigarri zenbait bertan behera utziz.

Hemeretzigarren mendeko edizio eredutzat Chalopin deituriko inprimatzaileak Caen-en, 1823-1834 bitartean egina, baina data zehatzik gabekoa aukeratzen du. Erauzitako pasarteak ugari dira, romana bere erdi gutxituan laburtuta geratzen da.

Beraz, eta Wikersheimer-i jarraituz, honako hauek lirateke gure istorio honek izan dituen hiru mendetako aldaketak:

*** XVII. mendean edizio ugari, Troyes-eko 1613ko Oudot-enean:**

-Pastoralean nabari ez den mozte txiki bat edo beste eta xehetasunen bat gehiago. Burgosen Jean de Parisi egiten zaion ongietorrian ordea, Ecosse eta Pologne-ko erregeak ere elkartzen dira.

*** Mende berean, azken aldera, La Rochelleko Toussaint de Govy-renean:**

-Ez dira agertzen Oudot-en gehikuntzak. Laburtze batzuk eta azken kapituluaz gabetua. Hala ere esan daiteke funtsezkorik ez dela kentzen eta xehetasun polit zenbait alde batera, narrazioa berean mantentzen dela.

*** XVIII. mendeko lehen erdian (J.-A. Garnier, Troyes 1738), aldaketa berriak:**

-Prologorik ez.

-14, 15 eta 16 kapituluak, azkenaren titulupean laburturik.

-36 eta 37, 36aren titulupean.

-38 eta 39, 38aren titulupean.

-45 eta 46, 45aren titulupean; 47 kapitulua bost lerrotan emana.

-Erabat kendutako kapituluak: 51, 52 eta 53; 55, 56 eta 57.

-XVIII. mendeko argitaratzaileek "suppriment les propos équivoques que se permet à plusieurs reprises Jean de Paris". Ateraldi horiek euriarena, uhaitzarena eta kanarena litezke seguruenik; baina geuk aztertu ditugun mende honetako aleetan hirurak agertu ohi dira.

-Ecosse eta Pologneko erregeak berriz agertzen dira.

*** XIX.ean aldaketa nabarmenagoak. Caen-eko Chalopin-enean:**

-Wickersheimer-en edizioaren lehen hamazazpi kapituluak hamalaura bilduta.

-Bidaia kapitulu bakar batean.

-Uhaitz eta kanaren ateraldiak besterik ez (euriarena saihestuta, nahiz eta bidaia esplikatzean Jeanek aipatzen duen).

-Espainiako erregeren alabaren izenik ez du ematen eta Infanta bezala aurkezten du.

-Bidaia eta gero bi kapitulu hutsetan dago romanaren zati luze bat bilduta: Burgoseko inguruetara iristen direnetik desfilea laburtuta dago eta salto bat gertatzen da, Jean halako batean gortera iritsiz. Hortik aurrera, bidaian esandakoen esplikazioak, Jean errege ezagutu, eta, lau kapitulu labur gehiagotan, amaia.

2.5.2. Gure ikerketa.

Aldaketak XVIII. mendean:

Nobelaren bertsio horietan guztietan hautematen diren aldaketa nabarmenenak finkatuta, saiatu gara, ahal izandako edizio kopururik handienean, Wickersheimer-en konklusio horiek frogatzen. Horretarako XVIII. mendean ematen diren gorabeheretara mugatu gara gehien batean; izan ere, *Bibliothèque bleue*-aren zabalpenean oso garai garrantzitsua ez ezik (2.1. atalean adierazi dugun bezala), obrak aldaketa nabarmenenak jasaten dituen momentua ere baita.

Ildo horretatik, beraz, Troyes-eko J.-A. Garnier-en edizioan hark aurkitu zituen aldaketak zehaztu egin ditugu, eta horiek baliatuko ditugu, batetik, pastoralen izkribuetan ere agertzen ote diren ikusteko (ikus 3.1.), eta, bestetik, aztertu ahal izan ditugun edizio diferenteetako aleetan zunda bezala aplikatzeko. Horrela, pastoralgileek erabiliko zuten alea zehaztuko genuke, eta, istorioa Zuberoako teatrora noiz sartu zen ez ezik, nola moldatu zuten ere hobeto jakin genezake.

Zehazturiko aldaketak laburpenak dira, testu mozketak askotan, *colportage*-ko literaturaren kontsumo gehikuntzak eta irakurlego berrira (nekazal bizimodukora) moldatu beharrak, garaiko ideologia nagusi den Kontrarreformaren itzalarekin batera, eragindakoak. Nobelaren bost alde desberdinetan agertzen dira. Hona hemen, eskuzkribuetatik Wickersheimer-ek osaturiko aurreko edizioaren kapituluen arabera:

1) Nobelaren 14 (*Comment la royne de de France envoya au devant du roy d'Anglaterre des plus grans de ses barons et aussi les bourgeois de la ville*), 15 (*Comment le duc d'Orleans et de Bourbon vindrent tout nuyt au boys de Vincennes pour apporter les nouvelles au roy comme vous orrez*) eta 16 (*Comment le roy de France vint dissimulé a Paris pour peur qu'il ne fust cougneu des Anglois*) kapituluen laburpena, azkenaren titulupean bildua.

Anglaterre estofen xerka Parisera iritsi delarik, Jean Vincennes-era joana da Chancelierrarekin. Bertara inguratuko zaizkio Orleans eta Bourbon, Anglaterreren bisitaren eta, bide batez, aitak Espainian behiala agindutakoaren berri ematera. Jeanek, lo egiten saiatu eta gero, gortera bueltatu eta Espainara abiatzea erabakitzen du. Edizio berrietan salto bat gertatzen da, Anglaterre bere gelara erretiratu eta gero, Jean azaltzen baita amari bere erabakiaren berri emanez. Ikus 2.2.1.II. atala.

2) Nobelaren 36 (*Comment les archiers de la garde de Jehan de Paris entrerent en grant triumphe et honneur*) eta 37 (*Comment il entra six aultres clerons qui menoient les archiers de la arrieregarde de Jehan de Paris*) kapituluen laburpena, aurrekoaren titulupean.

Burgoseko sarrera desfilean hainbeste jende pasatzen ikusita, Anglaterrek iradokitzen du ez ote diren sartzen ate batetik eta gero

besteren batetik ateratzen, atzera berriz sartzeko. Portugalek bi baroi bidaltzen ditu hori egiaztatzera. Hauek, joan-etorria eginda, Anglaterreren burutapena ezeztatzen dute baina izutu samar daude hainbeste armagizon ikusita. Pajeak ordea lasaituko ditu, Jeanen asmo baketsuak aipatuz. *Cleron*-en sarrera alde batera lagata. Ikus 2.2.1.IV. atala.

3) Nobelaren 38 (*Comme le maistre d'ostel de Jehan de Paris entra honnorablement avecq les cent pages d'honneur*) eta 39 (*Comment les trompettes de Jehan de Paris entrerent avecq moult belle compaignie*) aurrekoaren titulupean bilduta.

Desfileko tronpeten sarrera da kentzen dena. Ikus 2.2.1.IV. atala.

4) Nobelaren 45 (*Comment le roy d'Espaigne, acompaigné du roy d'Anglaterre, allerent convoyer Jehan de Paris*) eta 46 (*Comment le roy d'Espaigne et d'Anglaterre, acompaignez des plusieurs grans segneurs et barons, entrerent dans la chambre de Jehan de Paris, et comment Jehan de Paris se leva de son siege pour faire reverence au roy d'Espaigne*) kapituluak aurrekoaren titulupean. 47.a (*Comment Jehan de Paris fit apporter espices et confitures de toutes sortes, et vins de plusieurs façons et couleurs*) arras laburtua dago.

Hemen Wickersheimer-ek aipatzen ez duen beste testu gabetze bat egiaztatu dugu azterturiko hainbat ediziotan, 44. kapitulua (*Comment le conte de Quarion et son compaignon allerent devers Jehan de Paris*) ez baita horietan osorik agertzen. Itxura denez, desfilea bukatuta, gortekoek Jean bertara gonbitatzea erabakitzen dutenean, aurreko bi mezulari bidaltzen dute. Chancelierrak onartzen ez dituenean, salto huts eta esplikatu gabeko bat gertatzen da testuan, Espaina eta Anglaterre Jeanen gelara arazorik gabe sartzen direlarik. Ikus 2.2.1.V. atala.

5) Nobelaren azkenaldeko sei kapituluren ezabaketa.

Kendutako kapituluak hauek dira: alde batetik, 51 (*Comment Jehan de Paris rebrassa ses habillemens pour demonstrer qu'il estoit, et fit rebrasser celles des ducz d'Orleans et de Bourbon qui estoient avecq luy*), 52 (*Comment le roy Jehan commenda au duc d'Orleans et de Bourbon, et a plusieurs aultres, qu'ilz rebrassassent leurs robes*) eta 53 (*Comment le roy d'Anglaterre s'en alla de Burgues bien marry et courrosé quant il vit*

***que le roy de France luy avoit osté celle que tenoit son cueur et sa pensee*).**

Bestetik (interesgarria gertatzen da azkeneko hau, bertan soma baitaiteke Kontrarreformaren eragina, agian desegokitzat jo zitezkeen pasarteak kentzeko orduan), 55 (*Comment on coucha la pucelle et comment le roy de France s'alla coucher auprès d'elle*), 56 (*Comment les costuriers et tailliandiers du roy Jehan habillerent la royne a la mode de France*) eta 57 (*Comment le roy de Navarre, parlant a la royne de France, luy dit que les fleurs de lis luy estoient monteez dessus*).

Behin XVIII. mendearen lehen erdian nobelak jasandako laburpenak finkatuta, hurrengo urratsa orduko eta geroko zenbait ediziotan nola agertzen ziren zehaztea izan da. Laburpen edo mozketa horiek, pastoralgileek eskaintzen dizkiguten testuetaraino istorioak egingo zuen bide posiblea, neurri batean besterik ez bada ere, argitzen lagunduko digute. Eta gainera adierazi ere, istorio-ale horiek noizko diren, eta pastoral emanaldietan, iturri narratibotik zer hartu den, batetik; eta, bestetik, emanaldi horietan zein diren jatorrizko elementuak, moldazioan eginiko aukerak eta antzezpenaren ezaugarriak.

Aztertu ahal izan ditugun aleak eta zunden aplikazioa:

Zundak aplikatzeko aleak, edizio desberdinetakoak, biltzea lanak eman dizkigu. Bi arazo mota hauek baldintzatu digute ale kopuru jakin bat aztertzea:

Batetik, ez dugu ahaztu behar *Bibliothèque bleue*-aren barneko liburuak oso kalitate eskasekoak zirela. Paper txarrez eginak, esku askotatik pasatzen ziren eta, ondorioz, azkar asko higatu eta galtzen ziren. Bollème-k dioskunez (1965: 64), badirudi garai horretan somatzen dela halako liburuak gordetzeko ohitura edo, Jean de Parisen ale baten azalean agertzen den ex-librisaren arabera. Dena den, horrek ez digu bat ere lagundu.

Bestetik, behin aurkitutako edizioak esku artean izanda, horietako anitzek ez dute inprimatze datarik ematen. Beti agertzen diren datuak inprimatzailearen izena eta tokia dira. Batzuetan, horien arabera, posible izan zaigu denbora kokapen hurbileko bat egitea, beste batzuetan ordea ez hainbeste.

Katalogoak:

***Colportage*-ko liburuen lehen katalogoak, inprimatzaileak hiltzean egiten ziren inbentario zerrendetan aurkitzen dira. Horien eredu bat Jacques II Oudot hil ondoan egin zena izan liteke (Mandrou, 1975: 199-201). Bertan gure Jean de Paris agertzen da beste hainbatekin batera. Informazio iturri hori ordea erabat antzu gertatzen da, ez baita posible gure asmoetarako egoki litekeen argibiderik, hain eremu zabaletik ateratzen saiatzea ere. Beste informazio batzuen bila jo behar izan dugu, beste katalogo batzuetara.**

Ohizko errepertorio bibliografikoak geneuzkan eskuragarri, esaterako Brunet-ena (1842). Bertan nobelaren sei edizio aipatzen ditu, tartean Toussaint de Govy-rena dagoela. Hala ere, askoz argigarriago gertatu zaizkigu liburu urdinak zuzenean aztertu eta, batzuetan, berrinprimatu zituzten zentsore, artxibari edo ikerlarien liburu zerrendak. Gure nobelari dagokiola ezinbestekoak Nisard (1864) eta Nodier (1842) dira.

Lehenengoak data gabeko bi edizio aipatzen ditu eta nobelaren berri zehatza ematen, XVII. mendeko ale batean oinarrituta eta zenbait zati zuzenean aldatuz (1864, II: 398-407). Nisard-en liburu hau bestalde, pastoralak aztertu zituzten ikerlariek erabili ohi zuten iturriak aipatzeko orduan, batez ere Léon-ek (1909: 89) eta Hérellek (1928: 20). Leizaolak ordea, Pauphilet-ek (1952) eginiko edizioa erabili zuen, nobela C izkribuarekin zati labur batez konparatzean (ikus 1.1. atala).

Bigarrenak zortzi edizio aipatzen ditu. Bertan ditugu Wickersheimer-ek azterturiko Toussaint eta Oudot-ena, Mallemans de Sage izeneko batek zuzendutako Troyes-eko beste bat (datu harrigarria hauxe, inprimatzaileek ez baitzuten inoiz aitortzen testuak aldatzen zituztela, Nodier-en aburuz hizkuntz moldatze hutsa izan arren), eta Rouengo XVIII mende hasierako beste bat. Bestalde, liburu honetan garai diferenteetako liburu urdin merke zenbaiten bilduma ematen digu, bertan Jean de Parisen bertsio oso bat sartuz, bere esanetan 1615 eta 1650 bitartean idatzia (xvj or.).

Informazio iturri baliagarrienak, hala eta guztiz ere, *colportage*-ko liburuak aztertu dituzten mende honetako ikerlarien emaitzak

dira. Hauen artean A. Morin-en katalogoa dugu alde batetik (1974: 207-211) eta Bollème-rena bestetik (1975: 438).

Aurreko aztertzaile guztien emaitzak biltzeaz gainera, ematen dituzten tituluen edizio zerrendak oso bete eta datuz hornituak daude. Morin-ek Troyes-eko *Bibliothèque bleue*-aren katalogoa ematen du, hiri horretan argitaratu eta ezagutzen diren liburu urdinen tituluen edizio guztiena alegia. Jean de Parisi dagokiola, hogei edizio desberdin ematen ditu. Bollème-k bere aldetik hamasei zehazten ditu, bertan Morin-ek aipaturiko zazpi daudelarik.

Bestalde, erantsi behar genuke, agian, katalogoetan azalduriko ale jakinak aztertzera, Pariseko Liburutegi Nazionaleko erreseba sailera jo genuela, eta, geroago, Arsenaleko Liburutegikora, non gordetzen baitira Wickersheimer andreak erabilitakoak.

Gure bost laburpen horiek aplikatu edo frogatzeko lagina, neurri handi batean, bion zerrendetatik atera dugu. Kopuru mugatuko edizio multzoa aztertu dugu, eskueran izan ditugun ahalbideez baliatuta. Horrela, Wickersheimer-ek eta Pauphilet-ek eginikoak alde batera (azken honena aurrekoaren berdina baita, XV. mendeko eskuzkribuetatik aterata dagoena), jarraian ematen dugu erabilitako edizio zerrenda, bost laburpenak aplikatuz eginiko azterketarekin batera. Edizioen tituluak zeudenean zeudela aldatu ditugu, aurkezten dituzten errakuntzak gorabehera, eta horren segidan ale bakoitzak ematen dituen datuak (inprimatzailea, lekua, data eta aprobazio edo baimentze datak, baldin eta agertzen badira).

Zunden aplikazioa, alez ale:

*** Charles Nisard-ek (1864, II: 395-407) erabilitako alearen laburpena. Obraren berri ematean bi edizio aipatzen ditu: *Histoire de Jean de Paris, roi de France*, chez Pellerin, à Epinal, sans date; et à Montbéliard, chez Deckherr frères, sans date (398 or.).**

Lehenengoa erabili zuen, datazioaren hurbilpen bat eginez: "c'en est un abregé, une refonte faite au dix-septième siècle" (407 or.). Nobelaren argumentua eskaintzen digu, zenbait zati zuzenean aldatzen dituela eta erabilitako bigarren aleko bi grabatu ilustratibo erantsiz.

Testu apur horretan gure bost laburpenen aplikazioak fruiturik ematen ez duen arren, esan dezakegu ale hori Oudot 1613an ateratako ediziotik egingo ziren bertsio anitzetako bat dela seguruenik, bertan azaltzen baitira Ecosse eta Pologneko erregeak. Gogora dezagun hala ere, J.-A. Garnier-en 1736koan berriz agertzen direla bi pertsonaia horiek.

*** *Histoire/de/Jean de Paris.* (Nodier, 1842: 99-151). Ez dizkigu honek lekua eta inprimatzailea ematen.**

Gorago esan dugun bezala, bertsio hau XVII mende hasieran idatzitakoa zela zioen Nodier-ek, 1615-1650 urteen artean zehazki.

Bost laburpenak bertan aztertu eta gero ordea, XVIII.eko J.-A. Garnier-enaren aurrekaria dela ematen du.

Lehenengoari dagokiola, 14. kapituluan ez da aipatzen Jeanen Vincennes-erako ostera. Anglaterre ohera doala bukatzen da kapituluaren lehen parrafoa eta bigarrenean, inongo adierazpenik gabe eginiko saltoaz, Jean amarekin hizketan dugu puntu eta hurrengo lerroan (112 or.). Izenburua

ez da 16. kapituluarena, Wickersheimer-ek aztertutako Garnier-en alean bezala, 14.arena baino.

Bigarren eta hirugarren laburpenak Garnier-enean bezala agertzen dira, baina laugarrena, osorik behintzat, ez; izan ere, 43. kapituluaren titulupean 43 eta 45 kapituluak sartzen baititu, 44.a janez (Quarionen esplikazioak Jeanengana iristen utzi ez dietela eta). 47.a 46aren barruan eta bost lerrotan laburtuta dago. Boskarren laburpena Garnier-enean bezala agertzen da. Beraz, uste dugu Nodier-ek ale honetarako egiten duen datazioa ez dela oso fidagarria, XVIII.ean emango ziren aldaketak erakusten baititu.

***** ***Histoire/de/Jean de Paris/Roi de France/NOUVELLE EDITION/ A ROUEN/ chez Lecrêne-Labbey Imprimeur-libr.,/Grand-Rue, N° 160.*** **(Madrilleko Liburutegi Nazionala, R11514, P. Gayangos-en bildumakoa).**

Ez du datarik. Rouen-en badirudi hainbat aldiz argitaratu zutela gure nobelatxoa, bai Nodier-ek (xxxij or.), bai Bollème-k (1975: 438), edizio bana aipatzen baitute, 1701 eta 1705 urtekoak, hurrenez hurren. Bigarrenaren izenburua gure ale honenaren berdina da, baina inprimatzailea desberdina.

Edizio hau Garnier-enaren deskribapenari dagokio neurri handi batean. Lehenengo hiru laburpenak eta boskarrena berdin ematen ditu.

Laugarrenean ordea, 44. kapitulua osorik jaten du, Nodier-ek ateratako alean bezala. 45.aren izenburua ematen duen arren, ez du kontatzen nola erabakitzen duten Espaina eta Anglaterreko erregeek Jean gonbitatzera beraiek joatea, inongo adierazpenik gabeko saltoa eginez eta kapitulua bi parrafotan laburtuz. 46.an gauza bera, antzeko saltoa dago, eta 47.a sei lerrotan agertzen da, titulu eta guzti. Ecosse eta Pologneko erregeak, Nodier-enean bezala, badaude. Garnier-enak baino laburpen gutxiago izanik ere, ez dirudi XVIII. mende hasiera baino aurreragoko batetik hartua denik. Inprimatzailea XIX mende hasieran aritu zen, Marais eta

Andries-en arabera. Rouen-en mende hasieran ateratako edizioren baten bertsio izan liteke.

***** ***L'Histoire/de/Jean de Paris/Roy de France/lequel aprés que son pere eut remis le Roi d'Espagne/en son Royaume, il en épousa la fille, laquelle/il amena en France/A Troyes chez la Véve*** **(sic)** ***Jacques Oudot/Approbation, 15 oct. 1714.*** **(Pariseko Liburutegi Nazionala, 16° Y2 15553).**

Edizio hau zenbakitu gabe eta galdera ikurraz agertzen da A. Morin-en katalogoan (1974: 207), galdera hau egiten duelarik: "Est-ce bien une édition de 1714, ou celle de 1746, avec permission de 1714, citée plus loin, n° 496?". Aurreko hipotesia da egiazkoa, zeren ale honetan ez da, 496 zenbakidunean gertatzen den bezala, ez 1714ko abenduaren 1eko baimentzerik, ez Oudot-en ofizio izendapenik, ezta helbiderik ere, nahiz titulua berbera izan. Morin-ek ale honen izenburua okasio-liburuetako katalogo anonimo batean aurkitu zuen, eta 496 zenbakidunarena L. Morin-en bildumaren zerrendan, baina azken hau galdua da.

Interesgarri gertatzen da Jacques Oudot-en alargunaren ale hau. Aprobazioaren data fidagarria da, Bollème-k (1975: 398) dioenez, andre hura 1668-1741 bitartean arduratu baitzen moldiztegiaz.

J.-A. Garnier-en 1738koaren antzeko gertatzen da, baina lehen eta boskarren laburpenei dagokiela bakarrik. Bigarrena eta hirugarrena ez dira agertzen eta bertako lau kapituluak XVII. mendeko edizioetan bezala ematen dira, aldaketa xumeak gorabehera. Laugarrenean, 44. kapitulurik ez da agertzen, baina bai hurrengo hirurak, nahikoa laburtuta badaude ere.

Wickersheimer-en analisiaren arabera, esan genezake Oudot etxeko edizioetan XVII.etik XVIII.era egindako aldaketen eredua dela.

***** ***L'Histoire/de Jean de Paris/Roy de France/A Troyes chés*** **(sic)** ***P. Garnier librairie rue du Temple. Permission du roy,***

17 sept. 1736. (Pariseko Liburutegi Nazionala, 16° Y2 6 pièce 290).

Ale hau A. Morin-en katalogoko 486 zenbakiduna da (1974: 208). Garnier-tarrak, Oudot-enekoak bezala, Troyes-eko inprimatzaile familia inportanteenetako bat izan ziren eta nobela hau askotan argitaratu zuten.

Honela, katalogo horretan beste edizio batzuk dauzkagu, eta tartean Wickersheimer-ek aztertutakoa, bost laburpenen gida ematen diguna alegia. Edizio hori Morinen katalogoko 484 edo 485 zenbakiduna izan behar da, bion deskribapenean xehetasun aipagarri hauek daudelarik: _chez J. A. Garnier_ eta _Permission à Pierre Garnier, Versailles, 19 mai 1738_.

Bollème-k buruturiko Troyes-eko inprimatzaile zerrenda barruan ordea (1975: 398), honelako segida dugu familia horretan: Pierre I, 1662-1738; Vve. Pierre I, ...1754; Pierre II, 1738-1742; Jean II, 1754-1766; eta, Jean-Antoine edo Antoine 1766-1780. Beraz, argitaratzeko baimena 1738koa izan arren, J.-Antoine delarik bost laburpenak aurkezten dituen edizioaren egilea, gerora, mende erdia pasata aterako zuen. Itxura denez, emandako baimenak askotan erabiltzen ziren obra berbera, moldiztegi jakin batean hainbat alditan argitaratzeko.

Guk aztertutako alea beraz, urte batzuk lehenagokoa izango zen. Hala ere, Wickersheimer-ek aztertutako Jean-Antoine-nean dauden laburpenen oso antzekoak aurkezten ditu, laugarrena baita desberdin agertzen den bakarra, beste edizio batzuetan ere detektatu dugun 44. kapituluaren ezabaketaz eta hurrengo hiruren murrizpenaz.

Azken batean, XVIII. mendearen lehen erdian somatzen den aldaketa multzo hori ez zen bat-batean egingo, pixkanaka baizik, eskuartean izan ditugun aleetan ederki ikusten denez.

*** *Histoire/de/Jean de Paris/Roi de France/A Troyes/chez Baudot/Imprimeur-libraire/Rue du Temple, n°43.* (Pariseko Liburutegi Nazionala, 16° Y2 pièce 751).**

Itxura guztien arabera, ale hau A. Morin-en katalogoko 494 zenbakidunari dagokio. Ez du inongo datarik ematen, baina liburutegiko fitxan honako ohar hau irakur daiteke: *milieu du XVIIIème siècle.* Dena den, Bollème-ren Troyes-eko inprimatzaileen zerrendaren arabera (1975: 399), Baudot familia XVIII.aren azkenetik XIX. mende erdira bitartean arituko zen lanean.

Alabaina, laburpenen azterketa eginda, XVIII.aren lehen erdikoa, edo garai bertsuko batetik hartua dirudi; izan ere, lehenengoa, bigarrena eta boskarrena J.-A. Garnier-enean bezala agertzen diren arren, laugarrena Nodier-ek ateratakoaren berdina da. Hirugarren laburpena ordea, ez da hemen agertzen eta Jeanen tronpeten sarrera aipatzen da desfilean, kapituluaren izenburua aldatua bada ere.

*** *L'Excellent Roman/nommé/Jean de Paris/Roy de France/lequel aprés que son père eut mis le Roy/d'Espagne en son Royaume, par la/promesse, & par les pompes & subti-/litez, épousa la Fille dudit Roy d'Es-/pagne, laquelle il mena en France &/véquirent en grand honneur a la gloire/de France. A Berrias/chez François Arvieu, Imprimeur & Marchand/libraire à L'Enseigne du Merle blanc/MDCCXL.* (Pariseko Liburutegi Nazionala, 8° Y2 56484).**

Ale hau Bollème-ren katalogoan 531 zenbakipean agertzen diren bietako lehenengoa da. Bertan data gabekotzat jotzen duen arren, garbi azaltzen da zenbaki erromanoez inprimatzailearen datuen azpian.

Zeharo harritu gaitu honen azterketak. Gida moduan ezarritako bost laburpenen bila jota, batean ere ez du erantzuten. Ez dira Ecosse eta Pologne-ko erregeak azaltzen Espainiako gortean. Berrogetamazortzi kapitulu ematen ditu, Wickersheimer-ek eginiko edizioak baino bat gutxiago, honen 19 eta 20 kapituluak batera jarriz. Edukina orokorrean laburturik badago ere, ez du egiten beste edizio gehienetan aurkitu ditugun inolako adierazpenik gabeko salto edo mozketarik. Espainiako erregeren alabaren izenik ez da agertzen 12. kapituluan.

Wickersheimer-en azterketa kronologikoan kokatu nahi izan ezkero, La Rochelle-ko Toussaint de Govy-rena

dugu antzekoena, baina ez dirudi hori izan zitekeenik honen iturria, Toussaint-enak azken kapitulua kentzen baitu, Arvieu-ren honek ez bezala.

Bestalde, XVII eta XVIII mendeetako edizioen deskribapenarekin antzik ez duenez, agian esan liteke XVI. mendeko batean oinarritua dela. Horretan izenburuen konparazioak lagunduko liguke; izan ere, Lyon-en eginiko lehen edizioaren titulua antzeko gertatzen baita hasieran: *S'ensuyt un très beau et excellent romant nommé Jehan de Paris Roy de France* (Bollème, 1975: 438, 529 zenb.). Hala ere, tituluaren jarraipena nabarmenki antzeko gertatzen da, Oudot-en lehen edizioarenarekin (ibid. 530 zenb.).

Badirudi edizio hau Wickersheimer-ek kontuan hartu ez zuen multzo baten partaide dela, Frantziako ekialdetik, Midi-an zehar, hegoaldera egingo ziren berrinprimatzeek osatua, jarraian aztertuko ditugun Toulouse-koekin erakusten duen antz apurragatik.

*** *L'Excellent Roman/nommé/Jean de Paris,/Roi de France/lequel, après que son père eut remis le/roi d'Espagne en son royaume, pour/sa valeur épousa la fille dudit roi avec/grande pompe et magnificence, puis/l'ammena en France, où ils vécurent/long-temps en grand honneur et gloire./A Toulouse/De l'imprimerie d'Antoine Navarre, rue/des Tierçaires, n°84.* (Pariseko Liburutegi Nazionala, Y2 23899).**

Beste hiru edizio dago bertan honen berdin-berdinak direnak, aldaketa xehe eta garrantzirik gabeko batzuk kenduta, orrialde kopuru berbera (hogeita lau), kapitulu berberak (hogeita hiru) eta besteetan azaltzen ez diren xehetasun aipagarri batzuk baitituzte: Y2 33454 (*De l'Imprimerie de Desclassau et Navarre* (...) *Et sevend,/Chez L. Abadie cadet* (...) *fabricant de papier à tapisserie*); Y2 3345 (*De l'Imprimerie de J.-M. Corne*); eta Y2 p. 584 (*Imprimerie de Léon Dieulafoy*), azken hau Bollème-k bere zerrendaren 531 zenbakipeko bigarren lekuan jarria, Berrias-ekoaren ondoren hain zuzen.

Lehen begiratu batean badirudi Wickersheimer-ek deskribaturiko Caen-go edizioaren antzekoak direla. Xehetasun apur batez, hark azalduriko ezaugarriak Toulouse-ko hauekin konparatuz gero, iritzi hori indartu ez ezik, berdin samarrak izan litezkeela esan genezake: lehen hamazazpi kapituluak hamalaura laburtuta; bidaia kapitulu batean eta euriaren pasadizoa kenduta; desfilea kapitulu huts batean eta segizioaren partaide berberez etab. Bollème-k ordea, hogeita hamasei orrialdekotzat jotzen du Caen-goa; baina esan beharra dago kontraesanak gertatzen direla ikerlarien artean, esaterako Pariseko J. Bonfons-en alargunak egindakoaz hogeita zortzi orrialde dituela dio, Wickersheimer-ek bat ere mozketarik gabeko XVI. mendekoekin parekatzen duen bitartean (1925: 62).

Esango genuke, gehienez ere, Toulouse-ko hauek Caen-goa baino laburtxoagoak litezkeela eta, nobela herritartzean nagusituriko joera orokorraren arabera, modernoagoak agian.

J.-A. Garnier-en edizioak aurkezten dituen laburpen edo mozketen gida aplikatuta, Berrias-eko edizioan bezala, desberdintasun handiak somatzen dira aztertu ditugun besteekiko. Bigarren eta hirugarrena agertzen dira, baina desfilea zeharo murriztuta dagoelako. Laugarren laburpenari dagozkion kapituluak erabat kenduta daude, Jean zuzenean sartzen baita gortera, inongo gonbite edo atzera-aurrerarik gabe.

Lehenengo laburpenean ordea, edizio zaharretan edo Berrias-en eginikoan bezala, Orléans eta Bourbon Jeanengana doaz eta Anglaterre-ren bisita eta asmoak kontatzen dizkiote, baina oso labur. Antzera bosgarrenean, bertako sei kapituluak agertzen ez badira ere, 20.a edizio zaharren 51.aren erresumen murritza baita: *Comme Jean de Paris se fit connaitre en présence de l'asamblée;* zehazki: *(...) il leva sa robe, laquelle était par dedans de velours bleu semée de fleurs de lis d'or*. XV. mendeko eskuzkribuetan bezala hain zuzen.

Bestalde, Berrias-ekoan gertatzen den moduan, Ecosse eta Pologne-eko erregeak ez dira agertzen.

Hala eta guztiz ere, pertsonai izen berri bi azaltzen zaigu bertan: Jeanen aitari, koinatua tronoan berrezartzera doala, aurre egiten dion gobernadorearena, *le gouverneur de Cracovie;* eta Espainako erregeren alaba, XVIII. mendeko gehienetan (Berrias-ekoan ezik) *Anne* deitua, *l'Infante d'Espagne* izendatzen da, Caen-go edizioan bezala.

Horietaz gainera, besteetan agertzen ez den leku izen bat azaltzen dute, Lancaster-eko kontea *Madrilera* doalarik bere erregeren prokuradore ezkontza burutzera.

Lagin horren eranskin gisa, Pariseko Arsenalaren Liburutegiko aleak aztertu ditugu. Horiek osatzen dute Wickersheimer-ek erabilitako iturri nagusia, eta bertatik sortuko zuen lehenago laburtu dugun ibilbidea. Ale horietako bost baliagarriak izan daitezke gure azterketarako, edizio datak kontuan hartuta. Hona hemen zerrenda:

XVI. mendeko argitalpen gotikoa, traduit par Pierre de la sippade, Parisen, data zehatzik gabe.1600eko Velut-ena, Parisen; gotikoen antzekoa, prologo eta guzti, eta mozketarik gabe. 1613ko Oudot-ena, Troyesen; Wickersheimer-ek azaldu deskripzioaz bat datorrena. XVII. mende amaierako Toussaint de Govy-rena, hau ere bat, mozketa garrantzizkorik gabe, eta azken kapitulua falta duena. Eta, azkenik, J.-A. Garnier-ena, Wickersheimer-ek 1738kotzat joa.

Ale horiek guztiak begiratu ondoren, Wickersheimer-ek esandakoak orokorrean egiaztatzen badira ere, haren ondorio batzuk zalantzan jartzen dituzten puntuak badaude:

XVIII. mendeko aldaketa nabarmenen eredutzat hartzen duen J.-A. Garnier-en edizioa 1738kotzat jotzen du; baina, data hori Pierre Garnier-en argitaratzeko baimenarena izanik, badirudi oker dabilela. Bigarren mende erditik aurrera aritu baitzen Jean Antoine eta, ondorioz, hamarkada batzuk geroago inprimatuko zuen ale hori.

Bestalde, Wickersheimer-ek ez du aipatzen ekialdean eginiko edizioriK: Berrias-eko edizioan ikusi ahal izan dugunez, nobela 1740an osatu samar, zati nabarmenik galdu gabe agertu zen eta, izenburuz eta edukinez, XVI. edo XVII. mendeetako aleren batetik aterea dirudi. Gerta liteke Berrias-eko edizio hori Caen-goaren eta Toulouse-ko lauren arbaso izatea, Ecosse eta Pologne-ko erregeak aipatu ez, eta bidaian bertan (gerora beste horietan kapitulu huts batean geratuko zena) halako mozketa bat erakusten baitu.

Horrekin batera, Wickersheimer-en aburuz XVIII. mendeko edizioetan Jeanen ateraldiak ez dira agertzen: "les éditeurs du XVIIIe siècle suppriment les propos équivoques que se permet à plusieurs reprises" (1925: 63). Guk aztertutakoetan ordea ez da hori gertatzen.

Azkenik, zalantza handiak ditugu edizio herritarrentzat iradokitzen duen dataz. XIX. mendeko Caen-go alearen berri ematean honela dio: "le nom de *Anne* est supprimé; les éditions populaires désignent l'héroïne du roman sous le titre d'*Infante d'Espagne*" (64 or.).

Zer adierazi nahi zuen *éditions populaires* esatean? Horien eredu bezala Caen-goa harturik honela deskribatzen ditu:

> **"Comme la partie narrative qui précède le défilé, celle qui le suit est racontée assez longuement. C'est l'intrigue du roman qui a résisté dans ces éditions populaires fort écourtées. Les épisodes du voyage et du défilé y sont réduits aux proportions des autres péripéties de l'action qui se succèdent rapidement dans la première et dans la dernière partie du roman. En effet, les longues scènes pendant lesquelles l'intrigue se développe très lentement,**

> **n'intéressent pas le peuple; il s'intéresse à "l'histoire", et il y veut de l'action. C'est "l'histoire", la partie action de *Jehan de Paris*, que les faiseurs d'éditions populaires, pour plaire à leur clientèle, ont su conserver" (ibid.).**

Orrialde batzuk lehenago honela dio, Oudot-en *colportage*-ko 1613ko lehen edizioa aipatu eta gero: "A partir de cette date, les éditions populaires se succèdent nombreuses, tant à Troyes qu'a Lyon, à Rouen et à La Rochelle" (62 or.).

Inprimatoki horiek gure nobela Frantziako mendebaldera eta, azken batean, Zuberoara nola edo nondik iritsiko ote zen zalantza pizten digute. Badirudi *colportage* bidezko zabalkuntza, orduko *marchands et merciers* haiek egina, oso nabarmena izan zela Frantziako iparraldean XVII.etik aurrera. Hegoaldean ordea ez da halakorik gertatzen. Geroago hedatuko zen liburuak zabaltzeko modu hori Midi-an, XVIIIaren erdian edo (Martin, 1975: 261).

Geure aldetik, Frantziako hegomendebaldeko inprimatzaile bila ibilita, ez dugu Jean de Paris edo beste *colportage*-ko libururik argitaratzen zuenik aurkitu, Toulouse-ko edizioen egileak kenduta noski. *Colporteur*-en testigantza apur batzuk garaiotan dauden arren, alde horretakorik ez da azaltzen. Geroago, XIX.aren erdialdean, Darmon-en arabera, arazo bera gertatzen da: "l'absence de sources ne nous autorise en ce domaine qu'à formuler des hypothèses" (1972: 47).

Inguruetako inprimatzaileen berri ematen dutenetan ez da halakorik agertzen (Lacaze, 1884 eta Desgraves, 1968 aztertu ditugu). Hala ere, Bollème-k burututako kartan Pabe, Saint Gaudens, Toulouse, Agen eta Bordele azaltzen dira moldiztegiak zeudeneko hiri bezala. Horietan garrantzitsuena agian Toulouse izango zen, lanbide hori tradizio handikoa izateaz gainera, bertan gaskoinez argitaratuko baitziren zenbait liburu (ikus 2.1. atala); baina, esan bezala, ez dugu beste hirietan ateratako alerik topatu.

Horretaz guztiaz pastoralaren izkribuetara jota, badirudi xehetasun nabarmen hauek aipatu beharra dagoela: *Infanta*, Espainiako erregeren alabaren izen bezala; *Grecobiako gobernadoria*, erreboltari espainolen artekoa; eta *Madril*, prokuradore ezkontza egitera Lancaster doan

hiria. Hiru horiek Toulouse-ko edizio datagabeetan besterik ez dira azaltzen; baina pastoral izkribuetan ere bai.

Bestalde, *Eskuako contia* agertzen zaigu bertan: Oudot-en ediziotik aurrera erasten diren *les rois d'Ecosse et de Pologne* horietako lehenengotik hartua ote da? Izen hori ordea, ez dute Berrias-eko, Toulouse-eko eta Toussaint-en aleek ematen.

Edizio hauen arakatzeak eta pastoral izkribuetan XVIIItik aurrera emandako hainbat laburtze ez agertzeak, honako hipotesi hau formularazten digute:

Pastoralean dagoen datarik zaharrena B izkribuko 1760koa izanik, xehetasun horiek agertzen zituen lehenagoko edizioren batetik moldatuko zuketela. Baina, garaiko edizioetan ez dira agertzen *Cracovie, Infanta* eta *Madrid.* Horren harira, galde genezake: inprimatzaileek, obraren erabilpen herritar eta ahozkoan (teatrozkoan beraz) suertaturiko aldaketak (xehetasun horiek, laburtzeak), edizio berri eta laburragoetan emango ote zituzten?

Romanaren edizio argigarriagorik ezean ez dago konklusio garbi-garbirik ateratzerik. Hala ere, aurretik esan bezala (2.1.), ez dirudi posible ahozko erabilpenaren eragina testu inprimatuetan aurkitzea; eta, are gutxiago noski, obra beraren errepresentazioaren ondokoetan, *colportage*-ko liburuen antzezpen herritarrak frantsesa hitz egiten ez zen lurralde nekazarietan eman baitziren. Xehetasun batzuk XIX. mendeko edizio *très éccourtées*-etan agertzen dira hala ere, eta honek zalantza eragiten digu. Segurantzia osorik ez da beraz. Alabaina, horrek ez digu hipotesia baliogabetzen, eta esan dezakegu XVII. mende bukaerako edizioetan azaltzen den moduko istorioa izan litekeela Zuberoako pastoralgileek moldatu eta taularatuko dutena.

3. Iturriaren moldapena.

3.1. Nobelako ekintza narratiboaren taularatzea:

Atal honen xedea da, iturriaren garapen narratiboa edo argumentuko gertaerak antzerki moduan emateko, pastoralgileek egin duten aukera deskribatzea. Oraingoan beraz, horri begira aztertuko dugu obra, romanaren argumentua azaltzeko (2.2. atala) eta pastoralaren irakurgidan (1.4.3. atala) ezarri dugun egituraren arabera, bertako bost parte nagusiak kontuan hartuz.

Horretaz gainera, romanaren zabalkuntza aztertzeko agertu diren edizio desberdinetako alde edo diferentziez (2.5.2. ataleko bost laburpen progresiboez) baliatuko gara. Horretarako erreferentzia nagusia Wickersheimer andreak eskainitako testua izango da.

Esan gabe doa, iturri narratiboa moldatzeko orduan, istorioa narraziotik teatroratzean, sinplifikazioa gertatzen dela ezaugarri nagusi. Kontaeran agerturiko alde deskriptiboak erabat desagertuko dira, eta ekintza narratiboak Zuberoako antzerkiaren kode dramatiko xumeari egokituko zaizkio. Pertsonaien elkarrizketak beraz, beren jalgitze, erretiratze eta beste mugimenduekin zeharo lotuta egongo dira, hauetan zehazten baita ekintzen garapena, noizbait ere, pertsonaien esanek berek adieraziko dutelarik zer gertatzen den.

Azken batean, Barrokoaren garaietako herri antzerkia deskribatzeko Garamendik jarri zituen ezaugarriak lirateke pastoral honetan aurki ditzakegunak:

> **" ...habría surgido un "suprateatro" en el que se daría una unidad integradora de la pluralidad de lugares de los misterios medievales. Esta unidad se habría logrado por dos medios: a) La escena neutra, en la que el lugar se especifica por la regulación de entradas y salidas; la alternancia de intrigas distintas, con sus grupos de personajes; y, en fin, el diálogo y la *ekfrasis* poética, completados por el empleo de accesorios o elementos de decorado-mueble, de carácter más o menos simbólico o realista. Y b) Decorado simultáneo, yuxtaponiendo por**

> **convención lugares representados por unidades derivadas de las 'mansiones' medievales, pero más o menos unidas entre sí, e integradas en la unidad más amplia del decorado general" (Garamendi, 1990: 610).**

Prozedura horien arabera, pastoralgileek istorioa moldatuko dute; baina ez dira horretara soilki mugatuko. Izkribu desberdinotan nabari diren eta pastoralaren izaerari dagozkion beste elementu batzuk ere emango dituzte.

Horiek nobelan dauden inportantzia haundirik gabeko gertaera batzuen garapena dira zenbaitetan, ezkontza eta heriotzaren hedakuntzarekin gertatzen den bezala, liturgi zatiez luzatuta baitaude.

Besteetan ordea, emanaldiaren ikusgarritasuna handitzeko batailak, erronkak eta satanen saioak, edo intriga nabarmendu eta mantentzeko nahiz ikuslegoaren barrea pizteko interbentzio berri eta burleskoak.

Ikus dezagun bada guzti hori, esandako bost parteak kontuan hartuta.

I. *Espainako koroa berrezarri eta Frantziako erregeren heriotza.* (1-190 bb.).

Nobelaren lehen hamar kapituluak hartzen ditu. C eta D izkribuak dira hemen, iturriarekiko lehenengo diferentzia jartzen dutenak; lehen, infidelek hasieran teatro aurreko hutsunetik eta zamari gainean (1-16 bb.), eta, gero, bertara igota (17-22) espainiarrei egiten dieten erronkaz. Hortik aurrerako 23-27 bertsoetan Espainiako erregek jakinarazten dio ikuslegoari erronka horrek ekarri dion galera.

28.enean A izkribuaren hasiera ematen da, latinezko otoitz labur batekin, eta hortxe lotzen da beste izkribuekin. Obraren hastapenetik ikusten da beraz, A izkribua dela iturriarekiko identifikazio handiena duena, bertan hasten baita. B izkribuak ere, Ak bezalako itxura erakusten du, obraren herena pasatxo besterik gelditzen ez zaion arren.

Testuan aurrera, lehenengo bataila 92-112 bertsoetan dugu. Iturrian ez da inongo bataila aztarnarik agertzen. Bertako laugarren kapituluan, *"le gouverneur d'Espagne"* (Toulouseko edizioetan *"de*

Cracovie") ateratzen zaio bidera Frantziako erregeri, baina honen indarraren aurrean inongo burrukarik gabe egiten du ihes. A izkribuko bataila desberdina da, laburragoa eta, hizkuntz aldetik, ez besteetakoa bezain gordina, gorriak espainolak besterik ez baitziren hor.

Espainolen barkamen eskea (113-125) izkribu guztietan azaltzen zaigu. Nobelaren 5, 6, eta 7 kapituluen laburpena da, eta bertan kontatzen den Frantziako erregek espainolei jarritako zigorra, erabat kenduta dago pastoraletik. Horrela, 125 bertsoan iragartzen dien *Sentencia* ez da betetzen izkribuetan:

Erakhar acie huna erreguina

Eta erregueren khorua

adelatu direnian eguitecouac

içanen da Cien Sentencia

Bertso honetan ere, bestalde, aipagarria da iturrian inondik ere azaltzen ez den koroa agertzea. Badirudi, laurok aipatzen dutelarik, halako garrantzia eman nahi izango ziotela Espainiako monarkiaren errestauratzeari, horren ondoko eta 133. bertsoko antzezoharretan ikusten denez.

Nabarmendu nahi genuke hala ere, A izkribua dela Espainiako erregeren koroatzea zehazten duen bakarra. Besteek alde batera utziko zuten (Ck eta Dk jakina, B hostogabetua baita hasieran), beranduago antzeztuko zen Jeanen koroatze zeremonia besterik ez emateko. D izkribuan oso garbi ikusten da: Carioko kontea ematen dio Frantziako erregeri Espainiakoaren koroa (125 b.), hurrengo bertsoan *d'orleans retira khoroua harturic* eta 133an azalduko da Espainiakoa koroa jantzita.

Gero iturriaren 8 eta 9 kapituluak luzeagotuta agertzen dira pastoralean. Espainiako errege-erreginek eskerronezko agerraldietan luzatzen dira, alaba Frantziakoari errain moduan eskaini baino lehen, eta gero ere bai (126-159). Infantaren lehen jalkialdi honetan diferentzia bat ikusten da izkribuen artean: An eta Cn umearen aurkezpena, amak besoetan duela egiten zaio Frantziako erregeri, *Ereguinac haura har/besouan eta M.a* (144 b.). Dn ordea, bertso berean, *infanta ekhar eskutic eta M.a*.

Aztertu ditugun edizioek, Wickersheimer-enak bezala, eskuzkribu zaharren aukera dakarte: *la reine prit sa fille, qui avoit cinq ou six mois, entre ses bras* (Nodier, 107 or.).

Haurrik aterako ote zuten D izkribuaren emanaldian momentu honetan? Ez dakigu; baina posibletzat jo beharko genuke Infantarena egiten zuen aktore berbera izatea. Hori pentsatzeko bidea, *infanta* hitzak ez ezik, Nisard-ek ematen digu.

Berak laburbildutako alean hiru urtekoa zela esaten den arren, esku artean izan zuen Montbéliard-ekoan bospasei hilabete zituela esaten da; baina pasarte hori hemen erakusten dugun grabatuak ilustratua dator. Nisard-en iruzkina hau da: "On voit que la princesse (...) était déjà d'une taille assez avantageuse" (II: 410-411).

***Colportage*-ko liburuetan agertzen ziren irudien eta testuen arteko egokitasunik eza normala omen zen (Garamendi, 1991: 613-614). Testua antzerkiratzean noizpait antzera jokatuko zuten, eta istorioen denbora eta leku aldaketak joan-etorri hutsen bitartez ematen ziren bezala, pertsonaien aurkezpenetan agertutako anakronismoek ez zuten ulertze arazorik ekarriko.**

Azken batean, publikoak pastoraletan zuzenean ikusten zuenari baino, aktoreek esaten, irudikatzen edo errepresentatzen ziotenari erreparatzen baitzion.

Antzerako beste adibide garbi bat desfilean dugu, Herotak karrosa bat dakarrela astoaz tiratuta: *orai jin heróta oyhal bolut/bat bizcarrian eta Carrosa batekin/Carrosa astouaz thira* (545 b. antz.). Gero ordea, bere esanetan hogeitabost karrosa direnak (548 eta 551 bb.), deskargatu egingo ditu (555 b.):

> ***alon jaunaq eta anderiaq***
>
> ***Niq eguin behartut ene eginbidiaq***
>
> ***descargatu Carrosaq***
>
> ***eta phausatu abitiaq***
>
> ***Sonu/herotaq Carrosaq descarga/triatera iragan eta retira/heróta bera eta juan çamarira***

Frantziako erregeren heriotza luze samar emana dago pastoralean (160-190 bb.). Bertan, A izkribuak, besteek jartzen ez dituzten lau bertso gehiago ematen ditu (A145-148; D190.ean). Hauetako bik hil kantua osatzen dute, Ck ere, testurik ematen ez duen arren, antzezoharrean zehazten duena.

Hemen, hil aurreko otoitzak, doluak eta hilaren garraiatzeak zeremonia erlijioso ikusgarria eragingo zuten. Frantziako errege hil aurreko bertsoa (182), latinez egindako otoitz bat da. Hau pastoralean azaltzen zaigun latinezko bigarrena da eta, aurrekoa ez bezala (28 b.), D izkribuan bakarrik azaltzen da. Ck eta Ek ordea, antzezoharrean aipatzen dute: *Eran Jmanusa* (C182). Horrelako bertso latinezko hauek ohizko bihurtuko ziren pastoraletan.

Nabarmentzekoa da, hala ere, iturrian halakorik inondik ez agertzea. Honek esan nahi du, beste *colportage* liburuetatik, edo probableago dena, beste pastoral emanaldi edo otoitz popularretatik hartuko zituztela, eta gure izkribu hauen garairako, beraz, nahiko errotuta egongo zela heriotzak teatroan emateko modu tradizional hau.

Dena den, ez genuke inolaz ere alde batera utzi behar elizkizunetako eta beste erlijio testuen eragina guzti honetan. Esaterako, De profundis-a hainbat pastoral izkributan, eta gure D izkribuaren amaieran ere, aipatzen dena, Pauen argitaraturiko Pronuetan osorik eta latinez azaltzen da, ohizko beste otoitzekin batera (11-12 orr.).

Izanez ere, gorago esan dugunez, *colportage* liburuen artean erlijiozkoak erruz azaltzen dira; tartean, katexima herritarrak, sermoiak, otoitz bildumak etab. Uste dugu horiek izan zirela, besteak beste, pastoralgileek baliatuko zuketen harrobi modukoa, emanaldien liturgi itxurazko parteak eta kantuak burutzeko orduan. Guzti hori areagotuta, noski, gure izkribuen garaitsuko bi ale eskueran eta zubereraz ditugularik, Othoitçe eta Canticac, eta Pronuak alegia.

Azkenik, B izkribu urratu eta foliogabetuaren lehen agerpena dugu parte honetan. Larrañeko Arhexen honetan, beste pastoral izkribuetan horren maiz agertzen ez den antzezoharra nabarmentzen da: *Bara*. Normalean batailetarako erreserbatzen da termino hau. Izkribu horretan ordea, edozein pertsonaiaren berbaldia amaitzen denean jartzen du, aktorea isildu eta geratu egiten dela adieraziz. Garai bateko izkribuek zehaztu beharko ote zuten hori, eta gerokoek jakintzat eman eta kenduko, beste

genero-kodetze maila batean? Jakin ez, izan ere, B da antzezohar hori horrela ematen duen bakarra ezagutzen ditugunen artean. Puntu honek egiaztatu beharrekoa dirudi beste pastoral izkribuetan, antzezoharretan erakutsitako jokamodua zehazteko.

II. *Anglaterreko erregeren prokuradore bidezko ezkontza, Pariserako bidaia eta Jean Espainiara abiatu* (191-326 bb.).

Iturriaren 11tik 17ra arteko kapituluak dira. Hemen hasten da, berez, istorioa Jeanen agerpenarekin. Aurreko partea kontakizunaren funtsa adierazteko sarrera moduko bat izango zen.

Nobelaren 11. kapituluak, 191-227 bertsoak hartzen ditu. Kapitulu laburra da, elkarrizketarik gabea, eta istorioaren denboran salto luzea egiten du. Bertan kontatzen denez, Espainarrek, Frantziako errege hil zela jakinda, hil dolu handia egin zuten. Gero alabak, behar bezala hazi eta hezita, hamabost urte bete zuenean, gurasoak zaharturik eta erresumaren kargua uzteko semerik gabe gertatu ziren. Orduan: *"panserent entr'eulx qu'il estoit besoing et temps pour le mieulx de la marier a quelque ung qui gouverneroit le royaulme. Et se faisoient enquerir par toutes terres mary que fut propice pour la fille, car ilz avoient tout oublié la promesse qu'ilz avoient faicte au roy de France, tant que les nouvelles en vindrent au roy d'Anglaterre qui pour lors estoit vefve, par quoy envoya un embaxade en Espagne"* (Wickersheimer, 1923: 18).

Zati labur hori lau izkribuek moldatzen dute pastoraleko 197-227 bertsoetan. Erraza zaigu luzatze horren arrazoiari erreparatzea: denbora luze horretan gertatutakoak azaltzeko, pastoraletako teknika xumeak ez du antzerki baliabide handirik. Pertsonaiak izango dira hitzez hitz denboraren aurreratze hori adieraziko dutenak, beti ere, jalkitze, erretiratze eta besteren laguntzaz.

Hurrengo 12. kapituluaren lehen hamar lerroek ere, hamar bertso hartuko dituzte pastoralean (217-227). Aurrekoa bezalako zabaltze moduko bat da, narrazioan joan-etorri batzuk lerro gutxitan adieraz daitezkeelako; aitzitik, antzeztuz adierazteko orduan, pertsonaiek errezitatuko dute zer egin behar duten, eszenatik erretira eta bertara jalki, eta gainontzeko eszena mugimenduetan ere kode tradizionalaren arabera jokatu.

Pastoralaren alde honetan, 226. bertsoan, Madril hiria aipatzen du Anglaterreko erregek. Ez dute halakorik jartzen ez Wickersheimer-ek, ez guk azterturiko iturriaren edizioek, Toulouse-koek izan ezik. Horietan, lehen esan bezala berdin-berdinak diren aleotan, honela irakurtzen dugu 9. orrialdean: *"Enfin les nouvelles en vinrent au roi d'Anglaterre, qui pour lors était veuf; c'est pourquoi il résolut d'envoyer des ambassadeurs à Madrid"*. Gauza bera gertatzen da Anklastreko kontea erantzunarekin bueltan datorrela. Hemen pastoralaren 240. bertsoak, Toulouseko edizioen 10. orrialdeko hau kontatzen du: *"Le comte de Lancaster lui répondit* (Anglaterreko erregeri) *qu'étant arrivés à Madrid, ils parlèrent au roi et à la reine, lesquels nous firent réponse qu'ils étaient contents..."*.

Bertso horren aurretik, A eta B izkribuek beste bi gehitzen dute. Iturriari fidelago, Anglaterrek Anklastreri egiten dion harrera osatzen dute. Ck eta Dk, testuan batzuetan ikusten den bezala, jalkitze-erretiratze bidez garbi ulertarazten dena ez dute berbalizatzen. Edo joera hori besteek baino gehiagotan erakusten dute.

Bestalde, testuan aurrera goazela, Anglaterreko errege Parisera estofen erostera ailegatzean ez du Jean aurkituko. Pastoralgileek gertaera hori antzerkiratzeko modua, zenbait bertso gehitzea da: batetik, 250-254, paseiura joateko baimena eskatu Jeanek amari, honek baietz esan, eta Chancelierrarekin abiatu. Zertara doazen ordea, diferente ematen dute: *Jhicin ikhastera* Dn eta *Jhisi Eguitera* Cn; *noula eguiten den bala* ikustera An eta Bn (253 b.).

Iturriko edizio desberdinek hainbat modutara ematen dute pasarte hau. Gehienek Jean artean gortean ez zegoela besterik ez dute esaten; eta, horrela, halako salto esplikaziorik gabekoa gertatzen da edizio herrikoietan. Dena den Berriaseko edizioa salbuespena da alde honetan, Wickersheimer-enari jarraitzen dion bakarra baita: *"Ce jour n'estoit pas a Paris le jeune roy, ains estoit allé a la chasse a ung sanglier au boys de Vincennes, ou il demeura tout le jour"* (1923: 21).

A eta B izkribuetako bertso horretan agertzen den dantza edo *bala*, ez da aztertu ditugun edizioetan agertzen.

Jean eta Chancelierra ehizean edo paseiuan daudeneko pasarte laburra ere gehitzen dute pastoralean. Baina Dk ematen dituen lau bertsoetatik bi besterik ez dira agertzen beste izkribuetan (ikus 274-277 bb.). Orleans eta Borbonek Jeani, Anglaterreko erregeren bisitaren berri

ematea, behar bezala errepresentatzeko gehitu dituzte pastoralgileek bertso horiek.

Bertan phuntzela bedera bilatu behar dutela dio Jeanek, eta Chancelierraren erantzuna luzeago gertatzen da Dn, hiru bertsoz. Andrazko ikusle jendeari zuzentzen zaio, antzerki komikoetan ohizkoa den ateraldiaz:

275 ***Monseigneur nic Cherkhatcecoz***
bien phuntcela bedera
hobe diçugu itçuliric
pariseco hiriala

276 ***Jhoun içatecoz***
Ene oustez han bada
Bestela jouanen nuçu
Bordeleco hirira

277 ***Eta orano hobe diçugu***
heben berian haitaturic
plaça hountan ouste dit badela
gutaz Content denic

Bestalde, Nobelaren Zabalkuntza atalean (2.5.) aipatu dugun lehen testu laburpena daukagu hemen. Pastoralgileek osorik ematen dute (267-299 bb.). Alde honetan Berrias-eko eta Wickersheimer-en edizioekin bat datoz. Toulouse-koetan ere agertzen da zati hau 12. kapituluan: *"Comme le duc d'Orléans et le duc de Bourbon racontèrent au roi le sujet de leur arrivée"*. Beste edizioek ordea, esandako adierazpenik gabeko testu mozketa erakusten dute alde honetan (Nodier, 112 eta Gayangos, 16 orr.).

Jeanen Espainiara joateko erabakia; bidaiaren antolaketa eta armada *Vincenara* (An eta Cn) edo *Versaillera* (D) biltzea, gero Espainia aldera abiatzeko, antzera daude azalduta edizio gehienetan, artxelen eta beste armagizonen kopuruetan bai edizioen artean, bai pastoralarekiko

dauden diferentziak gorabehera. Esan gabe doa, armada handi horren gertapenean aipatzen diren milakoak lau artxelak, herota, Orleans, Borbon, Chancelierra eta Jean besterik ez direla taulatuaren gainean.

III. *Bidaiaren gorabeherak eta Anglaterre Burgosera azaldu* (327-500 bb.).

Parte honetan nobelaren 18-30 kapituluetan zehar kontatzen diren gertaerak taularatzen dira, orokorrean laburbilduta, baina elementu funtsezkorik kendu gabe. Esate baterako, 30. kapitulua (*"Comment les heraulx vindrent devers Jean de Paris luy dire la responce que le roy d'Espagne leur avoit faict"*) antzezten ez den arren, 500. bertsoan iradokitzen digu herotak:

> ***Sira phartitcen nuçu arren***
>
> ***eta anitz remestiatcen***
>
> ***banouaçu edireitera jean de p.sen***
>
> ***eta eramaitera arraphostu horren***

Gure pertsonaiak bidean doazela, pastoralean agertzen den arabera, Anklastre lehenengo eta Anglaterreko errege gero, hurbilduko zaizkio Jeani, nor ote den, etab. galdezka. Anglesen harridurazko esaldiak tartekatzen dira. Gaua pasata, Jeanek onartuko du bidaia elkarrekin egiteko proposamena (370 b.).

Iturrian dauden hainbat xehetasun kenduta (afaltze edo lotara gonbiteak, bideko lekuizenak etab.), pastoralgileek ez dute, esate baterako, Toulouse-ko edizioen adinako mozketarik hemen, izan ere Wickersheimer-en eta, orokorrean XVIII. mendeko edizioen antzera ematen baitute alde hau. Gauza bera gertatzen da hurrengo bertsoetan, euriaren, uhaitzaren eta khanaren pasarteetan alegia, Espainako gortera anglesak iritsi arte, lau izkribuetan (371-403 bb.).

Hortik aurrera ordea (404-459 bb.), Ck eta Dk Burgoseko setioa eta bataila taularatzen dituzte. Oso modu xumean daude emanak: hiri barrukoak largabistaz erreparatzen diote setiatzaileen etorrerari. Elkarren arteko erronka oihuen ondoren, hiriko portalak zerratzen dituzte errege kristauek izara bat trabes jarrita, hain juxtu ere, teatroaren aurrekalde erdiko iraganguan, bertara igotzeko eskaileratxuan (427 b.).

Hemen azaltzen da genero tradizionalaren antzezmoduaren ezaugarri inportantea: teatro irekia izatea, taulatu inguruko espazioak publiko artean ere erabiltzen baitziren, segizio, desfile, eraso, eta abarretarako. Izkribu zaharrenetan antzera gertatuko zen, nahiz eta berrienek datu eta xehetasun gehiago dakarten. Beraz, kodetze maila gorena erakusten duten emanaldietako izkribuak daude datu horietaz hornituago.

Gero, salbajeak izara bota eta teatrora igoko dira (437 b.). Batailetako ohizko dantza esan dezakegu antzezoharretan aipatu adina alditan egingo zutela; beti ere, nor blesa, hil edo erortzen zen zehaztuz.

Izkribu hauetan beraz, ez da inoiz zehazten, Charlemagnen bezala esate baterako, bataila nork galduko duen adlatiboaren bidez. Pastoralen antzezpen kodearen aurreko urrats batean gaudelako seinalea ote da hori? Ez dakigu. Ikus honi buruz, Charlemagne, 289 b. eta setioei buruz, 631.a (Oihartzabal, 1991: 276-278).

Hortik aurrera, iturrian bezala emana dago zati honen antzezpena, beti ere zenbait xehetasun alde batera lagata. Esaterako, aipatuko genituzke: asteko egunak zehaztea; herot frantsesak bi, eta ehun zaldunek lagunduak izatea iturrian, pastoralean bakarra den artean; eta, azkenik, pastoralean herota konformatzea espainolek gordetako lekuaz, iturrian ez bezala.

A izkribuak hala eta guztiz ere, besteetan agertzen ez diren sei bertso gehitzen ditu, testu oinarritik aparteko emanaldi batean errezitatuko zirenak (ikus 493 bertsoko osagarriak). Bertan Baruak herotaren ailegatzea mehatxu bezala interpretatuko du:

espainaco Baroua

A393 ***Sira franciaco guiconbat***
egun baduçu hiri hountan
eta ceitera jin othe den
niagoçu phensamentucan

A394 ***guerla çoumbaiten declaratcera***

jin othe denez houna

jan deparisec jgorri badu

Segur nuçu cerbait holaco dela

Honek Grakobiako gobernadoriari bide ematen dio, bere gerlari abileziak harro-harro erakusteko Espainako erregeren aurrean. Hala ere, honen erantzun ironikoa besterik ez du lortuko (A397 b.). Nagusi-morroi arteko ohizko saio topikoaren arrastoa soma dezakegu hemen, antzezpen komikoetan eta satanen artean hainbatetan agertzen dena.

IV. *Jean eta bere suita Burgosera sartu* (501-754 bb.).

Parte honetan aipatzeko moduko zenbait gorabehera badago, pastoral izkribuen eta iturriaren edizioen artean.

Iturriaren edukiari dagokiola (31-47 kap.), labur samartua dago izkribuetan. Erabat kendutako kapituluak sujetaren suitaren partaide batzuen hirira sartzea kontatzen dutenak dira, alde batetik: 37. kap. (*six aultres clerons*) eta 39.a (*les trompettes*). Hauek gorago zehaztu ditugun 2. eta 3. laburpenei dagozkie (2.5.2. atala).

Beste alde batetik, pastoralgileek sarrera desfilea laburtzeko eta beren posibilitate xumeetara egokitzeko ahalegin horretan kendu dituztenak, hauek dira: sukaltresnen orgak, baxerarenak eta Jeanen atzegoardiaren sartzea aipatzen duten 33, 34, eta 42 kapituluak.

Horretaz gainera, aldaketa esanguratsu bat egiten dute 40.enean. Edizio guztietan "*le grant escuyer que portoit son espee dedans le fourreau tout couvert d'orfaverie et de pierres precieuses*" dena, A, B eta C izkribuetan Orleanseko dukea izango da, baina ezpata bilaizirik azaltzen dena (629b.). D izkribuak, aitzitik, pasarte hau kendu egingo du.

Azken batean, iturriko desfilean bi elementu nabarmendu nahi dira: Jeanen boterea eta aberastasuna. Izkribuetan antzera gertatzen da, baina A, B eta C botere beldur eragilea azpimarratzera lerratzen diren bitartean, Dk modu orekatuago batean jokatzen du, elementu gerlaria egokituz (Ako Grecobiaren saio gerrazaleaz gainera (604 eta 637 bb.)., Orleans ezpatadunarena ere kenduta, eta jantzi edo presenten xehetasunak erantsiz).

Bestalde, pastoralgileek istorioaren parte honetan gehitutako interbentzioak ditugu.

A izkribuan Jean de Parisen Allicor mairua agertzen da, Cn eta Dn Alikun eta Larkada bihurtuko dena. Pasarte honen funtzioa, hainbeste konpainia serio eta solemneren arteko saio libertigarria eskaintzea da, ateraldi burlesko eta nabarmenkeria eskatologiko batzuen bitartez (531-545 bb.).

Desfilearen hondarrean Jean agertzen da. Infantak eskainitako bukanesa teatrora igo gabe hartu eta erretiratzen da. Alde honetan A da iturriari zuzenean jarraitzen dion izkribu bakarra, 41. kapituluan kontatzen direnak laburbilduz. Ez da aterako, adibidez, Anglaterreren aipamenik, nahiz iturrian erremintzen den eta itxurak gordetzea erabakitzen duen. Halako prozesu sikologiko bat antzezteko posibilitaterik ez zuten izango.

Beste izkribu batzuek, ordea, zenbait pasarte gehitzen dute.

B izkribuan, aurkezten dituen folio urratuen artean, Infantaren saioa deitu duguna agertzen da. Bertan, Jean iritsi eta gero, Infantak harenganako amorioa adierazten dio ikuslegoari, eszena gainean bera bakarrik arituz. Gero Artxelen saioa dator. Pastoraleko bigarren mailako pertsonaien saio hau ere burlesko edo barregarria da eta, teatro komikoan ohi denez, hizkuntza eta edukin herritarragoak erakusten ditu. Bi saioak 675. bertsoaren ondoren ezarri ditugu, D izkribuaren osagarri bezala.

Dena den, desfilearen amaiera honetan testu kantitate handiena gehitzen dutenak C eta D izkribuak dira, Izkutuko Saioa deitu dugun horretan (638-675 bb.). Iturriaren edizioetako bukanesaren bidezko agurra, ezkongaien arteko elkar hartze huts eta laburra besterik ez dena, bion arteko elkarrizketa luzea bihurtzen da Cn eta Dn. Bertan, Jeanen etorreraren arrazoiak azaltzen dira, elkarrekiko amodio aitormena eta bidaiaren gorabeherak.

Agerraldi honetan Jeanek teatro aurretik egiten du hitz hasieran (638-640 bb.). Gero, igo egingo da bere lagunekin eta eszena gainean frantsesak eta Infanta besterik ez dira egongo. Saio elaboratu samarra ematen du D izkribuan, eta Oihartzabalek pastoraletan amodioak duen presentziaz esandakoa: "L'amour -et les personnages féminins ont le plus

souvent à intervenir dans ce registre- n'a guère de place dans les pastorales..." (1988: 782), nolabait zalantzan jartzen du. Irakur ditzagun bertako Jeanen batzuk:

647 ***Niq aldiz erraiten dit***
pariseco bourjoues baten Semia niçala
eta Charmagarria declaratcen deiçut orai
gin niçala Çure amorouskeriala

paseya

648 ***Nouzpait içan Çuçun houna***
ene aita Cena guerlala
hitçartu Cicien ordian
Çu eta ni ezcont eracitera

paseya

649 ***Linfanta princessa***
ala Çu Charmagarri
Çoure Modestiaq eztiçu
Mundian bere pareriq

paseya

650 ***Çure elokentcia duçu***
ecinago noblia
eta Cihaur aldiz
Mundian pare gabia

paseya

651 ***Çoure edertarçuna duçu***
ekhiaren pare

Çure famaq eztiçu

bere pareriq batere

paseya

652 *Bena eniaukeçu orai*

ez mementiq haboro

Çuri declaratu gabe

ene deseigna oro

paseya

653 *Çoure gracia ederra*

ene bihotcian Sarthu duçu

Çu esposatcen ezpaçutut

arraphausiq eztikeçut

Infantaren erantzuna hiru bertsotakoa besterik ez da, tartean, Anglaterre arbuiatzeko arrazoi eta guzti:

659 *Eztiçu aperentciariq jauna*

anglaterraco erregue ene Senhar den

Ceren eta amignibat

hassi beita Çahartcen

Bestalde, 675. bertsoan osagarri ematen dugun B izkribuko Infantaren saioa, neurri batean noski, eszena joku horren hasiera bateko sorrera litzateke, publikoari mintzo zaiolarik:

B282 *gente hounaq Berhala*

oray cien discoubricera

eraiten dericiet handidela

amourousqueriaren uxutarcuna

B283 ***oray ny niz phenatan***

Eta eztaquit cer Eguinendudan

alhargun bateguy Ezcontu behar dut

nahiagoriq Bestebatequilan

Bertso erakutsi honetan ondokoa ikusten da: alde batetik, saio gehigarri eta libertigarriak sartzean ematen den eboluzioa, eta bestetik, andrearen presentzia urria (Izkutuko saioaren hogeita hemeretzi bertsoetatik sei besterik ez du errezitatzen). Hori amodioaren inguruko aldeetan ez ezik, bestetan ere gertatzen da: agur despedidazko eta harrerazkoetan, heriotzetan eta beti ere, sujetaren edo beste erregeren egintzak laudatzekoetan. Andreen interbentzioak horrela, errepikakor eta berdintsu gertatzen dira batzuetan, desfilean Infantaren harridurazkoak esate baterako. Azken batean, testuen arabera andrea Antzinako Erregimenean egoki zitzaizkion alaba, emazte eta ama roletan agertuko da.

Parte honen bukaeran (676-754 bb.) iturriaren 43-47 kapituluak zehaztasun handiz antzerkiratzen dira. Interesgarria da hori, zeren alde hau, XVIII. mendeko edizio gehienetan agertzen den laugarren laburpenari baitagokio.

Testua taularatzeko moldapena orain arte bezalakoa da honetan, eta ekintza narratiboaren elementu funtsezkoenak mantentzen dira. Pastoralen antzezmoduari ongi egokitzen zaion honen guztiaren muturreko adibidea, 47. kapitulua (*"Comment Jean de Paris fit apporter espices et confitures de toutes sortes, et vins de plusieurs façons et couleurs"*), A izkribuan azaltzen den modua izan liteke. Bertan, lau bertsotan (750-754), iturriaren kapitulu baten herena moldatzen edo konposatzen da, hamahiru lerrotako testutxoa alegia. Antzezoharrak, bestalde, teatroratze lanaren xinplea erakusten du: *orai eguiten die colacione/eta edan ardou collore orotaric* (A633-D750).

V. *Jeanen adierazpenak eta koroazioa, ezkontza eta heriotza* (756-945 bb.).

Alde honetan A izango da berriz ere iturriarekin antz handiena duen izkribua. Gertaeren ordena han bezala ematen du: Espainiako gortera ailegatu erregeak eta frantsesak (48. kap.), kolazionea egin (49. kap.), Jeanek bidaiaren gorabeherak esplikatu (50 kap.), eta koroatzea antzezten den arte.

Anglaterreko errege eszena gainean egongo zen dena entzuten, eta hemen mozten da izkribua. Hala ere, suposa dezakegu, iturrian bezala, Anglaterrek haserre alde egingo zuela, Infantak gurasoek behiala egindako agindua betetzea nahiago zukeela esan ondoren, hau da, C eta Dn baino bertso batzuk beranduago. Gero, izkribuaren zati urratuetan irakurtzen den testu apurrez, esan dezakegu berriz bueltatuko zela batailatzera. Zati horiek Cko beste bertso batzuekin batera ematen ditugu osagarri bezala (820 b.).

Ck eta Dk ordea, desberdin ematen dute eszena joku hori. Jeanek, gortera ailegatuta, esaten dio Infantari bere armada *ofritcen* diola, biharamonean izango duen batailarako, gorago esan dugun bezala (2.1. atalean). Honela, Anglaterreri gurasoek agindutako ezkontzari erreferentzia ironikoa eginez, bi izkribuotan Infantak, ez iturrian, ez An, agertzen ez diren bi bertso hauek errezitatzen ditu:

763 ***ôi Charmagarria Cira***
eta manera propia
oroz Complitia eta
Nounda Çoure paria

764 ***Çuq erran discousaq***
eztit hambat Comprenitcen
Bena juan gabe arren
deiztaçu Compreni eraciren

Noski, Cn eta Dn Izkutuko Saioan elkar hartu dute bi gazteek, eta Anglaterrek ezin du eraman ustezko andregaiaren eta Jeanen afrontua; beraz, bazkari edo kolazionea errefusatu eta alde egingo du.

Tamalgarria da B izkribuaren alde hau galdu izana; zeren, ikusi dugun bezala, bakarkako saioa egiten baitu Infantak lehenago, eta honek agian izkribu berrienek erakusten duten aldaketa horretarako joera erakutsiko baitzuen.

Pastoralaren zati hau bestalde, gorago zehaztutako iturriaren hainbat ediziotan ageri den boskarren laburpen edo testu mozketari

dagokio. Antzeztutako koroatze zeremonia eta Anglaterrek haserre alde egitea, Berriaseko (50 eta 52 kap.) eta Wickersheimer-en (51-53 kap.) edizioekin bat datoz; beti ere kontuan hartuta, iturriaren edizio horietan Jeanek, koroa jarri baino, jantzi arruntak biltzen dituela, azpian zeramatzan erregerenak erakustearren.

Koroatzeak zekarren eszena jokua gero eta guztatzenago zaie errejentei, Dkoa osoena baita, ezkontza eta heriotzetan bezala. Koroa bidezko eszena jokua gainera, iturriari jarraitzeak eskatzen zuen jantzi ikusgarririk gabe, errazago gertatzen zen. Dotoreagoa zen hori, jantzi biltzea baino.

Kontua da, iturriaren bi edizio horiek kenduta, aztertu ditugun beste guztiek ez dituztela ematen bi pasarte horiek; alegia, Jeanek kanaren ateraldia esplikatu eta gero, kapitulua edo parrafoa ixten dute, eta, adierazpenik gabeko salto batez, ezkontza gertatzen da.

Anglaterre ere, inolako esplikaziorik gabe desagertzen da testutik edizio horietan. Egiten zaion azken aipamena, Jean eta Espainiako erregerekin batera Burgoseko gortera iristen denekoa da, Nodier-en (146 or.) eta Gayangos-en (47 or.) edizioetan, etsenplu baterako, ikus daitekeen bezala.

Pastoralean aurrera eginez, C eta D izkribuetako hirugarren bataila dugu, 821-843 bertsoetan. Aren azken aldeko folio urratuetan ere, Anglaterreren haserrea eta batailaren inguruko erronka itxurako batzuk irakur daitezke. B izkribuan ordea, ez da batailarik agertzen, hasierako folio soltearen bertsoek lehena emango zela egiaztatzen digute hala ere. Seguruenik oraingo bataila hau ere errepresentatuko zuen Arhexek, eta An bezala, bi izango ziren obrak ematen zituenak.

Hirugarren bataila horren ondoren ezkontzaren antzezpena dator. Hau C eta D izkribuetan besterik ez da azaltzen, baina beste bietan ere, falta dituzten folioetan emango zela uste dugu, ezkonberrien Pariserako bidaia eta Jeanen heriotzaren antzera, ezinbesteko gertaerak izango baitziren errepresentazioa behar bezala biribiltzeko. Iturriaren 54, 58 eta 59 kapituluei dagozkie.

Ezkontzaren zeremonia (855-866 bb.), koroatzeari buruz esan dugun legez, izkribu guztietan antzeztuko zen, baina Ainciondoren D da gehien zehaztu eta hornitzen duena, apaiz eta guzti. Crekin erakusten duen

aldeari erreparatzen badiogu, hala dela ikusiko dugu 852 bertso oharrean. Horren ondoren, Parisera abiatuko dira ezkonberriak, Espainiako gurasoak agurtutakoan. Alde honetan mozten da C izkribua, Dn azken bataila (bahiketa eta guzti) hasten den 879 bertsoan alegia, gerora agertuko bada ere (911 b.).

Ainciondoren izkribua dugu pastoraletako eszena joku kodetuetan aberatsena inongo duda bat ere gabe. Lau bataila, bi heriotza, ezkontza, koroatzea eta bahiketa ematen ditu. Besteek baino gehiago eta, gainera, jantzi eta esplizitatuago. Izkribu honetako emanaldia litzateke zentzu honetan, Hérellek (1923) bere garaian deskribatu eta Garamendik (1991) aztertutako pastoralen errepresentazio eredu kodetuarekin bat letorkeena.

902. bertsoan Pariseko gortean agertzen dira gure ezkonberriak. Errepresentazioa bukatzear dago, eta sujetaren heriotza da jarraian emango dena. Alde hau iturriko lehen eta geroko edizioetan, laburtuago bada ere, agertzen da; baina azpimarratzekoa da bertan nabarmentzen den amaiera zoriontsua. Horrela, azken kapitulu laburrean idazleak ez dio garrantzi apartekorik ematen heriotzari, azken lerroetako gloria eternalaren aipamena ez bada (2.2.1.V. atala).

Nobelaren beste edizioek, Berriasekoa kenduta, noski, ez dute aipamen hori ematen. Jeanen heriotza, menpeko esaldi batez iragartzen da bertan, Espainiara bueltatuta izan zuten semeaz ari direla: *"Et au bout de neuf mois, la reine eut un beau fils lequel fut roi de France après le décès de son père"* (Gayangos, 53 or.). Gainera, ez da azaltzen, aitaren kasuan egin zen bezala, pastoral izkribuetan agian arrastorik lagako zuen inolako hilondoko dolurik.

Pastoralean ordea, zeharo bestela gertatzen da. Hil aurreko otoitzak eta geroko dolua luzeak dira (906-944 bb.); D izkribuan, B eta Cn baino luzeago eta jantziago beti ere, obra osoan ikusi den bezala. Itxura guztien arabera, liturgiaren eraginak sorturiko jokaera da hori; eta ez litzateke arraroa izango, garaiko katexima herritarrekin antzik izatea.

Nabarmentzekoa da bestalde, pastoralgileek zeremonia hau bitan ematea. Ez, hala ere, jokaera desohizkoa izango zelako, alderantziz gertatzen baitzen; baizik eta halako ikusgarritasuna bilatu nahi izango zutelako, liturgia itxurako eszena jokuek eskainiko zuten solemnitate bereziaz batetik, eta erlijio dogmaren behin eta berriro azaltzeak izango zuen helburu didaktikoaz bestetik.

E IZKRIBUKO EKINTZAREN TAULARATZEA:

Hasteko, gogoratu beharra dago ez dakigula izkribu honi zegokion emanaldirik egon ote zen. Baina erakusten duen moldaerak, aurrekoetan eta batez ere Dn azaltzen zen errepresentazio ereduaren aldean, eguneratze moduko bat dakarkigu.

Hegiaphalek emanaldia bere erdira edo mugatzen du. Pheredikietan ez bezala, elkarrizketetako bertsoak zenbakitu zituen. Horrek ematen digu bertso kopuruaren diferentzia: 410, besteetako 1000 ingurukoen aldean.

Begira dezagun zer parte murrizten duen.

Orokorrean esan liteke obraren garapenean errepikatzen diren zatiak direla kendutakoak: bidaiako gertaerak (euria, uhaitza), Burgosera sartzeko desfilea, konte espainolek Jeani alperrik egindako bisita, izkutuko saioa.

Hor ikusi dugu, laburtze horiek eszena mugimendu desberdintsuak ekarri dituztela eta, Ctik moldatzean, emanaldi arinagoa eskaintzen zaigula. Hala ere, badaude moldatze horretan desegokitasunak (E139: antzezoharrik ez Anglaterrako errege eszenaratzen dela esateko, eta E335: antzeztu ez den euriaren pasadizoaren aipatzea). Nolabaiteko ardura gabezia ikusten da hor, pastoralgileari dagokiola. Baina ikuskizunari, ikusgarriari ematen zion garrantzi gehiago, istorioaren kontaerari baino.

Laburtzearen eragina, bestalde, antzezoharretako berrikuntzetan ere ikus daiteke. Antzezoharrek, Dkoen garapen mailarik edo Cko nahasterik gabe, desohizko zehaztasuna agertzen dute. Bertsoen eskubitara jartzen ditu batzuk, ekintzaren momentua aktorea esaten ari denarekin nolabait lotzeko edo. Oso laburrak dira horiek: *bessarca, oray jar*. Besteetan, ohiko modura emanik badaude ere, zehaztasun maila handiagoa ikusten da Cn baino. Hobeto adierazten ditu Hegiaphalek aktoreen sartze-ateratzeak eta haien lokalizazioa eszenan.

Esate baterako, *jar eta minsa, minsa jariric* modukoek, eserita mintzo ziratekeela pentsarazten digute; Bko izkributik urrun alegia. Mintzaoharretan ere, besteetan agertzen ez direnak: *minsa behera so, minsa lureti*. Bestalde, aipagarriak: E279: *jar mahagnin oro ichil ichila*

***sé eran nahi sen othe*, E345: *senhar emastiac jar usatu besala;* eta aktoreen mugimendu eta antzezguneen zehaztapena: *escugn, isquer, guibelin egon, triate hegian; esqueleen* erabilpena eszena baten antzezleku moduan, etab.**

Modu berean nabarmengarri, hilen garraioan agertzen den berrikuntza apala da. Tatxatu bati esker badakigu hildako gaiztoak triatetik urthuki egiten zirela. Bestalde, heriotze eta beste zirimonietan, aurrekoak baino apalago geratzen zaigu hau beste izkribuen aldean (Dtik oso urrun). Kantuen aipamen bakarra: *oro eretia hila eraman barneat eta serbait/khanta* (E101). Hiltzekotan daudenen errezuak eta, nabarmenki laburtuta daude.

Batailei buruz, batetik bertako antzezohar besteetan ez bezalakoa: *batailla pharti erdian eta gero batalla pharti* (E366bis eta 367 antz.). Bertako erronka testuetan zenbait berrikuntza ere badago, hiperbole eta abarretan: (E49-50) *Lephoti tincatsez behar saic/mihia ehun metra lusatu* eta *Estusie ez borogaturen/daigun udaco ekhia.*

Bestalde, elkarrizketetan agertutako berrikuntza eta bertso osagarriak genituzke. Horiek ere laburpenaren baldintzak eragindakoak, baina, beste izkribuekin konparatuta, kuriosoak. Tartean hitz berriak besta, arasa (jatorria esateko, E217) countre bandan (E182), A.Ph.aren amaierako bertsoak, izkutuko saioaren laburpena direnak, etab.

Pertsonaiak Cn azaldutako bereberak dira, morouac eta Lucifer mithila izan ezik. Noski, bertso kopuruak desberdinak dira: gehien dituen Jeanek 83 (Cn 149), eta gutxien dituzten artxelek bana (Cn Ripusek 3). Batailletan emandako mozketen exenplu, Thaku eta Netenak dira: 30 Cn eta 10 En.

Azkenik, aipagarria gertatzen da izkribuaren eszena planteamenduan, sonu oharrik ez agertzea. Kontuan hartu behar, horren karietara, beste eskuzkribuetan badirudiela sonu marka aparte bezala idatzia dela. Alegia, errepetizione edo entsaioetan. Izkribu honetan, ordea, bi aipamen egiten zaizkio musikari, baina horiek tatxatuak dira: *Herota sar triatian sonu gabe* (E287 antz.), eta (E314) *anglesac eretia sonia hasi denin*. Beraz, arrazoi gehiago genuke, agian, izkribu hau emanaldi jakinen batean eman ote zen zalantza izateko.

3.2. Pertsonaien deskripzio eta bilakaera.

Jean de Parisen trageriaren izkribuetako bik ematen dute errejentek libretoetan idatzi ohi zuten rol zerrenda. D eta B dira. Normalean, pertsonai izenari errezitatu beharreko bertsoen kopurua erasten zioten. Ikusiko dugunez, batzuetan ez zebiltzan oso ondo bertso kontaketan, D izkribuko rol zerrendan bezala.

Bertso kopuru gutxi gorabeherakoa edo aktoreen parte hartze maila, idazten hasi baino lehen erabakitzen zen nobela edo istorioa teatroratzeko. Hérellek galdetu eta gero, Aguer errejentak esandakoak lirateke prozeduraren eredua:

> **"Quand je veux composer une pièce, je cherche d'abord un nombre d'acteurs (Hérellek: ce mot est pris ici dans le sens de "rôles" de "dramatis personae") convenable pour que la pièce soit jolie: 18 au minimum, et jusqu'à 25, s'il y en a.**
>
> **"Puis je compose à peu près 1000 versets, comme nous les appelons, ou, pour mieux dire, 2000 vers. C'est à peu près le nombre des vers qui peuvent être récités par les acteurs, de dix heures du matin à cinq heures de l'après-midi.**
>
> **"Je lis le livre; puis, quand je vois quelque chose de joli pour la pièce, je le compose.**
>
> **"Je m'arrange autant que possible pour que celui qui aura le plus long rôle n'ait pas plus de 120 versets à dire, et le plus petit, 20 ou 25.**
>
> **"Au premier sermon, je raconte en résumé ce qui va être représenté. Au dernier, je supplie le public de ne pas critiquer les mauvaises allures des acteurs". (1922: 700-701).**

Bi mendeon arteko errejent honen deskripzio laburrean, batetik zera dugu, pheredikiak emanaldiaren testua erredaktatu eta gero idazten zirela. Bestetik, errepresentazioaren iraupena eta bertso kopurua, gure D izkribuari aplika lekizkioke gehien batean, Jean de Parisen pertsonaiak 32, eta bertso kopuruen diferentzien tartea 4etik 158rainokoa gertatzen den arren.

Errejenta beraz, ez zen autore. Tradizio kolektibo baten subjektu agentea baizik. Alegia, oinordekotzan jasotako tradizio bati jarraiki, antzerkiratze eredu zahar bati moldatzen zaio. Horrela, izkribuen arteko letra eta garai diferentziak kenduta, profano batek autore bakar baten produkziotzat interpreta litzake.

Errejentak bere buruari "facteur, souffleur" esaten zion, bere lanari "traduit, fait, composé", baina, baita eta batez ere, "copié". Gure izkribuen garaiari dagokiola kopiatzaile ditugu, Arhexek eta Lahorek hitzez hitz egiaztatzen diguten bezala. Jean de Parisen izkribuen arteko antza ukaezina da. Pertsonaiei dagokienez, behinik behin, hala dirudi; izan ere, kume berrienak (D) jaso eta hobetu dituela ematen baitu arbasoen (A-B-C) errepresentazioak.

Azter ditzagun orain pertsonaien rol banaketa eta bertso kopuruak. Hala eta guztiz ere, zutabe bidez laukituta aurkezten dugun zerrendari ekin baino lehen, berorri buruzko ohar batzuk ematea komeni da:

*** B eta D izkribuetan rol zerrenda azaltzen da -Dn frantsesez-, bakoitzari dagokion bertso kopuruaz. Dena den, geuk zenbatuak jarri ditugu, aldatzaileek hainbat huts ageri baitituzte.**

*** Artxel bakarra azaltzen zaigu An. Bn, ordea, *4 archel* idatzirik azaltzen da zerrendan, batera hartuta alegia, nahiz izkribuan laurak dagoeneko banatuta agertu. Bestalde, *Allicor moroua* An azaltzen da, Bn ez, eta Cn eta Dn bere lagunarekin, baina Aintziondok izenak apur bat aldatu zituen: *Alikou le noir* eta *Larkada le noir*. Satanak Dn besterik ez dira azaltzen, Satan eta bere mithil Jupiter eta Bulgifer. Cn *Lucifer mithila* aipatzen da antzezohar batean: garai horretan, beraz, hasiko ziren sartzen. Apaiza (*Le Pretre*) Dn besterik ez da azaltzen. Ek ez ditu horiek ematen, Hegiaphalen joera laburzalea dela eta.**

*** Cn Thaku eta Net erregek batera ematen dituzte lau bertso; Breton eta Sanpeur artxelek, bi. En ere, Thaku eta Netek hiru bertso batera.**

- **Pertsonai kopuru desberdintsuak dituzte izkribuok, generoaren eboluzioaren ezaugarri gertatzen direnak: Ak 21, Bk 23, Ck 29, Dk 32 eta Ek 26.**

- **Azkenik, B izkribua osorik bagenu bezala hartuta, rol zerrendako datuen arabera; eta A eta C mutilatuta daudela ahaztu gabe, hauek lirateke izkribuetako bertsoak guztira:**

	Testua:	Pheredikiak:	Guztira:
A:	683 b.	53 b.	736 b.
B:	765 b.	76 b.	841 b.
C:	903 b.	93 b.	996 b.
D:	945 b.	98 b.	1043 b.
E:	413 b.	44 b.	447 b.

Guztirako kopuruak, izkribuetako bertsoen zenbakitzearekin ez datoz zeharo bat ondoko kasuotan:

An zenbaki batenpeko bi bertso dago: A512 b.

Bn gehiago dira horrelakoak: B23, 139, 140, 143, 151, 152 eta 167.

Cn ere bai: C59, 79, 84, 198, 235 eta 369.

Eta, azkenik, En: E364, 365, 366 eta 374.

Zenbakitze huts horiek kontuan hartu beharko dira, izkribuetako orijinalez parekatu nahi izanez gero (6.3. atala).

IZKRIBUETAKO PERTSONAIEN ZERRENDA ETA BANAKAKO BERTSO KOPURUAK

Izkribuak eta izenak	A (1783)	B (1760)	C (1777)	D (1827)	E (1894)
Breton artxela			7	7	1
Senpur artxela			9	8	1
Ripus artxela			3	4	1
Victoire artxela	24 (*batek*)	20 (*orok*)	5	6	3
Herota	34	31	33	33	14
Chancelierra	23	36	28	31	4
Duc de Borbon	31	32	30	28	12
Duc d'Orleans	18	18	15	7	7
Jean de Paris	77	107	149	151	85
Frantziako erregina	29	37	34	38	24
Frantziako errege	61	68	61	72	35
Anklastreko kontea	24	27	28	29	21
Normandiako kontea	12	12	15	15	10
Ingalaterrako errege	83	85	94	97	39
Espainiako barua	15	13	14	14	10

Carioko kontea	25	29	15	24	10
Eskuako kontea	14	15	15	18	7
Grekobiako gobernadorea	14	14	8	6	4
Infanta	15	50	60	65	28
Espainiako erregina	24	28	25	27	13
Espainiako errege	87	101	105	101	49
Aragoako errege	18	18	24	18	5
Portugaleko errege	21	22	33	32	7
Grenada errege			31	21	13
Thaku errege			16	20	6
Net errege			14	16	7
Alikor mairua	11		9	7	
Larkada mairua			5	6	
Apaiza				15	
Satan				19	
Haren mithilak			0	0	

Koadro horri egindako lehen begiratuan, izkribuen arteko pertsonaien ezarpen progresiboa argi dago. Ikus dezagun pertsonaiok iturrian agertzen direnekin konparatuta, edo pastoralgileek narrazioan eginiko aukerak. D izkribuan azaltzen den arribantxa ordenaren arabera aztertuko ditugu. Kontuan har dezagun, hala ere, iturritik diferentzia gehien azaltzen dutenak nabarmentzen ditugula.

FRANTSESAK

Artxelak: laurak Bk, Ck eta Dk ematen dituzte. Bk batera hartzen ditu rol zerrendan; baina, oso urratuta dagoenez, bertso bat besterik ez zaie gelditzen bere saio propioaz aparte. Beraz, esan liteke oraindik ez zeudela emanaldiaren harian zeharo txertatuta. Izenak, soldadu ofizioko jendeari legozkioke. Sanpeur (B izkribuan Sanpuyo), *colportage*-ko beste *best seller* batetik izan zitekeen hartua: "Richard sans peur" ezaguna, "Robert le diable"ren ondorengoa. Breton, orduko teatroan bereziki hedatua zegoen probintzietako jendeaz trufatzeko ohituratik agian. Gogora ditzagun R. Poisson-en "L'Après souper des auberges", izugarri zabaldu zen "La ville de Paris en vers burlesques" bildumaren barruko antzerkitxoan agertzen diren pertsonaia probintzianoak, edo "Le Poète Basque" bera. Pastoralgileek saio aringarri popularrak eransteko pertsonai izenak, ohizko iturri ezagunetatik aukeratuko zituzten, teatroak itxura barregarri eta "gerrariaz" hornitzeko. Azken batean, diru trukean gerran dihardutenak baitira, B izkribuko artxelen saioan (675 b.) Bretonek dioen bezala, bost lerrotako bertso bakan honetan:

B294 ***Ecy aldis niq Bestela eztut fortunaric***
ezpadut ukheiten halaquo Conbait ...
eztut niq asquy ukhenen ereguerenetaric
Ecy niq Behar nuque ounxala
astian Beroguey eta hamar libera

Artxelak aukeratzea, iturrian agertzen diren beste armagizonen artean (pertsonaien karguez gain, testuan *chebalier, cavalier, chambelanta,* etab. ditugu), ez da, itxura guztien arabera, kasualitatez gertatu. Romana egin zen garaitik aurrera, artxelek entrada eta desfile ikusgarri eta sonatuetan lortu omen zuten fama litzateke aukeraren arrazoia.

Esate baterako, Wickersheimer andreak ondo esplikatua dago (1925: 42), romanak erakusten digun Jeanen gortesau jendea, Burgosera sartzea, etab. ez direla autoreak asmatuak: "cette mise en scène n'a pas été imaginée par l'auteur de *Jehan de Paris*, il suffit de mettre en regard le récit, rapporté par un contemporain, de l'ordre observé en l'assemblée des Estats Generaux de France à Tours, du Regne du Roy Louys XI, l'an 1467". Bertan datorren kargu jerarkikoen jartze moduak nobelan ageri den jendearena ematen du. Argi dago, nobela monarkia eta boterearen erakuste propagandistikoa dela. Pastorala

ere hortik dabil, baina artxelen aukeraketa ez da bereziki nabarmentzen iturriaren edizioetan zehar.

Wickersheimer-ek egindako ikerketa historikoan, nobelak bere sorrera garaiko gertakizun errealekin duen erlazioa frogatu du. Esaterako, Charles VIII.ak, nobelako Jean de Parisek irudikatuak, erresumako erregeorde jarri zuen Bourbon-eko dukeari hau esaten dio, karta bidez, Florentziara egingo duen entrada ikusgarriaz: "que long temps a telle entrée n'esté faicte" (1925: 53). Entradaren ondorengo testigantza idatziak aipatzen ditu gero Wickersheimer-ek: "Dans le récit de cette entrée que nous a laissé un témoin oculaire, Sanuto, nous relevons un trait qu'il est curieux de comparer à un passage de *Jehan de Paris*. La magnificence des archers francais émerveilla Sanuto. Ils étaient si richement armés qu'il les jugea être tous comtes ou seigneurs pour le moins" (1925: 54). Testigantza hori Venezian XIX mendean editaturiko liburu batetik hartzen du (La spedizioni di Carlo VIII en Italia, 1874: 135). Nobelarekiko kointzidentzia nabarmena da: "Ce sont là termes presque semblables à ceux dont se sert le roi d'Espagne à la vue des archers de Jean de Paris: *Comment (...) m'appelez vous cecy archiers qui tous semblent estre seigneurs?*" (ibid.).

Pastoralean ere antzera gertatzen da, emanaldiaren pertsonaia inportante gertatzen direlarik. Aukera horren arrazoiak beraz, aspalditik letozke.

Herota: mezulari rola duena, iturriaren antzera azaltzen da (nahiz eta bertan bi herot edo anglesen herota ere aipatu), eta eszena gainean atzera eta aurrera gehien mugitzen dena da.

Chancelierra: erregegaiaren ingurukoena nobelan eta orduko botere jerarkian. Pastoralean aukeratua Jeani *Vincenara* laguntzeko, eta Jeanen *asiejaren* arduradun.

Besteek ez dute iturrian ez bezalako funtzio nabarmenik: Frantziako errege-erreginak, Jean eta dukeak. Azken horietaz, ordea, zertxobait gehiago esango dugu:

Borbon: iturriko Gabriel pajearena ere egiten duena. Hor ematen zaion izen jakin horren zergatiaz pentsatuta, arrazoi sakonaz aukeratua da: Testamentu Berriko arkaingeru iragarlearena alegia,

Bordelen dagoen Etchebarneren St. Jean Baptiste izkribuan bezala. Agian pentsatu behar genuke, kultura oral kristau nagusi baten aurrean gaudela: Kontrarreformaren liturgi dogma, herri nekazari xehearen artean, bertako ohizko espresabide oralean, txertatua.

Orleans: desfilean entseinari eta *metre dotelaren plazan* ageri dena. Hau, Herota eta Borbonekin batera, Frantziako erregeren hasierako bidaian egon zen. Erreginaren kusia. Pastoralean xehetasun familiar hauek ez dira iturrian adina azaltzen.

ANGLESAK

Errege, Lancaster eta, iturriaren banaketaren kontrako bakana gertatzen den Normandiako dukeak osatutako taldea.

Normandiako kontea: frantsesa zena, pastoralgileek angles bihurtu dute. Zer dala eta pertsonai aldaketa hau? Izkribu guztietan azaltzen da, zaharrenetatik azkenera angles, gorri, gaiztoen lagun. Anglesen taldea osatzeko modu bat.

Pastoral honetan ematen diren batailei erreparatuta, espainolak hasieran gaizto dira, angelesak gero, eta C eta Dn Grenade, Thaku, Net eta Satan. Azken hauek progresiboki sartuak daude, D izkribuan bezalako eredu estereotipatua finkatu arte. Gero, ordea, Hegiaphalek satanak kenduko zituen.

Gaiztoak onen imitazio bidez atera omen ziren pastoraletan. Teatroari oreka moduko bat ematearren agertzen dira izkribuetan eta satanak dituzte lagun. Errepresentazioaren pertsonai talde gaizto edo turkua nola sortzen den Arene Garamendik esango digu (1990: 583), R. Hess-en ekarpenaz baliaturik (1976, El drama religioso románico como comedia religiosa y profana ss. XV y XVI. Madrid. Gredos. 160 or.):

> **Los guerreros "turcos" encarnan la soberbia, el primero de los pecados y origen de todos los demás, como se señala ya en el *Eclesiastés*, 4,14: "Quoniam initium omnis peccati est superbia". Hess anota que "este rasgo suele representarse en el drama religioso bajo la forma de una fanfarronería y de una ostentación altaneras. Estrechamente unidos a ellas van siempre**

el miedo y la cobardía. Los sujetos de esta cualidad son principalmente, en el teatro español, pastores y bobos; en el francés y en el italiano, soldados" (1976: 160).

Si los guerreros "cristianos" encarnan el arquetipo épico del *miles christianus*, los "turcos" son un trasunto del soldado fanfarrón de la comedia italiana, degradación paródica, a su vez, del *miles gloriosus* de la épica clásica. Sus cualidades sobresalientes son, precisamente, la altanería y la bravuconería, síntomas de la *hybris* espiritual que los lleva a enfrentarse a Dios y a convertirse en servidores del Maligno. Estas cualidades -o, habría que decir mejor, defectos- se expresan metonímicamente por el violento dinamismo de sus ademanes y por la agitación continua de sus movimientos y discursos. Tales rasgos aparecen enfatizados en el rey, que es también aquí un *primus inter pares*, aunque no un monarca benigno, sino un tirano despótico. En rigor, el "bando" turco es una imitación invertida y degradada del bando "cristiano".

ESPAINOLAK

Errege-erreginez eta Infantaz gain, Espainako Barou Noublia dugu, iturriko *"les barons d'Espagne"*, zenbaitetan agertzen direnetatik hartua, eta Carioko kontea, obraren traman sartuago aurrekoa baino.

<u>Infantaz</u> nabarmentzekoa zera da: D izkribuko rol zerrendan ematen zaion izena: *La fille du roi d'Espagne appellée infanta*. Wickersheimer-ek dioskunez, edizio popularretan agertzen den izena da, Caen-ekoan esaterako. Geuk ikusi ahal izan dugunez, XVIII. mendeko edizio batzuetan horrela azaltzen da, baina *appellée Anne*, Berrias-ekoa kenduta apelatibo gabe ematen baitu. Toulouse-koak izango dira *infanta* izena jartzen dutenak. Aipagarria da, bestalde, pastoralean iturrian baino paper luzetxoagoa izatea, Bko Infantaren eta C-Dko Izkutuko Saioaren bidez.

<u>Eskuako kontea</u>: normalean Carioko kontearen lagun edo iturrian bezala *compagnon*. Hala ere, presentzia murritzagoa du hark baino. Izenak gogoraraztен digun lehenengo gauza, Oudot-ek iturrian erantsitako Ecosse-ko erregea da. Alegia, printzipioz ez dirudi ezinezkoa eratorpen etimologikoa gertatu izana, *Scotiam* edo *Scott* zenak Eskua ematea, *Ecosse* frantsesaren txistukaria aurreratuz. Ez dugu ordea, horren testigantzarik aurkitu. Bigarren mailako

pertsonai izenak aukeratzean, pastoralgileek modu arbitrarioan jokatuko zuten. Bestasde, Helena Constantinoplakoan errege sarrazenoen artean agertzen da (Mandrou, 160; Léon, 191).

Grekobiako gobernadorea: hau, Infanta eta *les rois d'Ecosse et de Pologne* bezala, inprimatu herritar berrietan azaltzen da. Iturrian, hasieratik XVIII. menderainoko edizioetan aurkitzen dena ez da hori; baizik eta *le gouverneur d'Espaigne*, Frantziako erregeren suita neurtzera doana, geroago ihes egiteko (Wickersheimer, 1923: 4. kap.). Toulouse-ko edizioetan ematen diote izen berria: *Le gouverneur de Cracovie*.

Izen aldaketa txiki hauek, istorioa popularizatzean zabalkunde handiak eragindakoak izan litezke. Horretan faktore garrantzizko, irakurketa publiko-ozena eta teatroa bera gertatuko ziren. Oso zaila da ordea, inprimatzaileen aldatzeko joera hori zerk eta nola sortua ote den erakustea.

BESTE ERREGE KHIRISTIAK

Portugaleko errege: iturrian bezala ageri da, edo presentzia handiagoz beharbada.

Aragoako errege: iturrian oso parte hartze murritza dauka. Bertan *le roi de Navarre* da askoz garrantzitsuago; baina, badirudi edizio herrikoietan horren rola gero eta txikiagoa dela; esaterako, Gayangos-enean bost bider besterik ez da aipatzen. Pastoralean erabat kendu dute errejentek, eta Aragoari ematen diote hari zegokiona. Izkribuek, beraz, iturrian hasitako joera jarraitzen dute, pertsonaia horiek batzean.

ERREGE SALBAJEAK

Grenadeko errege: iturrian lehen kapituluan aipatu, eta edizio guztietan agertzen dena. Pastoralean ordea, A eta B izkribuetan ez da azaltzen, berrienetan baizik.

Thaku eta Net: izkribu berrienetan bakarrik hauek ere. Beren interbentzioak, bi izkribuak alderatuta, askoz findu edo zainduago daude Dn. Ez dira, noski, iturrian agertzen eta Garamendik

adierazitako ereduarekin zeharo bat datoz, Normandiako dukeaz aritzean esan dugun bezala.

JEAN DE PARISEN MAIRUAK

Allicor: A izkribuan lehenago eta, izena zertxobait aldatuaz, Cn eta Dn gero. Desfilearen segizioa arintzekoa.

Lankara: aurrekoaren berdin, baina Ck eta Dk erantsia. Aiziondok ematen die testu gehiena. Zalantzarik gabe, ikuslegoaren oso gustokoak izango ziren bion bertso barregarriak. Ez dira iturrian agertzen.

SATAN

Deabru nagusia da. Gaiztoen aldea bete eta obra politzeko pertsonaia (Hegiaphalen arabera, ikus Urkizu, 1984a: 9). Bere mithil edo morroiek lagunduta agertzen da Dn: Jupiter eta Bulgifer. C izkribuan satanik ez dago, baina errege infidelen jainko (C396 b.) edo mithil (C425) bezala, *Lucifer* aipatzen da.

Satanen zeregin handiena dantzatzea da. Obran zehar, D izkribuaren arabera, hogei dantza saio daude zenbakituta. Hauek eszena joku ugariagoak eragiten zizkieten beste pertsonaiei (jalkitze eta erretiratzeak gehienbat), eszena hutsik egiten baitzuten dantza.

Pertsonaia honen interbentzio mintzatuak batailetan daude gehien batean eta oso laburrak dira. Dena den, arribantxaren ondoren *Satanac infidelekin oro/Jin Çaldiz eta/Minça* antzezoharra dago. Bertan bertsorik agertzen ez den arren, mende honetako pastoraletan ikusi dugunez, obra hasi baino lehen satanek bertso batzuk esaten dituzte. Agian Dko emanaldian antzera gertatuko zen.

Bestalde, aipatzekoa da pastoral honetan Sataneriak bi izkribu berrienetan baino ez agertzea. Itxura guztien arabera, Oihartzabalek Charlemagne-ri buruzko lanean dioena egiaztatzen da; alegia, satanak XVIII. mende bukaeran (generoaren finkapena burutzen denean) eransten direla emanaldi gehienetan, pastoral hagiografikoetatik-edo hartuak. Gidor Bilbaok (1991) eginiko Edipa trageriaren azterketan

ere, satanen interbentzioak izkribu zaharrean itsatsitako paper zati berriagoetan daudelarik, gauza bera gertatzen da.

APAIZA

Elizako jendearen ordezkari bakarra. Azken izkribuan azaltzen da hau ere, Jeanen ezkontzan eta heriotzean. Zeremonia hauen teatralizazio sinpleari tankera liturgikoa ematen laguntzen dio. Tankera hori, noski, bada beste hiru izkribuetan, apaizaren presentzia arau zaintzailerik gabe izan arren.

D izkribuan bakarrik agertu izanak pentsaraziko liguke agian, elizako jendea behin tradizioa finkatuta sartzen dela errepresentazioan, pastoral hagiografikoetan izan ezik noski; baina hori segurtatzeko, XVIII. mendeko izkribu guztiak aztertu beharko lirateke.

Dena den, gure apaiz honi bete-betean dagokio Oihartzabalek pertsonaia hauei buruz esandakoa (koroatzearen zeremonian agertzen ez bazaigu ere): "leur apparition ne s'insère pas véritablement dans l'action: il s'agit de les faire participer à leur place à quelques grandes cérémonies: baptême, mariage, couronnement, etc. (...) ils sont des éléments nécessaires, non à l'histoire, mais à certains des tableaux que celle-ci permet de faire représenter" (1988: 784).

Pertsonaiei begiratuta beraz, esan daiteke antzezmoduaren bilakaera gertatzen dela lau izkribuetan zehar. Gainera, iturriaz aparteko pertsonaiak, bertan azaltzen den argumentu sinplearen osagarri, antzezbaldintzek eta herri ohiturak eskatuta erasten dira.

3.3. Pertsonaiak eszena gainean.

Pastoral izkribu hauetan somatzen den gauza nabarmena antzezoharren gehipena da, izkribu zaharrenetatik berrienetara.

C izkribuaren alde horretatiko urritasuna, izkribuaren beste kopiarik ez egitearren, antzezoharrak dauden moduan egotetik letorke; hau da, zuzenketa, gehitze, kentze eta tatxatu ugarirekin. Horrek esan nahi luke, beharbada, izkribu zaharra dela, hasiera bateko errepresentazio maila sinple-sinplearekin, eta gerora, hainbatetan erabilita eta kopia

beraz baliaturik, aurkezten duen itxura normala dela, atzera eta aurrera ibilitakoarena, antzezoharretan igartzen diren aldaketak direla medio.

Ak modu koherenteagoan ematen ditu antzezoharrak, eta Bk ere bai. Azken honen berezitasuna *bara* beti agertzea da, aktoreen interbentzio ororen amaieran. Izkribu hori ordea, Ak baino informazio pixkat gutxiago ematen digu, antzezohar edo akotazioetan. D da horietan ugari eta zehatzena, eta Ek, gerora, Ckoak laburtuko ditu, inoiz hitz bakar batez, bertso lerroetan bertan parentesi artean idatzita.

Antzezoharretan azalduko da, noski, pastorala osatzen duten eszena joku guztien bilduma. Hori dela eta, aztergai bezala papereratzen zaigun lehen elementua, bi aldeen, gorri eta urdinen, on eta gaiztoen arteko aurrez aurrekoa da.

Pastorala ardazten duen elementu funtsezkoagorik ez baitaiteke hori baino, ikus dezagun nola agertzen den gure izkribuetan.

Lekuzko aditzondoek egiten diote erreferentzia normalean: *ezker, eskuin, alde batialat eta bestialat, erditik, aitzina, hari buruz, trebes,* etab. Guzti horiek noski, antzoki edo taulatuari eta bere inguruari dagozkien terminoekin batera. Inguru espazial horretan mugituko dira pertsonaiak eta banaka, taldeka ("anglesak, frantsesak, espainolak, artxelak, konteak, *Les Rois et ces gens*...") edo pertsonai izen bat emanda eta haren ingurukoak aipatuz ("bere suitareki, laguneki, gardeki...") izendatzen dira.

Pertsonai talde hauek batailetako eszena jokuetan jartzen dira aurrez aurre. Une horretan erabiliko dituzte errejentek bi aldeon ohizko izenak: salbajeak, infidelak batetik; eta khiristiak bestetik. C izkribua da izen hauetan bitxiena; izan ere, bertan aurkitu dugu behin besterik agertzen ez den *turc* terminoa (ikus 442 bertsoaren antzezoharra), eta Ainciondok 409 bertsoan *khiristi* ohizkoaz aldatzen duen jarraiko arraro hau:

gu deitcen guira thakonet

Salvagin Ereguiac

***Badira Bay kiskimauac* (gainjarr.: *kisminouat*)**

***oro goure lotxa direnat* (gainjarr.: *Beitira*)**

Hala eta guztiz ere, gai honi buruz nabarmentzekoa, termino horiek A eta B izkribuan inondik ere ez agertzea da. Iturriari fidelkiago jarraitzen diotelarik, aurreko atalean genioen bezala, gorriak lehen espainolak eta gero anglesak izango dira horietan. Cn hasten da alde gaiztoa emendatzen Grenade, Thaku eta Netekin; eta Dn, satanak erantsita, alde gaiztoa betetzen da, tradizio finkatuak eskatutako oreka lortuz.

Aktoreen jokatzeko moduari buruzko oharrak ere azaltzen dira izkribuetan. Esan behar hala ere, iturriarekiko menpekotasun erabatekoa somatzen dela hauetan. Oso gutxitan agertzen dira, eta beti ere, istoriaren intriga edo egituraren alde garrantzizkoetan. Horrela, nobelan pertsonaien egoera animikoan nolabaiteko aldaketa bat, eta zirrara edo ironia kutsuko ateraldiren bat ematen denean, pastoralgileek antzezohar labur hauetaz adierazten dituzte: "erretira nigarrez", "erri phuntzela", "pot eguin eztiki", etab.

Hortaz, iturri narratiboan ezinbesteko gertatzen diren ñabardura sikologiko horietaz kanpora, Hérellek deskribatu zuen antzezmodua aurkezten dute izkribuok. Alegia, zuberotarren posibilitate xumeez mundu ideal bat da irudikatu nahi dena eta, horretarako, eszena jokuen elementu naturalak aldatu edo deformatzen dituzte: pertsonaiak estereotipo hutsak dira; haien jarrera, zurruna gehienetan; mugimenduak automatikoak; keinuak oso gutxi, konbentzionalak eta beti berberak, begitarteak aldagaitzak, errezitatua betikoa, etab. (1924a).

Jokaera horren arrazoian ordea, ez dugu uste Hérelle zeharo zuzen zebilenik. Argi dago, pastoraletan aurkezten zaizkigun giza izaera ereduak, sinple eta inolako tolesdurarik gabeak direla; baina hori, errejent edo aktoreen ezintasunari baino, aspaldiko antzezmodu tradizional eta herritarrari legokioke gehien batean.

Iritzi horren indargarri, Garamendirendako pastoralen ezinbesteko osagai diren *colportage* liburuetako pertsonaien sinplizitatea bera genuke, pastoralaren guraso liratekeen teatro tradizio zaharragoetako hieratismo liturgi itxurakoa ez ezik. Oihartzabalen iritzia litzateke, gure ustez, alde honetan artezena:

> **"Il est clair en effet que dans l'évolution signalée de la pastorale souletine, la mise à l'écart des éléments psychologiques qui fourniront la matière essentielle du théâtre classique, était rendu nécessaire par l'option délibérée en faveur d'un spectacle visuel qui se**

nourrissait des possibilités offertes par la tradition des mystères de ce point de vue" (1988: 781).

Antzera gertatzen da eszenaratzen den dekoratu apurraz, iturrian deskribatutakoaren eredu sinple eta funtzionalena baita.

Dekoratu aipagarriena kadirak lirateke lehenik. Aktoreak esertzeko, eta baita etzateko ere erabiltzen ziren, Vincennes-eko basoan Jean lo egiten saiatzen denean bezala, edo pertsonaia onen heriotzetan. Eszena joku horietako antzezoharrak esplizitu samarrak dira, eta hildakoaren garraio zeremonia deskribatzen dute. Batailetan hildako errege salbajeei buruz ordea, ez dute ezer esaten. Pastoral berrietan ageri den trapa, edo hildako gaiztoak infernura botatzeko zuloa ez dute gure izkribuek aipatzen, ezta haien garraiatzea ere.

Bigarren, mahaia dugu, altzaria bera, izan ere noizbait erabiltzen baita hitz hori *triate*-ren sinonimo bezala. Oturuntza edo afari-bazkarien errepresentazioa ohizkoa da pastoral askotan. Hemen ere antzera gertatzen da; baina, gehien-gehienetan, iturrian esaten denari jarraiki, 769 eta 467 bertsoetako antzezoharretan bezala.

Eta, hirugarren, frantsesek bidaian eraman eta Burgoseko sarrerako segizioan erakutsiko dituzten jantzi eta aberastasunak gutxieneko sinpletasunera daude mugatuta. D izkribua izango da alde horretan gehien aipatzen dituena, noizbait ere iturriaren eredutik aldenduz, *montra* opari bezala erabiltzean esate baterako (157 eta 641 bb.).

Ez genuke atal hau bukatu nahi, Garamendik eskaini duen pastoralen ekintza dramatiko kodetuen eredua (A. Pasqualinogandik hartua) iruzkindu gabe (1991: 587-592). Egoki eta baliagarria dirudi orokorrean, bai tradizio finkatua erakusten duten XIX. mendeko izkribuetarako, bai mende honetako pastoral berri edo modernoetarako. Hala ere, argi dago, Zuberoako teatroan behintzat, generoaren finkapen gradual bati erantzungo liokeela. Ezin ederkiago ikusten da hori Jean de Parisen lau izkribuotan eta, gainera, eredu horretan agertzen ez diren zenbait eszena joku ematen dituzte: satanen dantza saioa D izkribuan (hogei aldiz ematen dute eta XIX mendeko izkribuetan ezinbesteko moduan azaltzen da) eta eztai zeremonia, izkribu horretan ere garatua.

4. Ondorioak.

Iturburuaren azterketan jakin ahal izan dugunez, Jean de Paris *Bibliothèque bleue*-aren ale garrantzitsua bihurtzen da, beste batzuekin batera, XVIII.aren lehen erdian, bai istorioaren zabalkundean, bai inprimatuen kopuruan. Esan genezake garai horretan jasaten dituela aldaketa nabarmenenak. Ez da, seguru asko, gertaera isolatutzat jo behar, besteak beste, "Robert le diable"ren kasuan antzera gertatzen baita: "il faut bien souligner que l'étape essentielle de toute l'évolution du roman se situe au XVIIIe siècle" (Andries, 1978: 64).

Pastoralgileek, bost izkribuetan ikusi dugunez, istorioa bere osoan hartu eta teatrora moldatzen dute. Orokorrean, Léon-ek Hélène-ren roman-a hasiera batean moldatuko zuen ustezko errejentaren jokamodu berbera aplika genezaieke Jean de Paris eman zutenei. Alegia "s´être donné comme tâche de suivre, sans omettre aucune articulation, le détail des événements racontés par le roman en prose, d'aussi près que le permettaient les conditions de la scène en général et de la scène basque en particulier" (1909: 335).

Hala eta guztiz, zehaztapen batzuk egin beharra dago.

Roman-aren edizio desberdinetan ageri diren bost laburpen edo mozketak izkribuei aplikatuta, hirugarrena eta bostgarrena dira bertan ematen diren bakarrak. Baliteke hirugarren horrek desfilea sinpletzea eragin izana, izkribuetan zehar hainbatetan ikusi dugunez (3.1. atala).

Baina bostgarren mozketa ez dute pastoralgileek osorik egiten; hau da, XVII. mende amaiera arteko edizioen 51, 52 eta 53 kapituluen edukia errejentek nola edo hala eszenaratzen dute. 55, 56 eta 57 kapituluak ordea, ez dira izkribuetan agertzen (2.5.2. atala). Léon-ek esandakoa, beraz, istorioaren azkeneko hiru kapitulu horiek gabeko edizioren bat errejentek erabilita beteko litzateke. Edizio hori XVII. mende bukaeratik XVIII.aren lehen erdira artekoa izango zen seguruenik. Edo, zehazkiago, XVIII.ean igartzen den laburtze prozesuaren hastapenetan agertutakoa. Toulouse-ko aleak haren ondorengo izango lirateke, eta Berrias-ekoa tartean koka liteke. Azken batean, *colportage*-aren zabaltze eta nekazaltze garaiak dira, non hiztun frantses gabeko lurraldeetan istorio horiek teatroratzen diren. Jean de Parisen kasuan flandrierara, euskarara eta, seguru aski geroxeago, bretoierara.

Izkribuen arteko erlazioa ere ezin izan dugu gehiegi zehaztu. Guztiarekin ere, iturburutik zuzenean moldatutako testu partean ikusten den antzak, aurreko bertsio galdu baten esistentzia egiazta liezaguke. Hori da, hain zuzen, A eta B izkribuen kasua: lehenengoan artxel bakarra eta Alicor mairua agertu arren, eta bigarrenean, lau artxel, mairurik ez eta artxelen eta infantaren saioak egon arren, narrazioaren mamiaren bertsozko moldapena pareko samar gertatzen da, 6.1. ataleko aldaeretan azaldu legez. C izkribuan bi horien edukiak biltzen dira. Bestalde, badirudi Ainciondok, D bertsioan, nahikoa zuzen jarraitzen diola Etchebarnerenari, eta oso posibletzat jo behar dugu bertatik aldatu izana, beti ere, pastorala hobetu eta finduz, noski. Azkenik, Hegiaphalen E bertsioa dugu, 1894koa, Ctik zuzenean aldatua. Beraz, gutxi gorabehera, berrehun urteko tarte batean jokatuko zen pastorala.

Jean de Paris iturri bakar eta zehaztun trageria da, beste batzuek (Charlemagnek, St. Jacquesek eta bestek, esaterako) aurkezten duten hari nagusiaz aparteko istorio nahasketarik gabea. Zuberoako herri tradizio dramatikoa nahikoa kodeturik zegoen garaian antzeztu zela dirudi. Izkribuek teatro ireki bat erakusten digute eta, bertan, musika saioak, zamari gaineko ibilaldiak, jokalarien sartu-irtenak, batailak, pertsonaia barregarrien interbentzioak, etab., finkatu samar daude. Elementuon finkapen hori badirudi izkributik izkribura, urratsez urrats edo mailaka bezala gertatzen dela, Ainciondoren azken emanaldi orekatuenera iritsi arte. Hegiaphalen geroko bertsio laburtuarekin aldaketa letorke, hala ere, funtzionalago eta modernoagoa ematen baitu.

Hasiera bateko errejentek iturriko istorioak erakutsitako ekintza narratiboa azpimarkatzen dute. Horrek istorioa sinpletzea dakar; baina, aldi berean, antzezmodu tradizionalaren kodera moldatzen dutelarik, elementu berriez progresiboki jantzi, hornitu edo osatu egiten dute. Uste dugu hau guztia argi samar geratu dela 3. eta 6. 2. ataletan. Dena den, nabarmendu beharra dago, ikerketa honen ondoriorik behinena bezala jo baitezakegu. Elementu osagarri nagusi horien zerrenda hau litzateke:

*** B izkribuko Infantaren saioa bakarkakoa da. Iturriko istorioaren klimaxa indartzeko aurreratze bat edo izango litzateke. An falta den azken zatian antzeko zerbait izango genuen agian. Cn eta, geroago, Dn Izkutuko Saio bezala izendatu dugun hori bihurtzen da, eta antzezpenean hobeto txertaturik agertzen zaigu.**

*** Artxelen arteko jardunak ere saio independiente eta aringarri baten itxura guztiak ditu Bn. Bai Ck, bai Dk, alde batera uzten dute. Badirudi antzezpenaren garapenean aparte samar gelditzen zela.**

*** Burgosera sartzeko segizioan Alicor mairua eszenaratzen da An. Bko pertsonai zerrendan ez da halakorik agertzen. Cn eta Dn ordea, Larkadak laguntzen dio eta bertso gehiagoz, gainera, izkribu berrienean.**

*** Osagarri "gerraria", badirudi antzezpenaren oinarrizko elementua dela. Alegia, iturriaren ustezko lehenengo moldatzaileak batailaren bat edo beste sartuko zituen seguru asko. Atik Dra batailak progresiboki gehitzen dira. Zenbat eta bataila gehiago, orduan eta ikusgarri aberatsagoa. Alde honetan ordea bi xehetasun aipagarri: Ako Grakobiaren espantu gerrazaleak (493 bertso-osagarriak) desagertzen dira besteetan; eta, desfilean, Orleansen eszenaratzea ezpata bilaizirik (629 bertso-osagarriak) ez da Dn jokatzen. Salbuespenak lirateke horiek guztiak, erronka saioen eta batailen ugaritze joera orokorraren barruan.**

*** Pertsonaia "gaiztoen" gehipen progresiboa, aurrekoarekin lotuta. Antzezpenaren oreka hobetzeari erantzuten diola ematen du. Cn Grenade, Thaku eta Net eransten dira eta Dn, horietaz gain, Satan, bertso apur batzuk deklamatuz, eta bere lagunak, izkribuan zenbakituriko dantza saioetan.**

*** Zeremonia itxurako eszena jokuak. Koroatze, ezkontza eta heriotzak dira. Izkributik izkribura gehitu eta biribilagotu egiten dira. Emanaldian nagusi den kutsu liturgikoak eragin handia du eszena joku hauetan. Esan liteke iturrian lerro batzuk besterik hartzen ez dituzten gertaera hauek nabarmenki garatzen dituztela pastoral errejentek. Eliz kutsua, bestalde, tradizio kodearen funtsezko elementua dela ematen du.**

Trageria honek hainbat urtetan zehar erakusten dituen garapen eta bilakaera (eta adierazpen hau A. Garamendiri -1990: 612-613- eskertu behar diogu) errejenten lanaren *tradizionalitateari* zor zaizkio. Izkribuetan, iturriko istorioa eredu dramatiko tradizional batean nola txertatzen den ikusten da. Jokamodu hau antzin-antzinako prozedura baten islada dela ematen du: Ertaroko kultura ezaugarritzen duen tradizionalitatea. Alegia, eskola zaharreko errejentak, orduko idazleen antzera, ez dira autore indibidual, kultur transmititzaile baizik. Herri nekazariaren espresabide dramatikoak dituen baldintzen arabera moldatzen dituzte hainbat iturritako istorioak, bertsio berriak behin eta berriro eginez. Jardun kolektibo baten garraiatzaile dira, garaian garaiko

aldaketa historiko eta soziologikoek eta komunitate nekazariak planteaturiko eskabideek baldintzatuta, moldatzen eta eraberritzen dituzte teatro emankizunak.

Bestalde, hain berandura arte gordetako prozedura horretan ederki antzeman daiteke herri literatur ekoizpenetan gertatzen den genero aldakuntza edo nahastea. Alde honetan, argitasun handiz esplikatu zituen J. A. Cid-ek *Peru Gurea* baladaren hedakuntza eta bilakaera, Ertaroko ipuin germaniar batetik, XVI-XVII mendeetako feria teatroan barrena pasata, erromantze, balada edo kantu itxura gerora hartzen duen arte, Euskal Herrian ez ezik, Espainian, Frantzian, eta abarretan. Pastoral zaharretan ere, 2.1. atalean ikusi bezala, jardupide nagusiak istorioen itzulpena eta teatrozko moldapena dira, ikuskizunak gozatuko dituen herri edo komunitatearen espresabidera ekarriak.

Moldatze lan horretan errejentek erabilitako tresnak ahozko literaturan ohizko gertatzen diren adierazpideak dira, izkribuetako hizkuntza aztertzean (1.5.1. atala) eta erantsitako pertsonaietan, zati komikoetan edo errefrau apurretan egiaztatzen den bezala. Beraz, halako neurri batean besterik ez izanagatik, genero nahasketa antzematen da teatro tragikoan.

Izan ere, ezaguna denez, herri literatur ekoizpenetan konstante bat bezala hartu beharra dago genero nahasketa hori. Adibide bat edo beste jarrita, hor dauzkagu bertsolaritza bera (Azurmendi, 1980) eta narratiba (Euskaltzaindiak 1992ko martxoan Donostian antolatutako Herri Literatura Jardunaldietan ere, ideia berbera azaldu zuten hainbat ikerlarik). Azken batean, "alegiak, kantuak, ipuinak, izkirimiriak, kontakizunak, artazuriketako ixtorioek hala nola errefrauek badute denek zerikustekorik mundu zabalago batekin, hots herri literaturarekin, edota Lekuonak, *Ahozko Literatura* deitu zuenarekin" (Urkizu, 1992: 84).

"Herri Teatroa ere ahaztu gabe", erantsiko genioke Lekuonak esandakoari. Izan ere, ohitura dramatiko tradizionalez moldatzen baitituzte errejentek frantsesezko istorioak. Liturgi usainez lurrindutako emanaldiak, agian Eliza Katolikoak XVII. mendetik aurrera garaturiko herri eskolatze politikak, ez berez sortuak, baina bai, zeharka bada ere, bultzatuak. Inguru horretan koka genitzake A. Belapeyre-ren kateximaz batera argitaraturiko dokumentuak, errejenten (kasu honetan, katekesi maisuen) beharraz eta ezarpenaz ari direla (Davant-en edizioko 40-51 orrialdeetan daude); pastoral izkribuen ugaltzea, XVIII. mende erditik aurrera, nekazarien edo "menditarren" alfabetatze edo kulturizatze garai batean ematen baita. Ikus gehiago

ikertu beharko litzatekeen gai honetaz: Zalbide, M. 1990: 218 eta jarr., eta bertan gaiaz eskaintzen duen bibliografia.

Hala ere, ahozko prozeduren garrantzia ez zen murriztuko, eta emanaldiak gertatzeko orduan, eszenaratze tradizionalaren kodea segitzen zuten errejenten argibideetan iraungo zuen, eskuzkribuetan oso neurri apalean agertzen badira ere. Horren erakusgarri, hona hemen, astolasterrez J. Casenave-k ohartarazitakoa: "Gure antzerkia lüzaz izan da egiazko ahozkoa. Ez dü beraz izkiribuetan herexarik ützi. Ene herritar Hardoi oihanzainak oihanean astolasterren bersetak asmatzen zütüan eta langileer erraiten zeien: bati: "hik berset hau emanen dük"; beste bati: "hik beste hau emanen dük". Hola antzerkia gogoz osotzen züen eta ikasten".

Bestalde, genero aldakuntzaren gaira itzuliz, ematen du tradizio prozedurak ez direla oso berriak. Jean de Parisen moldapena aztertuta ageri diren jardunbideek, Doutrepont-ek (1939) Ertaroko Gesta Kantuen prosifikazioan zehaztutakoekin dituzten kointzidentziek behintzat, hori pentsarazten digute. Zehazten dituen prozedura modifikatzaileetan (hirutan banatzen ditu: "additions, suppresions et modifications"), honako hauek izango lirateke, besteak beste, nabarmentzekoak:

*** Pertsonaia berriak asmatzea eta, beraz, izen nagusi desberdinak eranstea.**

*** Elkarrizketa eta "discours directs" direlakoak gehitzea. Hemen legoke, gure kasuan, prosatik teatrora aldatzeko pastoralgileen teknikaren funtsa, beti ere, iturritik zuzenean moldaturiko pasarteetan: antzerkiratzen dena, istorioaren hari nagusiaz gainera, nobelako estilo zuzenezko elkarrizketak eta zeharrestilozko esaldiak dira gehien batean. Deskripzioari edo besteri dagokiena, dialogora aldatzen zaila dena alegia, edo ez da agertzen, edo pertsonaiek berbalizatzen dute (batez ere, gertaera antzezgaitza eta istorioan ezinbestekoa bada).**

*** "Proverbes" eta irakasbideak sartzea; pastoraletan, ordea, behin edo beste baino ez dira agertzen.**

*** Elementu erlijiosoak erantsi, puztu eta garatu. Gure kasuan ikusi dugunez, gero eta gehiago izkributik izkribura.**

*** Xehetasun "inconvenantes et grivoises" sartzea. Hor dauzkagu pertsonaia komikoen ateraldiak.**

*** Deskripzio eta apaingarri poetikoak kentzea.**

*** Diskurtsuak eta analisi psikologikoak laburtu edo alde batera uztea.**

Nahiz eta jardunbide hauek normalak, ageri-agerikoak izan eta hemen azaltzea baten bati, agian, alperrikako irudi lekiokeen arren, komenigarri iritzi diogu aipatzeari; izan ere, pastoral izkribu gehienen edo, gutxienez, garrantzitsuenen edizio-azterketak oraindik amaitzeke baititugu. Doutrepont-erena bezalako lan batek, Zuberoako trageriei aplikatuta, generoaren azterketan aurkitzen dugun hainbat oztopo eta arazo konponduko liguke. Eta, Jean de Parisen trageriaren ikerketa honi dagokiola, lan horretan beste ale bat gehitzea, teatro zaharraren estudiorako nolabaiteko kontribuzio bat gehiago eskaintzea beste asmorik ez dugu izan.

Pastoral zaharren artean baditugu iturri ezezagun edo finkatu gabeko gutxi batzuk, iturri jakineko istorioak nahasian ematen dituzten beste batzuk, eta iturri bakar eta ezaguna duten gainontzekoak. Azken hauek lirateke eskola zaharreko errejenten jokabidea aztertu eta zehazteko tresna egokiena gure ustetan. Geure lanean zehar, azterketa horretan lagungarri litezkeen zenbait ekarpenen berri izan dugu: Hélène de Constantinple-rako, A. Chassaigne-Jabiol-en *"Évolution d'un roman médiéval à travers la littérature de colportage: La Belle Hélène de Constantinople, XVI-XIX ss."* (thèse d'École des chartes dactylographiée, 1974), antzinako kronikaren azterketan luze, eta pastoralaren iturri prosazkoarenean labur gertatzen den A. Léon-en lana osatuko lukeena; Robert le diable-rako, aipatutako Lise Andries-en artikulu trinkoa; eta, azkenik, Jean de Calais-erako, M.-L. Ténèze-ren *"Jean de Calais en France. Tradition écrite, imagerie"* (Humaniora, datarik gabe, 287-308).

Interesgarri litzateke horietan, istorioak teatroratzean pastoralgileek erabilitako prozedurak ikustea, eta emanaldi desberdinetan azalduko litzatekeen genero bilakaeraren urratsak argitzea, eskola zaharreko beste ale batzurekin parekatzeko ez ezik, horietatik eskola berrikoetara emandako pausoa zehazkiago ikertzeko. Esate baterako, eskola berriaren aintzindari izan zen Etxahun Irurikoak, *Ximena* pastorala egitean, Corneille-ren obratik moldatuz erakutsitako prozedurarekin konparatzeko.

Izan ere, pauso horren zertzelada eta ezaugarriak, gure ustetan behintzat, behar bezain argi adierazi dituzte hainbat eta hainbat ikerlarik. Besteak beste: Harrington de Alaizak (1978, eta *"The changing world of the basque pastorale"*, Reno, 1979), Haritschelharrek (1987), Oihartzabalek (1985) eta Peillenek (1992). Gehienez ere, horiek aipatuak sakondu beharko lirateke esandako azterkizunen bidez.

Hala ere, emaitza horiek eskuartean ditugula, esan daiteke, gure ustetan, eskola berriaren agerpena eta bere ondoko emanaldiak, generoak aspalditik erakusten dituen bilakaera urratsen artean kokatu behar direla. Urrats garrantzitsua izan da, Zuberoako gizarte nekazariak azken mende erdi honetan jasandako aldakuntzaren neurriaren araberakoa, baina genero tradizionalarekin erabateko haustura ekarri ez duena, besteak beste, pastoral honetako E izkribuak hala erakusten baitigu, neurri batean behintzat.

Hori guztia dela eta, ezin dugu ulertu gai honetan oso aditu diren zenbaitek pastoral berriei egindako deskalifikazioa (Garamendi, 1990: 614-615 eta 978-979; Juaristi, 1987: 30). Horretarako aipatzen dituzten arrazoietan nagusiena eduki edo istorioen aldatzea, euskalduntzea (eta abertzaletzea) litzateke gure ustetan. Kontuan hartu behar dugu, ordea, sujeten aldatzea urrutitik datorrela. Adibide bat emateko, *Guillaume II ou la campagne de France 1914-1918* pastorala bi aldiz eman zuten Barkoxen 1928an, egile eta errejent Pierre Apheceix zela. Eskola zaharreko pastoral horrekin "la tradition du XIXe siècle qui a inauguré l'entrée de l'histoire de France dans les thèmes de la pastorale (*Napoléon, François Ier, Louis XI et Henri IV*) est poursuivie" (Haritschelhar, 1987a: 44).

Agian, horiek guztiak "unibertsalitate sorburu" eta Europako "mundu literariorako zabaltze" izango ziren, eta Santxo Azkarra, Ibañeta, Santa Grazi eta abar, ez. Zalantza handiak ditugu, ez ote gabiltzan kontzeptuak murrizten eta ageriko errealitateak gutxiesten. Geure aldetik Haritschelharrekin bat gatoz: oraingo pastoralak "a su garder dans sa mise en scène l'essentiel de sa tradition tout en renouvelant les thèmes qu'elle a basquisés" (ibid. 53 or.).

199 *Sira hil bada franciaco erregue*
içanen da beste bat bethiere
harekilacoua ahatci bada ere
beste bat badukeçu bethiere

200 *Escola eçaçu alaba*
erakax onxa modestia
eci alaba ukhenen duçu
ouhourez guidatia

Escoua m.

201 *Sira othoizten Çutut arren*
has Citen bestetan informatcen
phartidu hounac Çoin diren
Goure infanta gaztiaren

202 *igor itçaçu letrac*
fitez bazter orotarat
edireiten ahal dugunez
izpiritu handitaco bat

Baron Es. m.

203 *Sira Çuc hitz hartu Çunian*
franciaco erregue heben içan Cenian
haren Semia eta Çure alaba
algarreki ezconturen Cirela

204 *Bena franciaco erregue hil den guero*
berriric eztugun aitcinago
orai libertatian Cira
partiduric hoberenaren hartceco

grocobia m.

205 *Sira goure infanta gaztia*
behar diçugu eçarri guidatia
nescatila duçu prudenta
ikhasiric onxa modestia

206 *Eger eta propi duçu phuntcela*
eta Charmagarri Creatura
Capable behar likeçu Senharra
onxa goberna deçan espagna

Erregue M.a

207 *anderia goure alaba heltu duçu* 17. or.
ezcont adiniala
Jkhasi diçu mintçatcen onxa
eta Sage duçu behar beçala

erreguigna mintça

208 *Sira deçagun eguin onxa*
eta erakhar houna alaba
eta proposa berhala
ezcont eraci behar dugula

209 *adiniala orai heltu duçu*
hamabost ourthe batiçu
ecinago modest duçu
eta gracioustarçun ederra diçu

Espagnaco erregue m.

210 *alon Carioko Comptia*
erakhar eçadac houna alaba
resolitu diat ezcont eracitera
ocasionia heltcen bada

Cario m.

211 *Sira banhiaçu berhala*
Jnfantaren Cherkha
promenatcen ahal Cira
horra gutuçu biac berhala

Sonu
Cario jouan Cherkha
Bestiac paseya Cario eta
infanta jalki Cario M.a

212 *Sira hau duçula Çure alaba*
nescatilla prudentciaz bethia
erakharri beiteitçut houna
esplica içoçu Çoure borondatia

L'infantac aita eta ama besarca
eta minça

213 *ôh ene aita maitia*
gincouac egun houn deiçula
eta Çuri ere ama maitia
Souhetatcen deitçut gaiça bera

orai herrocan jar eta paseya

214 *ôh beitut placer hartcen*
Cieki niçanian minçatcen
eci aspaldian banien
ikhousi nahia Cien

Erregue minça

215 *Behadi hounat ene alaba*
behar dun jakin eguia
ezcont eraci nahi aigula
heltcen denian parada

Erreguigna m.a

216 *Jauna othoi behar diçugu*
aphur bat retiratu
eta khamberan behar diçugu
goure alabareki mintçatu

Sonu
retira oro

Satanac jalki 5

Sonu
anglastra normandia
eta anglaterraco erregue
jalki eta m. paseatcez

217 *Jalki guira Campagnala*
aphur bat libertitcera
dembora eder hounekila
recreatione baten eguitera

218 *hasten niz orai minçatcen*
ene phenxamentien declaratcen
phartidu houn bat noun dukedan
ahal dudanez jakiten

219 *Jaunac Ciec emadacie*
abis houn bat baducie
phartidu houn bat nic
baduket uxuturic ere

normandia C.

220 *Sira behar duçu preparatu*
phartidu houn bat Cherkhatu
espagnaco erreguec alaba bat badiçu
houra Çoure propi lukeçu

221 *Jgor içoçu guiçon fier bat*
embassadore espagnalat
han baduçu nescatila bat
infanta deitcen den bat

D'anglastra M.a

222 *Sira propi duçu infanta*
Charmagarri presona
haren modestia ederra
eliteçu aski laida

ang. erregue M.a

223 *D'anglastraco Comptia* 18. or.
juan behar duc espagnala
hanco erregue eta erreguigna gana
aldiz hayer galtha enetaco alaba

Danglastra m.

224 *Sira ni juanen nuçu*
Nahi banaiçu Cosentitu
Nahi dut espagnaco erregue minçatu
eguiteco horrec eguin behar diçu

Erregue m.

225 *Berhala juan hadi arren*
Minçatcera erregue eta erreguignaren
Jkhoustera espagnaren
eta hanco infanta ederraren

226 *Ekhar ecadac berri hounic*
eya badenez ukheiteco bideric
hobe duc juanic madrilletic
han ere informaturic

Eman presentac bi montra eta

Colier bat eta m.

227 *Eman itcec present horiec*
eta eraman itçac ihaurec
erregue eta erreguignari
particulazki ene emazte gueyari

Sonu

D'anglastre paseya bestiac retira

Baron, Cario C., Escoua C., grocobia G.,

L'infanta erreguigna eta erregue jalki

eta anglastra m.a

228 *Sira jiten nuçu urrunic*
Çure gana embasada batekin
angleterra deitcen den kartier batetaric
hanko erreguec manaturic

229 *anglaterraco erreguia duçu*
ene manatçalia
Cien ororen presentciala jiteco
eman beitait odria

230 *arren orai esplicatcen dut*
Cier ene embassada
anglaterraco erreguec bere emazte
desiratcen du Cien alaba

presentac eman eta minça

231 *Jgorten deicie erregue hareq*
goraintci deiciela present hoyez
enthelega guitian hitz laburrez
orai Conseilla Citie fitez

Espagnaco erregue M.a

232 *Cer dioçu Çuc madama*
orai hau duçula phartidia
erran eçadaçu berhala
Cer den Coure Sendimentia

erreguigna m.a

233 *Jauna hori onxa duçu*
anglaterraco erregue puchant duçu
alientciaz Content nuçu ni
Çuc aceptatu nahi baduçu

Erregue m.

234 *Cer dion hic ene alaba*
erran eçan hire Sendimentia
phartidu hori nahi duna
içan dadin aceptatia

infanta m.a

235 *ôy ene aita maitia*
hori deya ene phartidia
Ciec eguin tratia
nic eztirot arrafusa

236 *Eztut nic aceptatcen*
ez eta ere arrafusatcen
Changriric eztut emanen
ene aita eta ama maitiaren

237 *Neure aita amekila*
nahi dut ukhen amoriva
Cien eskietara
uzten dut eguitecoua

Jnfanta retira bera
Erregue m.

238 *D'anglastra Comptia*
hau diagu arraphostia
eguinen diagu ezcontcia bena behar diagu
laur hilabetheren thermagnia

D'anglastre m.

239 *adio erregue eta erreguigna*
eta gagneratico Compagna
beste aldian jinen niz houna
anglaterraco erreguerekila

Sonu
Espagnolac retira
D'anglastra paseya
Jalki Normandia eta
roy d'anglaterre
anglastra Minça

240 *Sira içan nuçu espagnala* 19. or.
eta Madrilleco Ciotadiala
minçatu dit erregue jauna
erreguigna ere harekila

241 *Content dutuçu Çure alientcaz*
eta Çurekila juntatciaz
hitz hartu diçugu eguiaz
ezcontça horren eguitiaz

242 *eguin diçut nic eguin ahala*
eta jokhatu anitz Maneria
eta hartu thermaignia
Çoure placerra hala bada

243 *Laur hilabetheren buruco*
Ediren behar duçu espagnan
eta espousatu ordian
phuntcela eder batekilan

Erregue m.

244 *alo alo jaunac*
jakin eçadacie mementian
aski present ederric badudanez
edireiten ahal angleterran

245 *Diamant perleria*
eraman deçagun gourekila
edireiten ahal den ourheria
aberaxtarçunekila

246 *phuntcela harq eni deja*
Jrabaci deit bihotça
guitian arren fitez presta
Jouaiteco haren ikhoustera

Compte Normandia M.a

247 *Sira eztiçugu edireiten anglaterran*
Çure goustouco estofaric
behar diçugu phenxatu
Cerbait beste moyanic

Erregue m.

248 *Cer eguinen dugu othian*
jarten nuc orai penetan
behar diagu juan parisera
hanko d'orfevretala

249 *guitian juan frantciara*
pariseren ikhoustera
hanko marchanten inguratcera
eta guero estofa erostera

Sonu

anglesac paseya eta retira

Satanac jalki 6

Sonu

herot. Chanc. d'orl.

Borb. jean de p.s erreguigna

franciacoua jalki

jean de p.s m.

250 *Ene ama maitia*
Eman eçadaçu libertatia
Juan nadin paseyura
themporaren igaraitera

251 *Enuçu Segurki berant egonen*
ginen nuçu arraxa beno lehen
placer handibat deitaçu eguinen
libertatia badeitaçu emaiten

Erreguigna M.a

252 *Ene Seme maitia nic eztit*
Çuri deus refusatcecoric
retira Cite dembora hounian
hel eztakiçun Malheurric

Jean de paris

253 *Beha Cite ene Chancelierra*
guitian pharti arren berhala
Behar diçugu jalki Campagnala
Jhicin ikhastera

Chancelierra M.a

254 *Jauna bethiere ni Çurekila*
gal baneça ere bicia
ginen nuçu Campagnala
eta behar bada armadala

Sonu
Chanc. eta jean de p.s
retira bestiac paseya
anglastra normandia eta
anglaterraco erregue jalki
eta minça erregue

255 *Egun houn Souhetatcen deiçut Madama*
frantciaco erreguigna noblia
Çure ossagarrian ikhoustiaz
ala nic placer handia

256 *Ni anglaterraco erregue nuçu*
egun parisera jina nuçu
placer baduçu erradaçu
Çure Semia hoyetan Çoin duçu

Erreguigna M.a

257 *ôy Sira pharka içadaçu* 20 or.
Ene Semia doy doya juan duçu
ihicira juan beita
behar duçu arraphosatu

oray jar erreguigna eta
anglaterraco erregue
erreguigna minça

258 *Sira Çuc placer baduçu*
behar Çazkit esplicatu
angleterratic parisera jiteco
ocasionia Cer duçu

roy d'angl.rre parlé

259 *Madama jin nuçu*
ocasioniac hala emanic
ene erresouman ecin ukhen dit
aski aberaxtarçun ederric

260 *Ezcontça eguinic dit*
Espagnaco erregueren alabareki
eta hareki espousatcera behar dit
phartitu ahalic Sarrienetic

261 *Eta badakiçu behar dudala*
Jçan onxa ekipatia
Estofa finic behar dudala
Esposatceco harekila

262 *orai ni jin nuçu parisera*
Estofa erostera
ourhe eta perleria
eta Diamant hayekila

263 *Madama hori duçula*
ene ocasionia
Eta angletarretic houna ene
jiteco eguitekoua

Erreguigna m.a

264 *Sira horic onxa dutuçu*
Eguiten badutuçu
Bena ohouria eguin eçadaçu
Colpu bat edan eçadaçu

orai edatera eman erreguignac
eta minça erreguigna

265 *Sira behar duçu arraphosatu*
eci onxa akhituric ahal Cira Çu
Lô bat eguin behar duçu
houn handi eguinen deiçu

anglaterraco erregue m.a

266 *Behatcen nuçu Madama*
Çoure Conseillu houniala
banhouaçu rephosatcera
eta lo baten eguitera

Sonu
anglesac retira
Erreguigna mintca

267 *duc d'orleans eta borbon*
Entçun ducie Ciec eguiteco houra
anglaterraco erregue ezcontcen dela
Espagnaco infantarekila

268 *Eta Ciec etcinandiena içan espagnan*
Ene Senhar Cenarekilan
Etciradeya orhit othian
harc Cer tratu eguin Cian

269 *Engajatu Cien ordian Semia*
eta eguin Ezcontça
Espousaturen Ciradiala
Ciradianian adiniala

270 *Eta horietan orotan gagnen*
Nourq du Sofrituren
infantareki ezcontcia
anglaterraco erregueren

271 *Jaunac juan Citie berhala*
Ciec ene Semia gana
eta erran içocie istoria
heltu den beçala

D'orleans M.a

272 *Madama jouaiten gutuçu arren*
minçatcera Çure Seme jaunaren
Erraitera berri hounac
jakin ditçan Cer igaraiten den

273 *Erakharriren diçugu houna*
Cihauren presentciala
Çuc ere nahi baduçu guero
emanen doçu Coure Conseillia

Sonu
Retira oro escuin

Satanac jalki 7

Chancelierra eta jean de p.
jalki jean de p.s M.a
paseatcez biac
harma bederareki ihicin

274 *Behadi ene Chancelierra* 21. or.
Cer ouste duc phenxatu dudala
hiq Cherkhatu behar diala
biendaco phuntcela bedera

Ch.rra M.a

275 *Monseigneur nic Cherkhatcecoz*
bien phuntcela bedera
hobe diçugu itçuliric
pariseco hiriala

276 *Jhoun içatecoz*
Ene oustez han bada
Bestela jouanen nuçu
Bordeleco hirira

277 *Eta orano hobe diçugu*
heben berian haitaturic
plaça hountan ouste dit badela
gutaz Content denic

Sonu
paseya duc d'orl.s
eta duc de Borb.n
jalki Chancelierra m.

278 *Jaunac Cer da berria*
Cieq ekharten duciena
goure Cherkha jiten Cirie
ala paseyatcera

Jean de paris m.a

279 *Gente hounac nic ikhousten dut orai*
pariseco berri jakinen dudala
Jaunac erran eçadacie berhala
berri Estrangerric badeya

Borbon m.a

280 *Monseigneur erranen deiçut eguia*
Noula heltu den istoria
anglaterraco erregue jin duçu egun
pariseco hiriala

281 *heltu beçain Sarri parisera*
ediren diçu Çure ama
eta erran dioçu jin dela
Estofa erostera hara

282 *Eta Ezcontcia eguin diela*
Espagnaco infantarekila
hareki esposatcera
Jouan behar diela ahalic Sarriena

283 *Çure amari orhitu Cioçun berhala*
nouizpait Çure aita içan Cela Espagnala
hitcartu Ciela ordian
Çuc behar çuniela esposatu infantarekila

Jean de p.s estona eta M.a

284 *Jaunac othoi eguidacie placerra*
utci neçacie ló baten eguitera
bestela ene bihotça
ezdaite ez arraphosa Secula

orai jar Cadera batian eta ló
amignibat bestiac paseya Sonu
Jean de paris ere jaiki eta
herrocala eta minça paseatcez

285 *Jaunac ezta posible lotcia*
Changrinac hartu du ene bihotça
loxaz gal deçadan infanta
eta harq eguin deçadan erria

286 *amodivac hartu deit khorpitça*
eta hain onxa bihotça
entçutez anglaterraco erregue dela
Jnfanta haren Senhar gueya

287 *Çouazte ene amaren edireitera*
Jaunac orai berhala
eci Nehorq eztu ukhen Secula
holaco Colpuric bihotciala

288 *Erran içocie igorten derodala*
eraguin deçan assamblada
Eçarriric Consellia
Lekhu Segret batetala

289 *Jakin ezteçan anglesac*
Noula diren goure deseignaq
Çouazte arren aitcina jaunaq
eta eguin fitez nic erranaq

D'orleans m.

290 *Monseigneur bagouatçu*
Çoure amaren edireitera
eçarriren dugu Consellia
lekhu Segret batetara

Sonu
Chancelierra eta jean de paris retira
bi dukiaq paseya
Erreguigna jalki duc
d'orleans minça

291 *Madama ikhousi diçugu Semia* 22. or.
eta eguin Çure Comisionia
Nahi likeçu harq ere infanta
Segurki houn diçu bihotça

292 *Goraintci igorten deiçu*
eguiteco hori deçaçun Consella
angles horiq jakin gabe
ahalaz lekhu Segret batetan

Sonu

Chancelierra eta jean de p.s

jalki bere armekila jean de p.s

pôt eguin amari eta pasea oro eta minça

293 *ai ene ama maitia*
enthelegatu dit Cer jiten den
eta baçakit Çuc eztuçula
ene gaitciq desiratcen

294 *Jgaran dit ene phenxamentian*
igaran gayan ló nindagouela
Çuc eninduçula Consellaturen
desohorezco ourhaxiala

295 *Eta eguiteco hori balimbada*
guq ouste dugun beçala
deçagun har pacentcia
eta phenxa ahalic hobekiena

296 *arren erregue anglaterracoua*
jouaiten duçu espagnala
infantaren esposatcera
eta hanko erregue içatera

297 *hargatic aguian orano*
othoituric espagnaco erreguiari
Cer hitz eman Cien franciacouari
içan diteçu eguiteco hori

298 *afrontu hori eguiten badeiku*
ber demboran nahi dit remestiatu
ezpaniz phuntcelaz agradatcen
oro Citit ichilic utciren

299 *orai behar dut jouan Espagnala*
Ene gente eta Carrosarekila
khambiaturic ene icena
Nihorq ezpeitu phenxaturen ni niçala

300 *Jgaran eraciren ditit Carrosac*
Cavaleriac eta armadaq
beste bide batetariq
eta niq jakinen tut bethi berriaq

301 *horiq oro eguinen tit hola*
Celuco gincouaq placer badu nic beçala
eta orai ene ama maitia
eman eçadaçu Çure avis phartia

Erreguigna M.a

302 *Ene Seme maitia*
houn Citaçu Çure phenxamentia
ikhousten eztien gaiçaren berri
ihourq etçakiçu Secula

303 *Juan Cite arren Espagnala*
erakax Çure phenxamendia
ezteiteçu eguin ezcontcia
partidaq arcord ezpadira

304 *baduçu Çuq imor Veritable bat*
eta izpiritu Violent bat
Noizpait Çure aitac ere
Complitcen Citiçun bere deseignaq

305 *Çuq hori onxa phenxatu duçu*
eni hala iduri Citaçu
Consellia heben diçugu
bere avisa emanen beitu

Borbon M.a

306 *arcord guira Madama*
houn duçu Cien avisa
jouaitia Espagnala
behar den ekipagekila

Duq d'orleans

307 *Jaunaq horiq oro uxa (sic) dira*
eta eguin beharraq hala
bena angles erregueq ezteçala
eçagut goure erregue gaztia

308 *Eta Madama Çuq behar duçu*
odre bat phausatu
urhe galonaq arrastatu
angles harq erosi nahi beitutu

f.co erreguigna M.a

309 *duq d'orleans hori eguia dioq*
ourhe oyhalaq arrastatu behartiat
Ene Semiaren prestatceco
guero largaturen ditiat

Sonu
orai Cofre bat ekhar erreg-
uignaq eta m.a

310 *Soiçu ene Seme maitia* 23. or.
Çoure aitaren tresor phartia
har eçaçu hountaric behar dena
eta presta ahalic lasterrena

orai Cofria har jean de pariseq
eta minça

311 *Duq d'orleans ene Cosia*
Junta Cite duq de borbonekila
presta Çacie berhala
Cer ere necessari beita

312 *Ni jouaiten niz orai Versaillera*
ene Chancelierrarekila
oro gin Citie hara
prestatu Cirienian berhala

D'orleans eta Borbon
retira jean de p.s M.a

313 *adio ene ama maitia*
eta adio ene bihotça
Çoure eta ene phartitcia
ala beita gaiça tristia

f.co erreguigna m.a

314 *adio ene Seme maitia*
ene esperantchen ithurria
gincouaq fortuna eman deçaçula
eta osagarrireki itçul Citela

orai pot eguin amari eta
retira hirouraq
Sonu

Satanaq jalki 8

Sonu
Breton Semp. ripus
Vict. herot. d'orl. Borb.
oro lantceki jalki d'orleans
minça paseatcez

315 *Jaunaq odre berribat badugu*
goure erregueq espagnala behar du
Ekipage behar beitugu
behar derogu prestatu

Victoire archerra M.a

316 *Duq d'orleans Cer duq odria*
goure erregueq espagnala behardia
guerla declaratcera edo
Cer du bere phenxamentia

317 *Erregue jaunaq placer badu*
bere armada Çutukatu
Mila artcher badutugu
eta hayen buruçaguia ni nuçu

318 *Jaunaq guitian jar odretan*
Nour goure fontcionetan
amorecatiq Victorian
Sar guitian espagnan

Borbon M.

319 *Behar dugu haitatu francian*
hogoi mila guiçon handietariq
behar bada Combatitu
houraq eçar ditçagun leheniq

320 *hobe dugu ehun Cabalier harturiq*
houraq oro beltcez beztituriq
eta ourhe fiz
onxa brodaturiq

herot M.a

321 *Jaunaq ni ere nahi niz bai gin Ciekila*
Behar bada ere Çombait embasada
espagnaco erregueren aitcinera
edo anglaterrakoua gana

322 *Cieq gazte Ciradie oro*
embasada baten eguiteco
Niq badakit lehen ere Cieq beno hobeki
bidia espagnalaco

d'orleans M.a

323 *Jaunaq hox emacie berhala*
orai Versaillera
goure erregue handa
engoitiq arrankuran da

Sonu
paseya oro
Chancelierra eta jean de p.s
jalki Borb. Minça

324 *Monseigneur prest edireiten gutuçu*
placer baduçu phartitu
Çoure odre hounaq ematçu
eci Complituren tiçugu

Jean de paris M.a

325 *Jaunaq emaiten dut odria* 24. or.
Eta houna Cieq eguin behar duciena
Jhoury ere ezteçacien erran eguia
Ni franciaco erregue niçala

326 *Jhour ere giten baçaicie galthatcera*
erranen Çaye pariseco bourjouesbaten Seme niçala
ene aita jean de paris deitcen Cela
eta niq haren ber icena ekharten dudala

Sonu
paseya trebes
Jalky d'anglastra
Normandia roy d'anglaterre et roy parlé

327 *Behadi anglastraco Comptia*
aigu huillantakit aitciniala
eta jakin eçadaq berhala
Nounko den Compagna eder houra

328 *Jakin eçadaq mementian Çoin den*
Buruçaguia Compagna haren
Mintçatu nahi beitut niq
eta jakin icena noula dien

D'anglastra juan Compagna hari
buruz Normandia eta erregue retira
d'anglastra M.a

329 *Gincouac egun houn deiciela*
Compagna ecinago ederra
gin niz Cien aitciniala
anglaterraco erregueren mesagerra

330 *hareq eman deit odria*
Jakin diçodan eguia
Suita horren guida Çoin den
eraman diçodan berria

Ripus M.a has

331 *Ene adiskidia*
Niq erranen deiçut eguia
jean de paris deitcen dela
Compagna hounen buruçaguia

D'anglastra

332 *Jaunaq desiratcen nuke niq*
balimbada remedioriq
eguiteco hortaz minçaturiq
eman eçadacie Cien avisetariq

ripus M.a

333 *Nahi baduçu houra minçatu*
hounatchiago behar duçu abançatu
placer baduçu eçagutu
khana Chouri dun hori duçu

D'anglastra huillent eta M.a

334 *ôy jaun puissantciaz bethia*
Magnifiko Charmagarria
erregueren aitciniala huillentcia
ala beita gaiça terriblia

335 *jakin deçaçun eguia jauna*
Ni nuçu embasadoria
Erregue anglaterraq igorria
Çu Nor Ciren jakitera

336 *hurrun baduçu bidagia*
desiratcen diçu Çureki jitia
Suita eder horrekila
placer baçunu Çuq hala

Jean de paris m.

337 *Ene adiskide maitia*
erroq goraintci igorten derodala
abantça dadin aitcina
eneki jin Nahi bada

338 *Ni Nour niçan jakin nahiz*
hain arrankura bada
erroq jin dadin berhala
eçaguturen nayala

anglastra M.a

339 *Comant diablo (sic) jauna*
erran eçadaçu eguia
heya nola duçun içena
eraman deçadan berria

Jean de paris M.a

340 *Erraiten dat berhala*
Jean de paris deitcen niçala
eta pariseco niçala
Bourjoues baten Semia

Sonu
Embasadoria itçul bere
alderdirat eta paseya bestiac
ere trebes paseya
Jalki Normandia eta erregue
erregue jar
D'anglastra M.a

341 *Sira eguin dit Comisionia* 25. or.
Mintçatu Compagna haren buruçaguia
ikhousi dit hain eguia
propitarçun ororen ithurria

342 *Badiçu ikharagarrico Suita*
eta propi bat beçain bestia
eta buruçaguia dicie pariseko
bourjoues baten Semia

343 *oro dutuçu propitage batetaco*
eta adret ecin haboro
goure aiduru diaudeçu hortche
eta pharti guitian fitez

344 *Buruçaguia jaun gazte bat duçu*
Jean de paris deitcen duçu
houra placer baduçu minçatu
bertan behar duçu abiatu

angles erregue jaiki eta M.a

345 *alo alo jaunaq bertan*
jar guitian feitian
orai Mintça guitian
jaun fier hayekilan

Juan hayer buruz erregue anglesa
bere laguneki eta M.a erregue

346 *Jaunac othoitcen Çutiet berhala*
eguin decagucien placerra
Jean de parisen erakhartia
houra omen beita Cien buruçaguia

ripus m.a

347 *Sira gu haren Cerbuchariaq gutuçu*
eta bera hortcheko hori duçu
eçagut placer baduçie
khana Chouri bateki duçu

roy d'angl.re parlé

348 *Ene jaun Maitiaq pharka*
ene atrebentcia
banhoua hareki Mintçacera
Cien permisionarekila

oray huillant Modeski erregue
jean de p.sen khantin oro herroca
erregue anglesa mintça

349 *Gincouaq egun houn deiçula*
jean de paris ene adiskidia
eta atchiki deçaçula duçun
Seignoria ederra

orai oro paseya ez trebes
Jean de paris m.a paseatcez

350 *Sira Çuq badakiçu onxa*
Niq Cer dudan icena
jean de paris deitcen niçala
ene Titre ororekila

351 *Sira honki jin Cirela*
Çoure Compagnarekila
bena othoi erran eçadaçu
Çuq Noula duçun içena

roi d'ang.re parlé

352 *ôi ene adiskide maitia*
jaun puissantciaz bethia
Ni nuçu anglaterraco erreguia
erraiten deiçut eguia

Jean de paris buria okherturiq
erriz Minça

353 *ôi Cer historia*
eta hau dembora ederra
eta Norat juaiten Ciren
erran eçadaçu eguia

erregue d'an. M.a

354 *Banhiaçu espagnala*
hanko jnfantareki esposatcera
Ceren ezcontça kasiq
eneki eguiniq beita

Jean de paris M.a

355 *ôi Cer errana*
eguiten ahal bada
bena ez khunta Secula
ukhen artino Saihetxiala

roy d'ang.re p.lé

356 *Jean de paris ene adiskidia*
erran eçadaçu eguia
Çu Norat jouaiten Ciren
ala paseyura

Jean de paris M.a

357 *Ni juaiten niz paseyura* 26. or.
themporaren igaraitera
eta nola gazte beiniz
Dama phuntcela Çombaiten ikhoustera

Roi D're parlé

358 *Erran eçadaçu erran jauna*
Çoure Sortciaren fondamentia
Cer gentetariq jalkiten Ciren
edo Cer gradotako guiçon Cira

Jean de paris

359 *Sira ni pariseko nuçu*
Bourjoues baten Semia nuçu
aita hila diçut aspaldi bena
Eskietan onxa utci niçu

Roi Ang.re parle

360 *Estatu handia duçu*
Bourjoues batentako
bai eta Segurki luçaz
hola Jraiteco

Jean de paris

361 *Sira niq badit houn franko*
ene themporako
eta Nahi dutut goçatu
ahal dutudano

Roy D'ang.re p.

362 *par Ma foy erraiten deiçut eguia*
gaizki ari Ciradiala
bacina ere lurreco handiena
Sobera dela Çure treigña

Jean de paris M.a

363 *Sira eneçaçula ni pheça*
ezpeita Çure Sujeta
jaunaq gu retira guitian
horiq utci bere espedientciekila

Sonu
B.n Semp. ripus Vict. herot
borbon d'orleans Ch. jean de p.s
retira Sonu

anglaterraco erregue M.a bere laguner

364 *Jaunaq jaun houra erhoua da*
eci horren tregna Sobera da
baliz ere erregue
edo eta emperadore

Normandia parlé

365 *Sira jaun harez ni Content nuçu*
eci hareq itchura houna diçu
Compagna agradablia diçu
Solamente buria batere houn badu

roi parlé

366 *Jaunaq eztakit Cer erran*
bena irautia imposible da içanen
Mantenatcia estatu houra
bourjoues Seme bateq

Normandia parlé

367 *Sira guq eguinen dugun hobena*
retira guitian khamberala
ló bederaren eguitera
bihar goiciq iratçarriren beikira

368 *Jratçarri guirenian berhala*
jouanen gutuçu jean de paris gana
Cioçu hareq nahi dela juan
bere pasejuz espagnala

Sonu
anglesaq retira

Satan bera jalki 9

Sonu
Bn. Semp. Ripus Vict.
hert Borbon d'orleans
Chanc. jean de paris jalki
eta paseya
Sonu
Danglastra Normandia eta
erregue anglesa jalki hayer
buruz eta roi d'ang.re parlé

369 *Jean de paris ene adiskidia*
Cer erraiten deitaçu
Juanen guirenez algarreki
Çuq erran eçadaçu

Jean de paris parlé

370 *Sira bai juanen gutuçu* 27. or.
Gincouac placer badu
Çuq ere jin placer baduçu
goure Compagna ukhen duçu

Roi D'ang.re parlé

371 *Eta Çu ere nahi Cireya espagnala*
othian jin gourekila
hala placer baduçu
guitian pharti berhala

Jean de paris

372 *Behacite gincouaq badeit*
Sira permetitcen
eztit hala baiciq
Niq ere phenxatcen

roi D'ang.re

373 *ô hartaz Minçatceco*
behar ukhanen duçu
tregña khambiatu behar duçu
Euria hastera dihaçu

Sonu
oro herrocan paseya
Jean de pariseq eta haren
laguneq Capaq har
angleterraco erregue M.a

374 *Behacite jean de paris*
ediren duçu beztimenta
euriaren ireisteco eta
Cien burien Conserbatceco

375 *gouri aldiz beztimentaq*
fanitu Cizkutçu guciaq
Cien hola idorric ikhoustiaq
Susprenitcen guciaq

Jean de paris

376 *Sira Çu holaco erreguia*
Seigneur eta baron handi
arren behar Çuntin ekharri
etchiaq Soignen Çuhaureki

377 *Conserbatceco arropen*
eta Jraizteco eurien
horreq niçu Suspeitatcen
Çu beçalako erregue baten

angleterreco erreguec trufa erriz
eta minça

378 *ôh Cer laguna bideko*
demboraren igaraiteko
Corage emaiteco eta
pacentcia hartceco

Sonu
Breton Semp. ripus Vict.
herot Borbon d'orleans
Chanc. eta jean de p.s
retira
Sonû
angleterraco erregue erriz
paseya eta minça bere
laguner

379 *Cieq enthelegatu tuçieya*
Jaun hareq erran tianaq
bere erhokerian noula
idokitian arraçoignaq

380 *hareq ouste du houra dela*
Mounduco guiçoniq balentena
gaiçaq eguiten ahal direla
gogouan igaran beçala

Normandia

381 *Sira houra erho bat duçu*
haren elheq hala markatcen diçu
hargatiq behar diçugu
goureki ahal badugu

382 *Goureki behar diçugu*
Ezteyetala khumitatu
Compagna oroq harekila
placer behar dugu hartu

383 *phakatu behar baliz ere*
houra drole liçate
arralleriaz erho hareki
erriz assé beikintake

D'anglastra M.a

384 *Eta hori onxa beita* 28. or.
eraimaitia ezteyetala
emanen baçayo ere
gage houn bat berekila

Roy D'ang.re

385 *Nahi dienaq erran beça Nahi diena*
guitian gu retira
euri houra dela Causa oro
Damnajatu beikira

Sonu

retira anglesaq

Satanaq 10

Sonu

B.n Semp.r Ripus Vict.

herot Borbon d'orleans

Chanc. eta jean de paris jalki

hayer buruz berriz beste aldeti

anglastra Normandia angles roi

jalki eta roi parlé

386 *Jan de paris ene adiskidia*

Çu ni beno irousago Cira

uheitçaren igaraitian

Niq ukhen dut thurmentu gentetan

Jean de paris

387 *ai Sira onxa nuçu estonatcen*

Çu beçalaco erregue baten

Çubi houniq nolaz eztuçun

Çureki erabilten

Erregue anglesaq trufa inguru

bateki eta minça

388 *ai Cer arraçoignera*

guiradian jin hounegana

heya Çubia arren noula

har litaken bizcarriala

Jean de paris

389 *Sira placer Çunukia*
juan guitian ihicira
oyhan hoyetalat
Cerbaiten atçamaitera

Roi D'ang. p.le

390 *par Mafoi ihicira*
juan Nahi eznuçu
Nahiago nikeçu
bidia abantçatu

Sonu
oro herrokan paseya
angles erregue minça

391 *Jean de paris berhala*
erran eçadaçu eguia
heya Cer duçun Sujita (sic)
hola jiteco espagnala

jean de paris

392 *Badiçu orai hogoi ourthe*
ene aita espagnan içan Cela
han ihicin erauntxi Ciela eta
Cana landare bat landatu Ciela

393 *Ni jiten nuçu parisetiq*
kana houra hartia denez ikhoustera
batere propi bada
Nahi dut ekharri frantciara

Roy d'ang.

394 *alajin ihiztari handia Cira Çu*
hain urruniq jiten Cirenian ihicira
ôh juratcen dit hain eguia
doluturiq baraturen Cirela

Jean de paris

395 *Ni Cherka juaiten niçan khana*
eztuçu bestiaq beçala
handituriq eta propi bada
gogoua norq ukhenen din fortuna

Roi d'anglaterre

396 *Jaunaq niq eztit enthelegatcen*
Jaun horreq Cer erraiten dien
ez Cer finecietara Mintço den
horreq eci eztaki Minçatcen

pasea bethi Normandia M.a

397 *Sira Çuq placer baduçu*
jaun hori behar duçu othoitu
ezteyetala khumitatu
hori erho ederra duçu

398 *Douela kana ikhoustera* 29. or.
hori Cer erran Nahi da
batere propi bada eraman
Nahi diela berekila

Roi D'ang.

399 *Jean de paris goure adiskidia*
goureki Çu jin Nahi baçina
Bourgoseco hiriala
ene ezteyetala

400 *Eman nitciroçu gage houn bat*
ourhetan Soma eder bat
ikhousiren duçu assamblada bat
Seigneur eta dama alde bat

Jean de paris

401 *Etcikit jinen ahal niçanez*
bai ja Segurki borondatez
Celuco jincouaq placer badu
desegna ja banikeçu

402 *Bena Çuq eni ofritceco*
gage houn bat emaiteco
khuntatcen dit badudala Nihaureq
Çuq beno ourhe haboro

403 *Emaniq ere Çure erresouma*
eninteçu ni jin Çurekila
juaiten ahal Cira aitcina
jinen nuçu ni ere ahal niçan beçala

Sonu
erditiq retira bi aldetalat
oro (B.n S.r r.s V.re h.t B.
D'orl.s Ch. jean de paris escuin
anglesaq ezquer) Sonu
.....
Sataneq aldia ein
eta juan Çamarietala
Baron d'Espagna
Cario Comptia Roi d'
aragon eta Roi
portugal ere bai juan
Çamarietala
Espagnolaq leheniq
jin
guero Salbajekin Satanaq

.....

orai hel Çamariz

Baron Cario roi D'ar.gon roi port.al

Espagnaco erregue jalki eta paseya

Baron Cario roi D'ar.on roi port.al

thiatre pian Çamariz

portugal erregue minça

404 *Monarka ilustria houna guira*

Çoure barouekila

giten guira ezteyetala

Çuq igorri deikuçun beçala

Sonu

oro igan thiatrerat eta

aragon M.a

405 *Eguin deikuçun ohoria Sira*

guq merechi ezcuniena da

gincouaq othoi dexala Çure alabaq

Senhar houn bat ukhen deçala

Espagnaco erregueq pot bi erreguer

eta jar eraz bere khantin

eta bera minça

406 *hounki jin erregue jaunaq*

Eguin deitaçie placer handia

Egun houna jitia

goure festibitatiala

Takou eta net

orai gin Çamariz

bere hirour laguneki

portugal roi parlé

407 *Sira fatigatu guira*
Salbagiaq horra beitira
goure ororen erhaitera
Soiçu horra noun direla

Sonu
Espagnolaq paseya
oro eta baron despagnaq
larga bistaz Soin
Jupiter Bulgifer Satan
takou eta Nét jin
Çamariz pistoletekin
eta tako minça

408 *ôh hô Non Cirie Espagnolaq*
eta horra gin Cirienaq
Erregue fripou fierraq
galduren tucie oroq biciaq

409 *gu Deitcen guira takou eta net*
Salbagen erreguiaq
oro goure loxa dira
Cietaz beste khiristiaq

410 *guq dutugu loxaraci*
Cieq ere Nabassiki hasi
Nahi Çutiegu Chipilth eraci
Satan goure gincouari

Satan parlé

411 *ôh hô Espagnolac*
aragones portuguesaq
oro Çutiet erraraciren
ene Sabriaren phuntaz

412 *Cer erran nahi da hau* 30. or.
parla Sacré diablo (sic)
ene Sabriari orotariq
Sûya jauzten Çayo

413 *alon jaunaq Corage*
eztut utciren bat
diren beçalaco apho
Çankho mêhé puta Semiaq

Net roi parlé

414 *âlê hirour erregue poltrouaq*
gouri Sô Cirieya egoiten
Cien Contre guira Coleratcen
ezpeikira ahal heben egoiten

415 *Ez behar ducie Chipiltu*
bai eta guero haiçatu
Edo guq behar dugu errabiatu
Nahi ezpatucie goure gincouaq adoratu

416 *adoratcen batucie houraq*
onxa guirade bostaq
bestela jouan dira Cien biciaq
laurdengaturiq khorpitçaq

417 *alon alon khiristiaq*
emagucie arraphostu
bestela Cien gente ororeki
founditcen Çutiegu

418 *gu beçalaco genteriq*
Cieq eztucie ikhousi hambat
Erratçen Çutiegu oro
edo Minça Citie bat

Espagnako erregue m.a

419 *Cerq ekharri Çutie fripouaq*
Salbage Maradikatiaq
guq uzten Çuntiegun apart
Cerq nahassi deitcie buriaq

roi port.al parlé

420 *Erraiten deiciet niq ere*
hobe duciela hebentiq juaniq
bestela jarriren Cirie ourkhaturiq
eta buriaq Mozturiq

D'aragon roi

421 *Buriaq moztu gabe*
urkhatu behar ducie
Menturatcen baciradie
hirian Sartcera batere

takoû parlé

422 *Eztugu benturatceriq*
Sacreblu heben guirade
apho Cithal debriaq
gouri errenda Citie

423 *ouste beitucie Cieq egun*
ezkirela hirian Sarthuriq
bai hirian guira eta
Cieq oro loxaturiq

roi d'Espagne parlé

424 *gueçurra dioq muthurretiq*
ehiz hirian Sarthu hi
ez eta Sarthuren ere
Secula lagun horieki

Nêt roi parlé

425 *ôuôu le Espagnol beltça*
Cer dioq demoniva
Sarthuren ezkirela
hiri hortan Secula

426 *orai diagu ikhousiren*
Sarthiaq guiren bai alez
Sarri tucie ikhousiren
Cien buriaq erratcên

Espagnako erregue M.a

427 *alo alo berhala*
portaliaq Segurta
Eta barnetiq defenda
alon Coragerekila

orai portaliaq Cerra
eçar Mihise bat trebes
igaran guian
Satan parlé

428 *Espagnol hecur beltça*
eztuq aski phenxatu
ouste diat hiçala
burutiq enuchentu

429 *alon ene lagunaq orai* 31. or.
behar dugu abançatu
bestela behar dut niq
Sacre diablo errabiatu

430 *Ene Sabriari ari Çayo*
orotariq Sû lotcen
ezpaita Segurki loxa
Espagnol horien hercen

431 *alon alon Corage*
je Vous dis toujours
alon més Camarades
faut il brissé en toût (sic)

Takoù parlé

432 *finecia Charra duq*
Espagnola hiz enuchentu
portalia duq Cerratu
onxa guti behar Çaiq baliatu

433 *alon ene lagunaq*
houn ducieya koragia
jauz araz deçagun portalia
Çombait khanou Colpurekila

Nêt erregue m.a

434 *Sinhesten Çutugu berhala*
thira deçagun Colpu bedera
Cieq ere ez falta
dugun jauz eraz portalia

orai oroq thira phistoletaz portaliari
buruz eta portalia khen
Satan Minça

435 *Jkhousi ducie fripouaq*
ezdeus aphouaq
Cien finecia Charraq
etciela balio hambat

436 *Bena Chipiltuco hait*
Espagnaco erreguia
bahiz ere fierrago
hire erregue lagunekila

orai igan thiatrelat oro
Jupiter aitcinian
roi portugal parlé

437 *Jaunaq guiçon fierraq*
Cieq jin Cirie houna
ikhousiren ducie Sarri boucheria
hertsi baitukeçie Sinketa

takoû parlé

438 *Sinketaq Chacolan tiagu*
bena biribil tiagu
trufa horiq behar tuq galdu
edo goure gincoua adoratu

439 *Bestela parlâ (sic) Sacrêblu*
behar diagu Combatitu
Ezpata diat Çorroztu
hitan behar beitut Estrenatu

orai juan anglesaq Çamarietara
Daragon roi

440 *hountan nâhi baduq*
hiq estrenatu ezpata
ouste duka hau erho eta
libre hiçatekela

441 *Ez morblu ehiçate kito*
Ni bici balinbaniz
faiçona phaka hiro bena
Eztuq heltuco halacoriq

Satan parlé

442 *ale Canalla aphouaq*
Jauciren Caitcie trufaq
alo Corage ene lagunaq
Noun dutucie bihotçaq

Sonu
Batailla hirouretan
infidelaq ezpataq utci erortera
besteq har Net erregue M.a

443 *au diablé (sic) galdiaq guira*
adio goure ezpataq juan dira
Eta Certaz defendaturen guira
ostikoz ditçagun tripaq ourra

Espagnaco erregue M.a

444 *hâ hâ fanfarron araldia* 32 or.
Noun duçie Çoragia
houn Çunukie bai apetitia
balinbaçunie goure abantalla

takoû roi parlé

445 *ôi erregue photeretxiaq*
Errenda itçagucie goure ezpataq
guero utciren Çutiegu apart
eta gu juanen Etcherat

Nêt roi parlé

446 *Ez ez ez orano etcherat ez*
jupiter ekhartçaq aizcoraq
eçar ditçagun oro paillat
Debru erregue khiristiaq

Jupiterreq aiskoraq ekhar orori
bedera eman eta Satan minça

447 *hâ hâ orai da ordia*
debru puta Seme araldia
trenkatcen Çutiegu berhala
Cien Çankho okher eta buru ourgulluxiekila

448 *Segnor Nous Savé*
abla Castillano (sic)
orai nahi dutut Cier lephouaq
trenkatu ondoualano

Sonu
Batalla khiristiaq eskapa
Net roi minça

449 *hola hola banakia bai*
Jhessi jouanen Ciniela
eta Cietaz nahi guindiena
eguinen guniela

450 *Jalki Citie Bougre fripouaq*
Eskele demoniouaq
Bestela jiten guira horra
içanen beita boucheria bat

Sonu
orai paseya eta khiristiaq jalki
takoû mintça bestiaq
jalkitiareki

451 *horra horra non diren jiten*
has guitian defendatcen
eta apho horien Erhaiten
alo jaunaq Corage ukhen

Espagnaco erregue m.a

452 *alo paganouaq alo*
orano jiten guira
ezkira lehen beçala
Escapiren Secula

Sonu
Batalla Nét eror hiliq
takoû blessa eta takoû minça

453 *ôi Net ene laguna*
othian hil Cireya
adio adio othian
Ni ere hartara Nouha

454 *Bata becein erregue guinen*
biaq goure kartierrian
bena eguin dugu flor eta akabo
horien khoruaq nahiz goureki eraman

Satan parlé

455 *Cer duq takoû*
ez hiça eni fida
eztuka ouste khiristi hoyen
buruçagui guirela

456 *alon ene lagunaq Corage*
ifernuko debriekin
herciaq Campouan eçarten dutut
khaka jauz eraciriq

457 *alo takoû*
akabo eguin duka
ala hiretaco ere behar dugu
lucifer ekharri houna

jaiki takoû khéchu M.a

458 *alapinkoua ez orano*
ez dut eguin akabo
ene lagunaq Corage
ditçagun atçaman oro

Sonu
batalla takoû
eror hiliq lagunaq
oro Escapa

Espagnaco erregue M.a

459 *Takoû Nêt erreguiaq juan dira*
thupinçale ikhastera
orai hox aihaitera
eta gincouaren remestiatcera

Sonu
Espagnolaq retira

Satanaq jalki 11 33. or.

franxesaq oro juan
Çamarietala

Sonu
Baron d'Esp. escoua Comptia roi D'arag.
roi port.al infanta espagnaco
erreguigna Espagnaco erregue
jalki eta Espagnaco erregue M.a
paseya

460 *Madama behar diçugu prestatu*
eta eguin preparamentu
Erregue horiq jin tuçu
eta behar diçugu aihaltu

paseya
orai aguer
herot bera Çamariz

461 *heben duçu portugal erregue*
bai eta aragouakoua ere
behar gunuke eguin
ocasioniari ohore

Erreguigna M.a

462 *Jauna othoitcen Çutut*
placer baduçu behatu
goure alaba triste duçu
eta Cer dien etçakiçugu

orai aguer anglesaq
Danglastra Normandia eta
angles erreguia oro Camariz
Erreguigna aitcina M.a

463 *Eta ikhousten dut heltcen dela*
erregue anglaterracoua
bere Suitareki horra
goure alabaren Esposatcera

anglesaq hirouraq Çamariz
jin angles erregue M.a

464 *Egun houn desiratcen deitciet jaunaq*
Erreguiaq eta erreguignaq
princiaq eta barouaq
Comptiaq eta nobliaq

465 *Egun niq ekharten dut*
assamblada ederra
jakin eçacie ni niçala
anglaterraco erreguia

Espagnako erregue M.a

466 *Sira honki jin Cirela*
Çure Suita ederrarekila
remeti Cite berhala
hau duçula goure Sala

Sonu
oro igan thiatrerat
eta herroca eta paseya
Erregue portugal M.a

467 *Sira erran eçaguçu berhala*
irouski eguin duçunez bidia
parisen içan bacira
Cer berri ekharten duçu Çurekila

angles erregue m.a

468 *Jaunaq içan niz parisen*
anitz estofa erosten
eta gin içan da enekila jaun bat
Semia dela (sic) bourjoues baten

469 *Jgaran dut hareki bidia*
Jean de paris du içena
jaun gazte propi bat da
pariseco bourjoues baten Semia

orai aguer herot Çamariz jiten
Espagnako erregue M.a

470 *Beha Çakiztade jaunaq*
behar dugu eguin Colacione
feit horiez guero ere
Mintçaturen guirade

Sonu
orai jar oro Mahagnan
paseyu bat eguin eta
herot jin Çamariz eta M.a

471 *Jaunaq placer baducie non da*
Espagnaco erregueren egonguia
ukhacie hontarçuna
ene hara guidatcecoua

Espagnaco baroua jaiki eta minça

472 *Ene adiskidia Cer galthatcen ducu*
edo Nor Ciren erran eçaguçu
Compagna oro Mahaignian da
hebeti deus placer baduçu

herot M.a 34. or.

473 *Jean de parisen embasadoria nuçu*
Espagnako erregue behar dit minçatu
Buruçaguiaq hala manatu niçu
eraman deçodan arraphostu

Baron M.a

474 *Behacite ene adiskidia*
behar duçu ukhen pacentcia
Erregue beita ocupatia
beste Sujet elibatekila

Sonu
jaiki mahaitiq oro
heróta igan thiatrerat
Espagnaco erregue M.a

475 *Ene adiskidia beha Cite eni*
aphur bat retira Cite horreki
ocupaturiq nuçu jaun hoyeki
bena Sarri minçaturen gutuçu algarreki

Baron eta herota retira biaq
bestiaq paseya Sonu
angles erregue m.a

476 *ôi Segneur handia*
erakhar açu houna embassadoria
jean de parisen Cerbitcharia
placer har deçagun harekila

roi aragon

477 *Sira erran eçaguçu engoiti*
Nor den jean de paris hori
Cer gentetariq den gouri
erran içaguçu Clarki

angles erregue M.a

478 *Sira pariseco duçu*
Bourjoues baten Semia duçu
treign handi batian gin duçu
Secula ihorq ikhousi badu

aragon roi parlé

479 *ôi hori eguia handia*
Bourjoues Simple bada
Mantena deçan bere tregna
Çuq dioçun beçala

angles erregue M.a

480 *Cer ouste duçie dela houra*
orano ourhez diçu bachera
badiçu ourhez Nahi diena oro
ouste dit erresouma hau eros lirouela

aragon erregue M.a

481 *Deçagun jakin arren*
berri horren aberatxtarçunaren
ordian beikira Contentaturen
eta oro Satifaturen

angles erregue M.a

482 *jaunaq erran deit eni anitz*
Comprenitcen eztudaniq
erho airia badu ene oustez
eta buruti Lunetiq

Espagnaco erregue M.a

483 *Sira Esplica itçaguçu berhala*
Çure placerra hala bada
jakin deçagun historia
jean de paris gaichouaren

angles erregue M.

484 *Egun batez giten guntuçun algareki*
houra eta ni goure Suiteki
euri handi bat hasiriq
gentia busti çuçun ederki

485 *hayeq eçarri Citicien Capaq*
eta Conserbatu idorriq
erran Niroçun berhala
etcirela gu beçala bustiriq

486 *Erran Citaçun berhala*
erregue nintçan beçala
Certaco ezcunien erabilten
goureki etche bedera

portugal erregue

487 *Jaunaq hori onxa errana da*
eci Niq eztut ouste erhoua dela
giten den guero parisetiq
halaco Compagnarekila

angles erregue M.a

488 *orano beste aldi batez* 35. or.
igaran guinen hour handi batian
Noun Malheur handi ukhen beinian
ordian ene armadan

489 *Eta nindagouen afligituriq*
ene gentiaq damnajaturiq
erran Neron ordian guero
harq etciela ukhen penariq

490 *Erran Ceitan Consolatceco*
estonatcen Cela gaiçabatez
Ni beçalaco erregue bateq
Çubi houniq goureki ekharri gabez

491 *Eta orano beste egun batez*
Susprenitu nindian beste arrazou batez
erran niroçun houra Certala
espagnala Cen jiten

492 *Erran ukhen Ceitan ordian*
haren aita içan Cela noizpait espagnan
khana landare bat landaturiq han
utci Ciela ordian

493 *houra jiten Cela ihicira*
khanatto haren ikhoustera
jaunaq arren hori duciela
guiçon haren inocentcia

Sonu
paseya eta oro jar
Baron d'espagna eta
herot jalki baron bera jin
eta heróta minça Chapela eskian

494 *Sira jean de paris ene buruçaguia*
duçu ene houna igorlia
jgorten niçu Çuregana
alojamentu baten galthatcera

495 *Citadelan Nahi likeçu*
Çuq placer baduçu alojatu
eta Cihaureq behar doçu
khantou batetan Markatu

496 *Çuq permetitcen baduçu*
Çure ikhoustera gin nahi duçu
Sira Çuq placer baduçu
eman eçadaçu arraphostu

Espagnaco erregue M.a

497 *Erakhar açu othian berhala*
Citadelan nahi bada
erran içoçu jin dadila
alojamentu franco ukhanen diela

herot m.a

498 *Sira Çuq placer baduçu*
behar deitaçu markatu
goure ekipagia handi duçu
eta Çoin khantoutan behar dugu paussatu

baron d'espagna M.a

499 *Ciauri houna adiskidia*
Niq erakaxiren deiçut lekhia
desiratcen baduçu haboro
galthatcen ahal duçu berhala

herot M.a

500 *Sira phartitcen nuçu arren*
eta anitz remestiatcen
banouaçu edireitera jean de p.sen
eta eramaitera arraphostu horren

Sonu
orai juan herót retira
lagunen Cherkha berhala
anglesaq eta espagnolaq paseya
jin Çamariz B.n Semp.r ripus
Vict. duq de borbon lantça gabe jin
duq de borbon M.a

501 *hau deja palacioua*
guq phausatu behar duguna
igaraiten guira berhala
tiatre hortan gagna

Espagnako erregue M.a

502 *hounki jin Ciradiela jaunaq*
galthatcen deiciet gaiça bat berhala
Çoin Cirien jean de p.s deitcen dena
bena erran eçadacie eguia

Duq de borbon

503 *Sira jean de paris eztuçu behar*
Compagna hountan Cherkhatu
bena haren Cerbutchariaq gutuçu
houna abançatu

Espagnako erregue M.a

504 *Eta erran eçadaq othian*
horren treign handirekila
heya Nour ahal hiçan
uduri duq erregue hiçala

duq Borbon m.a

505 *Sira erraiten deiçut berhala* 36. or.
haren Segretariaq guirela
igorten guitiçu aitcina
lekhiaren prestatcera

Espagnaco erregue m.

506 *Jaunaq abança Citie arren*
juan prestatcera lekhiaren
Berheci ukhen gunien
hortcheco pharte hori Cien

Sonu

B.n S.r r.s Vic. eta

Borbon igan thiatrera

eta oroq reverentcia eguitiareki

Borbon M.a

507 *Cien permisionarekila*

Compagna illustria

orai heben guira

pharka Nabastarria

Sonu

frantcesaq retira oro

artcherraq juan berriz

Çamarietara lantça gabe

pasejuz Espagnako erregue m.a

508 *Sira beha Çakitçat*

anglaterraco erregue jauna

Çuq erran Suita beno haboro

Jgaran duçu deja

Jnfanta m.a

509 *ala beita hau Miracullia*

ôi Compagna noblia

Jkharagarri den Suita

Segur da orai helturen dela

510 *Jaunaq amenx orai*

odretan jar guitian

ohorez ediren guitian

houraq jin direnian

Espagnaco erregue M.a

511 *ôi ene alaba Maitia*
ala hiq arrankura handia
abiloua gente hajen gana
eman icen tinja (sic) eta tapiceria

Jnfanta M.a

512 *gente hounaq banoua khamberala*
Meçu bat igortera berhala
Behar badie tapiceria
oroz fornituren dutudala

Sonu
Juan eta tourna berhala eta paseya
aitcina portugal erregue M.a

513 *âh jaunaq eta anderiaq*
Egun heben dugu triompha handia
Jkhous artio Jean de paris goureki
guitian egon heben fierki

514 *houra jin denian berhala*
Jouanen guira buruz haregana
beste Compagna bat berriz
ouste dut heltcen dela

Sonu
paseya
B.r Semp. rip.
Vict. herot jin duq d'orleans
ere bai oro Çamariz
Espagnaco erregue M.a

515 *ôi anglaterraco erreguia*
Suita hau ikhousten dit arçara
erran eçadaçu eguia
hoyeq nor diren badakicia

angles erregue m.a

516 *Sira hoyeq niq eztit ikhousi*
ez ihon arracontratu
eztutuçu hoyeq eneki jin
Behar deitaçu pharkatu

Espagnaco erregue M.a oyhuz hayer buruz

517 *Jaunaq erran eçacie arren berhala*
Niq galthatcen deiciedana
Nountiq jin Cirien houna
edo Cer ducien arrazoua

518 *Jaunaq gu guirade guizonaq*
Jean de parisen Condutorraq
haren tresorraren ekharliaq
eçarri ukhen beikutu beraq

519 *ginen da bera goure onduan*
Sarri bi orenen burian
Sarthu da Madrileco hirian
triompha handi batetan

infanta M.a

520 *ôi Virgina Saindia* 37. or.
ala hau triompha handia
Bourjoues Simple baten Semia
posible deja hau den Çure ekipagia

521 *abantça Citie jaunaq*
eta eguin Cien eguinbidiaq
deskarga itçacie Çamariaq
eta arranja khamberaq

Sonu

duc d'orleans bere laguneki

Jgan tiatrerat reverentcia bat

oroq eguitiareki duc d'orleans M.a

522 *Sira Çure permisioniareki batian*

Sartcen gutuçu khamberan

tresorraren pausatcera

eta lekhiaren odretan eçartera

Sonu

duc dorleans bere laguneki retira

eta juan berhala Çamarietara

B.n Semp. ripus Vict. (herôta Carrochala)

Escoua C. Cario C. grocobide g.r ere bai

itçalgunetiq (bestiaq paseya)

infanta M.a

523 *hèlas ene gente Maitiaq*

ala hoyeq gente ederraq

Suita hoyen ikhoustiaq

Espantatcen gutu guciaq

524 *Eztut ouste niq Secula*

holaco ekipageriq ginen dela

Bourboseco hiriala

ene aitaren Citadelara

aragon Erregue

525 *Cer duçu Çuq anderia*

othian ikharatu Cireya

Suita horien buruçaguia

Nour den enthelegatu ducia

infanta M.a

526 *Enthelegatu dit Segurki*
nor den horien buruçaguia
Jean de paris deitcen dela
pariseco bourjoues baten Semia

527 *Eta Niagoçu phenxamentutan*
eya bourjoues bateq othian
ekharten ahal diniz (sic) espagnala
holaco ekipage bat berekila

roy portugal

528 *Jaunaq eta anderiaq*
erran Jtçadatcie eguiaq
Compagna horren jitiaq
alegueratcen deitcie Centciaq

529 *Beldur niz ene bihotcetiq*
ezten bourjoues Semia hori
hori erregue ezpada
Miracullia içanen da handi

530 *Eci bada jiniq bi Compagna*
Çoin nahi erregueren aski beitira
hayeq ekharri bagagia
Bourjoues Semiaren ja ezta

Sonu
paseya oro
alikoun eta Larkada
Morouaq jin Çamariz
alikoun M.a

531 *Bonnàs dios Cabailleros*
de frantcia agora benênos
pordieça là berdá
rêi de Espaina pidèmos (sic)

532 *Noun Cirie jaunaq*
erregue eta barouaq
ikhousi behar dutucie orai
jean de parisen morouaq

533 *Bai Morouaq guira*
gente propietariq
Brillant eta
onxa ounestetariq

534 *Cien fama jouan da*
frantcia orotan famatu
Cien pareriq eztugula
Bestetan behar Cherkatu

535 *Eta Nola elhez beciq*
Ezpaitaquigu algarren berri
Jiten guira triate hortala
Cien permisioniareki

Sonu
Jgaran triaterat Larkada M.a

536 *Messieurs j'lia une oposition* 38. or.
á Cette instance
formé le Sieur jean de p.s
á la premiere audiance (sic)

537 *hori erran Nahi da jaunaq*
opositione bat badela
eta eztirela eguitecouaq içanen
Cieq phenxatcen ducien beçala

alikoun m.a

538 *goure Carguiaq obligatcen gutu*
Ciegana egun jiteco
ezpeikira egonen ahalkez
Berria Cier esplicatceco

539 *Rei d'espagna Rei d'anglaterra*
Rei de portugal Rei d'aragón
Jmastoras las Seinôras (sic)
gincouaq deiciela gai houn

alikoun retira roi port.l parlé

540 *guiçon fierraq jin Çaizku*
eta Mintçatu hardiki
Merechi lukie phakia
guibeleco aldeti

angles erregue m.a

541 *Jean de parisen Compagnan*
eztut hoyeq ikhousi niq
behar Çayo eman açotia
Çaraboillaq aphalturiq

Larkada m.a

542 *Manducam áportui*
á Ces Munorem (sic)
ezdaitacie eni ez
Çaraboilliq aphalturen

543 *hitz horien Çentcia da*
erran Comuna den beçala
gueçurraq bethiere daniq
Çaignaq labur dutiela

544 *deja daniq gueçurra da*
Ni Cehaturen naiciela
lehenago Cihaurieq khaka
eguinen ducie Çaroboilletala

545 *Erri eguiten deitacie*
eta trufatcen naicie
hebentiq escapiren naiz bena
Sududurra (sic) uzkitiq Sar eçadacie

Sonu
paseya oro Larkada retira bera
orai jin heróta oyhal bolut
bat bizcarrian eta Carrosa batekin
Carrosa astouaz thira

infanta M.a

546 *Soicie Soicie gente hounaq*
aberax agoriq beste bat
orai haren jitiaq
ahatz eraciren dutu bestiaq

port.l erregue m.a

547 *Erran eçaguçu adiskidia*
Cer duçu ekharten duçun Carga
gutuçu estonatiaq
ikhousten beitugu arrible (sic) den ekipagia

herôt m.a

548 *Sira Ni Nuçu embassadoria*
Jean de parisen oyhal gobernaria
badit hogoi eta bost Carrosaren Carga
abituz oro betheriq beitira

L'infanta M.a estonaturiq

549 *Jesus houraq oro abituz betheriq*
bera aldiz ecin ikhous niq
hainbeste gaiça jiniq
orai niz orai estonaturiq

550 *Behacite ene adiskidia*
erran eçadaçu othoi eguia
Çoumbat erran duçu direla
Carrocha abitiekila

herôt M.a

551 *ôi ene lili ederra*
erranen deiçut niq eguia
hogoi eta bost karrocha direla
abituz oro Cargaturiq dira

portugal roy parlé 39. or.

552 *Jkhousten dut gaiça ederra*
eta aberaxtarçun handia
erresouma baten erosteco
ouste dut Capable dela

553 *Jkhousten dut baguirela*
Çombait erregue elgarrekila
eta ouste dut jiten dela
gu oro beno haboro dena

554 *handi içanen da Miracullia*
ezpada heltcen fra.co erreguia
Niq eztut Sinhesten ja
Bourjoues Semia dela

herôt m.

555 *alon jaunaq eta anderiaq*
Niq eguin behartut ene eguinbidiaq
descargatu Carrosaq
eta phausatu abitiaq

Sonu
herotaq Carrosaq descarga
triatera igaran eta retira
heróta bera eta juan Çamarira
angles erregue m.a paseyuz

556 *ôi Compagna ohoratia*
jakin eçacie eguia
jarri Çeitala khorpitça ikhara
helgaitceki beçala

557 *Cer Miracullu ahal den*
egun heben guerthatcen
hainbeste gente igaraiten
dugunian ikhousten

Sonu
paseya oro
orai jin Br. S.r r.s Vict.
artcherraq lantça gabe
Cario Escoua grocobide eta
Chancelierra (lancian floq
bat Chancelierraq) oro Çamariz
Eta juan bestiaq heróta Borbon
d'orleans itçalgunez Çamarietala
infanta M.a

558 *hain eguia uduritcen Çait orai*
pharadusutiq goure gincoua
oren hountan berian
jiten dela houna

559 *Eci ouste dut houna dela*
Munduco guiçoniq aberaxena
giten denian houna
hanbeste puissantciarekila

Roi de port.l p.le

560 *Niq erraiten deiciet eguia*
frantciaco erregue dela Segur baguina
houra beita puissantciaz bethia
eliçatela handi Miracullia

561 *Bena Mintça guitian orano*
Bourjoues dela erraiteco
hortan gagnen haboro
etçakit Cer erran aitcinago

infanta M.a

562 *ôi Sira ene adiskidia*
Baçunukia opinionia
frantciaco erregue bada
Manera hori jokhatcen diela

Roi portugal p.

563 *Madama ouste dit bai (sic)*
houra duçu ene oustez
gin baçajo buriala
Segur duçu houra dela

infanta M.a

564 *admiragarria gaiça*
ecin Segurtantchariq jakina
amenx jin baledi berhala
ikhousteco haren edertarçuna

565 *entçuten dut arraport houniq*
frantciaco erreguerendaco
eztela lurrian erregueriq
houra beno puchantagoriq

566 *horiq oro hola*
ez niz Satifaturiq
jean de paris Nahiago nuke
orai ikhousi leheniq

Espagnaco erregue

567 *jaunaq Cier erraiteco*
jakin Nahi Nuke eguia
Nountiq jin Ciradien houna
erran eçadacie berhala

Ch.lierra M.a 40. or.

568 *Sira erraiten deiçut eguia*
Jean de p.sen gente guirela
giten guirela aitcina
haren ekipagiarekila

569 *Jkhousten beitucie heben*
hainbeste Carrosa igaraiten
Jakin eçacie orai arren
Ni Niçala Condutorra ororen

570 *Ni haren Chancelierra nuçu*
photere hori eman ditaçu
Çuq placer baduçu
arraposatu behar diçugu

espagnaco erregue m.a

571 *Ene adiskidia othian*
ezteya jean de p.s Compagna hortan
ouste gunien aleta
oraicouan hor Cela

Ch.ra M.a

572 *Sira eztuçu heben*
ez orano içanen
Ceren eta ezpeitcen
hasi orano bazcaiten

573 *etcela jinen orano Cioçun*
amenx bi oren igaranen Cirela
Bazcaltu nahi Cela
bere lagun principalekila

574 *Bagouatçu gu phausatcera*
Cien permisioniarekila
goure ekipage eta
Bagage ororekila

Sonu
igan eta retira Ch.rra bere laguneki
eta juan 4 artcherraq Çamarietala
eta jin lauraq lantceki
Espagnaco erregue m.a

575 *ôi jaunaq eta anderiaq*
nahi dutut eman ene avisaq
Behar dugu Bazcaldu
Nahi baciradie eni behatu

576 *guitian juan bazcaitera*
orai hox berhala
aguian orduko jinen da
erran den jean de parisa

infanta M.a

577 *ôi ene aita Maitia*
orai ducia jouaiteco phuntia
eliçatia hobe othian houna
erakhartia bazcaria

578 *Jouaiten baguira bazcaitera*
Benturaz arte hartan jinen da
guq ikhousi gabe igaran liteçu
haren arribantcha ederra

Sonu
paseya oro
Breton S.r rip. Vict.
artcherraq jin oro lantceki

Espagnaco erregue M.a

579 *Beha Citie ene adiskidiaq*
Enseignaq eskian dutucienaq
erran eçadacie othian fitez
Jean de paris hor denez

Victoire M.a

580 *Sira eztuçu orano heben*
bena gu haren artcherraq gutuçu
haren phartia atchikiren dugu
behar badugu ere batallatu

Espagnaco erregue

581 *Jaunaq othian berhala*
erakharacie guiçon houra houna
uduri beitu fier dela
Mintça Nadin harekila

Victoire M.a

582 *Erran Ciniroue Cerbait*
gu jin baguinte horra
alon jaunaq berhala
gouatçan goure bidagian aitcina

jar bira bira eta eguin
ingurubat eta Sempur M.a

583 *Juja eçacie hortiq*
ezkirenez onxa arranjaturiq
eztudanez Niq Carguia fieriq
jean de pariseq emaniq

orai eguin herrocan bederazca
beste inguru bat
ripus M.a 41. or.

584 *Jaunaq Soguin eçagucie oroq*
heya hartu dugunez Magna
eta Mintça Citie berhala
erraitecoriq balinbada

Breton M.a

585 *Jaunaq ez guitian egon*
elhez abusaturiq
guitian fitez pharti
goure bidagian hebentiq

Sonu
Espagnolaq eta anglesaq
paseya Sonu eta juan
artcherraq bere Çamariekin
jin lekhura
herot eta borbon jin berhala Çamariz

herot minça

586 *ôi Espagnaco erreguia*
hartu dit libertatia
gitez Çure aitciniala
embasada batekila

587 *Jean de paris duçu arrancura*
Noula igante eguna beita
badenez bezpera erraitecoriq
hareq entçuten ahal dieniq

588 *Sira Nahi lukeçu eliçala*
horra Bezperen entçutera
eta igorten niçu ni
erranaq direnez jakitera

Espagnaco erregue

589 *Ene adiskidia gin bedi*
Bezperaq ukhenen tiçu berhala
bena behar deitadaçu eguin placerra
Niq erraiten deiçudana

590 *othoitcen Çutut ene adiskidia*
behar duçu heben egon gourekila
çoin den erakasteco jean de p.s
eguin behar deikuçu placerra

herôt m.

591 *Sira eztuçu posible egoitia*
behar dit eraman arrapostia
Bena hau duçula haren pagia
houneq erakaxiren deiçu buruçaguia

Espagnaco erregue m.a

592 *Ciauri Çu arren jauna*
Jgan Cite triate hountala
jar Cite dama horien khantin
guida ditçaçun guero feitiala

orai igan duq de borbon
triaterat eta jar damen khantin
herot M.a Çamaritiq

593 *Sira othoitcen Çutut berhala*
eman deçadaçun arraphostia
ouste dit arrankura dela
Jean de paris ene buruçaguia

Espagnaco erregue

594 *Jouan Cite ene adiskidia*
erran icoçu Bezpera haxia dela
Cer ere arrankura beitu
oro ukhanen dutiela

orai juan herota laur-
hazca Çamariz
Bestiaq paseya angles
erregue M.a

595 *Jaunaq estonagarri da*
hainbeste genteren houna jitia
bena niq dut phenxamentia
Badugula Cerbait tromperia

596 *Cer ouste ducie dudala phenxatcen*
hainbeste gente denian heben presentatcen
Sartcen direla bortha hortariq
jalkitcen beste batetariq

597 *Eta inguru inguru dabiltçala*
gouri ilusione emaiten
niq ja hala dut phenxatcen
Benturaz ezpeiniz trompatcen

port.l erregue M.a

598 *ôi hori eliçate onxa eguina*
finecia horren eguitia
bena deçagun igor berhala
Norbait gaiça horren jakitera

599 *Behar dugu igorri jakitera*
jean de p.sen phausaguiala
heben igaranaq han direnez
ala berriz itçuli othe direnez

Espagnaco erregue M.a

600 *Carioko Comptia* 42. or.
aigu houna berhala
hiq behar duq juan hara
Eskoua Comptiarekila

Jalki Escoua eta Cario
Erregue Esp.a M.a

601 *Badugunez tromperiariq*
jakin eçagucie bertariq
eci oro guira ikharaturiq
hambeste Suita ikhusiriq

602 *Jouan Citie Visitatcera*
Suita hayen phausaguiala
alojatiaq direnez han
ala utçuli berriz harçara

Cario M.a C.

603 *Sira jouanen gutuçu arren*
Visitatcera phausaguiaren
Niq deitçut hitz emaiten
ekharteco arraphostiaren

Escoua C. M.a

604 *Sira jouaiten gutuçu berhala*
arren palacio hartala
jean de parisen gentetala
Çoure odre hounekila

Sonu
Cario eta Escoua
jouan borthala eta
borthan M.a Escoua M.a

605 *ôi Cario Comptia*
ala hau lekhu arranjatia
heben dira heben gentiaq
hox arraphostiarekila

utçul bi Comptiaq bester
buruz juan eta Cario M.a

606 *Sira içan gutuçu Citadelan*
ikhousi diçugu anitz gaiça
ounxa arranjaturiq duçu
jean de parisen gentia

607 *Segurtatcen Çutut Sira*
houraq Capable direla
ocasionia baliz hala
Sartceco Combatiala

608 *hain dutuçu arranjaturic*
oro Çoin bere Cantouetariq
jarri gutuçu ikharaturiq
hayen fatcioniaq ikhousiriq

Escoua M.a

609 *Sira eztuçu behar phenxatu*
ez guerlariq hayer declaratu
eci Nahi badira bihurtu
Segurki Capable dutuçu

610 *Miracullu duçu guerthatcen*
hori Bourjouesa bada giten
eci eztuçu içaten ahal Nor nahi buruçagui
halaco Compagna baten

611 *Eci Bourjoues baten Semia*
eztuçu içaten ahal hola Compagnatia
ez eta ere armatia
gutiago hala ekipatia

port.l erregue m.a

612 *Jaunaq ezta houra jiten houna*
Jhouri guerla emaitera
Cien loxa handiago da
Mintçatcen bacirie hola

613 *Bena ukheiten badu errefusa*
harq desir dien gaicetariq
ordian guero aitcinago niq
eztakit Cer erran hargatiq

614 *Jarten bada Coleraturiq*
Bihotça inkietaturiq
ordian bere Seignoria
erakaxiren diela Segur niz

615 *Bena deçagun eguriki arren*
Jkhousteco Cer eguinen dien
ez har ister begui baten
bera heltu beno lehen

Espagnaco erregue m.a

616 *arrazou duçu ene adiskidia*
hori duçu phenxamenturiq hoberena
hobe Citaçu eni ere
eguriki deçagun bera

Sonu
oro retira Escuin

Satanaq jalki 12 43. or.
foies

Sonu
orai jin laur artcherraq
herôta D'orleans bere lanceki
oro Çamariz

Sonu
Baron d'Esp.a Cario Escoua jalki
jalki grocobide g.r Danglastra Normandie
Roi d'anglaterre Roi d'aragon Roi p.a
infanta erreguigna Esp.a
erregue Esp.a eta paseya oro
Duq de Borbon M.a mihisen gagnetiq

617 *Madama etcitela Çutuka*
Niq erran artio aitcina
eci Cieq ikhousten duciena
eztuçu Çu arrankura Cirena

618 *Bai erranen deiçut eguia*
hori duçu jean de p.sen Metre dotela
Carguia dieniq laur beitira
hori duçu ororen guehiena

infanta M.a

619 *Eguia diocia hori dela*
jean de parisen Metre dotela
oustez eta houra Cen
jalki Ninduçun berhala

Espagnaco erregue m.a

620 *Erran eçaguçu arren eguia*
Çu Cabalier Noblia
Çu haren Metre dotela bacira
fitez jitekoua denez bera

Duq d'orleans Çamaritiq M.a

621 *Sira jiten duçu Sarri bera*
bena gu igorri guitiçu aitcina
alojamentia prest denez
Cerbait berriren jakitera

orai juan oro bere Çamarieki
jean de parisen Cherkha
infanta M.a

622 *Soguin eçacie gente hounaq*
Compagna eder horren triompha
horren flore ederraq
Charmatcen du ene bihotça

623 *Soguin eçacie arren*
horien gaiça ederrez
urhe eta Cilhar
bai Diamanterier

624 *Erran eçaguçu pagia*
Jaun horien Calitatia
eguin içaguçu esplicationia
Noula dien Carguia

Duq de Borbon jalki
eta infantaren Sahe-
-txian herroca eta
paseya Mintça borbon

Madama niq dereitçut erranen
eta fontcionia esplicaturen
erregueren Congitareki batian
oroq ducie enthelegaturen

Jaunaq eta anderiaq
horieq dira jean de p.sen gentiaq
gaiça horien jitiaq
emanentu bere Seignaliaq

hainbeste gente igaraniq
jgaranen direnaq besteriq
jean de paris date azkeniq
edo azkenetan leheniq

aragon erregue

Jaunaq discous horien gagnen
Estonaturiq guira arren
niq ouste dut jean de p.s
Capable da (sic) erosteco goure erresoumen

Bena deçagun eguin onxa
jean de p.s jin denian houna
eçaguturen dugu balima
ala den erregue ala bourjoues Semia

infanta M.a

ôi ene page maitia
ala hau egun terriblia
erakats eçadaçu onxa
aguian Sarri helturen beita

Borbon m.a

631 *Eztit faltaturen Madama*
Çuri erakastia onxa
heltu den beçain Sarri
jean de p.s ene buruçaguia

Sonu **44. or.**
paseya oro
Baron Cario Escoua
grocobide anglastra Normandie
angles erregue, aragon erregue,
portugal erregue, erreguigna esp.
eta erregue esp. retira
Duq de borbon eta infanta
paseya Borbon M.a

632 *Madama Soguin eçaçu orai*
Jkhous açu jinen den Suita
khana Churi bat eskian dukeçu
Çu arrankura Cirena

Sonu
paseya
orai jin Çamariz laur artcherraq
herót D'orleans Chancelierra
jean de p.s artcherraq lanceki
Borbon M.a

633 *urhe Colier bat Lephouan*
jiten duçu oraico Compagnan
eta eztenez guiçon ederra
Soguin içoçu othian

634 *haren graciositate ederra*
Bere Colierra ourhez
Soguin içoçu Madama
haren Colore ederrer

635 *Eztuçu posible ikhoustia*
guiçon ederragobat lurraren gagnen
Soguin eçaçu haren faiçouer
eta Manera ederrer

Sonu
paseya infanta M.a

636 *ôi Celuco ginco handia*
Cirela Benedicatia
Ceren ni arrankura nintçana
jin beita aitciniala

Jean de pariseq reverentcia bat
eguin anderiaq khur bat eta
jean de pariseq har infantari
escuco bokanesa Berhala jalki
Baron, Cario, Escoua, grocobide
D'anglastre Normandie angles
erregue, aragon erregue, port.l
erregue, Espagnaco erreguigna eta
espagnaco erregue oroq Sò bedera
eguin eta aragon erregue mintça

637 *Jaunaq ezteçagula phentxa*
horier guerla emaiteriq
eztut ouste badela erregueriq
horiq beçain puçhant deniq

Sonu
Espagnolaq eta angl-
esaq retira aitcina eta
infanta eta Borbon paseya
Jean de paris Boukanesa
eskian mintça

638 *printcesa eçinago Noblia*
gincouaq deiçula placer houniq
hainbeste noula beiteitçut
Souhetatcen niq

infanta M.a

639 *hounki jin Cirela*
j.n de p.s ilustria
Cer Sinificatcen du Çuq eni
Boukanesa hola eramaitia

640 *Çure Camari Brillantareki Noula*
heltu Cira ene khamberaco leyhora
Ciauri eraix Cite Camaritiq eta
houna jin Çure Compagnarekila

Sonu
Jean de p.s bere laguneki
igaran triaterat artcherraq aitcinian
gagnian jean de p.s M.a

641 *oriçu printcessa Charmagarria*
Çoure Bokanesa
eta present hau ere
errecebi eçadaçu horrekila

eman Boukanesa eta
Montra bat infanta M.a

642 *Çombat ere ezpeita eman*
andere bati present hartcia
Bena ene desira Çuçun aspaldian
Çure heben ikhoustia

J.n de p.s M.a

643 *andere Charmagarria Çutut*
humilki remestiatcen
Ceren niq merechi gabe
heben naiçun errecebitcen

oro herroca eta paseyuz
Jean de paris mintça

644 *printcesa ecinago ilustria* 45. or.
erraiten deiçut eguia
eci frantciaco erreguia
heben present naiçula

paseya

645 *houna hamabost mila eta*
Sei ehoun guiçoneki
eta istoria bera
mintço duçu Clarki

paseya

646 *Çoin bere lantçaq eskietan*
eta bere ezpataq Sayhexetan
prest presta diaudeçu
oro odre hounetan

paseya

647 *Niq aldiz erraiten dit*
pariseco bourjoues baten Semia niçala
eta Charmagarria declaratcen deiçut orai
gin niçala Çure amorouskeriala

paseya

648 *Nouzpait içan Çuçun houna*
ene aita Cena guerlala
hitçartu Cicien ordian
Çu eta ni ezcont eracitera

paseya

649 *Linfanta princessa*
ala Çu Charmagarri
Çoure Modestiaq eztiçu
Mundian bere pareriq

paseya

650 *Çure elokentcia duçu*
ecinago noblia
eta Cihaur aldiz
Mundian pare gabia

paseya

651 *Çoure edertarçuna duçu*
ekhiaren pare
Çure famaq eztiçu
bere pareriq batere

paseya

652 *Bena eniaukeçu orai*
ez mementiq haboro
Çuri declaratu gabe
ene deseigna oro

paseya

653 *Çoure gracia ederra*
ene bihotcian Sarthu duçu
Çu esposatcen ezpaçutut
arraphausiq eztikeçut

paseya
654 *entçun ukhen diçut*
anglaterraco erregue heben dela
eta Çu espousatu nahiz
houra houna jina dela

655 *onxa damu lukeçu*
harendaco Ciren
Ceren Çu eta ni lehen
fixatu içan beikinen

656 *Çoure amaq proposatu Ciçun*
heben ene aita Cenari
Çu eta ni Ezconturen guinela
adiniala guinen beçain Sarri

657 *eztit ouste princesa Çuq*
arrafusaturen naiçula
eneki ezcontcia ouste dit
aceptaturen duçula

infanta M.a paseya

658 *Monseigneur gogo hounez*
Çu Çutut harturen
anglaterraco erregue aldiz
gogo hounez abandonaturen

659 *Eztiçu aperentciariq jauna*
anglaterraco erregue ene Senhar den
Ceren eta amignibat
hassi beita Çahartcen

660 *onxa placer dit*
Çu nitaz beitcira Content
hitz emaiten deiçut eztudala
Segurki besteriq harturen

J.n de p.s M.a

661 *ôi ene printcessa Maitia*
hitz emaiten deiçut berhala
Çureki ezconturen niçala
gincouaren placerra hala bada

662 *Espres jin içan nuçu*
Madrilleco hirira
amorecatiq ukhen neçan placerra
Çoure espousatcekoua

663 *frantciaco erregue içan eta*
gin nuçu treiñ chipi batekila
Ceren eta Nahi beinin Compliçadin
leheneko deseigna

664 *othoitcen Çutut Charmagarria*
ez erran ihouri frantciaco erregue niçala
jean de p.s niçala bai eta
Bourjoues baten Semia niçala

665 *Çoure aita amer Nahi diçut* 46. or.
eguitecoua proposatu
eztut ouste içanen niçan
hayez arrafusatu

666 *anglaterraco erreguia*
duçu errabiaturen
Ceren ni jin niçan
eguitera afrontu horren

667 *uheitz batian igaraitin*
Çure gana jiten Celariq
Jtho Cioçun gente anitz
gaizki beitciren Montaturiq

668 *algarreki jiten guinela*
Bide luce batetan oro
galthatu Citaçun Certara
giten nintçan Espagnalano

669 *Erran Nioçun hogoi ourthe baciela*
ene aita han içaniq ihicira
kana landare bat utci Ciela ordian han
eta Niq nahi niela jakin Cer eguin Cen houra

670 *hareq erran Citaçun fediaz*
doluturen Ceitala hain urrun jitia
kana haren ikhoustera houna jitiaz
onxa Estonaturiq Cela

671 *ôi ene Lili ederra Çu beitcira*
Landare kana Lebrausta
etciçun ez hareq enthelegatcen
alhargun Çaharra ene arraçoigna

672 *phenxatcen beinien anderia*
etçuniela houra gogouan batere
hartacoz gin içan nuçu
Çure espousatcera heben

673 *Espousa ondouan guero*
Bieq algarreki
goberna deçagun parise
goure Sujet ororeki

infanta M.a

674 *Sira ene placerra duçu*
Çoureki ezcontcia
Çoure gentez eta famez hanitz
içan nuçu Contentatia

Jean de paris M.a

675 *adio arren anderia*
Sarri jouanen nuçu Çoure aita ametala
eguiteco horren proposatcera
egon guitien algar ikhousi ezpagunu beçala

Sonu
retira infanta bera
Bestiaq ere paseyu bat
eguin eta retira

Satanaq jalki 13.me

Sonu
Baron, Cario, Escoua
grocobide, anglastre,
Normandie, roi d'anglaterre,
roi d'aragon, roi portugal,
infanta erreguigna Esp.coua
erregue espagnacoua jalki

Espagnaco erregue M.a

676 *Behadi Cario Comptia*
hiq Behar duq eguin Comisionia
Jean de paris gana
khumitu baten eguitera

677 *hi ere escoua Comptia*
juan Citie algarrekila
Jaun hayen aitciniala
goure meciarekila

678 *Errocie goraintci derogula*
dama hoyeq eta guq algarrekila
eta othoitcen dugula
gin dadin goureki Bazcaitera

679 *gin dadin goure placerriala*
eta goure ezteyen Chestatcera
egin deçogun ohoure houra
haren placerra hala bada

Sonu
retira oro
Cario eta Escoua ez heq biaq paseya
Baron; g.de; an.tre; Norm.die,
roi ang.tre; roi d'ar.on; roi p.
infanta; erreguigna; roi d'Esp.
retira beste biaq paseya
Breton eta Sempur jalki
Sonu Cario Mintça

680 *Jaunaq jiten guira gu houna* 47. or.
Cien aitciniala
Cien permisioniareki
goure odren emaitera

Breton M.a

681 *Jaunaq minça Citie berhala*
erran Cien embassada
Nountiq jin Cirien houna
edo Nour den Cien manaçalia

Escoua M.a

682 *Jaunaq Behar dugu dembora*
esplicatceco goure discousa
ukhen eçacie pacentcia
jakinen ducie embasada

Cario M.a

683 *Jaunaq gu guira guiçonaq*
Espagnaco erregueren mesagerraq
eman deizcu bere odriaq
guq eguin behartiçugu houraq

684 *Behar diçugu j.n de p.s Minçatu*
odria hala beitugu
eta houra behar dugu
ezteyetala khumitatu

685 *Cieq behar deikucie erakatsi*
Mintça deçagun laburski
aiduru beita Compagna oro
Bazkaltu nahiz jean de pariseki

Sempur M.a

686 *Jaunaq khambera Chipi batetan dago*
jean de paris Caideran
Beitago onxa tapiçaturiq
ourhe galonaz ingurian

687 *Jaunaq eguriocie Mement bat*
Niq ukhen artio Conseillu bat
retira Citie Memento bat
Niq Mintça artio khambera jaun bat

Sonu

Cario eta Escoua retira

artcherraq paseya herót jalki

eta Breton Mintça

688 *Jauna embassadoriaq gin dutuçu*

Espagnaco erregueq igorri tiçu

Jean de paris nahi diçu

Ezteyetala khumitatu

herôt Mintça

689 *Jean de p.s Nahi badu*

Ezteyetala khumitatu

Chancelierra behar diçugu

leheniq Mintçatu

Sonu

paseya

Chancelierra jalki erditiq

Breton mintça

690 *Beha Cite Chancelierra*

gin tuçu embassadoriaq houna

Espagnaco erregueq galthatcen diçu

jean de paris ezteyetala

691 *Carioko Comptia*

duçu embassadoria

Escoua Comptia ere harekila

gin tuçu jean de paris gana

692 *Jean de paris Nahi dicie mintçatu*

Çuq placer baduçu permetitu

eta beraq hantche tuçu

Cihaureq nahi beituçu mintçatu

Chancelierra m.a

693 *Jaunaq gouatçan elgarrekila*
Jaun hayen mintçatcera
eta hayen embassadaren
hobekiago entçutera

Sonu
paseya lauraq
Caro eta Escoua jalki
Chancelierra m.a

694 *Behacite Caro Comptia*
Cerda Çuq galthatcen duçuna
esplikaçaçu berhala
ahaliq hobekiena

Caro m.a

695 *gu giten gutuçu houna*
Espagnaco erregueren odrekila
Jean de parisen Mintatcera
eta hareki elhestatcera

Chancelierra

696 *Commant eta baya hola hori*
Espagnaco erregue eri deja
eztaitekia jin bera
jean de parisen Mintçatcera

697 *houra Mintçatu nahi bacien*
beraq houna jin behar Cien
Jouaiten ahal Cirie hortiq
Segurki eztucie Mintçaturen

698 *heben egoniq aitcinago* 48. or.
eztucie haboro irabazten
eta hortiq jouaiten bacirie
hanitz hobeki ducie eguinen

Sonu
Caro eta Escoua retira
Bestiaq paseya
Chancelierra m.a

699 *Jaunaq hayeq ouste Cien berhala*
Jean de paris Mintçaturen Ciela
gin bedi Espagnaco bera houna
hain arrankura balinbada

700 *hareq aski Cela ouste Cien*
igortia houna embassadoren
Mintçatceco jean de parisen
Bena eguriq beça arren

Sempur m.a

701 *Jaunaq espagnaco erregue fier da*
Jgorten dienian houna
jean de parisen Cherkha
Berhala Bazcaitera

702 *Bena da onxa eguina*
jauna Çuq eman arraphostia
Espagnaco erregue jin bedi bera
Nêt eri ezpalinbada

herot M.a

703 *Jaunaq Nahi Cirieya behatu eni*
Niq emanen dudan Conselliari
retira guiten hebentiq eta
edan elgarren ossagarriari

704 *Eci heben egoiten baguira*
eguinen dugu erhokeria
Cozinala juan guitian eta
edan Salda Chorta bedera

Sonu
retira B.n S.r h.t Ch.ra

Satan jalki bera 14

Sonu
Cario eta Escoua jalki eta paseya
grocobide, anglastra, Normandie,
angles erregue, ara.n erregue, portugal roi,
infanta, Esp.co erreguigna, espagnaco erregue,
Baron d'Espagna aitcinian jaki (sic)

Escoua M.a

705 *Sira houna gutuçu*
içaniq lekhu eder batetan
ikhousi diugu gaiça ederriq han
bena ecin igaran gutuçu phausu batetan

706 *Behar guiniçun igaran bide bat*
eta arrastatu guiticie berhala
erran dikuçie harçara
gu Nountiq jiten guinen hara

Caro M.a

707 *Niq erran diot berhala*
Caro Comptia niçala
Espagnaco erregueq igorri niela
jean de parisen Mintçatcera

708 *Erran dikuçu ordian*
Egon guiten Memento bat han
Behar diela khamberala eta
Mintçatu jaun bat han

709 *guero jiten Cizcuçu lauraq*
eta erraiten deikuçu Chancelierraq
Ceitara guiradian hara
Erran dicegun berhala

710 *Erraiten diot ordian Niq*
Espagnaco erregueq igorriaq guinela
j.n de p.s Mintatcera
eta haren khumitatcera

711 *ordian erran Citaçun Cinez*
Eia espagnaco erregue eri Cenez
Jean de parisen Mintatcera
Bera jouan etcitekenez

712 *Eniala Mintçaturen houra*
retiratcen ahal Nintçala
han haboro egoniq ere
deus irabaciren ezniela

713 *Sira ordian enebihotça*
Jarri Çuçun ikharatia
eta hain eguia hori duçula
Niq han ikhousi dudan beçala

jar B.n lekhietala eta paseya

angles Roi parlé

714 *alô jaunaq hori duciela*
jean de pariseq eguin deiciena
utçacie bego bera
eguin beça Nahi diena

aragon M.a

715 *Jaunaq eguin eçadacie placera*
behatcez avis hountala
hargatiq guero heben harat
har partiduriq hoberena

716 *Nahi baciradie eni behatu* 49. or.
Niq Nahi dut odre bat paussatu
eci orano ere behar dugula
jean de paris khumitatu

717 *Sira Nahi banaiçu Sinhexi*
Behar dugu juan algarreki
Jean de parisen mintçatcera
eta haren khumitatcera

718 *hori eguin behar dugula*
duçu ene phenxamentia
eci Segur duçu houra eztela
pariseco Bourjouesaren Semia

Espagnaco erregue m.

719 *Bai eta hori onxa beita*
guihaur juan guitian hara
jakin deçagun berhala
erakharten ahal dugunez houna

720 *eta jin Nahi ezpada*
alagueraki houna
eztateke goure falta
Bena guatçan jakitera

aragon erregue M.a

721 *Sira Çuq placer baduçu*
Ni Çureki jin Nahi Nuçu
eta Compagna houneq behar diçu
anhartio arraphosatu

angles erregue M.a

722 *Jaunaq Comeni da ene jitia*
Ceren houra hantatu beita enekila
anitz ausartago içanen da
Ni jouaiten baniz khumitatcera

Espagnaco erregue M.a

723 *Jauna hori onxa errana*
Ni jouanen niz Suhi gueyarekila
Eta Çu egon Cite heben
dama hoyen abusatcen

Sonu
paseya oro
Espagnaco eta
anglatarreco erreguiaq retira
Bestiaq paseya port.l erregue M.a

724 *Jaunaq eta anderiaq*
jouan Çaizku bi erreguiaq hara
eta orai guq eguinen dugun hobena
retira guitian khamberetala

725 *Rephaussa guitian aphur bat*
deçagun har trankilitate bat
ditçagun eraman harat
goureki Sonu eguiliaq

726 *han placer hartceco*
Eta themporaren igaraiteco
hambateki jinen dira ordian
jean de paris eta Compagna oro

Sonu
eguileq artian har
eta Sonu paseya oro
retira Baron, Caro, Escoua,
grocobide, anglastra, Normandie
roi D'n Roi p.l infanta eta
erreguigna Sonu eguiliaq ez
Sonu eguiliaq juan bere
Caideretalat eta jar
Sonu
angles erregue eta Esp.co
erregue jalki eta paseya
Sempur artcherra jalki
Espagnaco erregue mintça

727 *Behacite ene adiskidia*
gu jiten gutuçu houna
jean de parisen minçatcera
Coure placerra hala bada

Sempur m.a

728 *Nour Cirade Çu jauna*
hain hardiki jiten houna
jean de parisen minçatcera
Çure Compagnarekila

Espagnaco erregue m.a

729 *Eguiten deiçut arraphostia*
Ni Niçala espagnaco erreguia
galthatcen deitçut gracia
jean de parisen minçatcia

Sempur m.a

730 *Sira pharka jçadaçu*
Etçuntudan eçagutu
Çuretaco permis duçu
placer baduçu abançatu

731 *Jiten ahal Cira aitcina*
Badereitçut libertatia
Jdekiten deiçut portalia
Ceren espagnaco erregue beitcira

Sonu
Sempur retira bestiaq
paseya herot jalki

Espagnaco erregue mintça

732 *Beha Cite Capitagna* 50. or.
jean de paris hor deya
gu jiten gutuçu houna
orai haren mintçatcera

herôt M.a

733 *Eguriocie erregue jaunaq*
Ez aitcina abantça urhaxaq
Nour Ciradien Cieq
erran ecadacie hounat

Espagnaco erregue m.a

734 *Ni Nuçu Espagnaco erreguia*
Erresouma hounen buruçaguia
eta jiten hain eguia
jean de parisen Salutatcera

herot M.a

735 *Sira pharcamentu eske Nauçu*
Ceren ezpeitçutut eçagutu
Curetaco permis duçu
placer baduçu abantçatu

Sonu
retira herot bestiq paseya
angles erregue m.a

736 *Sira ikhousten dit orai*
eta eçagutcen Maneria
phassiaq idekiren Ceizkula
eta libre içanen guirela

Sonu
paseya
Chancelierra jalki
Chancelierra M.a

737 *Jaunaq erran eçadacie berhala*
Cer da Cieq galthatcen duciena
eta Cer ocasionez gin Cirien
egun palacio hountala

angles M.a erregue

738 *Jean de parisen Mintçatcera*
eta haren ikhoustera
gin gutuçu gu houna
Cien palaciouala

Chancelierra M.a

739 *honki jin Ciradiela*
Erregue ilustriaq
jouaiteco haren aitciniala niq
erakaxiren deitciet bidiaq

Espagnaco erregue M.a

740 *Erran eçaguçu ene adiskidia*
Cer ari den Çure buruçaguia
edo haren aitciniala
Cer guisaz jouaiten ahal guira

741 *Sira erraiten deiçut eguia*
jarririq dagouela
bere baron jaunekila
Combersan direla

Espagnaco erregue M.a

742 *Ene adiskide Maitia Çu*
Nahi Çuntuket othoitu
houra gana behar gutuçu
Çuq othoi guidatu

Chancelierra m.a

743 *Bai jaunaq fitez niq*
guidaturen Çutiet Segurki
hox emacie eneki
Nahi baducie jean de p.s ikhousi

Sonu
paseya hirouraq
Breton Sempur ripus
Victoire herot Borbon D'orl.s
jean de p.s jalki
Chancelierra M.a á geneux (sic)

Chancelierra m.a

744 *Sira Soiçu Noun den erregue*
eta orano beste bat ere
hoyeq jiten dutuçu Çuregana
Bere Visitaren eguitera

Chuti Chancelierra eta jun herrocala
orai eguin reverentcia bedera
oroq eta bi erregueq pôt
jan de parisi eta angles
erregue M.a

745 *Jauna gincouaq Conserva deçaçula*
duçun Compagna ederra
eta atchiki deçaçula
duçun Segnoria ederra

Espagnaco erregue M.a

746 *Jean de paris ene adiskidia*
Berhala esplicatcen dit Comisionia
Behar deikuçu ouhouria
gitez goure palaciouala

747 *han duçu aragouako erregue*
bai portugalekoua ere
espagnaco erreguigna eta infanta
beste Çoumbait barouekila

748 *Dama hayeq igorten guinticien* 51. or.
desir lukiela Çu ikhussi
Behar deikuçu eguin placer hori
eta jin orai goureki

jean de paris

749 *Bai Sira ene adiskidia*
aceptatcen dit Çure khumitia
eta dama hayen boronthatia
eçarriren diçugu Satifatia

750 *Bena behar diçugu heben*
eguin Colacione
guero jouanen gutuçu
ikhoustera Compagna haren

Sonu
orai heroteq ekhar
botilla eta basoua eta orori
edatera eman eta bere lekian
herroca jean de paris M.a

751 *Sira Çure placerra hala bada*
guitian pharti berhala
prest nuçu phartitcera
Çure borondatia den beçala

angles erregue M.a

752 *alo jaunaq bertan*
guitian pharti Mementian
thempora Ceiku jouaiten
eci hassi da berantcen

J.n de paris M.a

753 *Behacitie eni artcherraq*
hox Cieq pharti aitcina
harçacie ehun Cabalier Ciekila
eta gouri onxa libra bidia

Victoire M.a

754 *Lehia lehia jaunaq*
orai badugu odria
j.n de parisen laguntcera
oro Çoin bere armekila

Breton

755 *alon jaunaq aitcina*
eta libra goure erregueri bidia
ikhousiko dugu assamblada
eta han heltuco den istoria

Sonu
orai laur artcherraq aitcinian herrokan jar
bestiaq ere herroka
laur artcherraq berhez aitcinian
oro paseya
Sonu
bara frantcesaq Bi erreguiaq paseya
Sonu
Jalki Baron, Caro, Escoua,
grocobide, anglastra, Normandie
aragon roi, port.l roi, infanta
Espagnaco erreguigna, (Sonu)
Sonu
angles erregue, eta espagnaco erregue
jar hayen herrocan
Çoin bere lekhietan eta
junta bi aldetariq erdiala
jean de parisi pôt eguin
oroq angles erregueq eta Esp.co
erregueq ez infanta M.a

756 *ôi jean de paris ene adiskidia*
ala Çu (sic) triompha handian
ekharri duçu Compagna erreblia (sic)
gu oro ikharatu beikira

Jean de paris

757 *Madama erraiten deitçut eguia*
oi ene Charmagarria
horiq oro Çure amourecatiq
ekharri dutudala

758 *hasten nuçu arren madama*
esplicatcen ene deseigna
gin niçala Çuri ofritcera
Bethicotz ene Cerbutchu houna

759 *Çuq Noula behar beituçu*
anglaterraco erreguereki Combatitu
ene tropaq ukhenen tuçu
placer beituçu recevitu

infantaq erri eguin

760 *Çoin bere lantçaq eskietan*
Nour bere ezpataq Sayhexetan
hayeq dutuçula madama prest
hasteco batallan

761 *Ni jin nuçu horiekila*
horien Çuri ofritcera
Soguin içeçu Madama
eztenez hori present ederra

infanta M.a

762 *Jauna anitz ouhourereki*
ecarten naiçu Segurki
deja ene bihotça Çureki duçu
bere khorpitçareki

763 *ôi Charmagarria Cira*
eta manera propia
oroz Complitia eta
Nounda Çoure paria

764 *Çuq erran discousaq* 52. or.
eztit hambat Comprenitcen
Bena juan gabe arren
deiztaçu Compreni eraciren

765 *gente hounaq ikhousten ducie*
eztenez hori present ederra
gincouaq eman diçola
berari desiratcen diena

766 *gente hounaq orai hox*
guitian jar mahayan
berhala bazcal guitian
oro algarrekilan

angles erregue errabiaturiq beçala
arras khechu Mintça

767 *Jean de paris trufa horiq*
behar Çaitçu jalki hebe
Nahi bacirie Bazcal Citie
Ni ja ez niz gosse batere

khanaz joitiareki bere barouaq

768 *alon jaunaq hox*
guitian pharti hebentiq
jean de paris debru hori
bego bere trufeki

orai Mahaya planta bere 9 Caidereki

Sonu

orai anglastra normandia eta

angles erregue retira angles

erregue kheçhu jean de parisi

juaitian khanaz eskeniz

Bestiaq oro herroca jean de p.s

infantaren khantin eta oro paseya

orai Mahayan jar Espag.co

erregue Mahaipurian j.n de p.s eta

inf.a, port.l eta Erreg.na, Ch.ra eta

ar.n, Borbon eta d'orl.s

Bestiaq oro retira Sataneria jalki

aragouaco erregue m.a

769 *Jean de paris ene adiskidia*

erran eçadaçu eguia

propi Çaicia goure infanta

edo Çoure goustouco liçatia

jean de paris

770 *Sira hain eguia etcikit*

Cer erran propi dela baici

eztit ouste badin deus menxiq

Chevalier Valent (sic) bat beciq

Espagnaco erregue erriz minça

771 *Çuq Veritableki badakiçu*

emazter Noula behar den mintçatu

Bena ni orano nahi nuçu

Çureki arraçoindatu

772 *Jean deparis berhala*

erran eçaguçu eguia

esplicaturen deikucia

Çoure arrazouen Centcia

Jean de paris

773 *Sira galthatcen ahal duçu*
Cer ere placer baituçu
Niq erran arrazouaq oro
houn tiçut esplicatceco

Espagnaco erregue

774 *Egun batez giten Cinien algarreki*
Ene Suhi gueyareki
euri handi bat giniq Celutiq
harq hatceman Çuntien ederki

775 *Eta erran Ceneron ordian*
estonatcen Cinela hartaz
ekharri gabez etcheriq Soignian
hori Niq ecin Comprenitcen benian

776 *Eci etcheriq ihourq Souignian*
Etcitiçu erabilten bizcarrian
erran eçdaçu instantian
horreq Cer Significatcen dian

Jean de paris

777 *Sira hori dificil duçu*
eta Comprenitceco gaitz duçu
bena Çuq placer baduçu
Niq Nahi deitçut esplikatu

778 *Sira niq ene genteki*
Baguiniçun manto houniq goureki
hayez inguraturiq borthizki
defendatu guntuçun euriari

779 *dembora houndu Cenian*
eçarri guintiçun balustrian
Sira arren hori duçula
Niq Çure Suhiari erran arrazoua

Espagnaco erregue

780 *Jçaten ahal deya guiçoniq*
arraçoua hobeki erran dioeniq
ez hobeki imposible da
ezta ez hori erhokeria

Portugal roi parlé

781 *Sira eztuçu ez hori erhoua* 53. or.
Çure Suhi gueyaq erran beçala
bena hori Çuçun abilla
Ceren Cien bereki Mantoua

Espagnaco erregue

782 *galthatcen deitçut haboro*
beste kestione bat Cuq hari errana orano
Çubi houniq Ceren etcien ebilten
uhaitcen igaraiteco

Jean de p.s

783 *Sira erran nahi deiçut gaiçabat*
eztiçu horreq esplicatione handi bat
Eci ukhen balu gentia onxa Montaturiq
etcioçun helturen halaco Maleurriq

784 *guq baguiniçun Çamari houniq*
eta ez heltu Maleurriq
hartacoz erran nioçun niq
Ceren etcien ekharri Çubi houniq

portugal M.a

785 *ôi Cer arraçonamentia*
hori da eguia Veritablia
ekharri ukhen balu Çamari fierriq
Etceyon helturen halaco maleurriq

Espagnaco erregue m.a

786 *Monseigneur othoitcen Çutut*
Esplica içadaçu hirour garrena
heltu guirenez gueroz hainbestetara
eguin eçadaçu placerra

787 *Erran ukhen beitçunian*
Çure aita içan Cela espagnan
khana landare bat ikhousi Ciela han
orai hogoi ourtheren ingurian

788 *Eta jiten Cinela paseyura*
khana haren ikhoustera
handitu denez jakitera
edo Norbaiteq juan dienez berekila

Jean de paris

789 *Erregue anglaterrakouaren*
eniz batere estonatcen
ezpeitcien arrazou hori enthelegatcen
Ceren eta dificil beitcen

790 *Bena propos giten den guero*
prest nuçu horren Esplicatceco
beha Citie arren oro
Noula den jakiteco

791 *Badiçu hamaçortci edo hogoi ourthe*
Ene aita Cena içan Cela heben
houra Çuçun frantciaco erreguia
eta Ni nuçu haren Seme

792 *houra gin Çuçun houna*
Çure arraçoignen Sustengatcera
eta hebenco populia
eçarri Ceiçun Manupiala

793 *Nahi baceitcien ideki khorua*
eta assiejatu erreguigna
etciradia orhit Sira
hareq libratu Çuntiela

794 *Etciradia othian orhitcen*
Noula hitçartu Çunien
hareq Semia eta Çuq alaba
Çuntiela espousa eraciren

795 *arren ni nuçu haren Semia*
eta hau aitaq ikhousi kana
orai ni jiten niz hounen Cherka
ikhousten beitut propi dela

796 *Eta eguiteco hortan bada*
erran nahi dieniq hala edo houla
gin bite goure aitciniala
Mintçaturen guira algarrekila

797 *abiloua ene Chancelierra*
ekhar eçadaq ene khorua
orai artio gorderiq beinian
Nahi diat erakaxi badudala

Sonu
orai juan Ch.rra
jean de parisi Chapela
burutiq harturiq eta bestiaq
buriaq Mahai ganera
aurthiquiriq escu bedera
Copetaren pian eta
Chancelierra jin khoroua
eskian Jean de parisi
burian eçar eta jar bere
lekhian oroq buriaq eraiki
Espagnaco erregue j.n de
parisen aitcinian belharika eta M.a

798 *ôi Erregue puissantciaz bethia*
galthatcen deiçut pharkamentia
Çure arrazougnaq (sic) oro tuçu
eguia Veritabliaq

799 *Eçagutcen tiçugu goure faltaq*
oben handi eguin deiçugula
bena prest gutuçu berhala
Çuq placer duçun punicioniala

800 *hori beita goure alhaba* **54. or.**
ikhousten diçugu incapable dela
Espousatceco Çurekila
hartaz diçugu orai pena

801 *Bena espousatcen bacira*
Çu goure alabarekila
Niq emaiten deiçut berhala
ene erresoumaren possesionia

jean de paris

802 *Sira anitz naiçu obligatçen*
Niq ere anitz Çu remestiatcen
jaiki Cite othoi berhala eta
remeti Cite Caiderala

har besotiq eta eraiki
jar Çoin bere lekhietan
jan de paris M.a

803 *Enthelegatu ducia*
Çuq Madama
Çoure aita jaunaq
orai erran diena

infanta M.a

804 *Bai Sira Segur niq*
onxa enthelegatu dit
aski Clarki balima
eguin tiçu khuntiq

Jean de paris

805 *othian ene andere maitia*
Çuri duçu haitatcia
Nahiago bacira
anglaterraco erreguerekila

infanta M.a

806 *ôi Monarka ilustria*
Nahi dit Çure alderdia
ene aitaq eta amaq
lehen promes hartia

807 *houra Çuçun lehen donacionia*
ene aita ameq eguina
eta niq nahi dut perferatu houra
Çutan faltariq ezpada

808 *hainbeste nunduçun agradatu*
ikhussi (sic) nienian Çure Suita
Çoure barouriq mendrena
uduri Ceitan ene aski Cela

Jean de paris

809 *Madama eztuçu behar mendrena*
bena behar duçu Valentena
alo jaunaq berhala
Ciauriste haita dadin houna

infanta M.a

810 *Sira haitian Niçanaz gagnen*
eguinen duçu placer duçuna
bena niq dit borondatia
ene aitaq hitz eman Cien beçala

811 *Ene aitaren borondatia*
orai azkar duçu eNiarekila
eta çuq aldiz Sira
eguinen duçu placer duçuna

Jean de paris

812 *juratcen deiçut ene fedia*
atchiq açu Çure aitaren borondatia
Niq ere atchikiren dut eniarena
Espousatu behar diçugu algarrekila

phuntcelaq erri

Espagnaco erregue M.a

813 *hanitz ohore deikuçu eguiten*
goure alaba baduçu espousatcen
orai gutuçu Consolatcen
esperantchan beikira jarten

Espagnaco erreguigna M.a

814 *hanitz placer diçut*
Çuq ukhen deçaçun goure alaba
ôi anglaterraco erregueq
behar diçu Mous gaistoua

815 *ohart etchiki ukhen bagunu*
Cure aitaren tratien
desohoreriq etciçun ukhenen
anglaterraco erregueq heben

infanta M.a

816 *ama eztiçu desouhoureriq*
gaiça enthelegaraciriq
oro bat Segurki eniçun
harturen gogotiq

Jean de paris

817 *Entelegaraciren diot niq* 55. or.
eztiela içan behar khechaturiq
hau eta ni guinela ezcontceco
aspaldian hitz harturiq

portugal erregue

818 *ôi frantciaco erreguia*
eta goure adiskidia
pharka içaguçu navastarria
ezpeitugu ukhen aski kortesia

aragon erregue

819 *Sira pharka içaguçu*
Espeitçutugu aski ohoratu
hartaz arragret handi bat badiçugu
Bena erregue Cinela berant jakin dugu

J.n de paris

820 *Jaunaq beude eguiteco horiq*
ohore franko badut niq
Bena orai dugun Combersa eguin
anglaterraco erreguerekin

Sonu
jaiki eta oro paseya
guero retira

Satanaq jalki 15

Sonu
anglastra, Normandie
angles erregue jalki eta
paseatcez khechu M.a

821 *Cer debru nahi duq hiq*
erraq frantciaco erreguia
hi jin hiz houna
ene emazte guyaren (sic) atakitcera

822 *aguer hakit fitez*
Debru urgulluxu Charra
hire kinkilleria Char eta
Debrien fantesiarekila

823 *Jakin ukhen banu enia*
hainbeste Combersa igaranen hireki
Bena espousatcen beihiz hi
erhoren hait emazte gueyareki

824 *aigu hounat aguer hadi*
balinbaduq Corageriq
ehiçala Çombait puta Seme
eztiat Sinhexiren niq

825 *Jalki adi jalki bertan*
balinbaduq Corageriq
ehiz orai escapiren ez
aguertcen bahiz bicirig

Sonu
paseya
herôt Chanceler (sic)
jean de paris
jalki eta jean de paris M.a

826 *ôi anglaterraco erreguia*
ez othoi hola Colera
Badiçu thempora anitz ja
enia Cela phuntcela

angles erregue khechu M.a

827 *Certara jin hiz houna*
heure tromperia falxiekila
ene inxulta eracitera
heure espedientciekila

828 *Egun houna jin hiz*
Malecia ororen ithurria
alo ene barouaq berhala
deçogun jauz buria

Normandie M.a

829 *Sira ene avisa duçu*
behar dugula hebentiq phartitu
eta juan anglaterrarat
guihauren erresoumalat

830 *Jkhousten dit inutil dela*
orai heben batallatcia
orobat jean de parisen duçu
Çuq esperantcha Çuniena

831 *âi Sira Sofritcen ducu pena*
eta afrontu handia
bena uduri Citaçu hobe dela
pacentcia hartcia

D'anglastra M.a

832 *othian behar duguia*
guq orai retiratu
jaun horier eguin gabe
trufa edo afrontu

833 *Sira Çure plaça banu*
eninteçu jalki espagnatiq
Noun eniçan mendecatcen
agueriz edo ichiliq

834 *horien trufaq dutuçu* 56. or.
Malecia gaistoz betheriq
hartacoz behar likeçu
kristeria bedera niq emaniq

835 *Bena haregatiq Sira*
Cihautara remetitcen dit
Niq Çure plaça banu
eguin Nitcirieçu feit houniq

herot M.a

836 *ale ahalke gabia*
Cristeria hartcera gutuka desiratcen
Ezpata hounen phuntaz deat
Niq hiri bat emanen

Chancelierra

837 *Bai edo itchindi batez*
hobeki beitu beroturen
bestela burdigna gorri bat
uzkitiq Sarthuren

angles erregue M.a

838 *Ez ez burdignaz ez itchindiz*
eztucie deusere eguinen
emazte gueya juaiten deitacalacoz
hasten nuq frecas eguiten

Sonu
Batalla hirouretan
angleterraco erregue blessa
eta Mintça

839 *Jkharatu da ene khorpitça*
eta galdu hullen Memorioua
ouste nien hilen niela
amenx hatceman ahala

Jean de paris

840 *ôi anglaterraco erreguia*
Bortchaz Nahi Çuniana phuntcela
beraq desiraten baçutu
utçiren deiçut berhala

orai jaki (sic) angles erregue eta M.a

841 *Lotcen baniz Norbaiti*
eguinen dut brecha Segurki
Bena hox hebentiq
Malerous hoyen khantoutiq

guibelerat anglesaq eta M.a

842 *Juan guitian angleterrarat*
eta kita deçagun espagna
jkhousten dut juan dela
orai hebenko mentura

orai anglesaq retira
Jean de paris m.

843 *ah bihotz gabiaq*
Jhessi Cirie jouaiten
gouri batailla emaiteco
etciniena loxatcen

Sonu
paseya
infanta eta prt.l erregue jalki
infanta aitcinian portugal M.a

844 *Jean de paris ene adiskidia*
erran eçadaçu eguia
goure infantaren esposatceco
houn ducia Coragia

845 *Esposa eta onduan*
goberna deçacien francia
libertitcen Cirielariq
amoriorekila

jean de paris

846 *Beha Cite anderia*
orai duçu tenoria
ukhenen ducia Couragia
jiteco eneki frantciara

infanta M.a

847 *Bai Sira Segurki*
giten nuçu alagueraki
Mila bozcarioreki
frantciarat Çureki

Sonu
Jean de pariseq besarka
eta pot oro herroka
guero paseya infantaz eta
jean de parisez bestiaq retira
infanta paseatcez m.a

848 *ôi partidu ohoratia*
Çuq içan behar duçu enekila
Espagnaren ouhouragaillu
juntatcen guira elgarrekila

Sonu 57. or.
paseya eta
jean de p.s m.a

849 *ôi ene Charmagarria*
erraiten deiçut eguia
kitatu behar duçu espagna
Çure aitaren palacioua

infanta M.a

850 *Sira mila gogo hounez eguinen dit*
Niq Çure amorecatiq
deusere ene borondatez eztit
çouri errefusatcekoriq

Jean de p.seq pot eta M.a

851 *Ene phuntcela Maitia behacite*
emanen deiçut Sei Cofre
hayetan anitz Cilhar
ourhe eta linja ere

852 *phaka itçaçu Çoure Cerbitchariq*
eta Satisfa obligationiq
Çoin ere beitira Çoure honki eguiliq
eman itçeçu Çure feira phartiq

853 *Eta orai Charmagarri Cirena*
hox esposatcera berhala
eta badit placer handia
Ceren beiniz Çurekila

854 *Ezteyaq finitu ondouan*
Jouan guitian franciarat
behar duçu burian khorobat
jouaiteco francialat

Sonu

paseya eta retira

Satanaq jalki 16

Sonu

orai Espousatcera jalki

B. S. r. V. h. baron, C. E.

g. Bor., D'orl. C. ar.n roi p.l roi

inf. khoraturiq (sic) jean de p.s

Espagnaco erreguign (sic) espagnaco

erregue eta paseya guero

hayer buruz apheça jalki

apheça M.a has

855 *Jaunaq houna niz*

Cieq igorri beçala

jean de parisen espousatcera

placer baducie berhala

856 *Nahi bacirie Espousatu*

behar ducie belharicatu

eta gincoua othoitu

Cien ezcontcia içan dadin unitu

oro Belharika

857 *Beha Cite jean de paris*

hartcen ducia erraçu berhala

Nahi ducia espousa

infanta presentian dena

Jean de paris

858 *Bai jauna hartcen dit*

ene generositatia gatiq

ene aita Cenaren hitça

egun finitcia gatiq

apheça M.a

859 *Eta Çuq Madama*
erraçu othoi berhala
Çure espos jaunetaco
jean de p.s hartcen ducia

infanta M.a

860 *Bai jauna hartcen dit*
onxa Cerbitchaturen niela esperantcharekin
eta ez Nahi beno lehen Segurki
ene behar ordu handiareki

apheça M.a

861 *duda gabe entçun ducie jaunaq*
jaun andere hoyen bayaq
orai Esposatcen Çutiet
ginco jaunarekin batian

862 *juntatu Cirie jaun anderiaq*
Niq emaiten deitciet beneditcioniaq
Benedica Çitcela Ceruco gincouaq
orai finitu dira Cien promesaq

863 *Cieq ezcontcian gagnen*
instruituriq ahal Cirie
Senhar emazten artian ere
Cer eguin behar den badakicie

864 *haurriq ukheiten baducie*
gincouaren Creinta erakax itcecie
eta unione bake houneki
oro bici Citie

865 *horiq hala heltcen direlariq*
ouste dut Cirien instruituriq
eztut emaiten Cier escolariq
Ceren beitcirie enthelegaturiq

866 *hartacoz hobe dugu* 58. or.
hebetiq retiraturiq
eta eztai houn horieq
onxa gozaturiq

Sonu
oro paseya eta retira

Satan Bera jalki 17

Sonu
jalki B., S., r., V., herot,
Baron d'Es., C., Es., g., Ch.,
duq de B., duq d'or., roi D'ar., roi p.l, inf,
j.n de paris, Erreguigna, apheça eta
roi despagna eta jar
erreguiaq eta erreguignaq eta apheça

jean de p.s M.a

867 *Ene aita Maitia*
eta ama ecinago illustria
Jkhousten ducie egun
niq handi dudala Carguia

868 *Eta juan behar dit frantciara*
Ene erresoumaren gobernatcera
Ceren ene generalekila
aspaldian Campouan beikira

869 *Eta ene ama maitia*
aspaldian arrankuran beita
behar nitcioçu juan edireitera
ene berri hounekila

Espagnaco erregue

870 *Monseigneur ene Seme maitia*
eguiten deikuçu ouhoure handia
Esposatu beituçu goure alaba
othoizten Cutut ezteçaçun kita

871 *Eci houneq Çu maite Çutu*
Eta bere bihotcetiq estekatu
arren orai gomendatcen Çutut
Nahi duçunez Souein hartu

J.n de paris

872 *Sira othoizten Çutut graciaz*
eguiteco horrez Mintça ezkitian
Niq hartu dit Cargutan
ezpada faltariq ber hountan

873 *Niq espousatu dit Cien alaba*
milla placerrekila
eta Nahi dit eraman frantciara
bera Volontari balinbada

infanta M.a

874 *Sira ene espous maitia*
Badakiçu ene borondatia
Çurekila jinen niçala
Cuq placer duçun lekhiala

875 *Eztit Maithatu beste bihotciq*
Mundu hountan Çuria baiciq
Eta orai Çure gatiq
placer duçuna eguinen dit

Jean de p.s

876 *arren behar diçugu phartitu*
adiouaq erran itceçu
Celuco gincouaq placer badu
pariserat juan behar diçugu

orai infantaq besarka aita
eta ama eta Mintça

877 *adio ene aita eta ama Maitia*
orai gu bagouatça
pharadusian helturen guira
oro algarrekila

878 *Eta gagneratico Compagna ororí*
adio erraiten deitciet
Jhour ofenxatu badut
pharcamentu galthatcen deiciet

Espagnaco erreguigna M.a

879 *ôi ene alaba maitia*
orai Çu jouaiten Cira
gincouaq othoi eman deçaçula
placer houniq Çurekila

880 *Jouaiten Cira frantciarat*
Jartceco erreguigna
ezpeitut ouste Secula
haboro Jkhousiren Çutudala

orai pot eguin oroq alabari
eta Minça erreguigna Esp.

881 *adio othian ene alaba*
eta Compagna gucia
gu retiratcen guira
hélas hau da tristecia

Sonu
Espagnolaq oro
retira b. C. E. g.
ar.n port. Erreguigna apheça
erregue horieq retira
frantcesaq paseya 59. or.
jean de paris M.a

882 *Ene Cerbutchari fidelaq*
har itçacie ene avisaq
ene Conseilluz etcherat
phartitu behar ducie bertan

883 *Egon Citie parisen oberjan*
ene amaren aitcinerat ez juan
Ceren ni ikhous ezpanindeça
Changriz beitate akaba

884 *Chancelierra borbon eta d'orleans*
Cieq egon Citie goureki
Jaunaq Cieq aldiz
diligentciareki pharti

Sonu

laur artcherraq eta heróta retira

Ch. b. eta d'orl. inf.

jean de pariseki paseya

D'anglastra Normandie eta

angles erregue jalki angles

erregue M.a

885 *arrasta Cite jean de paris*

horra Cirieya espagnati

Nahi Çutut orai ataki

Madama Çu ere horreki

886 *Etcirie hebentiq igaranen*

Noun ezkiren batallatcen

ene emazte gueyaren eramaitia

ouste duka dudala Sofrituren

Jean de p.s

887 *alo utci guitçaq Jgaraitera*

ezpahiz inochentia

aurkhi beçala bestela

etçaiq faltaren fretatcia

888 *falxu Mithiriaq*

tromperia gaistoz bethiaq

Bidiala jalkiçaliaq

ouhouignaq dutuq guciaq

Normandie m.a

889 *Ezkutuq ez ohoign gu*
bahiz ere hi fanfarrou
hire lagun horiq dutuq arrathoi
Sarri beitciradie Sagu

Borbon m.a

890 *arrathouaq haztentuq garnerretan*
Saguiaq ere hayekilan
Sarri duq jakinen hiq
Combatian hasten guirenian

D'anglastra m.

891 *Batallatu guinenian espagnan*
Cieq etcinien agueri han
ordukouaq ahal banitça atceman
urkha nitçakeq Chefautian

Duq D'orleans

892 *ordukouaq ez içanagatiq*
bagutuq hainbeste Segurki
Madama bazter Cite hortiq
Batalla behar dugu hassi

Sonu
Madama bazter bestiaq
batalla D'anglastraq atceman
Madama angles erregue M.

893 *atceman Cira Madama*
orai ukhanen Çutut balima
erhaiten deiçut Senharra
anglastra etchikaçu Madama

infanta M.a

894 *ôi anglaterraco erreguia*
intentcione gaistoz bethia
Ene Senharrari utçocie bicia
ayei hau Malheur handia

Sonu
Batalla
anglesaq Escapa Madamaq atchiq
anglastra eta anglastraq M.a

895 *ah erregue photheretxia*
eta Çu ere Madama handia
othoi utci neçacie jouaitera
eneçaciela ni arrasta

Jean de paris

896 *Madama bego jouaitera*
ezkutuçu horren Mengua
Merechi likeçu urkhatcia
bena eztukeçu goure ohoria

Sonu 60. or.
anglastra escapa
bestiaq paseya guero retira

Satanaq jalki 18

Sonu
frantciaco erreguigna jalki eta M.a

897 *ala beiniz ni dolorouski*
aspaldian bici tristeki
Seme bakhoitz bat ukhen eta
houra ecin ikhousiz

898 *Jouan Cen ene Seme maitia*
Espagnala partidu bategana
Niq eztakit Noun dagon
ôi hainbeste dembora

Erreg. paseya

899 *Ene phenez eta dolorez*
esplika Ninte orai hayez
bena noula beita dembora jouaiten
Ez niz esplicatcen ene phenez

Sonu
laur artcherraq herot Ch. B. D'orl.
inf. eta j.n de paris jalki ama
besarka jean de pariseq eta pot
jean de paris M.a

900 *ôi ene ama maitia*
gincouaq egun houn deiçula
haur naiçula Çure Semia
Jçaniq anitz lekhutala

frantciaco erreguigna M.a

901 *ôi ene Seme maitia*
hounki jin Ciradiala
aspaldian Çuretaco Nunduçun
ecin haboro arrankura

902 *Bena placer hartceco hobeki*
Behar diçugu juan hebeti
retiratu khamberala
goure phaussu houniala

Sonu
retira oro

Satanaq 19
Sonu
jalki francesaq oro
frantciaco erreguigna M.a

903 *Çu ere Madama;*
Nahi Çutut besarkatu
eta guero dessinatu;
Noun behar duçun phausatu

orai Besarka eta pot
infanta M.a

904 *hanitz ohore dut*
erregue eta erreguigna
Ceren beitut Senhar
Çure Seme jauna

J.n de p.s

905 *Beha Citie jaun anderiaq*
eta Cerbitchari maitiaq
oraico goure placerraq
Merechi lutuke Sonuguiliaq

Duc d'orleans

906 *Sira placer baduçu libertitu*
Sinfonia hebeche duçu
alagrantcia bat behar diçugu
Çuq hala placer baduçu

Sonu
oro paseya eta retira

Satanaq jalki 20

Sonu
herôt Ch. B.n
D'orl. J.n de paris
jalki azken hirouraq jar
Jean de paris parálesian
J.n de paris M.a

907 *Jaunaq erraiten deitciet eguia*
hiltceco loxa bat badudala
Noula beitu dembora
Moundu hountan niçala

Ch. m.

908 *Sira eztuçu behar loxatu*
ez eta ere desconsolatu
Celuco gincouaq placer badu
haren borondatia dela Complitu
909 *Salbaçaliaq placer badu*
Çuq Cer nahi duçu
oroq hil behar diçugu
escapa ezkitakeçu

910 *hiltce houn bat duçun*
gincoua othoi eçaçu
guq ere goure aldeti
othoituren diçugu

Jean de paris

911 *ôi ene Chancelier Maitia* 61. or.
eguin eçaq othoi deligentcia
eguin ahalaren eguitera
orai beita ene behar ordia

912 *adio ene Barou Maitiaq*
Ene Cerbutchari fidelaq
errendatu behar tut khountiaq
eci presatcen nai heriouaq

Belharika oro nigarrez
Jean de p.s M.a

913 *Sol et omnes Creatura*
propter pecatum
hominis perdidum Senpen
parte Sui arum Virtitum (sic)

914 *Ekhia eta arguiçaguia*
Munduco beste gaiça guciaq
galeraci Cen Çazpigarren phartia
guiçonaren Bekhatiaq

915 *Baliçate phuntu hortan*
Esplicatione handiriq
haur naiciela ni heben
herivaz atakiriq

916 *othoitcen Çutiet jaunaq*
ez eguin nigarriq
Behartugu erran adivaq
orai Cieq eta niq

917 *Consola Citaye arren*
eta ukhen Corage
oroq hil behar dugu
dudariq batere gabe

918 *gomendatcen nitçaicie*
jaunaq orano
içan Citien guiçon galant
Mundian Cirieno

919 *orhit Citie orhit*
hiltciaz ardura
ni beno hobeki
othoi bat bedera (sic)

920 *adio duq d'orleans*
Ene Cosi maitia
eta duq de Borbon
ene adiskidia

921 *phartitcen guirade*
orai Seculacoz
Josaphateco Valean
ikhous artenokoz

922 *ôi ama Virgina benedicatia*
othoi lagunt neçaçu
Çure Seme jauna
Mintça eçadaçu

923 *ararteko haregana*
othoi balia Çakitçat
Çure Seme gincouareki
eguin ene bakiaq

924 *ofenxatu beitçutiet*
Saldoua Milletan
Bekhatiaq oro
othoi pharka ditçadan

925 *Mila dolu diçut*
Bekhatu eguinez
etcitela prebali
ene Merechiez

926 *ôi Celuco ginco handia*
Çu Cira ene Creaçalia
ukhaçu nitaz misericordia
eta eman ene Salbamendia

927 *Conserba neçaçu gaistouetariq*
eta eçar neçaçu Salbaturiq
aitaren eta Semiaren eta
Spiritu Saindiaren icenian halabiz

Sonu
orai eror hiliq
Eçar laur Caderetan
eta belharica
duq d'orl.s M.a

928 *adio ene Cosi propia*
othian hil Cireya
hainbeste abilitate eguilia
helas goure faboria

929 *helas bethe Cena orena*
Çoure hiltciarena
ôi ene Cosi maitia
gincouareki Cirela

Duc de Borbon

930 *ôi erregue puisanta*
Çoure demboran içana
helas goure Sokhorri houna
adio adio jouan da

931 *herot orai hiq* 62. or.
gouardia eçaq khorpitça
gu pharti guitian aldiz
erreguigna hoyen Cherka

Sonu
retira herotez bestiaq
herot paseya nigarrez
Jalki laur artcherraq Ch.
B.n D'orl. eta Bi erreguignaq
oro Doliareki eta apheça
ere bai oro belharika
erreguigna Çaharra M.a

932 *ama Virgina Benedikatia*
remestiatu Cirela
ene Semiaren hiltcia othian
ikhousi behar niena

933 *helas ene Seme maitia*
ôi Çu hil Cira
tristecia handi hau
othian behar guniena

infanta M.a

934 *ôi ene Senhar maitia*
ala niq Sorthe tristia
eta bihotcetiq phena handia
Çure hiliq ikhoustia

935 *akabi da ene bihotça oro*
eztit esperantcha bici haboro (sic)
ene espos maitia hiliq
Jkhousten dudan guero

936 *helas ene ginco handia*
eguiçu nitaz misericordia
eman eçadaçu pacentcia
Sofritceco ene doloria

937 *gincouaq eguin baleçat placerra*
Cherkha jin lakidan herioua
Ene Senhar maitiarekila
juan guitian algarrekila

Chan.ra M.a

938 *âh populu ouhouratia*
ala guq hau tristecia handia
hiliq dugu buruçaguia
eguiniq anitz balentria

939 *ikhousi dutucie honen atcioniaq*
orrible Cirela mingarriaq
arren merechi du hounen arimaq
eguin ditçogun Çoin gure othoitçaq

940 *khantaturen dugu cantika*
oroq algarrekila
alon jaun erretora
has içagu toná

apheça M.a

941 *alon jaunaq enekila*
oroq algarrekila
oroq hil behar beitugu
khanta eçacie enekila

Belharico oroq khanta

942 *Celuko ginco handia*
eta Maria Virgina
eguin eçagucie gracia
goure Contsolatcecoua

943 *ala tristura handia*
Erregue baten hiltcia
Cerian elgarrekila
othoi içan guitçela

944 *ainguru beguiralia*
othoi Ciauri berhala
Çuq har açu arima
eta eraman Celiala

945 *Celuco placer handia*
gloria pare gabia
Dugun othoi ginco jauna
Eçar guitçan oro hara

Sonu
orai hila har laur
artcherreq bi Cerbitetan
oro Doliareki nigarrez
eraman ihorstera eta
bidian Deprofondis Canta

Azken pheredikiaren

Eguitera jalki oro

Acteurraq oro herrokan

jalki eta pheredikia has

Le Dernier **63 or.**

Prologue de

Jean de paris

1 *á Compagna ohoratia*
hartu (sic) libertatia
gitez Cien aitcinera
Complimentu Chipi batekila

2 *Laguneq manatu naye Ciegana*
Compagna ororen remestiatcera
Ceren egun jin Cirien houna
pastoral hounen ikhoustera

3 *oroq egun ikhousi ducie*
pastoral bat eguiten hebe
oroq eguin ahala eguin dugu
placer gunuke Content bacinie

4 *Jkhousi ducie anitz gaiça*
egun representatu çaiciela
historia ederra da
noula beita eguiazkoua

5 *Bena nitçaicie gomendatcen*
goure houtxez publicatcen
Etciradie anitz aberatxturen
ez profeitu handiriq ukhenen

6 *Eci goure trageriaren founxa*
gaiz da representatcia ounxa
bena onxa eguin ezpadugu ere
gu beno Caharrago da hutxa

7 *othoizten Çutiet guciaq*
Erran deçaçien Campo horietan
ikhousi duciela pastoral bat
orrible den miracuillu bat

8 *Egun ikhousi ducie feit ederriq*
fidelki Composaturiq
Eztugu hargatiq banitateriq
eztugula eguin hux handiriq

9 *Bena noula beita aisa*
guiçonaren faltala erortia
pharka eçagucie goure inocentcia
Compagna ohoragarria

10 *Eta hau ikhousten dugu*
eguin deikucien ouhouria
arrabanjetaco khumitatcen
Çutiegu dantçara

11 *Eta dugun othoi gincoua*
Eguin deçagun gracia
eçar guitçan pharadussian
han diren ororekilan

12 *Behatu bacirie atencionereki*
grenada erregue ducie ikhousi
Noula Cian assijatu espagna
eta hanko erregue Loxaeraci

13 *hantiq demboraren burian*
Salbajen bi erregue jin Ciren
ikhousi tucien beçala
Contre Espagnolen

14 *Dembora hartan Salbajiq*
erreguiaq baçutien
orai aldiz eztut ouste
erregueriq badien

15 *houraq erhoz gueroz*
erregue gabe Ciren
khiristieki dira batallatcen
franciaco erregueq Bolbora fournitcen

16 *Jkhousten dut Ciriela debejatu*
eta dantçan ari Nahitu
Beste bat eguinen beitugu laster
nahiçutiet hartara khumitatu

17 *Eta orai populu ohoratia*
pharka goure nabastarria
Sonuguiliekin jiten guira
Cieki libertitcera

fin la tragerie
de jean de paris

Le Dernier prologue
En 18 (sic) Vers

Pierre
Ainciondo

6.2. Aldaera, ohar eta bertso osagarriak.

(1)

Lehen pheredikia: lehen sermoi edo predikuaren aurreko hogeita hamaika bertsoak ez dira San Telmoko A izkribu urratuan azaltzen. B izkribuko testua aldizka egokitzen da oinarrizko moduan hartu dugun Drekin, eta agertzen denean hala iragarriko dugu. Beraz, oraingoz, C izkribuko aldaerak emango ditugu, Ekoak ere sartuta, handik aldatua baita.

C izkribuak ez du antzezoharrik ematen pheredikian zehar. *Lehen prologoua. hon. gentiac.* Azken hiru lerroak: *Chahara Eta gastiac/Hounquy gin Ciradiela guiçonac/Chipiac Eta handiac*.

***Chahara:* oker, mugatzailerik gabe edo pluralez behar luke. *gastiac:* leherkari aurrean txistukari albeolarea erabiltzeko joera du Etchebarne, C izkribuaren egileak.**

E: *Jincouac. deisiela.* Azken hiru lerroak: *Chaharac eta gastiac/Hounqui jin siradiela guisonac/tchipiac eta Handiac*.

(2)

Bertso desberdina Cn: *Egun Ciere Erekasteko/Badugu heben misterio/Eta gomendatçen nitçaiçie orano/Beha Çitien onxa oro.*

Cko lehen lerroan, bokal sabaikari erdikoaren aldeko asimilazio okerra nabarmentzen da.

E: Bertso desberdina: *Egun heben sier eracousteco/badugu michterio/Eta gomendatsen nitsaisie/ounxa beha sitien oro.*

(3)

Jnkapableric oro berhala.

E: *oray. sitie. incapableric berhala.* Azken lerroa: *Esplicatuco deisiet sujeta.*

(4)

***aren devitatçen. Egunko. noula. Espaçiradie. Estuçie oray*.**

***egounko:* Ainciondoren D izkribuan zubereraz ez bezalako ahoskera erakusten duten idazmoduak erruz aurkituko ditugu. Amikuzeko hizkera da, behenafarrera eta zubereraren artekoa. Ikus Zuazo, 1989: 609-650.**

***behatu,* zubererazko adieran, "entzun".**

E: ANTZ.: *Marcha*

aren debitatsen. Egunco. noula dateguien.* Hirugarren eta laugarren lerroak: *Espasirie ounxa behatsen/Estusie Coumprenituren.

(5)

Grenadako ereguia. mahain hontara. Sary Espaignakoua.* Azken lerroa: *bestituric deserturbat beçala.

C izkribuko hirugarren lerroan beste emanaldi baterako zuzenketa: *franciaco ereguia.* Erreparatzeko modukoa da antzezlekuaren izendatze desberdina: *mahain. thiatre* (azken hau, *triathe* D68, eta D75 *triatiala* bezala ere emanda, maileguetako metatesien exenplu).

Cko *desertur:* fr. "deserteur".

E5.: *Jinen. ereguia. mahain. sari Espagnacoua.* Azken lerroa: *bestituric dezertur bat bezala.*

(6)

Jcousiren. Eregueren. Espainaiko* (oker) *Eregue. pena. beteric.

C izkribuan leherkari aspiratuak urriagoak dira besteetan baino.

E: *Ikhousico dusié. eregueren aisinian. eregue trichteric. doloretan.*

(7)

Espaignako Ereguec. pena.* Hirugarren lerroa: *Eresoma desobedien diala. diala Coroua.

Dardarkari gogorra C eta B izkribuetan desagertuko da. Dn gordetzen da eta An, antzinagokoa izanik, ere bai.

E: *ereguec. Esplicatsen. Hirugarren lerroa: Eresouma dezobedient diala. galsen diala.*

(8)

Ereguiac. Embasadoria. Espaignako. Barouergana.* Azken lerroa: *Letera favoriskouekila.

letra: **D izkribua besteen desberdin hitz honetan (*letera* jartzen dute). Pastoraletako termino erromanikoen kopuru nabarmena, ematen diren istorioen jatorri inprimatu frantsesen alaba dugu; beraz, honela esplika genitzake Léonek (Hélène, 518-520), bertako esaera jatorren ordezkapenaz esandakoak.**

faborizkouekila: **asoziatibo plurala oker, *letera* bakarra baita.**

E: *ereguiac. embasadoria. barouegana.* Azken lerroa: *Lettera favoriscouequila.*

(9)

Embasadoria. Saboguiako. letera. Ereguec. **Bigarren lerroan zuzendua C izkribuan: *embasadala.***

Hiri izen diferentziaz ikus 53 b.

E: *Jouiten embasadoria. Saboguiaco* (tatxaturik: *eresoumala*). *lettera. ereguec.*

(10)

helthu. Sary. harthu. Letera. Eran Ceren. **Azken lerroa: *araposturic Etcakiela.***

(11)

Ereguez. leterez. honkiten. Sugetaz.

E10: Lehen lerroa: *Eran seren trufatsen sirela eregues. letterez. etsela. hounquitsen sen* (tatxaturik: *aferez*).

(12)

Embasadoria. Eregueri Eraitera. Çian discoursa.

E: Lehen lerroa: *Utsuli sen enbasadoria. Franciara. eregueri eraitera. ensun sian.*

(13)

Eregue. Jcousiren. gentia. Sarçeko. Espaignan.

E: *Franciaco eregue. dusie. Esarten jentia. Sarseco.*

(14)

Espaignala. armada ororeki. Erekary. Azken lerroa: *parkamentiaren galdatçera.* Lerro tartekatua: *grenada Erhoic ... .*

E: *isan sen. armadarequila. Hanco. erakhari.* Azken lerroa: *pharcamentu galthatsera.*

(15)

Jcousiren. Espaignako Ereguigna. Ereguery. Ereguec. Senhararekу.

E: *dusie. ereguigna. minso. eregueri (tatxaturik: -equila). ereguec. Azken lerroa: Esarten senhararequi.*

(16)

beitirateke. plaçençia. Hirugarren lerroa: *Eresoma Eçariric obediançian. aldiz algarekilan.*

plaçençia: fr. "plaisance"; bokalarteko txistukari frikaria, ozen edo ahostuna liteke.

(17)

Ençunen. Jsconçez. Linfanta. Jcountu (oker)*. diella algarekila.*

C izkribuan azaltzen den ahoskeraz ikus pastoral emanaldiaren 1. bertso-oharrak. Bertan zuzendua: *Linfante.*

E15: *dutusie ensunen.* Bigarren lerroa: *Eskounsez aiphatsen. l'infante. Eskountu. diela dere eraiten.*

(18)

haurac Espeiçiren. partitu. desein.

E: *hourac. Espeisien. siradien. desein.*

(19)

Eretiratçen. hanty. net dolorouskj.

E: *ereguia. eretiatsen. han. dolorousqui hilen.*

(20)

Jcousiren. Ereguina. deitoratçen. dolians. borgona. Conxolatçen.

E: *dusie. deithoratsen. dorlean. bourgogna. Ahalas. Consolatsen.*

(21)

Bigarren lerroa: *anglatereko Ereguia. Egoriren Embasadoria.*

Azken lerroa: *Espaignako Linfantaren galdatçera.*

***hastara: hartara* edo beste batzuetan *harçara,* mendebaldeko "atzera edo berriz" adierazteko. C izkribuan (LPh22, LPh27, 133, 227 eta 490 bb.) eta A izkribuan (96 b.) ikusten den bezala, idazkera aldakorraz. Tx. Peillenek adierazi zigunez, *hastara* forma ohizkoa zen antzinan Zuberoan.**

E: *jinen. harsara*. Bigarren lerroa: *Anglateraco ereguia. igorien embasadoria. galthatsera.*

(22)

Lehen lerroa: *Espaignako Ereguiac hastara. Ereguinarekila. diu Linfanta Esconcera*. Azkena: *anglatereko Ereguiarekila*.

Cko *hastara:* ematen du aldatzaileak zuzendu egin duela, *berhala* gainjarria baitago. Izkribu horretan ugari dira zuzenketak.

***diu: diçu* edo *du* idazteko asmotan jarria, seguru aski bigarrena, alokutiboak ez baitira, orokorrean, pheredikietan erabiltzen.**

E20: *ereguiac. ereguignarequila. gogatsen. L'infante escounsera.* Azken lerroa: *anglateraco ereguiequila.*

(23)

***anglatereko Ereguec. diala. urheko oihal* (Dk mailegua jarri, lau izkribuetan "frantsestuena" litzateke hiztegi aldetik).**

***Ereguec:* oker, *Eregue* behar luke. *urheko:* esan bezala, izkribu horretan herskari edo leherkari aurrean txistukari hobikaria azaltzen da, eta batzuetan hori bera ere ez dago (ikus LPh17 b.: *Jsconcez* eta *Jcountu*).**

E: *Anglateraco eregue. deliverasionian. diala. urhesco. jouan.*

(24)

***Jouan*. Azken hiru lerroak: *urhesko oihalen Erostera/hain* (oker) *batu Çian Ereguigna/Bere Corteko guiçounekila*.**

E: *Jouan isan sen. urhesco oyhalen. ereguigna. khorteco guisonequila.*

(25)

Lehen lerroa: ***Ereguinaren Curiousitatia. galdatçen du ereguia. Eya Ceitera. dian.***

hea: **D izkribuan bakarrik agertuko zaigu aspiratuaz.**

E: ***Ereguignaren. galthatsen du ereguia. Eia sertara. dian.***

(26)

Ereguinary Eraiten. Jcoustera. urhesko oihalen.

E: Lehen bi lerroak: ***Anglesac berhala/Ereguignari dero eraiten. erostera urhesco oyhalen.*** **Azken lerroa:** ***Eta ikhoustera pariseren.***

(27)

diala hastara. Jouan. Sariena. Espaignako. Eskontu. diala.

E25: ***diala hantic. sariena. Infantarequi. Eskountu. diala.***

(28)

Ereguigna Suspetatçen. oharçen. Egorten.

oharçen**: beste izkribu batzuetan** ***orhitçen*****, "gogoratzen" esan nahian. Ikus Charlemagne, 99 b. eta Harits. 167 or.**

E: ***ereguigna suspeitatsen. demboraz oharsen. ser.***

(29)

dorlian. borbona. Jouaiten. Eraiten. hartan. anglatereko Ereguia.

E: ***d'orlean. bourbon. Jouaiten. cozia.*** **Azken bi lerroak:** ***Eraitera infanta anglateraco ereguerequi/Espousatsera douela.***

(30)

Eraiten. urhesko oihalen. dela. Espaignako.

(31)

pariz. partisçen. Carocho.

pariz: **honela izkribuan, baina gainjarria, zuzenketa moduan. Bokalarteko ahostuna markatzeko agian. Cko beste bi aldaerotan bertako idazkera bitxia nabarmentzen da.**

(32)

Hemen gehituko ditugu A (San Telmoko) izkribuko azken zati urratuan kontserbatzen ditugun bertsoen aldaerak. Lehen pheredikiaren azkeneko berrogeita hamahiruak dira:

C: ***jcousiren. Jçan de pariz*** **(kopiatze okerra).** ***eregueren.***

A: ***jkhoussiren. jarten bidian. ororequillan*****.**

E: ***dusie. soumbaitequila.*** **Azken lerroa:** ***anglateraco eregueren aisinian.***

(33)

C: bigarren lerroa: ***Englatereko ereguia. Espaignaigla*** **(oker).**

A: ***harçara. espainala.***

(34)

C: ***Jcousten. Sary. Contia. Nor dirien*****.**

A: ***anglastreco contia*****.**

(35)

C35: ***Berharen. Danglastrako Contia. Compaigna*****.**

A4: ***jakhin dieçon. anglastreco. coumpaina*****.**

(36)

C: ***hasy galdatçen. Coumpaina. bruçaguiaren. archelac. Ciren. berat. Çerien*****.**

A: ***archela. ceion. Berac. cerion*****.**

berat: **"berak" esateko. C izkribuak hitz bukaerako "-t" eta "-k" morfemak trukatzen ditu eta ahoskera bitxia adierazten digu idazmodu honek. Izkribu hutsa dirudi: "berek" behar luke, Dn bezala.**

bruçaguiaren: **"burçaguiaren" esateko metatesi bakana, Cn bertan ere.**

Kontuan hartu behar, Lehen Pheredikü honetatik bertatik A izkribuan ***archel*** **bakarra dugula, aditz laguntzaileen arteko diferentziek erakusten duten bezala. Inchauspek "zéyon" (hura/hark-hari) eta "zéyoen" (haiek-hari)**

dakartza (1858, 42). Larrasquetek (1934, 210), bigarrenerako "zéièn-zeén"; adizki hori irakurriko genuke Cko azken lerroan: *Çerien*.

(37)

C: *contia. beria. deitçen.*

A: *contia. parisekilla. deitcen*.

(38)

C: *Suita* (plurala falta du). *algarekila. dira han. Unione*.

A: *algarrequillan. dira han. unione*.

***bere:* erakusle indartu hirugarren graduko hau gehienetan singularrez agertzen da pastoralean.**

A eta C izkribuen antza handia da, D izkribuak testu orraztuago edo biribilago bat aurkezten digu.

(39)

C: *anglesa. Jcousi Çianian. mirakulu. nor othe da*.

A: *miracuillu. anglesa. jkhoussi dienian*.

E: *Susprenitsen. Anglesa.* Azken hiru lerroak: *Ikhousten dianian francesa/Eta galthatsen du berhala/Ser jentetaric dian arasa.*

(40)

C40: *galdatçera. harekila*. Hirugarren lerroa: *Eraiten derelaric nor den.*

A9: *livertate handirequilla. deriolaric.*

Aditz kontuan gorabehera gehien azaltzen duen izkribua C litzateke, Larrasquetek "deó" baitakar (1934, 209) eta Inchauspek "déyo" (1858, 28).

(41)

C: *Bertan. Çian aracoua. Bourges aberax*.

A: *Bertan. cien arrazounamentia. derio Eraiten. Borges aberax*.

Bi izkribuon antza argia da bertso honetan ere.

E30: *abillitatia.* Bigarren lerroa: *bertan prest sian arazoua. bourges aberats*. Izkribu honetako Lehen Pheredikiko azken bertsoa Heguiaphalek berak egina dateke, ez baita beste izkribuetan agertzen:

Anglesac hanitch gaisataic

bethi eguiten seron galtho

bena bestiac arapostiac

emaiten ounxa esinago

(42)

C: ***anglesa. dereyo. Eraiten. bourges.***

A: ***anglesa. bai eta erraiten. borges.***

(43)

C: ***harçara. Eraiten*** **(errepikatua).** ***Çiala. ounxa.***

A: ***harçara. ounsa.***

(44)

C: ***algarekila. bidagian. horic boustatçen.***

A: ***algarrequila. angles horic. Boustatcen.***

(45)

C45: ***beçan Sary. francesec Çitiçien. Eçary. hourac. ungurаturic. Jdoric.***

A14: ***hassi.*** **Hirugarren lerroa:** ***hez ounsa ungurаturic. jçan.***

A izkribuak batzuetan ematen duen iragan bukatua Dk eta Ck saihesten edo kentzen dute.

(46)

C: ***Jçatia. anglatereko Ereguia. Jary Suspretatia.***

A: ***Jçatia. ounsa. erregue. Susprentatia.***

Ck eta Dk Basabürüan ez bezala, ***onxa.***

(47)

C: ***Çaudian. Jdoric. ordin Eraiten. Estuçie Çiekj Ekarten.***

A: ***ceudien. ekharten.*** **Hemen bost bertsolerro dago, azken aldeak ulergaitz dauzkatenak.**

ordin: **mugatzaile singularraren ezabaketa Pettarra ekialdeko azpieuskalkiaren seinale (C izkribua alegia).**

(48)

C: *Jcousyko. anglatereko Eregue. Eris. aracoua. Eran Çerona.*

A: *jkhoussiren. hassiren. cerona.*

(49)

C: *hantj. ...riaiten. harçara. uhaix. Cantiala. hanti. diala.*

A: *hanti. berhala. uhaitz. Cantiala. jgaren.*

C izkribuan bigarren lerro hasiera ulergaitz. Hitz bukaerako txistukarien transkripzioa aldakorra da bertan.

(50)

C50: *uhaitçian. trionfa.* Hirugarren lerroa: *anglatereko Eregue ordian. danatgatçen. gentian.*

A19: *uhaitcian. ordian. Damajatcen. gentian.*

Lespy-k bere hiztegian "banha" dakar: "baigner". *Damajatu*, Ak eta Ck aukeratu hitza, Charl. 165 eta 167 bb.etako "damnatu"ren esanahi antzekoaz, Anglaterreko erregeren kaltea erakusteko hobea liteke; D izkribuak dakarren aldaera da Lespy-renarekin bat letorkeena.

(51)

C: *parisentako. hanizez.*

A: *parisentaco. jgaraiten.* Bigarren hitz horren aldaerak, besteak beste, C-D izkribuen arteko lotura erakutsiko liguke.

(52)

C: *Eraiten. harçaz. Estounatçen. Çubu. Estien Ekarten.* Azken lerroa:*Jgaiteco uhaitçia ororen.*

A: *hartçaz. çubu. ekharten. uhaitcen.*

C izkribuko aldatzaileak edo beste pastoralgileren batek zuzenduz bezala bukatzen du azken lerroa: *ororen.* Hala ere, aurreko izenaren mugatzailea oker ematen du. Bertan ere, dardarkari bigunaren desagerpena aipagarri: *Jgaiteco*.

***Estona:* romanaren edizioek *"Je m'etonne"* dakarte. Biarnesaren bidetik mailegatua.**

(53)

C: *Eregue.* Bigarren lerroa: *hartara Susprenitçen da. beitaric.* Laugarrena: *unguru bat eguiten due.*

A: *harçara. trufatuz. mincatcen*. Azken lerro hasiera ulergaitz eta urratua. Irakur daitekeenez, *unguru bat eguiten du* litzateke, gainean zuzendua hauxe duena: *...artçaz mincatcen da*.

***Susprenitcen:* mailegu biarnesa, Charl. 180. C izkribuan zalantzak dauzkagu *hartara* hitzaren idazkeraz. Idazmodu eta, itxura denez, ahoskamodu desberdinak azaltzen ditu. *due, die*-ren ordez ugariago Cn besteetan baino, garaiko beste testu batzuetan ere azaltzen dena (Othoiçe..., 44 or.).**

(54)

C: *galdatçen. Eya eguitekotara. de Espaignagna* (oker).

A: *ja. eguitera houra. espainala*.

Likido ondoko aspiratua ez dago Cn. Bestalde, zehargaldera marka falta du, agian bokal sudurkariaz ordezkatua. Badirudi *Eya* aspiratu gabea dela egokia zubereraz (Charl. 142 eta Harits. 354 eta 432).

(55)

C55: *harçara. diala Çerbait thempora*.

A24: *harçara. derio. cerbait thempora*.

D izkribuak *harçara* zuberotar jatorra aldatzen du gehienetan.

***haren:* hirugarren graduko erakuslea indartu gabe, ekialdeko eredura.**

(56)

C: *Lanthatu Çiala. Lanthare Cana Erjer* (oker)*. Çienez.*

A: *Lanthatu. Lanthare ejer. eia. cienez*.

Dren aspirazio bikoitza arraro gertatzen da. Cren idazkera narrats eta asimilazioz betea ageri zaigu hemen ere, aldatzailearen ahoskera bitxia erakutsiz (*Erjer*).

Romanean Jean de Parisen adierazpena zera da: bere aitak, ehizera joanda, lazoa jarri ziola *cane,* ahateme bati. Pastoralaren C eta D izkribuetan ordea *lanthare Cana,* "kañabera" ulertzekoa, landatu zuela dio. B izkribuak ordea, 169. bertsoan, iturriarekin antz handiago du.

(57)

C: *baçian Cana. ukaitetara* (oker)*. françiarat Ekartera*.

A: *han. jsseiatu ukheitera. franciarat ekhartera*.

(58)

C: *Ereguiac. Estu. araçounamentia. due*.

A: *aa. erreguiac. enthelegatcen arrazoua. die*.

***erho baten:* genitiboa prolatibo balioaz.**

(59)

C: Lehen lerroa: *Eta harc Çian deliveratçen. Çiala berarekila. harec phatu. haiec*.

A: Lehen lerroa: *eta hartu cien deliveracionia. ciela Berequilla harec. hec. içan Beçalla*.

C izkribuan: *phatu,* frikari bizkarkaria ezabatuta. D izkribuko *harc* eta *hayec,* Ako *harec* eta *hec* dira. Badirudi "haiek, anglesek" irakurri beharko genukeela.

Dn, bertso honetan, zubererazko aditz laguntzailea aldatzen da: *Çuten, Cien* beharrean.

(60)

C60: *aren. Espaignako Eregue. Suitarekila.* Hirugarren lerroa: *Aragoueco Eregue harçara. Berhala*.

A29: *ordian. espainaco. Suitarequilla. harçara. Berhala. portugallecoarequilla*.

Izkribuen aldaerok aztertuta garbi ikusten da elkarren arteko antz handiko bertsioak direla, D da idazkera aldetik Zuberoako mugetan gelditzen dena, baina baita ere berrien eta landuena.

(61)

C: *Conbersatçen. anglatereko ErguEre* (oker)*. hary. beria Contatçen*.

A: *conbersatcen. hetan. harec*.

A izkribuan ugariago dator "hek" erakuslea besteetan baino. Bi formak zubereraz erabiliak (Charl. 210, 224 eta Larrasquet, 1939, 130 orr.).

Cko *hary* errakuntza litzateke, Anglaterrek gortean bildutako guztiei ematen baitie Jeanen berri.

(62)

C: *trionpha. hargaty. Lunetic*.

A: *net triompha handirequi. hargati. Lunetic*.

***Lunetic:* fr. "lunatique", iturritik zuzenean hartua; D izkribuan espainierazko itxuran emana. Bestalde, Dk ablatiboan, zubereraz ez bezala, *-tic* idatziko du.**

(63)

C: *Linfante. Berhala. dianian discoursa. helçen*.

A: *Berhala allagueratcen. discoussa. helcen*.

(64)

C: *galtatçen. harçara. Ereguec anglaterekoua. Eran diçen aren. non*.

A: *harçara. diecen*.

Aditzerako, Inchauspek (79 or.) dat. pl. "dizén" ematen digu, D izkribuak aldatzen (datibo-gabetzen) du.

(65)

C65: *Bourgez aberas. deriet* (oker).

A34: *derie. Bourges aberatx. derit*.

Dk adjektiboa saihesten du, testua sinpletze aldera aditzarekin egiten duen bezala.

(66)

C: *Jean. Embasadoria. hanbateky helçen.* Hirugarren lerroa: *Espaignako Ereguegana galdatçera.*

A: *ordian helcen. allojamentiaren*.

***alojian* galizismoa Etxahunen bertsoetan agertuko zaigu, biarn. "alodje" edo fr. "logis" (Harits. 482, 493 edo Baküs 270). Frantsestuago dirudi pastoralean erabilitakoak, atzizki eta guzti.**

(67)

C: *Espaignako Ereguec. hitçamaiten. Eraiten Embasadoriary. gin*.

A: *allagueraki*.

(68)

C: *Jcousiren. bourbona*. Bigarren lerroa: *giten triate hontara*.

A: *jkhoussiren. Borbona. mahain*.

C izkribuak du erakuslean aldaera bakarra. *triate*-ren kasuan, aspiratuaren tokia aldakorra da izkribuen artean ez ezik, bakoitzean bertan ere. Aipagarria da berriz ere antzezlekuaren izendapen desberdina An: *mahain*.

(69)

C: *Jkaratu. populia*.

A: *ciela han. cen. popullia*.

D izkribuak kopiatze okerra azken hitzean. *Suita,* "segida" edo esp. "séquito" esateko, galizismo oso hedatua. Ikus Harits. 90 or.

(70)

C70: *Jcousiren. harçara. dorlean. helçen bi gueren. harituren*.

A39: *Jkhoussiren. harçara. helcen Biguerren*.

Dren aldakuntzak nabarmen: erreparatu zenbatzaileari, Zuberoaz kanpoko moduan emana.

(71)

C: *guiten. harçaçara. Çhançeliera. harçara archelac. nourc* (oker, ergatiboa soberan).

A: *jiten harçara. chanceliera. harçara archela. nour*.

C izkribuko *harçaçara:* silaba errepikapena izkribu honen idazkeraren beste ezaugarri nabarmen bat litzateke, asimilazioekin batera. A izkribuak dardarkari biguna erakusten du, ohi ez bezala: *chanceliera*. Bertan artxel bakarra dago.

(72)

C: *hen ondouan harçara. haniz. Eregue. houra* (oker, pl. behar du) *lotxatu-ric*.

A: *hen ondouan harçara. hanitz. hetara. Loxaturen*.

(73)

C: *Linfante. Eraiten. Egia* (oker)*. Çaiolala. paradusuty houna.* Azken lerroa: *gouregana hençen delala.*

A: *jfanta. uduritcen. paradussuty. goure jincoua helcen*.

Cren silaba errepikatzeak eta asimilazioak ahoskera desberdina ematen diote bertsoari. Etchebarne edo aldatzaile izanaren hizkera, Barkoxe inguruko nahikoa bitxia da.

(74)

C: *askenian. Linfantary. Eta Eremaiten. dian boukanasa*.

A: *guero. jfantari. eta eramaiten. cien Boucanasa*.

***Caresa:* biarn. "caressa". Larrasquetek (1939, 155) dakarren adiera ez dator bat bertsoarekin: "recevoir". Kunplimendua litzateke.**

(75)

C75: *houra. Espeitu Conturic Eguiten. Compaignac. Lotxatçen. Cen*.

A44: *han. aitcina. ezpeitu counturic eguiten. ordian. nour miracuillu. cen.*

Antzezlekua A izkribuan aipatu gabe dago.

(76)

C: *Espaignako Ereguec. Egorten. gin dakien baraskaritara*.

A: *espainaco. chercariac. berhala. parisegana. Barazcaritara*.

Dren aldaera nabarmenak aditzondoetan: *hartzara, berhala* kendu eta *berriz, bertan* jarri.

(77)

C: *Chançelierac.* Bigarren lerroa: *utçul Eraçiten bertan Embasadoriac. Ekarary Çion baraskaritara. Ereguiac. cherkara.*

A: *Chancelierac.* Bigarren lerroa: *utculeraci Bertan embassadoria. eracarri Barazcaritara. chercara*.

Cn aditzaren datiboa soberan. Ahoskera bitxia (asimilazioa) ematen duen grafia: *Ekarary*. Faktitibo desberdina A izkribuan.

(78)

C: *Jariko. baraskaritan. araçouen Esplikaçionetan.* Hirugarren lerroa: *angalatereko ordian. da Confusionetat*.

A: *jarriren. Barazcaritan. arrazouez*.

C izkribuan dardarkari biguna ezabatu: azpieuskalki horretan besteetan baino orokorrago, eta kontrakzioak alatiboan ohizkoak, Etxahun barkoxtarrak bezala (Harits. 170, 203 eta 613). A izkribuko lerro azkenak ulergaitz urratuengatik.

***arraçoignen*, biarn. "rasoú". Mailegu honen aldaera desberdinak, esate modu desberdinen erakusle. Zuberoako jatorra: "la sifflante est sonore et l'accent sur la dernière syllabe dont le *-n* final du suf. lat. *-one* a chuté" (Charl. 180), An eta Cn bezala alegia.**

(79)

C: *Linfante. Eraiten. Erekariren. françiera*.

A: *jfanta.* Bigarren lerroa: *hartcen du Berequilla. dielaric*.

Hemen bertso bat gehiago agertzen zaigu A izkribuan:

A49 ***ordian da anglaterraco erregue***
mementian Bekhaitzturen
Bai eta jan de pariseki
Bertan bataillan hassiren

(80)

C80: *gaiçac. dutienac. Eguiten. dutian*.

A50: *Soguin eçaçie. gaiçac. gracia dienac.* Azken lerroa: *eguiten dutu nahi dutienac*.

Ergatibo pl. oker Dn.

***gauçac:* diptongoa itxi gabe. D izkribuak zubereraz aparteko edo horren mugako hizkera erakusten du.**

(81)

C: *ouhouratia. atençionia.* Hirugarren lerroa: *oraj nj banoua çamarie...* (ulergaitz). *Erekartera.*

A: ***coumpaina ouhouratia. attencionia*****. Azken bi lerroak:** ***ene lagunac jiten dira/emanen Beitericie Satisfamentia*****.**

C izkribuan hirugarren lerro azkena ulergaitz: ***Çamarietara*** **seguruenik.**

Lehen Pheredikiaren azken honetan, A izkribuak bi bertso gehiago (bigarrena, orrialdearen behekalde ezkerrean, geroago idatzia) ematen ditu:

A LPh52 ***jkhousten dut jiten direla***
Bere Sonu eta Sifoniequilla
arren ni Banoua cambarala
haier Lekhu eguitera

hanti retira barnialat ***84 vers***

A LPh53 ***jinen da guero harçara***
jande parisen moro bat houna
eta harec duque harec
jntertenimentu ederra

Renvoier auchifre de deusieme **(sic).**

Azken bertso honek badu zerbait aipagarri. Allicor mairuaren agerpena litzateke izkribu honetan agertzen den berrikuntza bakarra iturriarekiko. Garbi azaltzen digu pastoralgileak, bestalde, zertarako agertarazten duen pertsonaia hori. Hemen bukatzen da A izkribua (predikuak azken aldean izango baitzituen), pastoralaren azkena, lehen predikuaren hasiera eta azken prediku osoa, urratuengatik falta dituena.

ANTZEZOHARRA:

D izkribuan ***Çaldiz*** **forma bitxia daukagu: "Larrasquet ne porte que "zamari" mais Gèze "záldi". Comme dans "aspaldi" (...) et bien d'autres termes, "zaldi" a conservé "-ld-" sans assourdir l'occlusive" (Charl. 156 or.).**

arribantcha**-rako, Lhandek: "terme de mascarade", eta Larrasquetek: "arrivée des acteurs dans une pastorale" dakarte. Biarn.: "arribade", C izkribuan bezala, atzizkirik gabe. Arribantxa aurrekaldetik egingo zen, ikuslegoaren erdian utzitako pasabidetik aurrera. Garamendik deskribatzen duen iriste ordenarekin konparatuta,** ***apheça*** **azkenekoa izatea da aipatzekoa (Garamendi,**

1990: 74-75 orr.). Bestalde, termino teatralen etimologia aztertzeak, agian, antzezmodua Biarnotik etor zitekeela erakutsiko liguke.

Arribantxaren ordena D izkribuaren 2. eta 64. orrialdeetako pertsonai zerrendakoaren berdina da. Satanak mintzatu arren, ez digu Ainciondok haien bertsorik hemen aldatzen.

C: *oray jouan.* Gainjarria: *fain aribada Eguin. grenade gin çamariz Laur Laguneky Eta minça Grenade Roy.* Gainjarria: *baron Cariko* (oker) *Eskuako grocobie*.

Ck ez du arribantxaren zehazpenik ematen. Ak eta Bk ezta aipatu ere. Bestalde, C izkribuan antzezoharrak zuzendu eta gehituta daude, letra gorrixka irakurgaitz batez. Izkribu barneko aldaera horiek, gainean jarriak daude, testu margen, lerro arte edo testu gainetan bertan. Emanaldi bat baino gehiagotan erabilia, zuzenketengatik batzuetan ulergaitz gertatzen den testua da C izkribukoa.

Antzezoharretan, izkribuetako eszena mugimenduen arteko desberdintasunak azalduko ditugu, aldaera zehatzik gabe aipagarri gertatzen denik ez bada, eta egoki uste izan ditugunak osorik kopiatuta. Modu berean, izen nagusien eta ohizko gertatzen diren edo askotan errepikaturiko aldaerak baztertu egin ditugu, behin kasu horietan izkribu bakoitzak erakusten duen joera finkatuta. Esate baterako *Sonu* musika oharraren kasua ikus dezakegu. Dn besterik ez da hemen azaltzen. Izkribu horretan besteetan baino askoz gehiagotan erabiltzen da musika (eszena mugimendu askotan agertzen da), eta badirudi oinarri testua idatzi eta gero, errepetizioneetan pastoralgile-errejentak gainjarria dela, letra berberaz.

E izkribuak, Lehen Pheredikiaren ondoren, berriz ematen du titulua: *Tragedie de Jean de Paris*. Ctik moldatua da, eta berezitasun hauek ditu: antzezohar laburrak bertso artean ematen ditu, ez du soinu oharrik ematen eta bertso bakan batzuk eransten ditu. Izkribu laburrena denez, Eko aldaerak aldizkatu ditugu Dko oinarri testuan, Hegiaphalek zein bertso aparte utzi zituen azaldu gabe; izkribu osoa baita, eta ez mutilatua A eta B moduan. Horretaz gainera, mintza eta antzezoharrak saihestuko ditugu, Drekiko aldaerarik ez badago.

ANTZ.: *Grenada jin samaris 4 lagunequi*.

(1)

Hemendik, D28 bertsora arte, A hortxe hasten baita, C eta E izkribuetako aldaerak soilik: *fanfarou. nahias. Behar dut. Eresoma. Bestala* (oker) *Jouan dut.*

E1: *ereguia. Fanfarou isan. eresouma. bisia.*

Emanaldiaren hasiera bertatik, izkribu honen bitxikeria nabarmenena azaltzen zaigu. */t/* eta */k/* fonemen arteko trukaketa, aurretik aipatutako idazkera (eta ahoskera) desohizkoaren beste ezaugarri bat bezala gertatzen da. Elkarren arteko balio morfematikoen aldaketa emango da beraz, jarraiko adibideotan ikusten den bezala: *gut* 67 b., *Ezkhutut* 84 b., *biçity* 425 eta 763 bb., *orotarac* 190 b., *Berat* 36 b., *Etçakic* 387 b., *anglatererac* 831 b. *baicit* 359 b. Izkribu horretan agertzen den ebakera arraro honen bila eginiko gainbegiratu batean, aipatuez aparteko hogeitabost adibide aurkitu dut. Bertso honetan bertan ikusten den bezala, adizkera alokutiboetan maiz agertuko zaizkigu, batailetan eta erronka saioetan alegia, joera hori orokorra ez bada ere.

Honelakorik ez da izkribuetan normalean aurkitzen, baina 1.3. atalean aipatzen dugun St. Jean Baptiste-n esaterako agertzen da. Saint Julien-en, bestalde, 98 orrialdeko antzezoharrean hau irakurtzen da: *pharty Jarniritit*. Dena den, kasu bakarra izanik eta bertako testuan dauden errakuntzak ugari direla jakinik, ezin gertaera beretzat jo. Hala ere, "Othoitçe eta cantica espiritualac Çubero herrico" liburutxoan (Pau, 1734), antzerako alternantzia gertatzen da bizpahiru alditan, aditz forma konkretu batzuetan batez ere: *helçakitçat/helçakitçac* 98 or., *behatu citceitçac* 81, *Içan çakitçac ezti* 56, *balia çakintçat* 37, *apheçat/apheçac* 7, *inikitaciac* 52. Liburutxo honek bestalde, antz apur bat azaltzen digu zenbait pastoral izkributako idazkerarekin.

Nola esplika genezake gertaera hau? Itxura guztien arabera aldatzaile edo inprimatzaileek arierazko asimilazio okerrak egingo zituzten; izan ere, ematen diren testuinguruak arretaz aztertuta, gehienetan agertzen da herskari sabaikariaren inguruan horzkaria, eta alderantziz. A. Eguzkitzak esan zigunez, ohizko errakuntza moduan interpreta genezake ahozko hizkuntzan, eta horrela frogatu ahal izan dugu zenbait euskara ikaslerengan. Dena den, Etchebarne edo C izkribua aldatu zuenaren idiolekto bitxi eta nahasiaren beste ezaugarri bat gehiago da, txistukarien errealizazioari, beste era batzuetako asimilazioei eta hitz motel itxura ematen dioten errepikapenei lotuta ageri dena.

(2)

***prauberaçy*. Hirugarren lerroan, *amourekatj* gainjarria. *Ebitaraçy*. Azken lerroa: *deus Eman* (oker) *Espaignaty*.**

E: *Ser. esarlia. nahis. prauverasi. ebiterasi. Deuz enila.*

(3)

***dutut. Espaignako* eta *trufatçen* gainjarriak daude, azpikoa ulertzen ez delarik.**

E: bigarren lerroa: *Ehaié eregue esagutsen. jaraiquitsen. ordenansez trufatsen.*

(4)

Ez dago Cn, ezta En ere.

(5)

C4: *Grenada* mintzo. *dutut* ("dütük" irakurri beharrekoa). *hitçaz. Corouaz.* Azken bi lerroak: *Grecobiaco gobernadoriac/Erayky ditit* ("ditik") *gentiac*.

E4: Grenadek segitzen du, C izkribuan bezala: *trufatsen hitsaz. khorouaz.* Azken bi lerroak: *Grocabiaco Gobernadoriac/eraiqui ditic jentiac.*

(6)

harec. nuc ny Ehaitera. Emastyreky* (oker). *bakoizareky,

(7)

Grenada* mintzo Cn: *Estuc. harin gaignen. tiac chispilturen. debric Espahay.

***Chipilturen:* kiskaliko.**

Mehatxu hizketa bataila aurreetan agertu ohi dena. Bataila osatzera iristen ez den eszena mota da lehenengo hau (Garamendi, 1990: 76), C eta D izkribuetan bakarrik agertuko dena. Bertan pastoralaren iturri den romanean, aipatu besterik egiten ez den Espainiako erregeri tronu kentzea irudikatzen zaigu. Gorri edo gaiztoen presentzia ugari eta aberatsagoa da izkribu berri hauetan, An eta Bn baino.

Honen ondoren, Grenadak jarraitu C izkribuan, baina lau bertso pasata, D12.ean alegia.

(8)

***hire:* destinatibo balioaz zubereraz, ikus Harits. 469, 510 eta 564 orr.**

(9)

Arribantxan ere mintzaoharra zuen Satanek, baina zer esanik ez. Desfilatzean gorriek duten joera baldarraren zantzu izan liteke interbentzio hau.

(10)

***Cavart:* agian, fr. "cave"-tik hartua, "ardanoi" (J. Casenave-ren oharra). Haritschelharrek fr. "couard" proposatzen du: "alfer, bildurti".**

(11)

Espainiako erregeren lotsa ("bildurra" zubereraz), modu figuratuan.

(12)

C7: *grenanada Ereguia.* Bigarren lerroa: *Eregue puisançia* (oker) *betia. Espehiz. Estere.*

Cren errepikatze silabikoak, hitz motel itxuran, berriro ere. Izkribu honetan bestalde, herskari aurreko txistukari albeolarea nagusi, lehen esan dugun bezala. Honetan joera arrunta ez bezalakoa da (Inchauspe 1858, 6).

***ausatu:* Harits. 201, "...un oubli de l'*r* car on dit *ausart*. Il est vrai que *ausat* en béarnais est le participe passé de *ausa:* oser." Biarnes bidea egin du maileguak beraz, iturrian agertzen ez delarik.**

(13)

***mila. dut bortitxago* (oker)*. Espaignoul*.**

(14)

C9: *tiac. debriac. Estut*.

(15)

Segi Grenadak C10ean. Lehen lerroa: *horty penxa Eçac Eya. apoua.* Erreparatu honek ugaritan ez duela maileguetan aspiraturik jartzen. Bestalde, bigarren lerroan bi izkribuok ematen dute kontsonante sudurkaririk gabeko aditz forma: *Noreki dia.*

(16)

hotz. haur.* Azken lerroa: *Jkaratu dut Espayna.

ANTZ.: *Sonu*-rik ez Cn, eta gainontzekoa Dren berdin. Orain arteko guztiak taulatu aurrean, zaldi gainetik esatekoak ziratekeen.

E5: Grenadek segitzen du, Cn bezala: *Hots*. Bigarren lerroa: *sar guitian palasiouala. haou ser. Ikhara duc. gusia.*

ANTZ.: *eraitch samarietaric. triatila. jar.*

(17)

Cko 12.ari dagokio: *non. fripou. Ene. Jkoustera.* Azken lerro bukaeran *Jcoustera* tatxatu eta aldatua: *Eguitera*. Honelako xehetasunek izkribuon ahaidetasun estua egiaztatzen dute.

E: *is fripou acabatia. ene. Ene. soumaiten.*

(18)

Cn: *Jçy. banitçayq hora. hait pohokatia*. Azken bi lerroak: *hiçan beçalako/apho ahalke gabia.*

(19)

Grenadak segitzen du Cn: *diat.* Bigarren lerroa: *Lotxatu hiçala. Ene Lotxaz khaka.* Azken lerroa: *askapi çayala*.

***askapi:* asimilazio bidezko errakuntza.**

D izkribuan ez dagoen beste bertso bat tartekatu Ck; alusio eskatologikoaren errepikapen hutsa, Ainciondok, pastorala "orrazte" aldera edo, saihestu duena:

C15 ***Çer nahy beita den***
urin debria diat Jrailçen
Lotxeriaz arauz Egun
tripa Çeit uratçen

***Jrailçen:* "uxatzen" edo "iraizten". Gèzek "Iraisi" dakar: "éloigner".**

(20)

C16: *guisaz.* Azken hiru lerroa: *aracontratçen bahait/Sacrablu Eçarten hait/Erhoric fj fait*.

***achis:* fr. "hachis", "puxkakin, porrokiña" (J. Casenaveren oharra).**

(21)

Cko 17.a: *due. paseyatçen. dut Çaragoila. fripoua diala*.

***due:* "dute", ikus LPh 53 eta 58 bb. eta oharrak.**

morblu: **fr. "morbleu" ("mort Dieu"). Antzeko biraoak ditugu batailen erronketan batez ere: *Jarniblu, Sacreblu,* etab.**

(22)

hotz. Segobiaco Etchiala. hauze hulein* (oker)*. dut Jngoity.

Cko 18.a da: *hauze:* "hautsi". Afrikatu hobikariaren transkripzioa anarkiko samarra gertatzen da pastoral izkribuetan (Saint Julien, 220 or.: *oro hauxe guciaq*).

C izkribua iturriari darraio "etxea"ren izena ematean. Ikus leku izen desberdin horietaz 54. bertso-oharra.

ANTZ.: *a genous*.

E22: Grenadek, Cn bezala: *Hots. Segobiaco etchiala. Haoutse huillan sait. dut behin edatia.*

ANTZ.: *eretia/Jalqui Espagnaco eregue eta m belharico.*

(23)

Eguiasco. Eresomaco gentia. Ereboltatiac.

C izkribuko *gentia*, aditz sintagmarekiko komunztadurarik ezean, aldatzailearen oker moduan, edo pastoralean noizpait agertzen diren silepsietako bat bezala interpreta genezake (Lafitte, 1987: 465).

E: *eguiasko. esasu. eresoumaco jentia.* Azken lerroa: *noula dudan ereboiltatia.*

(24)

helas. jouan. beidut. Coroua khitaturic. Eresoma.

E: *Helas, noula nisan. jouan. badut. khoroua. eresouma.*

(25)

C21: *Eresoma. Emastia. haur.* Azken lerroa: *nic dut Egun mehatçu* (oker) *handia.*

(26)

ah Enaye nahy. Borchatu . á. Socory. galdatçera.

Borchatu: **sonante ondoko frikaria ematen dute zenbaitetan izkribuek, baina ahoskerak afrikatua beharko zuela ematen du. Hau maileguetan ez ezik (*archel, marchant* etab.), *hanche, horche* indargileetan ere gertatzen da, baina Dn baino, beste izkribu zaharragoetan.**

(27)

Emastiaren anaye da. oh.

Antzezohar gainjarria lehen lerroan: *roy franca* (oker) *Sort.*

ANTZ.: *S.:* soinu edo musikari sarrera emateko ohar laburtua. Izkribu horretan, beste batzuetan ez bezala, oso gutxitan agertuko zaigu. *triste a genous.*

E10: *emastiaren anaie beita. ereguia. Oh eguiako* (oker). *nesasu*.

(28)

Latinezko zatia. Horrelakoak izkribuetan zenbaitetan agertzen dira, gero, hurrengo bertsoan normalean, esanahiaren berri ematen duen itzulpenaz lagunduta.

San Telmoko A izkribuko 1. bertsoa da. Iturriari zuzenago jarraituz hemen hasten da pastorala, izkribu zaharrenen arabera. B izkribua ordea urraturik dago. A izkribuaren hasierako antzezoharra: *Jean de parisen trageria/jalqui franciaco erregue/Bere suitarequi eta/Espaigniaco erregue jin haren/aitciniala sokhorry galtho.*

Horretaz gainera, latinezko aipamen hauetan, besteak beste, A-C-D izkribuen arteko hurbiltasun duda gabekoa antz eman daiteke:

A1: *omnia in mensura et numero/et pondere disposuisti.*

C24: *omnia Jn mesura & numero/& pondere desposuisty.*

E: antzezoharra eta Cn bezalako latinezko zatia.

(29)

A: *coure odriac oro. justo dutuçu. munduco gaiçac oro. justo. doy eguin.*

C: *helçetuçu. non munduko. Justo. beituçu.*

E: *Jaouna soure. aisina helsen tusu. munduco gaisa gusiac. Justo. beitutusu.*

Nabari da hemen Dren bokal biribila alde batera uzteko joera, zubereraz ez bezala alegia.

(30)

A3: *Baçiquit. jauna. justoqui Baici. jçan. merechiegaty.*

C26: *Baçikic. Estuçula. justo baiçic. Jçan. merechiegaty*.

***Syra:* erregerendako tratamendua, iturritik zuzenean hartua; C izkribuan, beste emanaldi baterako edo, *Jauna* gainjarririk duena.**

A eta C oso antzeko gertatzen dira. Badirudi erlazio zuzena dagoela bion artean, eta Ainciondok C izkribuaz osatuko zuela berea. Hala ere, Ak orain ematen du Dk eta Ck kendutako bertso bat:

A4 ***Ene çorthe tristia cucun***

Egun houla eBaqui

Segurqui Beharrian Beininçate

Balin banu Sokhorry

ANTZ.: An bakarrik, *erreguec eçagutcen.*

(31)

Dko mintzaoharra besteenaren desberdin agertzen zaigu: *parle*. Izkribuan zehar ordea, *parlé* idazten du gehienetan Ainciondok, azentu eta guzti.

Dena den, badirudi mintza eta antzezoharretako aditzok ez direla inperatiboak; izan ere, aldatzaileek pertsonaiek egiten dutena kontatu edo "narratu" egiten dutela ematen baitu, emanaldia ondo garatzeko instrukzio modukotzat ere jo genitzakeen arren. Alegia, "on est là devant un type d'assertion à valeur intemporelle" (Oihartzabal, 1990: 269-270). Aipagarria litzateke honi buruz, aditz forma horiekin batera *orai* eta *ordian* aditzondoak agertzea (etsenplurako, ikus 348 eta 349 bb.). Iturri narratiboa moldatzearen arrastoak lirateke horiek eta maizago agertzen dira A eta Bn (izkribu zaharrenetan) C eta Dn baino.

A: Lehen lerroa: *a ene anaie maitia. counta ecaguçu. changri.*

C: *Eta kunaita* gehitzen du lehen lerroan, An agertzen ez dena. *Contha. Changry.*

E: *site.* (ANTZ. bigarren lerroan: *biac jarten*). *isagusu. soure changri.*

(32)

A: *assistencia. coraja caquizcu. çaiçun mallurrez.*

C: *hitçamaiten. bihoz. Jakisku* (oker asimilazioagatik) *aren. Caiskun* (oker) *malurez.*

Dren aldaketa nabarmena aditz formak xinpletzea da.

ANTZ.: An, *orai espaigniaco erreguec/Buria eraiqui.*

Cn, *Espaignako Eregue* (oker) *buria Eraiky.* Jarraian gehitua: *Jaiky Erregue* (dardarkari gogorra hitz honetan askotan irakurtzen da C izkribuko mintza eta antzezoharretan, baina pastoralgile diferente batek beste emanaldi baterako erantsia dirudi).

(33)

A: *pouchanchiaz. coure erremestiatçia. alla hori.*

C: bigarren lerroa: *Eregue pusançiaz betia. Çoure Eremestiatçia.*

(34)

A: *deritadaçun.* Azken lerroa: *ene okasione ororena.*

C: *deitadaçun offria. ukaitia.* Azken lerroa Aren berdin.

Erreparatu aditz laguntzaileari hiru izkribuetan. Eboluzioaren eredu litzateke: A-C-D.

(35)

A9: *espaignati. Mallur.*

C31: *Espaignaty. Eresoma. malur. beteric*.

E13: *isan nusu. eresouma. Malur. ukhenic.*

Aipagarri litzateke *-ti* forma hobestea izen nagusietan ere bai, An eta Cn; Dn ordea leherkariz bukatu ablatiboa orokorki. Ikus: Zuazo, 633. Kasu egin behar bokalarteko dardarkariari, bertan izan baitezakegu A izkribua zaharrena eta Basabüriako hizkeraduna datekeelako seinale bat, grafian gogorra edo bikoitza mantentzen baitu. C eta B izkribuek biguna erabiltzen dute eta Dk gogorra, baina modernoena da, eta fonema honen erabilkeran ultrakorrekzioa egon liteke. Honi buruz Gavel eta Gèze-ren iritziak interesgarriak dira (Zuazorenean ere, 624 eta jarr.).

(36)

A: *eçari. hartan. pretestabat. ditadacie assiejamentubat.*

C: *Eçary. tribubat. hartan* (errepikatua). *pretestat. ditadaçie asiagatce bat*.

E: *dusu. Esari dudalacos* (tatxaturik: *desodrebat*). *Hartan. ditasie asiejatsebat.*

***pretestat:* "pretesta bat" irakurtzekoa, ezpainkari frikaria desagertuz.**

(37)

Bertso hau Ck (letra gainjarriaz) eta gero Dk gehitua, An agertu ez. *dicu. Laster Erhaiteco.*

(38)

A: *içan. noublecia. erhaitera. nadin.*

C: *noubleçiaq* (oker). *Erhaitera. ninçan*.

Aditz laguntzaile aldaketak aipagarri.

***hatçamaitia:* aspiratu gabe agertzen da orokorrean (D96 b. etab.).**

E15: D eta Ckoen lehen bi lerroak harturik, desberdin ematen du:

Grenadaco eregue

bildu disie noublesiac

bai eta eraiqui

berhala armada bat

(39)

A12: *douataçu. jkhoussi. erreguina. harequi. dudana.*

C35: *Eresoma. hareky. tresora*.

(40)

A: *hilabetetaco. aisa. eta hiriaren. aldiz. Segobea.*

C: *hilabetetaco. haura d* (bokal faltaz). asiegatia. *heriareren* (oker). *Segovie*.

E: *haoura ere. dusu asiejatia.* Hirugarren lerroa: *disu heriaren isena. deitsen.*

Dko *herivaren* oker idatzia da, Ainciondok dardarkari gogorra beti ematen baitu. Bokalarteko *-v-*ak bestalde, ez du hemen, gure ustetan, esplikaziorik. Ikus 168 bertso-oharrak.

(41)

A14: *hen deliveracionia. peritcia. erhaitia. a. haur.*

C37: *delivaratçian. pena. Erhaitia. haur.*

En antzezoharrik ez.

ANTZ.: An *erorten da mahagniala. eraiqui.* Cn *Etcheky.*

(42)

A: *etcitiela afligi. eta houla. emaçu. çoure. cite.*

C: *Etçitiala affle... . Jaraiky tristeçia... . Emaçu. Çoure bihotça... . Jaraiky Çite vertutiarj.*

E: *etsitiala aflegi. jaraiqui trichtesiari. Emasu. soure bihotsari. jaraiqui.*

Cko lehen hiru lerro amaierak irakurgaitz.

(43)

A16: *dericut. fedengainen. Letera. jzquiribaturen. ene.* Azken lerroa: *abertitcera dudala igorriren.*

C39: *Juratçun. fediangaignen. letera. Eskiribaturen. Eta Embasadore.* Azken lerroa: *abertitçera Egoriren*.

E18: ez du gutuna transkribatzen eta hurrengo bederatzi bertsoak (D44-53) honakoan biltzen ditu:

Nahi dit isquiribatu

Lettera bat Espagnala

Eta igori mementian

